

Curriculum Desberdinetako Hizkuntza eta Gizarte esparrua

II. Liburukia

BILDUMA: "CURRICULUM-MATERIALAK"

COLECCIÓN "MATERIALES CURRICULARES"

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

67

CURRICULUM DESBERDINETAKO HIZKUNTZA ETA GIZARTE ESPARRUA (II. liburukia)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

Curriculum desberdinetako hizkuntza eta gizarte esparrua. II Liburukia / [egileak, Francisco Luna Arcos ... [et al.]. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003

p. ; cm. — (Bilduma «Curriculum-Materialak» = Colección «Materiales Curriculares» ; 67)
ISBN 84-457-1912-2

1. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza-Euskadi-Programazioa. I. Luna Arcos, Francisco. II. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. III. Bilduma.
373.512.14(460.15)

BILDUMA «CURRICULUM-MATERIALAK»
COLECCIÓN «MATERIALES CURRICULARES»

67. Curriculum desberdinetako hizkuntza eta gizarte esparrua. II. liburukia

Egileak: Francisco Luna Arcos
Arrate Egaña Giménez
María José Lobato Fraile
Alfonso Caño Reyero

Argitaldia: 1.a, 2003ko apirila

Ale-kopurua: 500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Argitaletxea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argitaldiaren
arduraduna: Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ebaluatzeko Erakundea (ISEI-IVEI)
Asturias, 9, 3. - 48015 Bilbao
www.isei.euskalnet.net

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISBN: 84-457-1910-6 (lan osoarena)
84-457-1912-2

Lege Gordailua: BI - 1.031-03

AURKIBIDEA

I. LIBURUKIA

I. Lan proiektuen aurkezpen orokorra	7
1. Curriculum-materialen ezaugarri orokorrak	9
2. Hizkuntza eta Literaturaren eta Gizarte-Zientziak, Geografia eta Historiaren arloak Curriculum Desberdinak Eratzeko Hizkuntzaren eta Gizartearen esparruan	11
3. Esparruko oinarritzko elementuak	13
4. Hainbat alderdi metodologiko	15
5. Esparruaren programazioa	17
6. Proiektuen egitura eta antolamendua	19
7. Esparruko planteamendu linguistikoei buruzko hainbat iritzi	21
8. Gizarte-zientzien irizpideak hizkuntzaren eta gizartearen esparruan	25
9. Ortografia lantzeko orientabideak	27
9.1. Aurkezpena	27
9.2. Hasiera	28
9.3. Ortografiako plan pertsonala	33
9.4. Ikasgelako hiztegia	36
9.5. Metodologia eta ebaluazioa	37
9.6. Hizkuntz ukipenak direla eta kontuan hartzeko zenbait aspektu	45
10. Hizkuntzari buruzko hausnarketa	47
11. Irakurketarako orientabideak	55
11.1. Sarrera	55
11.2. Aisia eta irakurketa	55
11.3. Irakurketa irakaskuntzan	74
II. Lehenengo proiektua: Harremanak hasten	87
1. Sarrera	89
1.1. «Harremanak hasten» proiektuaren aurkezpena	89
1.2. Lehenengo proiektuaren antolaketa	91
1.3. Curriculum-egitura	93

2. Elkar ezagutzen eta harremanak hasten	99
2.1. Eta zu, nor zara...?	99
2.2. Honaino heldu gara...!	106
2.3. Zurekin hobeto egongo nintzateke ados jarriz gero	112
3. Aisialdiari buruzko ikerketa sozialeko proiektua	141
3.1. Aurkezpena	141
3.2. Lanaren plangintza	146
3.3. Informazioaren bilaketa eta tratamendua	162
3.4. Informazioaren komunikazioa	194
4. Idazketa-proiektua	203
4.1. Sarrera: Idazketa-proiektuak	203
4.2. Idazketa-proiektuaren antolamendua: Beldurrezko kontakizunak	206
4.3. I. fasea: Idazketa-proiektuaren prestaketa eta aurkezpena	210
4.4. II. fasea: Hasierako produkzioa	224
4.5. III. fasea: Berariazko ikaskuntza-moduluak	267
4.6. IV. fasea: Hasierako produkzioaren berrikuspena eta idazketa	295

II. LIBURUKIA

I. Curriculum eta irakasleentzako orientabideak	9
Sarrera	11
Curriculum-proposamena	13
Orientabide didaktikoak eta ebaluaziorakoak	21
Lehen atalerako orientabideak: Biografia eta autobiografia	31
Bigarren atalerako orientabideak: Ikerketa historikoa	45
Hirugarren atalerako orientabideak: Amaierako proiektua	57
Eranskina: Familiako istorioak ordenagailuaren bitartez	79
II. Laneko koadernoak	83
Aurkezpena: Zer landuko dugu proiektu honetan?	85
Lehenengo atala: Biografia eta autobiografia	87
Bigarren atala: Ikerketa historikoa	105
Hirugarren atala: Amaierako proiektua	135
III. Dokumentu-txostena	141
1. Lehen atalari dagozkion dokumentuak	143
2. Bigarren atalari dagozkion dokumentuak	171
3. Hirugarren atalari dagozkion dokumentuak	241

III. LIBURUKIA

I. Curriculum eta irakasleentzako orientabideak	9
1. Hitzaurrea	11
2. Proiektuaren irakas-helburuak	15
3. Proiektuaren edukinak	17
4. Ebaluazioarako irizpideak	19
5. Ikas-irakasteko jardueretako kronograma	21

II. Ikaskuntza-jardueren garapenerako orientabideak	23
1. Hasierako jarduerak	25
1.1. Blokea. Ingurunea arakatzen	27
1.2. Blokea. Zer jorratuko dugu proiektu honetan?	35
1.3. Blokea. Nolakoa da bizi naizen herria? Nolakoa da bizi naizen auzoa?	58
1.4. Blokea. Arazoekin bueltaka	64
1.5. Blokea. Ikerlan bat egiteko konpromizoa hartzen dut	79
2. Ingurunerako hurbilketa	93
2.1. Blokea. Atalaren planifikazioa. Oinarrizko edukin batzuk lantzen	94
2.2. Blokea. Ingurunearen eraldaketa ikertzen	127
2.3. Blokea. Arazo bat aukeratu eta aztertu egingo dugu: Etxebizitza	183
2.4. Blokea. Mundua etorkizunetik ikusita: Zientzia-fikzioa	223
3. Azken lan-proiektua: Argazki-nobela	277
3.1. Blokea. Argazki-nobelaren osagai eta ezaugarriak	278
3.2. Blokea. Argazki-nobelagintza	280
3.3. Blokea. Lanaren ebaluazioa	289
III. Eranskinak	291
1. Zientzia fikziozko irakur-liburuak	293
2. Kartografia sendotzeko materiala	317
Bibliografia eta baliabideak	347

I.
CURRICULUMA ETA
IRAKASLEENTZAKO
ORIENTABIDEAK

SARRERA

Curriculum Desberdinak Eratzeko material hauen sarrera orokorrean adierazi bezala, lehen mailarako proposamena osatzen duten hiru proiektuak erlazionatuta daude eta progresio logiko bat izan behar lukete. Hiru proiektu hauen arteko funtsezko desberdintasuna ondokoetan datza funtsean: interes-muina den arazoa, lehentasunez lantzen den testu-mota, irakurtzeko proposatutako literatur generoa, edukien konplexutasun-maila —progresioa kontuan hartuta— eta esparru honetan funtsezko alderdi gisa identifikatutako prozeduren eta jarreraren bereizgarria den errepikapena.

Edonola ere, proiektu bakoitzak egitura eta estilo propioa du. Horrela, baliabide metodologiko, material eta antolamenduzkoei dagokienez, aniztasun handiagoa emango zaio curriculum desberdinak eratzeko programari.

Lehen proiektua (*Harremanak hasten*) ikasleei harrera egiteko neurri gisa pentsatuta zegoen eta, bere abiapuntua zen ideiaren arabera, ikasleak talde desberdinetik etorritakoak zirenez gero beharrezkoa zen ikasle hauek elkar ezagutzea, funtzionamendu eta antolamendurako arau batzuk ezartzea eta lan-konpromiso batzuk nork bere gain hartzea. Gainera, une horretan ikasle bakoitzak bere aurreko hezkuntza-prozesuaz eta bere abiatzeko egoeraz jabetu behar du. Halaber, esparru honetan oinarrizkoak diren eta gainerako proiektuetarako erreferentzia izan behar duten metodologia, antolamendu eta tresna batzuekin ohitzen hasten da ikaslea.

Lehen proiektu honetan bi prozesu didaktiko ezagutzen eta lantzen zituzten: gizarte-izaerako ikerketa eta idazketa-proiektua. Bi prozesu hauek ikasturte osoaren oinarri bihurtzen dira; izan ere, gainerako bi proiektuek oso kontuan hartzen dute kasu bakoitzean ikasi eta erabakitakoa eta, beren antolamenduan, lehen proiektuan definitutako faseak eta tresnak jasotzen dituzte.

Bigarren proiektu hau (*Nor gara?*) idazketa-proiektu bat da funtsean eta, beraz, plangintzari, testualizazioari eta azken berrikuspenari lotutako faseak barne hartzen ditu. Hori dela eta, ikusiko dugun bezala, aipatutako idazketa-proiektuaren hiru faseei nolabait ere lotuta dauden hiru atal ditu.

Proiektu honek, aurrera egiteko hainbat norabide hartzea proposatzen du. Alde bate-tik, ikerketa-esparrua ikasleen ingurune hurbilera, beren familiara irekitzen da eta, horren bitartez, ikasleek oinarrizko alderdiak landuko dituzte, hala nola bizi direneko gizarteak (eboluzio baten emaitza gisa) dauzkan mekanismo konplexuen ulermena («aldaketa», «iraunkortasun», «kausalitate anizkoitza», «enpatia»... kontzeptuak). Bestetik, proiektu honek progresioa bultzatzen du ikerketa-metodoaren aplikazioan eta metodo horri lotutako oinarrizko teknika batzuen garapenean. Eta, hirugarren, hizkuntzaren erabilera eta hizkuntzari buruzko gogoeta hobetzea ahalbidetzen du.

Proposatutako zeregina garatuta dagoen moduan, ikasleek jarraibide batzuen arabera egindako informazio-bilaketa baten bitartez jasotzen dituzten datuekin aldez aurretik aukeratu duten eta nahitaez ezaugarri jakin batzuk izan behar dituen pertsonaia baten biografia lantzen da. Asmoa biografia bat idaztea da, horixe da proposatzen zaien idazketa-

proiektua. Biografia honek errealitatean kokatuta egon beharko du eta, hortaz, pertsonaia hurbila (azken hirurogei edo hirurogeita hamar urteotan bizi izandakoa) izatea eskatuko zaie ikasleei. Horren bidez ikasleek iturrien garrantzia eta eguneroko bizitzaren historia-ren esanahia ezagutu ahal izango dute eta XX. mendean izandako funtsezko gertakizun batzuetara hurbildu ahal izango dira.

Material hauek euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen dira. Lan hauek hartzen duten orri kopurua dela eta, bertsio bakoitza hiru liburukitan banatuta dago. Liburuki bakoitzean curriculum desberdientako lehenengo mailarako proiektu bat garatzen da. Hau horrela, gaztelaniazko bertsioari 63. zenbakia dagokio eta euskarazkoari 67a.

CURRICULUM-PROPOSAMENA

HELBURUAK

1. Iragana ezagutzeko interesa azaltzea —oraina ulertzeko tresna den neurrian— eta ezagutza historikoaren izaera erlatiboa eta lan-prozesu honetan beharrezkoa den zehaztasun edo objektibotasunaz jabetzea.
2. Ahozko mezuak eta mezu idatziak —narrazio, deskribapen eta azalpenezkoak bereziki— ulertzea, beren ezaugarriak komunikazio-egoera desberdinetan ezagutzea eta erabilitako hizkuntza-mekanismoei buruz gogoeta egitea.
3. Ahozko testuak eta testu idatziak —narrazio, deskribapen eta azalpenezkoak bereziki— koherentziaz eta zuzentasunez sortzea eta, horretarako, egoera bakoitzari dagozkion baliabideak segurtasunez eta autonomiaz erabiltzea eta produkzio-mota oro planifikatu, testualizatu eta berrikusteko prozesuaz jabetzea.
4. Ikasleari XX. mendeko funtsezko gertakizun historikoen interpretazio eta sintesi bat egiten lagunduko dion jarrera kritiko bat garatzea.
5. Pertsonen eta gizarteen ibilbide historikoa baldintzatzen duten gertakari politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen artean dauden erlazioak identifikatu eta aztertzea eta gizarte horiek etorkizunerako proiektatzen diren aldaketa-prozesu konplexu eta luze batzuen emaitza direla ikastea.
6. Arazoak ebatzea eta ikerketa historiko txikiak egitea eta, horretarako, kontzeptuzko tresnak, historia ikertzeko oinarrizko teknika eta prozedura bereizgarriak aplikatzea.
7. Lehen eta bigarren mailako iturri desberdinetatik abiatuta (komunikabideak besteak beste) informazioa lortzea, informazio hori lortu nahi den helburuari jarraiki kritikoki tratatzea eta gainerakoei modu ordenatu eta ulergarrian azaltzea.
8. Talde-lanak egitea, eztabaidetan jarrera konstruktibo, kritiko eta tolerantz partehartzea, iritziak eta proposamenak egokiro oinarritzea eta ezadostasunak eta elkarrikeria gizakien eta gizarteko arazoak konpontzeko beharrezkoa den bide gisa baloratzea.

EDUKIAK

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak	Jarrerazko edukiak
<ul style="list-style-type: none"> —Zer da historia? Historiaren baliagarritasuna eta helburuak. —Ezagutza historiko eta sozialerako oinarritzko kontzeptu historikoak: kausalitate anizkoitza, enpatia historikoa, gizarte-fenomenoen elkarrekin menpekotasuna eta osotasuna eta denbora historikoa («kronologia», «aldaketa» eta «jarraitasun» nozioak). —Lehen eta bigarren mailako iturri historikoak. —Historiari lotutako ikerketa-prozesuak. Sintesia lan historikoan. —xx. mendeko transformazio politikoak, ekonomikoak, teknikoak, kulturalak eta sozialak. —xx. mendean izandako gatazka politiko eta sozial handi batzuetarako hurbilketa: Bigarren Mundu Gerra, Gerra Zibila, diktadura eta demokraziaren berrezar-kuntza. —Egunkari baten lehen orrialdearen edo azalaren ezaugarriak. 	<p><i>Problema eta hipotesiak egitea:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> —Hainbat baliabiderek jasotako datu eta informazioetatik abiatuta, gurearen antzeko gizarteetako bizimoduari buruzko galderak egitea. —Gaur egungo historiako gertakari historiko baten (2. Mundu Gerra, Gerra Zibila, diktadura frankista...) eboluzioari buruzko hipotesiak egitea. <p><i>Informazioa bilatu eta tratatzea:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> —Pertsonaia hurbil baten bizitzari buruzko azterketan aplikatutako lehen eta bigarren mailako iturriak bilatu, aukeratu, erregistratu, sailkatu eta aztertzea. —Hizkuntza-gaitasuna garatzeko iturriak erabiltzea: hainbat motatako hiztegiak, irakurketa-liburuak, eskuliburuak... —Klaseko jardueri lotutako testuak (narrazio, deskribapen eta azalpenezkoak bereziki) irakurtzea. —Erabiltako testuetan hainbat teknika aplikatzea: azpimarratua, marjinetan ideiak idaztea, eskemak, taulak, kontzeptuzko mapak, ulermenezko irakurketa... —Informazio eta dokumentazioko iturriak kontsultatzean fitxak eta bestelako sailkapen-sistemak erabiltzea. —Denborazko sekuentziak eta aldaketa-prozesuak interpretatzea eta diagramen, taulen eta ardatz kronologikoen bidez irudikatzea. —Gaur egungo historiako fenomenoren bat aztertzean kontrako informazioa kritikoki erabiltzea. —Gertakari historiko berberei buruzko interpretazio historiografikoak aztertu eta konparatzea eta beren adostasun- eta desadostasun-puntuak bereiztea. —Hainbat komunikabideren bitartez jasotako informazioa aztertzea eta balorazio kritikoa egitea. <p><i>Azalpenezko prozedurak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> —Klasean proposatutako testu-mota desberdinei buruzko ahozko eta idatzizko iruzkina egitea eta, horretarako, testu-alderdiak zein edukiari lotutakoak aztertzea eta beharrezkoa den zuzentasun logiko eta formala kontuan hartzea (sintaxia, hiztegi zehatza, arau grafiko eta ortografikoekiko errespetua, azalpenaren argitasuna...). —Norberaren testuak eta besteak ulertzea: ideia nagusiak eta bigarren mailakoak antzematea eta gaia, egituraren zatiak eta estiloari eta hizkuntzari lotutako oinarritzko baliabideak identifikatzea. 	<p><i>Ezagutzari lotutako baloreak eta jarrerak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> —Komunikazio-trukea bideratzen duten arauak baloratu eta errespetatzea. —Irakurketarekiko interesa eta gustua azaltzea informazio, ikaskuntza eta gozamenerako iturri den neurrian. —Norberaren testu idatzien koherentzia, egokitasuna eta zuzentasuna berrikus-tearen garrantzia baloratzea. —Aukeratutako aldaketa historikoak azaltzean, jardun pertsonalen kausak, testuinguru orokorra, ondorioak eta arrazoiak ezagutzeko eta aurkitzeko interesa azaltzea. —Informazio-iturriak erabili eta interpretatzeko nor bere posibilitateetan konfiantza izatea eta ezagutza-tresna gisa baloratzea. —Zehaztasun eta objektibotasun historikoarekiko sentikortasuna izatea. <p><i>Tolerantzia, enpatia eta elkartasunezko baloreak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> —Gainerakoen iritzi eta lanarekiko errespetua, tolerantzia eta balorazio kritikoa azaltzea. —Elkarrizketa-jarrerak gizarte-arazoak konpontzeko elementu garrantzitsuenetarikotzat hartzea eta intolerantzia, bortizkeria eta inposaketazko jarrerak gaitzestea.

.../...

Kontzeptuzko edukiak	Prozedurazko edukiak	Jarrerazko edukiak
	<p>—Jasotako informaziotik abiatuta, arrazoibideak garatzea.</p> <p>—Aukeratutako pertsonaiaren bizitzako gertakizun pertsonal eta historiko batzuk azaltzean faktoreen arteko erlazioa identifikatzea.</p> <p>—Aukeratutako pertsonaiarengandik eta garaitik abiatuta, aldaketa-prozesuak aztertzean transformazio estrukturalak eta koiunturalak identifikatu eta bereiztea.</p> <p>—Inkesta edo elkarrizketa bidez eta komunikabideetatik eta bestelako iturrietatik lortutako informazioetatik abiatuta, sintesiko lanak eta ikerketa sinpleak egitea.</p> <p>—Gaur egungo gertakari esanguratsuak aztertzea eta, horretarako, aurrekari historikoak eta baldintzatzen dituzten egungo zirkunstantziak ikertzea.</p> <p><i>Produkzioa eta komunikazioa</i></p> <p>—Aldez aurretik gidoi, eskema eta abarren bidez edukiaren plangintza eta antolamendua egin ondoren, testu idatziak sortzea eta, horretarako, eskatutako testuen (narrazio, azalpen eta deskribapenezkoak bereziki) ezaugarri formalei eta estrukturaleri jarraitzea, komunikazio-egoerari egokitzea eta idatzien zuzentasun, koherentzia eta aurkezpenari buruzko araudia errespetatzea.</p> <p>—Proiektu honetan planteatutako lanaren berezko gaietara buruzko eztabaidak, elkarrizketak eta abar egitea, aldez aurretik egin beharreko jarduerak finkatzea (informazio-materialak aukeratu, bilatu eta erabiltzea) eta gizarte- eta komunikazio-arauak errespetatzea (hitz egiteko txanda, argitasuna eta laburtasuna).</p> <p>—Apunteak hartu ondoren, elkarrizketen, eztabaiden eta azalpenen laburpena egitea.</p> <p>—Lantutako testuak berrikustea (zirriborroak, eskemak...).</p> <p>—Gertakari historiko baten aldaketa-prozesuak diagrama, denborazko ardatz, taula kronologiko, desplazamendu-mapa, horma-irudi eta abarren bidez irudikatu eta azaltzea.</p> <p>—Bakarka edo taldeka egindako sintesiko lanak edo ikerketa sinpleak azaltzea.</p> <p>—Ondorioak ahozko eta idatzizko azalpen bidez aurkeztea.</p>	<p>—Arrazoi sozialen eta arraza, hizkuntza, genero eta abarri lotutako arrazoen ondoriozko baztertzea adierazten duten ahozko eta idatzizko hizkuntzaren erabileren aurrean jarrera kritikoa azaltzea.</p> <p>—Talde-lanean, eztabaidetan eta bateratze-lanetan aktiboki parte hartzea.</p>

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1. *Mota desberdineko ahozko testuen eta testu idatzien (narrazio, deskribapen eta azalpenezkoak bereziki) funtsezko ideiak eta helburua ulertzea, edukien laburpena egitea eta hizkuntza-elementuen funtzionamenduari buruz gogoeta egitea.*

Ikasleak ondokoak egiten dituen baloratu nahi da:

- Funtsezko datuak eta osagarriak edo bigarren mailakoak bereizten ditu.
- Testuaren helburua identifikatzen du (informatzea, kontatzea, deskribatzea, azaltzea, argudiatzea...).
- Testuaren zatiak eta hauen garrantzia eta esanahia bereizten ditu.
- Paragrafoz paragrafo aztertzen du, lokailuak eta testuaren egitura kontuan hartuta.
- Hizkuntzaren oinarriko mekanismo jakin batzuk aztertzen ditu ondoko alderdietan:
 - Testua (helburua, erregistroa eta abar adieraztea).
 - Antolamendua (tipologiaren arabera, nola eta zein marka formalen bidez egituratzen den).
 - Morfosintaxia eta lexikoa.
- Laburpen idatziaren kasuan, laburpenak egiteko teknika desberdinak erabiltzen ditu (eskema, azpimarratua...).
- Testu baten esanahiaren egitura grafikoki irudikatzen du hainbat baliabide erabilita (giltzak, organigrama, kontzeptuzko mapa, eskema...).
- Ezagutzen ez dituen hitzen esanahia ezagutzeko teknikak erabiltzen ditu (testuingurua, hitzaren osaera...).
- Landutako testuari buruzko iritzia azaltzen du argudioak eta arrazoiak erabiltuta.
- Ahozko azalpen edo eztabaidaren edukiari zein ezaugarri formalei buruzko iritzi arrazoitua ematen du (erabilitako adierazpen-baliabideak, hizkuntza-zuzentasuna...).

2. *Aldez aurreko plangintza egin ondoren, hainbat motatako testu idatziak (narrazio, deskribapen eta azalpenezkoak bereziki) sortzea, komunikazio-egoerara egokitzea, testu-mota bakoitzaren berezko egitura eta gizarte- eta komunikazio-arauak eta koherentzia, kohesio eta gramatikaltasunari lotutako irizpideak erabiltzea eta, aldez aurretik emandako irizpideetan oinarrituta, produkzioak berrikustea.*

Ikasleak ondokoak egiten dituen baloratu nahi da:

- Komunikazio-egoeraren ezaugarriak ebaluatu eta identifikatzen ditu (igorlea, hartzailea, testuingurua, asmoa, erregistroa...).
- Ideiak bilatu eta antolatzeke hainbat teknikaren bitartez testu idatziaren produkzioa planifikatzen du.

—Testua sortzean ondokoei buruzko irizpideak kontuan hartzen ditu:

- Koherentzia (paragrafoetan egindako antolamendua eta informazioaren progresio logikoa).
- Kohesioa (elementu anaforikoak, loturazkoak, puntuazioa eta kohesio lexikoa).
- Gramatikaltasuna eta ortografia.
- Aurkezteko baldintza formalak (kaligrafia, marjinak, izenburua...).

—Eskatutako generoaren (biografiaren) testu-arauak errespetatu eta kontuan hartzen ditu.

—Aldez aurretik adierazitako irizpideetan oinarrituta, testua berriz irakurri, berrikusi eta zuzendu egiten du.

3. *Gizakiaren bizitzaren alderdi esanguratsu batzuek (eguneroko bizitzaren, bizitzaren baldintza materialen edo antolamendu politikoaren ezaugarriek, azturek eta sinesmenek) XX. mendean izan duten eboluzioa grafikoki antolatu eta irudikatzea eta eboluzio horretan izandako aldaketa- eta jarraitasun-une nagusiak adieraztea.*

Ikasleak ondokoak egiten dituen baloratu nahi da:

—XX. mendeko pertsona baten bizitzako objektu, kontzeptu eta gertakari historikoei data jartzen die eta hainbat alderdiri (ekonomikoak, politikoak, sozialak, kulturalak, eguneroko bizitzarekin zerikusia dutenak...) buruzko ardatz eta friso kronologiko paralelotan antolatu eta irudikatzen ditu.

—Landutako gertakari eta alderdien arteko erlazioak ezartzen ditu eta transformazio estrukturalak eta koiunturalak bereizten ditu.

—Gertakariak denboran kokatzen ditu eta denbora historikoa antolatzeko oinarritzko irizpideekin erlazionatzen ditu (adina, aldiak, mendeak, zikloak, 0... urtearen aurretik eta ondoren...).

—Aldi jakin bateko aldagai historiko batean izandako aldaketa- eta jarraitasun-erritmoak identifikatzen ditu.

4. *Gai berari buruzko testu desberdinetatik jasotako informazioak integratzea aurkitutako informazio eta ikuspuntuak zein ikuspuntu propioa islatuko dituen sintesiko testu bat lantzeko.*

Ikasleak ondokoak egiten dituen baloratu nahi da:

—Landutako edo aukeratutako testu bakoitzaren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak laburtzen ditu teknika desberdinak erabilita.

—Irakurgaiaren edukiari buruzko galderak egiten ditu, irakurketaren aurretik (izenburutik eta lehen esaldietatik abiatuta), irakurketan (zatiak erlazionatzeko eta hipotesiak aurreratzeko) eta irakurketaren ondoren (testua laburtzeko) hain zuzen ere.

—Ezagutzen ez dituen hitzen esanahia ulertzeko hainbat prozedura erabiltzen ditu (horien artean, testuingurua eta hitzen egiturari eta osaerari buruz dituen ezagutzak).

—Informazio nagusiak biltzen dituen sintesiko testu bat egiten du.

5. *xx. mendeko gertakari edo gatazka garrantzitsu baten (Gerra Zibila, diktadura frankista, 2. Mundu Gerra...) oinarritzko ezaugarriak deskribatzea, arrazoiak eta aurrekariak bilatzea eta, horretarako, protagonistak identifikatzea, ardatz kronologikoak eta mapak landu eta interpretatzea, gertakariak egungo gizartean duen eragina baloratzea eta eguneroko kasuren batetik abiatuta (gizarte-ohiturak, egoera politikoak, kultur gertakariak...) deskribatu edo azaltzea.*

Ikasleak ondokoak egiten dituen baloratu nahi da:

- xx. mendeko gertakizun esanguratsuren bateko gertakari historiko nagusiak friso kronologikoetan identifikatu eta kokatzen ditu.
- Gertakarien arteko erlazioak ezartzen ditu eta izandako transformazioen bat deskribatzen du (sozialak, ekonomikoak, politikoak, kulturalak, eguneroko bizitzari lotutakoak...).
- xx. mendeko gertakari edo aldaketa-prozesu baten arrazoiak bilatzen ditu, protagonistak identifikatzen ditu eta aurrekariak aztertzen ditu.
- Gertakari historiko hauetako batzuek egungo gizartean duten eragina baloratzen du.
- xx. mendeko errealitate aldakorrak, izan diren gatazka eta tentsioez eta pertsonen eta herrien lorpen eta aurrerapenez jabetzen da.

6. *Ikerketa historikoko lan baten (pertsonea garaikide baten bizitza) oinarritzko faseak planifikatzea eta, horretarako, ereduak, gidoiak edo bestelako laguntzak erabiltzea, iturri egokiak identifikatzea, zuzeneko informazioa lortzeko tresna sinpleak diseinatzea (inkesta, elkarriketa...), informazioa antolatzea, lan idatzi bat egitea eta modu argi eta ordenatu batean komunikatzea.*

Ikasleak ondokoak egiten dituen baloratu nahi da:

- Ikerketa-lan baten prozesua eta faseak ezagutzen ditu.
- Ikerketa garatzeko beharrezkoak diren urratsak antolatzen ditu eta, talde-lanen kasuan, erantzukizunak bere gain hartzen ditu.
- Ikerketaren helbururako iturri egokien aukeraketa eta kontsulta planifikatzen ditu.
- Iturri desberdinak hainbat euskarritan (idatziak, grafikoak, ahozkoak...) erabiltzen ditu.
- Esakera eta entziklopedia desberdinak erabiltzen ditu eta hauen antolamendua eta ezaugarriak ezagutzen ditu.
- Behar duen informazioa non dagoen badaki.
- Proposatutako zereginerako informazio egokia aukeratzen badaki.
- Emaitzak modu erakargarri batean aurkezteko prozesu bat antolatzen du.
- Lanean hizkuntza-arauak, ordena, argitasuna eta aurkezpena errespetatu eta erabiltzen ditu.

7. *Gertakari historiko eta sozial zehatzen azterketatik abiatuta, kontzeptu historiografiko nagusi batzuk (aldaketa eta iraunkortasuna, enpatia historikoa, denbora historikoa, gertakizun historikoen elkarrekiko menpekotasuna, kausalitate anizkoitza) ulertzea.*

Ikasleak ondokoak egiten dituen baloratu nahi da:

- Oinarrizko kontzeptu historikoekin ohitu da eta trebetasun hau proiektuan zehar planteatutako gertakari, arazo edo egoera zehatzen azterketan aplikatzeko gai da eta, hortaz, gertakari historikoen konplexutasuna eta erlazioak baloratzen ditu, azalpen hutsalak gainditzen ditu, gertakizunen jatorriari, aldaketa-prozesuei, pertsonak eta taldeek betetzen duten zereginari eta gertakari hauek orainean eta etorkizunari begira duten proiektioari buruzko gogoeta egiten du. Halaber, aukera egokia da historialariaren zereginaz eta ezagutza historikoaren subjektibotasun/objektibotasunaz duen ulermen-maila ezartzeko.

ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK ETA EBALUAZIORAKOAK

Garatuko den lan-mota kontuan hartuta, ikasleek ez dute testulibururik izango eta, ondorioz, baliokidea izango den zerbait sortu beharko dute —laneko koaderno— proiektu honetan proposatutako alderdi eta gaien ikerketa eta azterketa egiten duten aldi berean.

Koaderno horretan, ikasleak proposatzen zaien lanaz, jarraitu beharreko urrats eta faseez, garatu nahi diren helburuez eta aztertuko diren edukiez jabetzeko beharrezkoa den informazio guztia ematen da. Halaber, proiektua osatzen duten bakarkako nahiz taldekako jarduera guztiak barne hartzen dira.

Koadernoak ikasleen ikaskuntzak autorregulatzeko tresna izan nahi du. J. Jorba-k eta E. Casellas-ek¹ diotenez: «norbanako bakoitzak modu progresibo batean eraikitako ikas-teko sistema pertsonal bat du. Ikaskuntzak etengabe erregulatzeko oinarritzko estrategia didaktiko bat, ikasleei autonomo izaten eta ekintza-eredu pertsonal bat eraikitzen irakastea da», hau da, ikasten ikasten irakastea.

Autore horiek adierazten dutenaren arabera, funtsean ikasten duenak zuzenduko duen erregulazio-jarduera bat nahi bada, lehentasunezko helburu pedagogikotzat ondo-koak hartu beharko dira:

- Lortu nahi diren *helburuen komunikazioa* eta ikasleek helburu horiekin egiten duten irudikapenaren egiaztapena. Beharrezkoa da ikasleak ikasi behar dutenaz eta jarduera jakin batzuk proposatzeko eta modu jakin batean planteatzeko arrazoiez konturatzea. Beharrezkoa da ikasleak espero den produktua eta lortu nahi diren emaitzez jabetzea.
- Ildo honetan, proiektua osatzen duten eta laneko koadernoan antolatzen duten atal-letako bakoitzaren hasieran, proposatzen diren helburuak eta burutu nahi diren zereginak aurkeztu eta argitzen dira. Eskemen bitartez irudikatutako atal hau koadernoaren elementu garrantzitsu bat da eta berariazko denbora bat eskaini beharko zaio. Horrela, ikasleek beti jakingo dute zer ari diren lantzen, aurrekoarekin nolako zerikusia duen eta prozesuaren zein unetan dauden.
- Ikasten duenak *ekintza aurreratzeko eta planifikatzeko zereginak menperatzea*. Ikasle batek zeregin horiek menperatzen baditu, proposatzen zaizkion zereginak burutzean edo ikasitako kontzeptuak eta teoriak aplikatzean arrakasta izateko egin beharreko ekintzak buruz irudikatzeko gai izango da.
- Horretarako, plangintzara eta eman nahi diren urratsak argitzera zuzendutako une eta jarduera asko agertzen dira koadernoan. Zentzu hertsian, proiektuaren lehen atal osoa etorkizuneko ekintzak planifikatzeko eta argitzeko une bat da eta bat dator idazketa-proiektu batean plangintza-fase deitzen denarekin.

¹ JORBA, J. eta CASELLAS, E. (1997): *La regulación y la autorregulación de los aprendizajes. Estrategias y técnicas para la gestión social del aula*. I. liburukia. ICE Unibertsitate Autonomoa eta Síntesis argitaletxea,artzelona.

—Ikasleek irakasleen *ebaluatze*ko irizpide eta tresnak eskuratzea. Beharrezkoa da ikasleek ikasle batek kontzeptua ulertu duen, prozedura jakin bat ezagutzen duen, bere jarrera espero zena den eta abar erabakitzea ahalbidetuko duten arauak eta irizpideak ezagutzea eta bere egitea. Zenbaitetan nekagarria izan daiteke helburuak eta ikasle batek eduki jakin bat ikasi duen ala ez jakiteko erabiltzen ditugun ebaluazio-irizpideak zehaztea baina hala egitea, ikasleentzat lagungarria izateaz gain —irakasleen asmoak eta exigentziak sumatzea ahalbidetzen dien neurrian—, irakaslearentzat ere komenigarria da intuizio-jarduerak saihesteko edo sustatu diren ikaskuntzez kanpoko edukiak ebaluatze.

Asmo horrekin, laneko koadernoan eta laguntza edo informaziorako dokumentuen bitartez, autoebaluazio edo elkar-ebaluazioko jardueretan erabil daitezkeen zuzentzeko jarraibide eta parrilla ugari ematen dira. Gainera, ebaluazio-kontratuak lantzea eta erabiltzea lagungarria izan daiteke zeregin honetan, ikasleek irizpideez duten irudiaren eta irakasleak duenaren artean kontrastatzea errazten baitu. Proposamen hauekin, ikasle batek, irizpide zehatz batzuei jarraiki, bere produkzioa edo bere ikaskidearena aztertu eta irakaslearen proposamenarekin konparatu ahal izango du.

Aurreko guztia kontuan hartuta, beraz, irakaskuntza ikaslearen ideien eboluziora eta, zenbaitetan, kontzeptuzko aldaketa batera eraman behar duen prozesutzat hartzen da. Ondorioz, irakatsi eta ikasteko prozesua ezin da, besterik gabe, erabat berriak edo erabat ezezagunak diren ezagutzen multzo bat transmititzeko prozesutzat hartu. Ikasleek beren ideiak eta argibideak izaten dituzte, aurreko eskola-esperientziaren edo eskolaz kanpokoaren, beren pertzepzioen edo lan-proposamenak ikaslearentzat duen esanahiaren ondorioz sortutakoak hain zuzen ere.

Curriculum Desberdinak Eratzeko materialen aurkezpen orokorrean adierazi dugun bezala, proposamen osoaren oinarri den eredia ikaskuntzaren eredu konstruktibista bat da, irakatsi eta ikasteko prozesuan diziplinaren logika eta ikasten duenarena elkartu nahi dituen. Eredu honek hainbat fase edo une proposatzen ditu. Horrela, hasieran ikuspuntuak eta abiapuntua ikertzen eta lan-helburuak zehazten dira, ondoren kontzeptu edo prozeduren sarrera moduko fase bat dago eta, jarraian, eskuratutako ezagutzaren egituraketa eta sistematizazioari buruzko beste bat. Azken fasean, ikaskuntza berria erabiltzea eta bere baliagarritasuna ezagutzea ahalbidetuko dieten konplexutasun handiago edo txikiagoko egoera erreal zehaztuta ikasitako edukia aplikatzen da.

Azkenik, ikaslearen laneko koadernoaren erabilerari buruzko gauza bat argitu nahi dugu: proposatzen diren jardueretan, asmo garbia izanik ere, lan-proposamena ahalik eta gutxien ixteko ahaleginak egin dira proposamen hau bere ikaskuntza-helburua lortzeko —baina bestelako material edo dokumentuekin— erabili ahal izan dadin. Ildo honetan, koadernoko jarduera asko aipatu besterik ez dira egiten, zehaztu gabe daude irakasle bakoitzak hainbat modutan bete ditzan. Adibidez, beharrezkotzat hartzen dugu ikasleek historiari edo gai hauek lehen landu zituzteneko moduari buruz dituzten iritziak jasotzea. Informazio hau modu askotan jaso daiteke eta, material honetan, inkesta bat egitea proposatzen da. Inkesta hau dokumentu gisa besterik ez dago barne hartuta koadernoan eta, beraz, talderako eta ikaskuntza-beharretarako bidezkoago eta egokiagozat har daitezkeen

bestelako material baten bidez ordezkatu daitezke. Adierazi bezala, halaxe gertatzen da beste kasu askotan.

IKASGELAKO GIZARTE-KUDEAKETA. LAN-TALDEAK

Beste funtsezko alderdi bat, lehen proiektuan bezala ikasleen lankidetzat-taldeetan egindako lanaren ikuspegitik planteatzen den ikasgelako gizarte-kudeaketa da. Hainbat azterlanen arabera, lankidetzan egindako lanak motibazioa bultzatzen du, autoestimua eta elkartasuna sustatzen ditu eta zailtasunik handienak dituzten ikasleei arreta handiagoa eskaintzea ahalbidetzen die irakasleei. Zereginen lankidetzat-antolamendu honen barruan, berdin arteko elkarrekin, elkarrekiko menpekotasunei eta ezagutzak batera eskuratzeari ematen zaio garrantzia. Hala ere, zenbait baldintza bete behar dira; izan ere, talde-lanak ez du, berez, ikasgelako kudeaketa ona bermatzen eta, praktikan jartzeko moduaren arabera, ikaskuntza ere ez da errazten. Komeni da ondoko baldintzak kontuan hartzea:

- a) *talde mugatuak* kopuruari dagokionez (hiru edo lau pertsona gehienez ere) eta heterogeneoak osarari dagokionez. Taldeak askotariko interes, trebetasun, ikasteko estilo eta gaitasunak dituzten bi sexuetako ikasleek osatzen dituzte (baterako lana oztopatzerira iritsi gabe);
- b) *ikasleekiko negoziatioa* taldeak osatzeko. Izan ere, alderdi hau benetan zaila da eta bere menpe geratzen da, neurri handi batean, lanaren arrakasta;
- c) taldearen barruko *lanaren antolamendua* ezin da jarraibiderik gabe egin. Horrela, beharrezkoa da antolamendu-irizpide batzuk ezartzea eta, lehen proiektuan adierazi bezala, ikasleek taldean lan egiteko moduari buruzko gogoeta egitea eta aurrerago jarraitu eta ebaluatuko diren funtzionamendu-arau batzuk proposatzea pentsatu dugu;
- d) *azken produktua*; prozesuan askotan taldean lan egin arren, kasu honetan bakarka egin beharrezkoa da: pertsonaia hurbil baten biografia egitea;
- e) *irakaslearen funtzioak* desberdinak dira sistema *tradizionalaren* aldean: ikasteko egoerak diseinatzen ditu, lan-prozesua eta taldeen osara negoziatzen du, materialak eta informazioa ematen ditu, lan-taldeetan eta klaseko taldean elkartrukea bultzatzen du, taldeetako ahulenen arrakasta bermatzen saiatzen da eta denei ezagutzak eraikitzen laguntzen die.

Alderdi hauen barruan, jarduera-sorta zabala erabiltzeak ikaslearen motibazioa bultzatuko du eta lan egiteko hainbat teknika eta tresnarekin ohitzea ahalbidetuko dio (hauetako batzuk lehen proiektuan azaldu dira).

Planteatutako jarduerak bakarka, talde txikitan eta talde handi batean egiten dira. Gure ustez, emaitzarik onena hiru taldekatze-motak egokiro konbinatuta lortzen da.

Bakarkako jarduerak egitea garrantzitsua izango da ikaskuntza indibidualizatu bat egitea eskatzen duen lan-teknika berri bat sartu edo lan pertsonala egiaztatu nahi denean.

Talde txikitan (lau edo bost pertsonakoak gehienez ere) antolatutako jarduerak egoikiagoak izango dira eztabaida eta ideien arteko kontrastea sustatzeko, zeregin kolekti-


boak egiten ikasteko edo taldeko ikasle guztientzat material nahikorik ez dagoen kasurako.

Lehen proiektuan adierazi bezala, kontuan hartu beharra dago oro har ikasleak ez daudela taldean lan egitera ohituta. Ondorioz, horren mailakako ikaskuntza bat ziurtatu beharko da baina kontu handia izan beharko da ikaslerik aktiboek egoera menperatzeko eta ikaslerik pasiboek aldentzeko aukera utz dezakeen lan desegituratu bat izan ez dadin.


PROIEKTU HONEN ANTOLAMENDUA

Hurrengo orrialdeetako tauletan ikus daitezkeen bezala, proiektu hau ataletan eta jarduera-multzoetan egituratuta dago. Jarduera bakoitzaren barruan lan-tresna bat edo batzuk eskaintzen dira. Hauek ikasleen koadernoan zuzenean barne hartuta egon daitezke edota txostenean barne hartutako dokumentuetan aurki daitezke.

Antolamendua ondoko eskeman irudikatuta dago:




Atalak proiektuan lantzen diren gai handiei dagozkie, zentzu bateratua dute eta lan-sekuentzia bat osatzen dute. Bigarren proiektu honetan ondoko atalak proposatzen dira:



Jarduerak berariazko alderdiak garatzeko berariazko lan-proposamenak dira eta, bertan, hainbat tresna barne hartzen edo adierazten dira.

Aurrekoa kontuan hartuta, atal, jarduera-multzo eta jarduera guztiak zenbaki erromatar batekin eta bi zifrekin zenbakituta daude. Hauxe adierazten dute:



Beraz, 2.4.2 zenbakia duen jarduera bat 2. ataleko 4. multzoko bigarren jarduera izango da.

Txostenean barne hartutako tresnek beren zenbakera dute. Bi zenbaki dituzte: lehenak zein atalerako proposatzen den adierazten du; bigarrena berriz, atal bereko dokumentuen barruko zenbaki korrelatibo bat da, ikasleen laneko koadernoan proposatuta agertzen deneko ordenaren arabera.

Jarraian agertuko diren taulen ondoren, atal bakoitzerako eta jarduera-multzo bakoitzerako berariazko orientabide batzuk aurki daitezke, jardueren zentzu didaktikoari buruzko informazio gehiago eta posibilitateei eta jarduteko prozedurari buruzko azalpen handiagoa nahi izanez gero gomendatzen ditugunak.

CURRICULUM DESBERDINAK ERATZEA II. PROIEKTUA: NOR GARA?

LEHEN ATALA. BIOGRAFIA ETA AUTOBIOGRAFIA: ZER DAKIGUN ETA ZER EGIN BEHAR DUGUN			
Jarduera-multzoa	Zentzua	Jarduerak	Tresnak
1.1. ZER DAKIGU BIOGRAFIAZ ETA AUTOBIOGRAFIAZ?	Lehen atal honetan motibazioa lantzen da. Bertan, testu biografiko eta autobiografikotara hurbilduko gara hainbat jardueraren bitartez: hainbat testuren irakurketa, solasaldia, inkesta, iruzkinak eta abar.	1.1.1. Testuak irakurtzen ditugu. 1.1.2. Hitz egiten dugu. 1.1.3. Ikertzen dugu. 1.1.4. Biografia eta autobiografia bereizten ditugu. 1.1.5. Idatzi beharra dugu. 1.1.6. Biografia eta zinea.	— 1.1 dokumentua: irakurtzeko eta iruzkinak egiteko testuak. — Solasaldi/eztabaida: R. Monteroren testua (1.2 dokumentua) edo datu biografikoen intimitateari buruzko testua (koadernoan). • Galdera-sorta (koadernoan). — 1.3 dokumentua: testuen azterketa • Lan-jarraibideak (koadernoan).
1.2. IRAKUR DEZAGUN	Liburu bat elkarrekin irakurri behar da eta, horretarako, eredu-zko liburu bat eskainiko dugu. Hainbat funtzionamendu-irizpide izan beharko ditugu kontuan klasearen antolamendu, irakurtzeko prozesu, denboralizazio eta abarri dagokionez.	1.2.1. Zertan datza? 1.2.2. Antola gaitzen. 1.2.3. Tresnak.	— 1.4 dokumentua: <i>Angela-ren errauntsak</i> . — 1.5 dokumentua: lan-tresnak eta galdera-sortak.
1.3. ZEIN DIRA GENERO HONEN EZAUGARRIAK?	Narrazioaren ezaugarriak (pertsonaiak, espazioa, denbora...) eta deskribapenarenak (erretatua, espazioa...), guztiak biografiaren generokoak.	1.3.1. Narrazioa eta deskribapena biografietan.	• Informazio-dokumentua (koadernoan).
1.4. IDATZ DEZAGUN	Biografia egiteko pertsonaia aukeratzen da eta biografiaren lehen bertsioa idazten da.	1.4.1. Nire pertsonaia aukeratzen dut. 1.4.2. Lehen bertsioa idazten dut.	• Laneko fitxa (koadernoan). • Berrikuspen-jarraibidea (koadernoan).

BIGARREN ATALA: IKERKETA HISTORIKOA			
Jarduera-multzoa	Zentzua	Jarduerak	Tresnak
2.1. GURE LEHEN IDAZLANA EBALUATZEN DUGU	Lehen idazlana egin eta hizkuntzaren ikuspegitik ebaluatu ondoren, dokumentu historiko gisa aztertea eta informazioa bilatu eta antolatu beharraz jabetzea komeni da.	2.1.1. Azterketarako galdera-sorta.	<ul style="list-style-type: none"> Galdera-sorta eta ondorioen fitxa (koadernoan).
2.2. GURE PERTSONAIARI BURUZKO IKERKETA EGINGO DUGU	<p>Ikasleek ezagutza historikoaren zentzua eta baliagarritasuna aurki dezaten (egungo gertakizunak interpretatzeko eta beren iritziak justifikatzeko) eta historiak datuak interpretatzen dituela eta interpretazio horretan objektibotasuna beti betetzen ez dela onar dezaten lortu nahi da.</p> <p>Ikasleek historian ikertzeko prozedura zein den eta datuak eta dokumentuak izatea nahikoa ez dela eta, beraz, ikertutakoari zentzua emateko datu horiek interpretatu egin behar direla uler dezaten lortu nahi da.</p> <p>Froge balioa ikasiko dute eta aukeratutako pertsonaia hurbilari buruzko ikerketa egiteko prestatuko dituen barneko eta kanpoko kritika bat egingo dute.</p>	<p>2.2.1. Nola egiten da Historia?</p> <p>Atala historiaren azterketari buruz dituzten iritzi eta esperientziei buruzko <i>inkest</i>a batekin hasten da.</p> <p><i>Zertarako balio du historiak?</i></p> <p>2.2.1.a. Iraganean errotutako egungo gertakizuna. Komunikabideetan maiz agertzen den eta arazoaren oinarri historikoa ezagutu gabe ulertu ezin den egungo gertakizun bat aztertu behar da. Adibidez, Irlandako gatazka (lehen zatian irakurri duten eleberria giro honetan kokatzen da).</p> <p>2.2.1.b. Zer egingo nukeen nik egoera horretan? Gertakizun historiko baten ondorioz bizitza aldatuta ikusi duen pertsona baten adibidea: Gerra Zibilaren ondorengo «satorrak».</p> <p><i>Nola ikertzen da Historian?</i></p> <p>2.2.1.c. Aitor Gonzalezen heriotza bitxia</p> <p>Bere helburua, ikasleak «historialariaren ofizioaren» oinarriko trebetasunak eskuratzea da. Horretarako abiapuntua egungo kasu bat (irudikatua) izango da eta, bertan, detektibe baten moduan jokatu beharko dute.</p> <p>Ikasleak froga, iturri edo nabaritasun historiko bat eta bere posibilitate eta mugak zein diren ulertu beharko du. Gainera, hipotesiak egin eta ondorioak atera beharko ditu.</p>	<p>—2.1 dokumentua: <i>inkest</i>a.</p> <p>—2.2 dokumentua: Irlanda-ko gatazka.</p> <ul style="list-style-type: none"> Ondorioen fitxa (koadernoan). <p>—2.3 dokumentua: bizitzaren transformazioa gertakizun historiko baten ondorioz: «satorrak».</p> <ul style="list-style-type: none"> Ondorioen fitxa (koadernoan). <p>—2.4 dokumentua: nola ikertzen da Historian?</p> <ul style="list-style-type: none"> Dokumentu osagarria: polizia-kasuak. Ondorioen fitxa (koadernoan).
	Jarduera honen bidez, beren iritzi pertsonaiari buruz jaso behar duten informazioaren beharretatik abiatuta ikasleek lan-gidoi bat egiten eta antolatzen ikas dezaten eta, aldi berean, informazio-iturrien zentzua eta ezaugarriak ulertzen lortu nahi da.	2.2.2. Ikertzeko geure lan-gidoia egingo dugu.	—2.5 dokumentua: Informazio-iturriak Gizarte Zientzietan.

.../...

Jarduera-multzoa	Zentzua	Jarduerak	Tresnak
	<p>Ikasleak historiak iraganekeo denbora aztertzen duela kontura daitezen eta «denbora historiko» kontzeptua uler dezaten lortu nahi da. Halaber, gertakariak ardatz kronologiko batean kokatzeko teknika eta bere balio metodologikoa ezagutu eta menperatu behar dituzte.</p>	<p>2.2.3. Denbora</p> <p>2.2.3.a. Nondik gatoz? «Genealogia» kontzeptua azaltzen zaie, Euskal Herrian familiak duen irudia barne. Zuhaitz genealogiko bat egiten dute eta zenbait ariketa proposatzen dira.</p> <p>2.2.3.b. Denbora ere neurtzen da. Denboraren neurriak historian izan duen garrantziari buruzko gogoeta egiten da eta denbora neurtzeko hainbat tresna aztertzen dira.</p>	<p>—2.6 dokumentua: Nola egiten da zuhaitz genealogiko bat?</p> <p>—2.7 dokumentua: Abizenen sorrera.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laneko fitxa (koadernoan). <p>—2.8 dokumentua: Denbora ere neurtzen da: egutegia.</p> <p>—2.9 dokumentua: Ardatz edo friso kronologiko bat egitea.</p> <p>—2.10 dokumentua: Nola egin kronologia bat kontakizun batetik abituta?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dokumentu lagungarria: jarduera osagarriak. • Ondorioen fitxa (koadernoan).
	<p>Espazioak gertakari historikoak azaltzen laguntzen dutela jakin behar dute. Asmoa ez da espazioari buruzko azterketa bat (geografikoa) egitea, espazioa gertakari historikoak eta eguneroko bizitzako aldaketak azaltzeko informazio gisa erabiltzea baizik.</p>	<p>2.2.4. Espazioa</p> <p>2.2.4.a. Joan-etorrien mapa.</p>	<p>—2.11 dokumentua: Nola egiten da joan-etorrien mapa bat?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laneko fitxa (koadernoan).
	<p>Ikasleek gehiegizko balioa eman ohi diete alderdi indibiduali eta historia indibidual eta pasadizokora jo ohi dute, historia kolektiboa kontuan hartu gabe. Halaber, eguneroko bizitza, «mundu guztiari gertatzen zaiona», hots, «normala dena» gutxiesteko joera dute. Ulermen historikorako hain garrantzitsuak diren alderdi kolektiboak sustatzeko proposatzen den atal honetan, aldaketak eta iraunkortasunak, belaunaldien arteko aldibereotasuna eta abar landuko dira.</p>	<p>2.2.5. Eguneroko bizitza</p> <p>2.2.5.a. Eguneroko bizitza. «Eguneroko bizitza» kontzeptua lantzen da eta ikerketa-esparruei buruzko iradokizunak ematen dira. Segur aski ezingo dira esparru hauek guztiak garatu eta, beraz, beharrezkoa izango da informazioa partekatzea. Beste zenbait esparruren artean, ondokoak proposatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> —Jaiotza. —Haurtzaroa. —Eskola eta ikaskuntza. —Lagunak eta jolasak. —Ezkontza eta familiako bizitza. —Emaztearen egoera. —Lana. — ... 	<p>—2.12 dokumentua: Eguneroko bizitza. Proposatutako gai batzuei buruzko informazioa eta informazio-testuak.</p>

.../...

.../...

Jarduera-multzoa	Zentzua	Jarduerak	Tresnak
	<p>Ikasleek pertsonaiaren garai berean eta espazio desberdinetan gertatutakoen eta pertsonaiaren bizitzaren artean nolako erlazioa dagoen kontuan izan dezaten lortu nahi da. Jarduera hauetan aldiberekotasunaren ideia sendotzen da eta gertakari bat azaltzeko ikuspegia zabaltzen da, hainbat aldagai garrantzitsu sartzen baitira (politikoak, zientifikoak, ekonomikoak, artistikoak eta abar).</p>	<p>2.2.6. Gertakizun historikoak</p> <p>2.2.6.a. Zer gertatzen zen jaio zenean?</p> <p>2.2.6.b. xx. mendeko kronograma.</p> <p>2.2.6.c. Historia pertsonalaren eta Historiaren arteko erlazioak: zenbat gertakizun historikoren azterketa.</p>	<p>— 2.13 dokumentua: Egunkari baten lehen orrialdea.</p> <p>— 2.14 dokumentua: Bizitza Francoren diktaduran.</p> <p>— 2.15 dokumentua: Nola egiten da horma-irudi bat?</p>
	<p>Aurreko ataletan informazio guztia jaso ondoren, lehen idazlana berriz egin beharko dute.</p>	<p>2.2.7. Jasotako datuekin txostena egitea.</p> <p>2.2.7.a. Berrikuspen eta autoebaluaziorako jarraibidea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Autoebaluaziorako jarraibidea (koadernoa).

HIRUGARREN ATALA: AMAIERAKO PROIEKTUA			
Jarduera-Multzoa	Zentzua	Jarduerak	Tresnak
3.1. IDATZITAKOA BERRIKUSTEN DUGU	Jarduera hauen bidez, aurreko atalean bildutako informazioa gaineratu ondoren hizkuntza-baloraziora itzultzea eta horretarako funtsezko irizpide batzuk erabiltzea eta informazioa antolatzea lortu nahi da. Idatzia hizkuntza-ikuspegi batetik aztertu eta idatziaren ebaluazioa egin ondoren, ikasle bakoitzak proiektuaren oinarritzko alderdietan izandako arazoak azalduko dituzte. Jarduera hauen bidez, erantzuna eman nahi zaie.	3.1.1. Gure lehen idatzia berreskuratzen dugu. 3.1.2. Informazioa antolatzen dugu. 3.1.3. Ikaskuntza-moduluak a) Biografiaren ezaugarriak. b) Deskribapena. c) Narrazioa.	<ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazio-jarraibidea (koadernoan). • Jasotako informazioa antolatzeko fitxa (koadernoan). —3.1 dokumentua: Biografiaren ezaugarriak. —3.2 dokumentua: Deskribapena. —3.3 dokumentua: Narrazioa.
3.2. BIOGRAFIAREN IDAZKETA	Lehen atalaren amaieran egindako biografiaren bigarren bertsioa idatzi behar da eta, horretarako, bigarren atalean landutakoa eta hizkuntza-izaerako ikaskuntza-moduluak gaineratuko dira. Biografiari, narrazioari eta zuzenketa-irizpide orokor batzuei buruzko txantiloiak eskaintzen dira.	3.2.1. Gure idatziaren bigarren bertsioa.	—3.4 dokumentua: Biografia idaztea. Gure idazkiaren bigarren bertsioa.
3.3. EBALUAZIOA	Proiektuaren azken atal honetan, ikasleek azken idatzia eman beharko dute irakasleak ebalua dezan.	3.3.1. Zuzenketa. 3.3.2. Azken idatzia. 3.3.3. Berrikuspena.	<ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazio-jarraibidea. • Irakasleentzako ebaluazio-tresnak.

LEHEN ATALERAKO ORIENTABIDEAK: BIOGRAFIA ETA AUTOBIOGRAFIA

Bigarren proiektuaren hizkuntza-eta literatur alderdiekin lehen kontaktua izan ondoren, biografiaren eta autobiografiaren generoak ikasleei hurbiltzen saiatuko gara. Horretarako, genero horietako testuak erreferentzia moduan hartu eta azken produkziarako jarraibide gisa baliagarriak izango diren testuak aztertu eta sortuko dira. Halaber, modalitate diskurtsibo deskribatzailea behatuko da, aipatutakoekin batera proiektu honetan aztertu beharreko funtsezko alderdietako bat baita.

Atal honetako helburu didaktikoak:

1. Genero biografikoaren eta autobiografikoaren oinarriko ezaugarriak ezagutzea.
2. Genero honetako testuak identifikatzea.
3. Modalitate diskurtsibo deskribatzailearen oinarriko ezaugarriak ezagutzea.
4. Aldez aurretik definitutako generoaren berezko ezaugarriak (antolamenduari eta hizkuntzari lotutakoak bereziki) errespetatuko dituzten testu labur biografiko eta autobiografikoak egitea.
5. Biografia bat egiteko pertsonaia bat aukeratzea eta pertsonari eta bere ingurune historiko-sozialari buruzko datuak biltzearen bidez pertsonai horri buruzko ikerketa bat egitearen beharra kontuan hartzea.
6. Generoa irakurketa eta ikerketaren bitartez ezagutza eta gozamen pertsonala lortzeko modutzat hartzea.

Aipatutako helburuak hainbat jardueraren bidez lortzen saiatuko gara:

- Hasierako motibazio eta ebaluaziorako* jarduerak, hala nola testu biografiko labur edo galdera-sorta bat irakurtzea, testu biografiko edo autobiografikoak irakurri eta iruzkinak egitea, film biografikoen bitartez ikerketa historiko baten simulazio txiki bat egitea eta abar.
- Liburu oso bat taldeetan banatutako kapituluka *irakurtzea*, biografia bat zer den eta nola egiten den zehazki jakin dezaten.
- Produktio biografikorako* hurbilketak (testu labur, deskribapen eta abarren bidez) eta ezagutzen duten pertsonaia baten biografiaren *hasierako idazlana* (ikerketa amaitu ondoren produktio-prozesuan osatuko dutena). Lehen idazlan hau berrikusi egingo da pertsonaiari buruz falta diren eta ondorengo ikerketa-lantegiaren bitartez lortu beharko diren datuak zein diren ikusteko.

LEHEN ATAL HONETAKO MULTZOAK ETA JARDUERAK		
Jarduera-multzoak	Jarduerak	Zentzua
1.1. ZER DAKIGU BIOGRAFIAZ ETA AUTOBIOGRAFIAZ?	1.1.1. Testuak irakurtzen ditugu. 1.1.2. Hitz egiten dugu. 1.1.3. Ikertzen dugu. 1.1.4. Biografia eta autobiografia be- reizten ditugu. 1.1.5. Idatzi beharra dugu. 1.1.6. Biografia eta zinea.	Motibaziorako hasierako atal bat da. Testu desberdin, inkesta, solasaldi, iruz- kin eta abarren bitartez lehen kontaktua ezartzen da biografia eta autobiografia- rekin.
1.2. IRAKUR DEZAGUN	1.2.1. Zertan datza? 1.2.2. Antola gaitzen. 1.2.3. Tresnak.	Taldeka liburu komun bat irakurriko da biografiaren ezaugarriak behatzeko.
1.3. ZEIN DIRA GENERO HONEN EZAUGARRIAK?	1.3.1. Narrazioa eta deskribapena biografian.	Testu hauen ezaugarriei buruzko sa- rrera, adibideak eta lan-jarraibideak emanda.
1.4. IDATZ DEZAGUN	1.4.1. Nire pertsonaia aukeratzen dut. 1.4.2. Lehen bertsoia idazten dut.	Fitxak eta tresnak ematen dira aukera- tutako pertsonaiaren lehen idazlan bio- grafikoa egiteko.

1.1. BLOKEA. ZER DAKIGU BIOGRAFIAZ ETA AUTOBIOGRAFIAZ?

1.1.1. jarduera. Testuak irakurtzen ditugu

Segur aski ideia zehatz samarra izango dute biografiaz, autobiografiaz eta bien arteko desberdintasunez. Edonola ere, komeni da gogora ekartzea eta aurrerago biografia bat egin ahal izateko funtsezko alderdi batzuk kontuan izatea.

Hasieran, kontzeptu hauek garatzeko, hiru testu irakurriko dira (iruzkinak batera egingo dituzte galdera-sorta batetik abiatuta) eta generoaren arabera bereiziko dira (ikus *1.1 dokumentua*).

Irakurketa eta iruzkinak egin ondoren, ateratako ondorio pertsonalak idatzi beharko dituzte koadernoan.

1.1.2. jarduera. Hitz egiten dugu

Jarduera hau egiteko bi aukera proposatzen dira:

- a) Laneko koadernoan garatzen den *Pertsona baten bizitzaren zein alderdi ager daitezke edo agertu behar dute jendaurrean?* gaiari buruzko solasaldi bat egitea.
- b) Rosa Monterok bere *Pasiones* izeneko sailaren barruan R.L. Stevenson eta Fanny Vandegrift-i buruz idatzitako (eta *El País Semanal*-en agertutako) testu baten iruzkina egitea. Harreman bizi, bitxi eta ekaiztsua izan zuten bi pertsonaia horiei buruzko interpretaziozko biografia bat da. Kasu honetan, irakurritakoari buruzko ahozko iruzkin bat egin behar da (ikus *1.2 dokumentua*).

Bi kasuetan solasaldi bat antolatzea proposatzen da. Solasaldi batean, jendea hitz egiteko elkartzen da modu informal batean hitz egiteko. Hala ere, solasaldiaren plangintza egin dezakegu jarduera aberasgarriagoa izan dadin.

Kontuan har daitezkeen eta ikasleei transmiti dakizkiekeen alderdiak ondokoak dira:

1. Solasaldian zein iritzi eta arrazoibide izango ditudan jakiteko, esaldi labur bazuetan irakurritako testuari hartutako itxura edo proposatutako gaiari buruz dudan iritzia idatziko dut.
2. Nire ikuspuntua hartu ondoren, nire arrazoibideen gidoi bat idazten saiatuko naiz: zergatik dudan halakori buruzko halako iritzia, zein datu ditudan, zein den nire esperientzia pertsonala, zein den irakurritakoari buruz dudan iritzia, nola bizi izango nukeen nik..., bai eta beste ikaskide batzuek esan ditzaketenei eman beharreko erantzunak ere.
3. Hitz egiten hasi aurretik, komeni da:
 - a) Norbaitek testua ozenki laburtzea denok gogoan izan dezagun.
 - b) Solasaldia moderatuko duen norbait (beti berdinek hitz egin ez dezaten, eztabaida sutsu bihur ez dadin, txandak errespetatu daitezken...) eta klasean azaltzen denari buruzko apunteak (elkarrizketak zein bide hartzen duen, punturik ga-

rrantzitsuenak zein izan diren eta abar) hartuko dituen, esandakoak laburtuko dituen eta hitz egindakoaren ondorioa ateratzen saiatuko den beste norbait hautatzea.

- c) Irrati edo telebistako solasaldiren bateko zati batzuk ikusi edo entzutea eta solaskideen portaera zein den ikustea.
4. Solasaldian gaudela, gogoan izan behar dugu oso garrantzitsua dela hitz egiten ari denari entzutea eta hitza ez kentzea. Gureak ez diren iritziak errespetatu behar ditugu, ez dugu haserre edo sutan jarri behar. Hitz egin behar dugu, besterik ez; solasaldi bat da, ez besterik.
 5. Amaitzeko, tarte txiki bat utzi behar dugu idazkariak klasean hitz egindakoaren laburpena irakurri eta bere ondorioak azal ditzan. Halaber, moderatzaileak bere ustez solaskide gisa nola jardun dugun esango digu.

Geldialdi bat egin behar dugu pentsatzen dugunari, taldearen aurrean adieraz deza-kegun iritziari buruzko gogoeta egiteko. Ildo honetan, kontuan hartu behar da Bigarren Irakaskuntzako ikasleek ahozko diskurtso bat egiteko dituzten zailtasun gehienak (beren iritziak argudiatu eta arrazoitu behar dituztenean batez ere) eskola-esparruaren bera-riazko ahozko egoera formaletan horrelako testuak sortzeko duten esperientzia-gabezia-ekin eta ahozko diskurtsoen bereizgarria den produkzio-egoera ez ezagutzearekin zeri-kusia dutela.

Bestalde, A. Cros eta M.Vilá-k² dioten bezala, «logikoa da ahozko argudiozko dis-kurtsoari buruzko lan batean neska-mutilek arazoak izatea argudiatzea, iritzi bat emateaz edo aurkariaren artean eztabaidan jarduteaz gain, hartzailearen atxikimendua lortzeko ba-lio izango duten argudiatzeko estrategia batzuk (hau da, erabil daitezkeen argudio-motak eta estrategia erretorikoak) erabiltzea ere bada. Oro har, ez dituzte estrategia horiek men-peratzen (edo ez dakite menperatzen dituztela) eta, beraz, diskurtsoaren plangintza egi-tean ez dituzte baliagarriak izan daitezkeenak aurreikusten.

1.1.3. jarduera. Ikertzen dugu

Ikasleek, biografiaren eta autobiografiaren generoari buruzko lanaren hasieran, horri buruz zer dakiten (gaiari buruzko hasierako ebaluazioa), gai hauei buruzko irakurketak egiten dituzten, gustatzen zaizkien eta abar adieraziko dute. Horretarako, laneko koadern-an agertzen den galdera-sorta bete beharko dute. Ondoren, bateratze-lana egin daiteke.

1.1.4. jarduera. Biografia eta autobiografia bereizten ditugu

Tipologia desberdineko hainbat testu irakurtzearen bidez, ikasleek genero baten eta bestearen berezko ezaugarriak bereizten hasi beharko dute (ikus *1.3 dokumentua*).

² A. CROS eta M. VILÁ: «La argumentación oral: una propuesta para la Educación Secundaria», *Textos* aldizkaria, 3. alea, 52-58 orr.

a) *Testuen irakurketa*

Pertsona baten bizitzari buruzko hainbat testu-mota daude, bai biografikoak, bai autobiografikoak. 1.3 dokumentuan erabilera-esparru desberdineko testuak aztertu ahal izango dituzte (literatur esparrua lehena, kazetaritza-esparrua bigarrena).

b) *Biografiaren eta autobiografiaren arteko bereizketa*

SOLUZIOAK:

1. testua: Autobiografia. *El cuaderno gris*, Xavier Pla.
2. testua: Biografia. *Gorki*, Henry Troyat.
3. testua: Autobiografia. *Automoribundia*, R. Gómez de la Serna.
4. testua: Biografia. *Jonh Lennon*, Jordi Sierra i Fabra.
5. testua: Biografia. *Katalina Erauso*, Aitor Zuberogoitia.
6. testua: Autobiografia. *Txoriburu*, Asun Balzola.

c) *Berridazketa*

Aurretik ikusitako testuetako bat aukeratu eta, generoa aldatuta (biografia bada autobiografia moduan eta alderantziz), berridatzi egin behar da. Ondoren, 1.3 dokumentuaren amaieran agertzen den galdera-sorta bete beharko dute.

1.1.5. jarduera. Idatzi beharra dugu

Hemendik aurrera idazteko hainbat saio egingo dituzte aurrekoen antzeko jarduera batzuen bidez. Pertsonaiaren aukeraketan pentsatzen hasi beharko dute idazten hasi behar dutenean identifikatuta edukitzeko.

a) *Pertsonaia komuna*

Jarduera honetan fikziozko biografia bat osatzen saiatu beharko dute aldeztu aurretik finkatutako datu komun batzuetan oinarrituta.

Klasea taldetan antolatuko dugu eta laneko koadernoan agertzen diren taulen inguruan emango diogu hasiera jarduerari.

- 1. taula: guztion artean pertsonaia erreal edo fikziozko bati buruzko datuak bildu eta pertsonaiari dagozkion zutabeak beteko ditugu gaingiroki. Horrela, alderdi adostu eta ezagunak izango ditugu abiapuntu: pertsonaia non eta noiz jaio zen, sexua, ezaugarriak eta abar.
- 2. taula: datuak lortu ondoren, taula honetako ilarak (pertsonaiaren marra kronologikoei dagozkienak) taldeka banatuko dira eta talde bakoitzak garai horretan gerta zitezkeen gertakizun pertsonal batzuk garatzen ditu. Adibidez, talde batek aldeztu aurretik aukeraturako pertsonaiaren jaiotza, haurtzarora, ikasi ote zuen, bizitzan funtsezkoa izan zen gertakizun tragi-

korik jasan ote zuen eta abar kontatu beharko du, beste bati berriz, «heldutasunaren» ilara egokituko zaio eta, beraz, pertsonaiak zertan diharduen edo jardun zuen, seme-alabarik izan ote zuen, bidaiak, harreman emozionalak eta abar kontatu beharko ditu. Ilarak osatu ondoren, taldeek pertsonaiaren bizitza ordena kronologikoan irakurriko dute. Une honetan egingo dira, hain zuzen ere, bidezko zuzenketak. Adibidez, gure pertsonaia haur bat bada, ezin dugu esan istripu batean belarri bat galdu zuela eta gaztetan belarritako nabarmenak ipintzen zituela.

—3. taula: pertsonaiaren biografia osoa ezagutu ondoren, taldean idatziko dute (10 edo 15 lerrotan) eta daturik garrantzitsuenak barne hartuko dituzte.

b) *Albiste bateko pertsonaia*

Biografia bat osatu behar da. Horretarako, *prentsako albiste* baten bidez pertsona baten bizitzari buruzko informazioa lortu beharko da eta, informazio horretan oinarrituta, pertsonaiaren oraina eta etorkizuna irudikatu beharko dute taldeka.

Jarduera bera ere egin daiteke albistearen ordeztu pertsonaia baten bizitzari buruzko zerbait aipatzen duen literatur testu bat erabilita. Prozesua berbera izango da: pertsonaiaren iragana eta etorkizuna ondorioztatzea.

1.1.6. jarduera. Biografia eta zinea

Arestian, gaiarekiko motibazioa pizteko metodo gisa, biografietan oinarritutako filmetara hurbiltzea aipatu dugu. Besterik gabe ikusi egin daitezke edota inguruan jarduera jakin batzuk egin daitezke.

Laneko koadernoan, aukeratutako filma ikusi aurretik eta ondoren betetzeko ereduak galdera-sorta bat agertzen da.

Jarraian, pertsonaia baten edo batzuen bizitza garatzen duten eta pertsonaia bizi izan zeneko lekua eta garaia eta hauek eta bizitzan inguruan izan zituen beste pertsonaia batzuek pertsonaiarengan izan zuten eragina islatzen dituzten hainbat film barne hartuko ditugu.

Gogoan izan ondoko alderdi interesgarriak:

- Ekintzaren denbora eta espazioa, hauek pertsonaiaren bizitzan izan duten eragina eta pertsonaiak ere bere ingurune eta denboran izan duen eragina.
- Pertsonaiaren ezaugarri nagusiak.
- Gehien garatu ohi den pertsonaiaren etapa (haurtzarora, gaztarora, zahartzarora...).
- Pertsonaiaren bizitzan funtsezkoak izan diren pertsonak.
- Aukeratutako gertakizun pertsonalak, funtsezko gertakizunak, pertsonaiaren bizitzan funtsezkoak diren alderdiak...
- Bestelako iruzkinak: nola bizi izan zitekeen zoriontsuago, gure ustez zergatik egin zituen gauza batzuk eta besteak ez, bizimodu horrekin identifikatzen diren eta abar.

- Jhonny cogió su fusil.*
- Gandhi.*
- Nacido el 4 de julio*, Oliver Stone.
- Forrest Gamp*, Robert Zemeckis (1994), Paramount.
- Van Gogh.*
- Frances.*
- Birdy.*
- El tambor de hojalata.*
- Peggy Sue se casó*, F. F. Coppola.
- Mujercitas.*
- Yo Claudio* (serie).
- La última tentación de Cristo.*
- El último emperador.*
- Camille.*
- Charlot.*
- La vida de Ryan.*
- Amadeus.*
- Regreso al futuro.*
- Tarzán.*
-

1.2. BLOKEA. IRAKUR DEZAGUN

Jarraian, klasean planteatzen diren testu-irakurketez edo irakurketa libreko liburu-*ez kanpo, parte hartzeko eta batera egindako* irakurketa-proiektu bat proposatuko dugu.

Jarduera honen helburua obra biografiko edo autobiografiko oso bat irakurtzea eta aipatutako generoekin ohitzea. Horrela, askoz errazagoa izango da testu biografiko edo autobiografikoak egin eta berariaz aztertzea.

Prozesuan jarraitu beharreko urratsak ondokoak dira:

1. *Zertan datza*: proiektuaren azalpena.
2. *Antola gaitzen*: klasea taldetan banatzea, talde bakoitzean irakurri beharreko kapituluak banatzea eta irakurriko den liburua aurkeztea. Kasu honetan Frank McCourt-en *Angelaren errautsak* proposatu dugu. Prentsan agertutako liburuari buruzko bi artikulua barne hartu ditugu, irakurketa susta baitezakete.
3. *Tresnak*: irakurketa errazteko eta gogoratzeko aukerazko hainbat txantilo eta galdera-sorta barne hartzen dira.
4. Aurreko irakurketarako liburu autobiografikoarekin kontrastatzeko beste irakurgai biografiko bat barne hartzen da eta iruzkina egiten da.

Ikus material guztiak *1.4 dokumentuan*.

1. *Nola egingo da jarduera?*

Klase osorako liburu bat hartu erreferentzia gisa eta kapituluak taldeen artean banatuko dira. Komeni da talde bakoitzeko kideek egokitu zaien zati osoa irakurtzea denek istorioari buruzko ideia bat izateko.

Erabiliko den liburuari buruzko sarrera gisako hainbat *datu* eskaini behar dira (liburuaren laburpen bat obra argitu gabe, irakurri beharreko zatiak ulertzeko oinarritzko apunteak eta abar), bestela bitarteko kapituluak dituztenek liburua inondik inora ez ulertzeko arriskua izan baitezakete.

Irakurketak egin ondoren, ikasle bakoitzak irakurketa-fitxa bat edo laburpen txiki bat egingo du. Ondoren, irakurketa taldean kontrastatu eta aztertuko da eta horrelaxe sortuko da klaseko gainerakoei aurkeztuko zaien laburpena.

2. *Noiz egingo da jarduera?*

Une egoki batzuk ezarriko dira irakurtzeko eta iruzkinak egiteko.

Funtsean ondoko uneak ezar daitezke:

- a) *Jardueraren plangintza klasean*, talde handian: egingo den jarduera (liburua denon artean irakurtzea) azaldu eta jardueraren bidez azpimarratu nahi ditugun helburuak (irakurketaren bidez generoari hurbiltzea eta generoa nola garatuta da goen ezagutzea) aipatzen dira. Halaber, prozesuan erabiliko diren denborak eta

espazioak adieraziko dira. Horretarako eskola-orduren bat eskaini ahal izango da komenigarritzat hartzen bada baina, segur aski, ikasleek beren denbora librearen zati bat irakurketa osatzeko erabili beharko dute. Horrez gain, jarduera osoan erabili beharreko tresnak (liburua edo fotokopiak, irakurketa-txantiloak, ebaluazio-txantiloia...) aipatuko dira. Oso kontuan izan beharko da bakoitzak egiten duena oinarritzkoa izango dela gainerakoek liburuaren eduki osoa ezagutzeko eta aurre-rago beste jarduera batzuk egin ahal izateko.

- b) *Liburua aipatzen da* ikasleek eskura dezaten eta lana bana dezaten. Gogorarazi beharra dago guztiek ez dutela liburua behar izango, zati bat besterik ez baitute irakurriko. Jakina, osorik irakurri nahi duenak egin ahal izango du.
 - c) *Zereginen banaketa*: talde bateko parte-hartzaile guztiek atal edo kapitulu berberak irakurri behar badituzte ere, ikasle bakoitzak bere laburpena egin beharko du eta gehien gustatu zaizkion zatiak, oharrak eta abar azpimarratu beharko ditu. Elkarrekin egin beharreko lana taldean behin-betiko laburpen bat idaztea izango da eta, ondoren, irakurketa edo bateratze-lana egingo da talde handian. Horrela, istorioa kronologikoki jarraituta, talde bakoitzeko bozeramaileak bere taldeari dago-kion zatia irakurriko du eta gainerakoek apunteak hartuko dituzte eta irakurketa osoaren berri izango dute.
 - d) *Ebaluazioa*: laburpen guztiak eta iruzkinak egin ondoren egingo da. Jarduera honetan —aurrekoaz ari gara, bateratze-lanaz alegia— behar bezain garbi gertatzen ez denari edo sor daitezkeen zalantza guztiei buruzko galderak egin ahal izango dira. Zati hau funtsezkoa da, jarduera osoaren ebaluazioa baita. Gainerako ikaskideek talde bakoitzaren emaitzei buruzko iritzia txantiloiegi egokiaren bidez emango dute.
- Jardueraren azken ebaluazio gisa, klase osoaren elkar-ebaluazio bat iradokitzen dugu. Horrez gain, beste elkar-ebaluazio bat egin daiteke bitarteko urratsean. Kasu honetan, ikasleek irakurritakoa gainerako taldekideei irakurriko diete eta hauek horri buruzko kritika egin ahal izango dute.

3. *Jarduera osatzeko eta aberasteko*

- Taldea bakoitzak gertakizunik esanguratsuenekin friso bat egitea. Horrela, friso guztiak elkartuta emaitza gisa istorio osoa emango duen friso os bat izango da.
- Taldekide bakoitzak pertsonaia bat har dezake bere deskribapena, eboluzioa eta abar azaltzeko eta klaseko gainerakoek pertsonaiari buruz ematen dioten informazioarekin osatuko du. Beste taldekide batzuek, aipatzen diren gertakizun historikoei buruzko informazioa bila dezakete gainerako ikaskideei emateko.
- Interesgarria da irakurketa pertsonaletan gehien interesatu edo gustatu zaien zatia aukeratzea (zati bat, aipamen bat eta abar).
- Taldea bakoitzak, egokitu zaizkion kapituluaren aurretik zer gertatu den (kasu honetan, lehen zatia egokitu zaion taldea izan ezik) eta ondoren zer gertatuko den pentsatu beharko du. Horrekin guztiarekin idazketa komun oso bat egingo da.
- Taldeari liburuko gertakizunen baten antzeko gertaera hurbil edo ezagun bat kontatu beharko diote: lehen irakaslea, hiri-lekualdaketa, lehen lana, lehen jaunartzea, haur-gaixotasunen bat...

4. *Gure proposamena*

Erreferentzia gisa Frank McCourt-en *Angelaren errautsak* (1997) hartu dugu. Liburuak, eleberri eran, bere eta bere familiaren bizitzaren historia kontatzen du (haurtzaroren eta lehen gaztaroaren garaian).

Amerikan huts egin ondoren, McCourt familia sorterrira (Irlandara) itzultzen da eta bertan pobrezia, eskasia eta gaixotasunei lotutako pasadizo ikaragarriak gertatzen dira. Frankie, bere haur-ikuspegi inuzente, barregarri, samur edo jakintsutik, bere ohituretan eta kulturaren murgildutako eta pobrezia eta desberdintasun handiko Irlanda bateko etsaitasunezko giroan izandako bizipenak kontatzen ditu (familia, eskola, bizi-baldintza txarrak, adiskideekiko eta neskekiko harremanak, laneko harremanak eta abar). Bere ametsa (azkenean beteko dena) Amerikara ihes egitea da.

Jarraian kapitulu bakoitzaren laburpen bat barne hartuko dugu une jakin batean ekin-tzaren jarraipena erraztearren (azken kapituluetan bereziki).

Laburpena oso orokorra da baina, bertan, xehetasunak, autorearen umore-sena, tonua eta abar azalduko dira.

1. Angela, New Yorken bizi den irlandarra, Malachy McCourt-ekin ezkondu behar du haurdun utzi duelako. Gizona edale amorratua da eta irabazten duen diru-apurra edaten gastatzen du. Eskean jasotzen dutenarekin bizi direla esan daiteke. Seme-alaba batzuk dituzte eta beste hiru mutil (bikiak tartean) eta familiaren zoramena den neska bat gehiago jaiotzen dira. Baina neska hil egiten da (bizi-egoeraren ondorioz ziurrenik) eta Irlandara joatea erabakitzen dute.
2. Irlandan ez dute amaren familiaren babesa izango (aitarena iparraldean bizi da). Limosnatik eta egoera ikaragarrian bizi dira (jatekorik gabe, urak hartutako eta arkakusoz betetako etxe kirastuetan). Bikiak hil egiten dira. Bi mutil zaharrenak eskolara joaten dira, oinetakoak erosteko ere dirurik izan ez arren. Aitak edaten eta laneko edo langabeziako dirua gastatzen jarraitzen du.
3. Egoera berean jarraitzen dute. Egoerak irteerarik ez duela dirudi. Beste haur bat jaiotzen da: Michael.
4. Frankiek erlijioarekin duen harremana izugarria eta ezin zabalagoa da eta umore-sen handiz kontatuta dago. Irakasteko ardura maisu izugarriena eta apaiz zorrotzena (salbuespen batzuekin) da. Lehen jaunartzearen eguna kontatzen du.
5. Adiskideekin, eskolan, auzoko jendearekin eta familiarekin dituen harremanak. Amak dantza egitera joateko esaten dio behin eta berriz baina Frankiek bere diru-apurra ziznera joaten gastatzen du. Egoera pobreziarik handienekoa da oraindik ere.
6. Berriz ere, eskolako pasadizo dibertigarriak (eta tragikoak). Berak bezala gosea eta gaixotasunak jasaten dituzten pertsona gehiago daude.
7. Dirua lortzeko lantxoren bat egiten hasten da. Elikagaiak lortzeko moduaren inguruko pikarokeria. Aitaren aldeko «iparraldeko aitona» libra batzuk bidaltzen ditu Alphon-sus haur jaioberriarentzat. Aitak dirua garagardotan gastatzen du.

.../...

8. Frankiek tifusa hartzen du eta ospitalera eramaten dute. Bertan, gutxienez, badu jatekorik eta bero dago. Liburu batzuk uzten dizkion neska bat ezagutzen du, Patricia. Neska hil egiten da. Frankie ospitaletik irteten denean gabonak dira (gabon tristeak) eta benetan kezkatuta dago luzaroan eskolara joan ez izanagatik maila txikiagoko talde batean sartu dutelako. Azkenean, idazlan bikain bat idazten du eta lehengo ikas-kideen taldera itzultzen da.
9. Ingalaterrak lanerako pertsonak behar ditu Alemaniaren kontra borroka egiteko: gerra-garaia da. Limerick-eko biztanle asko bertara doaz lanera (hauen artean Frankieren aita) hainbeste urtetan zapaldu dituen herrialdearen kontrako aurreiritziak handiak izan arren. Hala ere, familiari ez zaio txekerik iristen eta amak benefizentzia jo behar du baina han iseka egiten diote. Frankie berriz ere ospitalera eramaten dute luzaroan iraungo dion begietako gaixotasun bat dela eta.
10. Ama gaixotu egiten da eta lau haurrak egoera penagarrian bizi dira, janaria lapurtzen dute. Ama ospitalera eramaten dutenean seme-alabarik gabeko osaba-izeba batzuenera joaten dira bizitzera. Aggie izeba umore txarrekoa da eta ez dira harekin ondo konpontzen, hobeto daude Pa osabarekin. Azkenean, ama oso ahul itzultzen da eta eskean ibili behar du hurrek jan ahal izateko.
11. Frankiek bizilagun bati —Hannon jaunari— laguntzen dio ikatza banatzen baina lanari utzi behar dio gizonak hanketako gaitzen baten ondorioz negozioa utzi behar delako. Gainera, begiak ere oso gaizki ditu.
12. Aita gabonetan etxera itzultzen da, bidean soldata edan ondoren ordea. Diru-apur bat dagoen etxeetan jaiak ospatzen direla ikusten du familiak. Michael hirugarren anaiak ordea, beraiek bezain gaizki dagoen jendea edo kaleko txakurrak besterik ez ditu etxera eramaten. Aitak alde egiten du berriz eta errenta ordaintzeko dirurik ez dutenez gero, etxetik bota egiten dituzte. Amonak senitarteko baten etxera eramaten ditu, Angela bereztzat lanean jarriko duen Laman zitalarengana hain zuzen ere. Amona hil egiten da.
13. Frank nerabeak bere sexu-esperientziak, lagunetik harremanak, bere arazo erlijiosoak eta abar kontatzen ditu. Herriko liburutegian irakurtzeko zaletasuna hartzen du. Amak eta Lamanek elkarrekin lo egiten dutela jakiten du eta amonaren etxera joaten da. Bertan Abad bizi da, apur bat atzeratua den osaba bat.
14. Liburutegian irakurtzen eta aldi berean nekez bizitzen jarraitzen du. Azkenean postabulegoan telegrafo-mutil gisa lan egitea erabakitzen du.
15. Telegramak banatzen ditu eta, horrela, herriko jendea eta bazter guztiak ezagutzen ditu. Bere lehen soldataz gozatzen du eta diru pixka bat aurrezten du Amerikara joateko. Lana dela eta ezagutzen duen Theresa gazte tisikoarekin harremanak ditu. Neska hil egiten da eta bera atsekabetuta geratzen da bere erruagatik Theresa infernura joango delako.
16. Ingeles batekin istilu bat du ingelesaren emaztearen gaubeilan. Gainera, dirua zor dioteko andre batentzat izutzeko gutunak idazten dihardu lanean. Ezagutzen du gutun horiek jasotzen dituen jendea, badaki behartsua dela, baina Amerikara joateko dirua behar du.
17. Posta-bulegoko lana utzi eta prentsa eta aldizkariak banatzen dituen enpresa batean sartzen da. Bulegoan dituen esperientziak, lankideekiko harremanak, barruko arropa iragartzen duten atzerriko aldizkarien irakurketa eta abar kontatzen ditu. Bere anaia Malachy ere lanean ari da.

.../...

.../...

- 18.** Behin Finucane andrea —gutunak idaztea agintzen ziona— haren etxean zerraldo aurkitzen du. Kentzen dion diruarekin badu Amerikara joateko beste. Hutsunea utziko dioten herriko leketan zehar ibiltzen da, segurtasun eza nabari du. Itsasontzian dagoela, Irlandara itzuli nahi du eta ia damutu egiten zaio. Azkenean Amerikara iristen da. New Yorken lur hartzeko asmoa zuen baina itsasontzia herri txiki batean porturatzen da. Bertan, senarrak ehizan dituzten emakume batzuk ezagutzen ditu. Azkenean berriz itsasoratzen da.
- 19.** Azken kapitulu honetan bi hitz besterik ez daude: «Halaxe da». Hain zuzen ere, aurreko kapituluan egindako «Ez al da hau herri handi bat?» galderari erantzuten diote. Aditzera ematen duenez, eta bistakoa da autorearen egungo bizitzaz dakiguna ikusita, gauzak ongi atera zaizkio.

Jarduera hauek amaitu ondoren, *1.5 dokumentuan* agertzen diren galdera-sortak azalduko ditugu.


1.3. BLOKEA. ZEIN DIRA GENERO HONEN EZAUGARRIAK?

1.3.1. jarduera. Narrazioa eta deskribapena biografietan

Liburuaren irakurketaren bidez eta jardueretan bildu dugun informazioarekin, biografiaren inguruko funtsezko alderdi batzuk jar ditzakegu agerian. Garrantzitsua izango da datu hauek gogoan izatea proiektu honen amaieran egin beharreko azken produkziórako, hau da, *biografiarako*.

Arretaz aztertu beharko dute irakurketetan agertu diren datuetako bat. Horretarako, genero honi buruzko oinarritzko informazioa barne hartzen da koadernoan, bai eta ondoko azken eskema ere:

Eskema:



Alderdi hauek guztiak 3.2 multzoko *Ikaskuntza-moduluak* atalean zehaztasun handiagoz ikusiko ditugu. Jardueren bidez kontzeptu hauek bereganatu eta pertsonaiaren ingurune eta garaiari buruzko behar adinako informazioa lortu ondoren, produkzio-prozesuan sartu ahal izango dira. Bitartean, idatzi horren lehen bertsioa idatziko dute.

1.4. BLOKEA. IDATZ DEZAGUN

Epigrafe honetan helburu bakarra duten hainbat jarduera barne hartzen dira: *persona baten biografiaren lehen bertsioa egitea*. Horretarako lehen idatzi bat egingo dute eta biografia osatzeko zer falta zaien ikusiko dute. Tresna eta iradokizun guztiak laneko koadernoan daude.

Lehen produkzio hau ondorengo lan guztirako oinarria izango da.

Gomendatutako irakurgaiak

- Montero, Rosa (1996): *Relatos de mujeres*, Alfaguara, Madril.
- Marías, Javier (1995): *Vidas escritas*, Alfaguara, Madril.
- Marías, Javier (1997): *Miramientos*, Alfaguara, Madril.
- Mourois, André (): *Destinos ejemplares*, Libros Plaza, Bartzelona.
- Montanelli, Indro (1966): *Personajes*, Plaza y Janés, Bartzelona.
- Mourois, André (1988): *Byron*, Aguilar Maior, Madril.
- Troyat, Henri (1990): *Flaubert*, Aguilar Maior, Madril.
- Moix, Ana M.^a (1996): *Extraviadas ilustres*, Qué leer, Madril.
- Dahl, Roal (1997): *Boy (Relatos de infancia)*, Alfaguara, Madril (autobiografia).
- Alberti, Rafael (1976): *La arboleda perdida*, Círculo de Lectores, Bartzelona (autobiografia).

Autobiografia idatzi duten autore batzuk: San Agustín, Rousseau, Tolstoi, J. Stuart Mill, Chateaubriand, Spencer, G. Sand, A. Gide, S. de Bouvoir, C. Roy, Mesonero Romanos, Zorrilla, Alcalá Galiano, Azorín, Baroja, Alberti, Ayala, Vargas Llosa, Cela, Ramón Gómez de la Serna, ...

BIGARREN ATALERAKO ORIENTABIDEAK: IKERKETA HISTORIKOA

Historia, gizateria bizi izan den garaian garaturiko gertakariak biltzen dituen diziplina da eta iraganari buruzko azalpen ordenatuak eta koherenteak osatzea du helburu.

Denboran gertatu den guztia historian barne hartuta dago. Historia iraganean gertatutakoen oroimena, oroitzapen indibidual edo kolektiboa da. Iragan hori ezagutu ahal izateko, lehenik eta behin gertakizun historikoak denbora-arku batean kokatzen eta, beraz, aurretiazkotasun eta gerokotasunaren arabera ordenatzen jakin behar da. Horrela, iraganeko edozein gertakizun ezagutu edo ulertzeko lehen baldintza «denbora» kontzeptua eta bere kategoriak menperatzea da³. Horiek menperatzeko beharra nabaria da, unea baikoitzean jokatu ahal izateko beharrezkoa baita. Nolanahi ere, zein ekarpen egingo digu historia ezagutzeak? Eta zein historia-mota ezagutu behar dugu?

Pertsona askok egin izan du gertakari historikoei buruzko bilduma, baina guztiak ez dira metodo batez baliatu izan lan hau egiteko. Hau dela eta, ezin har genezake zientzia izaera duen Historiatzat, gertakari jakinei buruzko albisteak jasotze hutsa. Hor dira, esaterako, orain mende batzuetako kronista ofizialak. Hauen lana, erregealdi bateko gertakari politikoak jaso eta hurrengo belaunaldiei errege jakin batek eginiko lanari buruzko ikuspegi laugarria (sarri manipulaturikoa izaten zena) igortzea izaten zen. Dena den, XX. mendean Historiaren aukera zientifikoei buruzko kontzientzia hartu zen, hau da, iragana finkotasunez, fidagarritasunez eta metodo zientifiko baten arabera berreraikitze aukerei buruzko kontzientzia. Ikerketa historiko-praktikoa egin ostean ez zen lege edo printzipio orokorrik zehaztu, gainerako zientzietan ez bezala. Ezagutza historikoak, zientifikoak izan daitezten bermatzen duena, batik bat, beste ikertzaileek alderaketa egin dezaketela, beren interpretazioak eta ondorioak berrikusiak izan daitezkeela eta batez ere, gertakari buruzko informazioa biltzeko, informazio hau lantzeko eta azalpenak egiteko erabiltzen dituzten metodoak eta teknikak aztertu egin daitezkeela da. Historiak hobetu egin ditu pixkanaka teknika horiek eta metodologia-eskolen arteko etengabeko eztabaidaren ondorioz —pentsamendu filosofiko ezberdinek, beste zientzietan gauzaturiko prozesuek eta aldaketa sozialek, politikoei eta ekonomikoek sustaturikoa hein handi batean—, bere izaera zientifiko bermatzen duten teoria eta praktika zientifikoak garatu ditu XX. mendean zehar. Izaera zientifiko esaten dugunean, Historia ikertzeko era bakarra egoteaz ari gara. Izan ere, ikerketa-objektua den horretara hurbiltzeko erak asko dira eta sarritan osagarriak gainera.

³ Denbora-nozioen ikaskuntzaren alderdi honi buruz, bere interes handiagatik A. TORRES BRAVO-ren *Anatomía del tiempo histórico para ESO y Bachillerato* artikulua irakurtzea gomendatzen dugu (IBER aldizkaria, 1999ko urriko 22. alea, 106-115 orrialdeak). Artikulu honetan «denbora historiko» kontzeptu ireki eta interpretaziozko hurbilketa epistemologiko eta didaktiko bat egiten da eta denbora-kategoriak curriculum-plangintzaren funtsezko osagaiak izatea proposatzen da, bai prozedurazko ezagutza klasiko gisa, bai kontzeptuzko gisa.

Halaber, komenigarria izan daiteke M. CARRETERO eta M. LIMÓN-en *La construcción del conocimiento histórico* artikulua irakurtzea (Aula aldizkarian argitaratua). Bertan, ezagutza honen eraikuntzan inplikaturako alderdi batzuk aztertzen dira.

Bestalde, Historia garrantzia handikoa bilakatu da gaur egun, bai gizarte-mailan bai politika mailan ere. Komunki onarturik da, iraganeko ezagutza, orainaldia ulertzeko eta azaltzeko baliagarri dela eta Historiaren ikuspuntu erabilgarri hauen arabera, gainera, iragana ongi ezagutzea lagungarri da etorkizuna aurreikusteko eta lehenaldiko akats berberak ez errepikatzeko.

Hau ez da metodologiei buruzko eztabaida sakonak konpontzeko tokia, baina historiak hezteko duen ahalmen ukazina behintzat eman nahi genuke argitara. Honi zor zaio historia mundu osoko curriculumetan barneratu izana eta, jakina denez, Curriculum Anitzeko Programan duen egitekoa.

Baina, ikuspuntu didaktikotik abiatuz bi galdera proposatzen dira: zein da Historiari dagokion egitekoa, zer ematen du edota zer eman beharko luke? eta zein historia mota erakutsi eta ikasi behar da?

Gai hauei dagokienez, Programa honetan helburu garrantzitsutzat dugu ikasleak oinarrizko trebetasun batzuk gara ditzan lortzea, aipaturiko teknika historikoak ezagutu ditzan eta gizarte-gaiei buruzko (Historia, Geografia, Ekonomia, Soziologia, etab.) lanerako metodo zientifikoa finkatzen lagungarri izan zaizkion. Modu honetan, Historiaren oinarrizko kontzeptuak eta teknikak bereganatuz, bizi den gizarte horri buruzko azalpen propioa egin ahal izango du eta kezkarri zaizkion arazo horiek identifikatzeko ahalmen handiagoa izango du, baita iritzi pertsonalak aditzera ematekoa ere eta behar bada, hauei kritikoki aurre egiteko gai izango da eta, azken batean, baita gizartean bertan aktiboki eta solidarioki parte hartzeko ere.

Historia ezagutu beharra dugu gizarte-garapenaren legeak aurkitzen laguntzen digun, garapena ulertzeko interpretazio-ereduak eskaintzen dizkigun, ekintza jakin batzuen ondorioak iragartzeko eta bertan esku hartzeko aukera ematen digun, gizarteei oraina ulertzen eta iragana ulergarri egiten laguntzen dien tresnatzat hartzen dugulako.

Horrelako historia batek, gertakizun eta egoera historikoen arrazoiak eta zergatiak ulertzen eta interpretatzen lagunduko digu. Gertakizun eta egoera horietan pertsonaiak, lekuak eta datak ez dira ezinbesteko elementuak, osotasun baten zati baizik.

Josep Fontana historialariak, Bigarren Irakaskuntzako historiaren irakaskuntzari buruzko elkarrizketa batean dioenez, «ikasleek beren munduaren ikuspegi historikoa ulertzen hasi ahal izan daitezen, erreferentzia-puntu batzuk eman behar zaizkie. Historiako eskoletan gutxieneko erreferentzia, ezagutza eta data batzuk eman beharko lirateke ikasleak kokatu ahal izateko. Oso egokia izango litzateke ikasleei neurri batean nork bere historia egiteko gai izaten irakastea».

Ikaskuntzaren barruan autonomiari eginiko aipu honek, Historia ikasteko zailtasunetarikoa bat dena jartzen digu aurrez aurre; aldaketa, espazioa, kausalitatea (multikausalitatea), enpatia historikoa gisako oinarrizko kontzeptuak barneratzeko zailtasuna, hain zuzen ere.

Historiaz ari garela gauza jakina dirudi, eta atalaren hasieran ere esana dugu, *denbora historikoaren* ulermena eta gertakari historikoak denbora-erreferentziazko esparru batean irudikatzeko eta ordenatzeko adimen-mailako oinarrizko egiturak garatzea, egi-

tura-elementuetariko bat dela. Ez gara denbora diakronikoaren kontzeptu hutsaz ari, ez gara *continuum* batean gertatzen diren eta aro edo garai ezberdinetara igortzen gaituzten gertakarien egoera hutsaz ari; sarri ekialdeko kutsuko historiografiaren emaitza den kontzionalismo hutsak izaten direnetaz. Asmoa ez da gertakari batzuk eta besteak kokatzeko baliagarri diren datak eta denbora-erreferentziak saihestea ere, kronologia hutsa helburu ez dela eta kronologia bera gertakarien ulermen orokorrangoaren mende dagoela eman nahi da aditzera. Gertakari hauek, gainera, ez dira indibidualak eta bakanak; luzeak nahiz motzak izan daitezkeen aldaketa-prozesuen baitan gertatzen baitira.

Ia beti etenak diren aldaketa-prozesu hauetara hurbiltzea, prozesu hauen iraupen ezberdinak aztertzea, gertakari ekonomikoetako, politikoetako, sozialetako, kulturaletako... elkarrekintzaren baitako konplexutasuna ulertzen saiatzea, aldaketarekiko erresistentziak detektatzea, baita iraunkortasunak ere gizartearen hainbat esparrutan, beste zenbaitetan aldaketa bizkorrak gertatzen diren heinean... Honek guztiak, Historia ikasteko objektuetariko bat osatzen du.

Era berean, gertakari historikoen euskarri fisikoa izan behar dute, hau da, erreferentziako espazio-esparrua eman behar zaie. Historia, lurraldeari loturik dago eta honen ezaugarri geomorfologikoen, bioklimatikoen eta bestelakoen baldintzatu egin dute denboraren joanean. Baina, honez gain, harreman hau bere dimentsio dialektikoan eta dinamikoan ulertzea ere komeni da. Izan ere, lurraldea, gizakiak mendeetan zehar espazioan sortu dituen eraldaketen emaitza da. Hau dela eta, espazioaren esparrua alderdi erabakigarria da eta era berean, bertan garatu izan diren prozesu historikoen emaitza ere bada.

Historia ulertzeko aipatu dugun beste alderdi nagusia *kausalitate anitzarena* da. Gure ikasleak ez dira ikuspegi estereotipatuak eta manikeoak jarraiki epai hutsalak ematen dituzten bakarrak, betiere, beren adinaren eraginez hein batean. Historiografiarik klasikoenak ere arrazoi unibokoetan oinarritu ditu gertakari historikoen jatorriari buruzko azalpen historikoak. Planteamendu sinplifikatzaile hauek oso lagungarriak izaten ziren, historia ikasteko eskaintzen zuten ageriko eraginkortasuna zela eta («Erromatar inperioaren amaiera barbaroen inbasioari zor zaio», «Amerikako aurkikuntza, Gaztelako Isabel I.aren laguntza jaso zuen Cristobal Colonen ahaleginari zor zaio», «Euskal nazionalismoa XIX. mendearen amaieran gertaturiko langile industrialen emigrazio jendetsuaren eraginez sortu zen», «II. Mundu Gerraren jatorria 1939. urtean Alemaniako tropek Polonia inbaditu izana da», «Espainian erregimen parlamentarioa ezarri izana, Francisco Franco diktadorearen heriotzaren ondorioa da», etab.) Zentzu honetan, azalpen konplexuen bilaketak, agerikoarekin bakarrik ez gelditzeak, arazoen muina bilatzeko ahaleginak, arrazoi ezberdinen arteko harremanak ezarri eta hierarkikoki ordenatzeak, arrazoi hauek ondorioekin nahiz gertakari eta prozesuetako eragileekin lotzeak (gizabanakoekin edota talde eta kolektiboekin), bereziki Historia denaren eta oro har Gizarte Zientziak diren horien ikasketan lanerako objektu izan behar du (gatazka belikoak sortzeko arrazoiak oso konplexuak izaten dira, arte estilo baten eraketa, populazio aktiboaren langabezia-tasa handia duen egoera ekonomikoa edota gizarte baten adierazgarri diren familia-antolamendu moduak diren bezain konplexuak).

Bestalde, gertakari historiko jakin bat gertatu izanaren arrazoiak, garaiko pertsonen gertakari hartan izan zuten egitekoa, gertakariaren ondorioak... eta beste hainbat alderdi

ulertzeko, *empatia historikoen* teknikak bitarteko hartuta, garai eta toki bakoitzera hurbildu beharra dago estrategien bidez. Egoera jakina bizi izan zuten pertsonen edo gizartearen egitekoa ulertzea, beren ekintzaren sustagarri izan ziren arrazoiak eta interesak ulertzen saiatzea, gertatu zen testuingurura hurbiltzea, beren jokaerak baldintzatu zituzten mugak eta eraginak ulertzea... prozesu eta gertakari historikoak modu objektiboan aztertzen lagungarri izango zaizkigun ekintzak dira, betiere, garatu ziren garaiaren eta baldintzen arabera, gure egungo egoeraren parametroetatik bakarrik igorritako epai hutsalak ekidinez.

Azken kontzeptu historiko honek ikerketa historikoaren beste alderdi batera gerturatzeko gaitu; Historia etengabe egiaztatze eta berridazteko beharra ulertzera hain zuzen. Informazio-iturri berriak aurkitzea, ikerketa-tekniken hobekuntza, ikertzaile ezberdinen interpretazioen arteko kontrastea, metodoaren aberastasuna beste zientzietako maileguei esker eta bestelako egoerak dira ezagutza historikoa nolabait metatzaile egiten dutenak (gero eta gehiago dakigu). Honek, era berean, historia etengabe berrikusi egin behar dela ere esan nahi du. Ikasleei begira, hortaz, ez da ahaztu behar historiografia behin eta berri berrikusi beharreko gaia dela eta iraganari buruzko azalpen koherentea besterik ez dela, baina ez inolaz ere behin betikoa. Garrantzitsua da gertakari historikoak *berreraikuntzak* balira bezala irakurtzera ohitu daitezten eta ez *egonkorak eta behin betikoak* diren datuak balira bezala eta azken batean, errealitatearen ezagutza etengabeko ikerketaren mende dagoen zerbait den kontzientzia har dezaten sustatu behar da.

Curriculum Desberdinak Eratzeko Oinarrizko Programak, irakaskuntzari eta ikaskuntzari loturik aipatu diren oinarrizko kontzeptuak hartzen ditu bere baitan. Dena den, ohar txiki batzuk kontuan hartzea komeni da.

Proiektuei buruzko proposamen orokorrean ikerketa-metodologia bat aplikatzeko aukera egin denez, aipaturiko proposamen metodologikoaren eta oinarrizko kontzeptu historikoei buruzko lan-aukeren artean erabateko koherentzia dagoela uste dugu. Kasu honetan, zenbait alderdi historikori buruzko ikerketa honek, historialari batek bere ohizko lanean jarraitzen dituen urratsak erreproduzitu nahi ditu modu xehean; halako paralelotasuna edo simulazioa sortuz aipaturiko lanaren eta ikaslearen artean.

Bigarrenik, aipaturiko kontzeptu historikoei buruzko lana koherentea da Curriculum Anitzeko proposamen curricularrarekin eta gogoratzea komeni denez, honek, DBHko helburu orokorrak lortzea ahalbidetzen duen bidea osatzen du.

Hirugarrenik, Curriculum Desberdinak Eratzeko Programako gazteek, ziurtasun osoz, kontzeptu hauek nola edo hala ikasi izan dituztela izan behar da gogoan. Ez da ahaztu behar aurretik izan duten esperientzia, baina gai ezberdinak jakintzat ematea ere ez da komeni, direnik eta oinarrizkoenak irudituko balitzaizkigu ere. Kasu askotan, ikasten ari direla, jada ezagutzen dituzten tresnak ikerketa-kasuei (informazioaren trataera, azalpenen elaborazioa, etab.) aplikatu beharko dizkiete. Beste zenbaitetan, prozesua gauzatzeko jarraitu beharreko pausoen berri zehatzagoa emango da.

Inolaz ere, proiektu honetan denbora historikoaren edo Historian zehar gertaturiko aldaketen izaerari buruzko gogoeta orokorra egiteko proposamena egin nahi da. Helburua, gehienbat, kasu praktiko batetik abiatuz ezagutza historikoaren inguruko oinarri

sendoa osatzea da: pertsonaia erreal bati buruzko ikerketa oinarri hartu eta hau bitarteko izanik, garaia ezagutzuz eta historialariaren egitekoa ulertuz.

Proiektuaren bigarren zati honetan proposatutako jarduerak egituratzean, funtsezko ideia bat izan da kontuan beti: denboraren pertzepzioa eta historiaren ezagutza azterketa-xedetzat eta ikerketa prozeduratzat hartzea. Proposamen guztia eskuratzeko proposatzen den metodologiaren arabera, ikasleak historialariaren zeregina beteko du. Horrela, historialarien teknikak erabiliko ditu gertakizunak ezagutzeko. Halaber, gertakizunak interpretatzea ahalbidetuko dioten ondorioak aterako ditu eta denborarekin gertatutako aldaketak ulertuko ditu. Garrantzitsuena, agian, ondorio pertsonal hauen eta edozein interpretazio historikoren erlatibotasuna onartzea da.

Ikasleak historia pertsonal baten ikertzaile bihurtuko da eta ikertzaile baten teknikak (dokumentuak, elkarrizketak...) erabiliko ditu. Ondoren, bere ikerketak pixkanaka zabalduko ditu gertakarien, kausen eta iraganaren eta orainaren arteko erlazioen ezagutzara iritsi arte. Horrela, iraganerako garapen progresibo eta ulermenezko bat lortuko da.

Orientabide hauen hasieran adierazi bezala, proposatutako jardueren ardatz egitura-tzailea ikaslearentzat ezaguna eta hurbila den pertsonaia baten historia pertsonalaren azterketa izango da. Azterketa honen bidez, gaurtik abiatzen den eta denboran atzera eginenez mendearan hasierara eramango gaituen denbora-arkuan zehar ibili ahal izango gara. Horretarako, denborari lotutako hainbat kontzeptu eta ikerketa historikorako teknikak erabili beharko dira.

Ikuspegi metodologiko orokorra ikerketarena da. Hortaz, proposatutako jarduerak planteatutako galdera eta arazoei erantzun bat emateko beharretik abiatuta egituratuko dira. Galdera eta arazo horiek «denboraren zentzuari» buruzko kategoria eta nozioei lotuta egon daitezke: iraunkortasuna, aldaketa, kausalitatea eta abar (beti izan al da berdina?, nola aldatzen dira pertsonak, gauzak, ohiturak, zirkunstantziak eta abar?, zergatik aldatzen dira?). Halaber, informazioa bilatzeko metodoei eta hauen sinesgarritasunari buruzko galderak izan daitezke ikerketa historikoa, ahozko iturriak, dokumentu materialak eta abar (nola jakin dezakegu?, fidagarriak al dira iturri hauek?).

Galdera hauei erantzuteko, adierazpen, logika-matematika, estatistika, hizkuntza eta abarri lotutako hainbat tresna, metodo eta teknika erabiltzea, ezagutzea eta menperatzea eskatuko duten hainbat jardura egingo dira. Zenbait kasutan, teknika eta tresna hauek, behar bezala asimilatuta ez daudenez gero, menperatze-maila berreskuratzeko edo eskuratzeko beste batzuekin osatu beharko dira.

Bigarren zati honetako jardueren zerrendan, gertakari historikoen ikerketarekin zerikusia duten kontzeptuen, oinarritzko nozioen eta lan-tresnen garapenari hertsiki lotuta daudenei eman zaie lehentasuna. Ikus daitekeenez, jardura bakoitzetik osatu edo zabal dezaketen beste batzuk sor daitezke, kasu batzuetan ikaskuntzak berreskuratzeko eta beste batzuetan ezagutzak edo landutako eduki batzuk sendotzeko.

Ikasleak inplikatzeko, eduki historikoak gaiaren garapena bideratzeko ardatz gisa balio izango duen ikerketa txiki baten formatuarekin aurkeztuko dira. Nerabeek DBHri buruz duten pertzepzioaren inguruko azterlan berri batean elkarrizketatutako ikasleak

adierazten zutenez, irakasleek erabili ohi zituzten estrategia didaktikoen artean azalpenak, apunteen diktaketa, testuliburuaren irakurketa, aplikazio-ariketak edo antzekoak ziren nagusi argi eta garbi (hau da, transmisio-estrategiak). Halaber, metodo hauekin ikasten ez zutela zioten; aitzitik, aspertu egiten ziren edo ez zuten arretarik jartzen. Gainera, parte-hartze handiagoa eskatzen zuten bestelako estrategia batzuk «interesgarria da», «motibagarria da», «irtenbideak bilatu behar dituzu», «gehiago ikasi» eta antzeko hitzekin baloratzen zituzten. Beraz, gure proposamenean, neska-mutilei nolabaiteko protagonismoa ematen dien eta ezagutza historikoaren eraikuntzan zuzenean parte hartzea ahalbidetzen dien estrategia didaktiko moduan erabiltzen da ikerketa. Hala ere, ikasleak ez du bere kontura jokatu behar. Aitzitik, lana oso modu gidatu eta kontrolatuan planteatzen da eta alde zuzenetik lanari behar bezala ekiteko eta ondoren ikasitakoa sistematizatu eta kokatzeko beharrezkoa den kontzeptuzko eta prozedurazko esparrua ematen zaie.

Oro har, Geografia eta Historia ikastearekin lortu beharreko lehen helburua ikasleek beren nortasun propioa berreskuratzea izango litzateke. Era honetan, egungo errealitate-tik abiatuta, neska-mutilak beren jatorri historiko-geografiko eta kulturalera hurbilduko lirateke. Hortaz, lan egiteko modu honen bidez, ikasleen errealitatea abiapuntu duten ikasketak norberaren nortasun-ezaugarriak garatzeko aprobeitza daitezke eta horrek gizartean duten zeregina betetzea ahalbidetuko die.

Ikaslearen errealitatearen azterketak (eskualde-mailakoak zein familiari lotutakoak) ez du bi faktore horietara mugatuta egon behar. Aitzitik, ikertzeko prozedura eta modu jakin batzuk aztertu eta erabiltzeko abiapuntu izan behar dute. Errealitatea gehiegi sinplifikatzea ere ez da komeni, eskualde-mailakoak eta familiari lotutakoak bezain garrantzitsuak diren errealitatearen beste faktore batzuk alde batera uzten baitira. Gure ikasleei errealitatea —bere zentzurik zabalenean— ikusi eta aztertzeko eta jatorriak izpiritu zientifikoarekin eta, beraz, norberaren bizipenei lotuta bilatzeko tresnak eskaini behar dizkiegu.

Asmoa ikasleak beren inguruneari, pertsonaia hurbil batengandik abiatuta aldaketa estruktural, sozioekonomiko eta historikoek pertsonengan izandako eragina aztertzeko posibilitateari hurbiltzea da. Horren bidez, mota eta jatorri desberdineko dokumentuak erabilita izaera sozio-historikoko erreferentzia zehatz batzuk lortu nahi dira. Oso mota desberdineko informazioa lortuko da, hala nola bizi-baldintzei buruzkoa (elikadura-mota, arropa, etxebizitza, heziketa-maila eta abar) eta lan-baldintzei buruzkoa (lan-motak, lanaldia, soldata eta abar), hainbat pertsonaiak emigratzeko izan zituzten arrazoiak bilatzeko —adibidez— edo industriaurreko landa-gizarte baten eta erabat industrializatutako hiri-gizarte baten arteko konparazioa egiteko helburuarekin. Halaber, gertakari historiko garrantzitsuetako (gera zibila, frankismoa, mundu-gerrak eta abar) bizipenei, jolasei eta aisia-moduei, familiako harremanei, emakumeak gizartean zuen egoerari, ahozko hizkuntzari, kultur elementu propioei edo ohiturei buruzko informazioa lor daitezke.

2.1. BLOKEA. GURE LEHEN IDAZLANA EBALUATZEN DUGU

Lehen jarduera honen bidez, aukeratutako pertsonaiaren bizitzari buruzko ezjakintasuna azpimarratu nahi da ikasleek gogoeta egin dezaten eta datuak eta azalpenak falta direla ikus dezaten. Azalpen historikoaren ideia sartzeko eta informazio hutsetik bereizteko une egokia da.

Ondorioak:

- pertsonaiaren historiaren ezagutza osatugabea da eta erantzunik gabeko galderak daude: datuak eta azalpenak falta zaizkie;
- informazioaren bilaketa bideratzeko galdera zehatzak egin behar dituzte;
- teknika-apur baten laguntza behar dute (ardatz kronologikoarena kasu honetan);
- talde-lana ikaskuntza errazten duen ezagutza-iturri bat da.

Planteatutako galderei erantzun ondoren, interesgarria da osatutako iritziei buruzko eztabaida bat egitea. Une honetan landu beharreko funtsezko ideien artean ondokoak daude:

- galderei erantzuteko orduan kontuan izan beharreko dimentsio kolektibo edo sozial bat dute, hau da, gizarte berekoak direlako bizi izan dituzte gertakari komunak;
- gizarte desberdinak daude eta, beraz, esperientzia indibidualak daude;
- persona baten bizitzak iraganeko errealitateetan kokatutako azalpenak eskatzen ditu edo, beste modu batean esanda, planteatuta dituzten galdera batzuk aurrekoen bizitzan dute erantzuna;
- biografia edo txosten bat egiteko modu desberdinak daude eta guztiak izan daitezke zuzenak eta osagarriak;
- ikaskideen historia norberarena ezagutzeko eta hobetzeko lagungarria izan daiteke.

2.2. BLOKEA. GURE PERTSONAIARI BURUZKO IKERKETA EGINGO DUGU

Interesgarria da jarraituko dugun lan-proposamen hau Hasierako inkestaren (2.1 *documentua*) emaitzekin konparatzea. Inkesta horretan, egungo ikasleek historiari buruz dituen aldez aurreko ikuskera batzuk jartzen dira agerian eta, horien ondorioz, jarrera negatiboa hartzen da. Inkesta hau hainbat taldetan banatu ondoren, emaitzek ondoko kontzeptu eta jarrerak utzi dituzte agerian:

- Historia datak, datuak eta pertsonaiak aztertzen ditu funtsean.
- Ikasleari ez zaizkio datak eta datuak interesatzen eta, gainera, zaila egiten zaio buruz ikastea.
- Egiten den ahaleginak ez dakar ezagutza historikorik: erraz ahazten du ikasitakoa.
- Oroimena neurritz kanpo baloratuta dago historia ezagutzeko gaitasun gisa. Arazoak konpontzeko gaitasuna ordea, ez dago behar bezain ongi baloratuta.
- Eztabaidak eta talde-lanak atsegin ditu.

Egoera hau positiboa da ikaskuntzarako. Lan honen bidez, ikasleek historiari eta metodo historikoari buruz dituzten aldez aurreko ikuskera horiek alda dezaten lortu nahi da.

Edozein jardueratan, ikasleek garatu behar duten lana zein den jakin behar dute, are gehiago kasu honetan; izan ere, gaiak harrিতa eta nahasita utz ditzake, agian ez baitator bat historiatzat hartzen dutenarekin. Funtsezkoa da gaia aurkeztea ikasleak noraezean ibil ez daitezen eta lana oinarritzeko arrazoi gehiago izan ditzaten.

Talde guztiek aurreko gaiei buruz dituzten iritziak jasoko dira. Horretarako, talde bakoitzak aldez aurretik antolatu beharko du arau batzuen bidez. Arau hauek laneko koardernoan idatzi beharko dira eta etengabe berrikusi beharko dira betetzen diren egiaztatze (bozeramaileak, moderatzailea, dokumentuak, ondorioak...).

Klase osoak bere gain hartutako ondorioak koadernoetan jaso beharko dira. Ondorio hauek islatuko dituzte jarduera bakoitzean ikasitako edukiak.

2.2.1. jarduera. Nola egiten da Historia?

Atal garrantzitsua da proposamen didaktikoaren barruan, proposatutako funtsezko kontzeptu batzuk argitzera zuzenduta baitago: historiaren zentzua eta funtzioa, historia-lariaren lana, historiaren objektibotasun/subjektibotasuna, enpatia historikoa...

Zergatik egiten dugu historia eta zertarako balio du?

Bi jarduera handiren bitartez garatutako epigrafe honen bidez, ikasleek historia nola egiten den, historialariaren ofizioa zein den, zein arazo dituen eta historia egitearen helburua zein den jakitea lortu nahi da.

Berreraikuntza historikoak dakartzan zailtasunak eta, aldi berean, gure egungo gizartearen zer gertatzen den zentzu sakonago batean ulertzeko historia ezagutzeak duen garrantzia egiaztatu eta bizi beharko dituzte.

Bi jarduerak garatzen hasi aurretik, ezagutza historikoari buruzko kontzeptuzko mapa bat aurkeztuko zaie. Komeni da mapa hau berariaz eta hainbat modutan lantzea:

- ezagutza historikoari buruzko ideiarekin erlazionatzen dituzten hitzak idaztea eta, bateratze-lana egin ondoren, kontzeptuzko maparekin kontrastatzea eska dakieke;
- kontzeptuzko mapa osoa landu aurretik, atal batzuk ezabatuta dituen mapa bat eman dakieke talde txikitan osatzen saia daitezen;
- kontzeptuzko mapa irakurri eta interpretatu ondoren, testu batean berriz idaztea edo beren hitzekin ulertu dutena islatzeko kontzeptuzko mapa bat egitea eska dakieke;
- ...

Nolanahi ere, interesatzen zaiguna ikasleak ezagutza historikoaz jabetzea eta beren hitzekin kontzeptu hau definitzeko gai izatea da.

Kontzeptuzko maparekin egin beharreko lana amaitu ondoren, bi jarduera proposatzen dira:

—2.2.1.a. *Iraganean errotutako egungo gertakizun bat.*

Jarduera honen bitartez ondoko galderari erantzun nahi zaio: jakin al daiteke gaur egun zer gertatzen den historia neurri txiki batean bederen ezagutu gabe? Hau da, historia baliagarria izan al daiteke gure errealitatea irizpide osatuago batzuekin interpretatzeko eta gure inguruko gertakizunak ulertzeko gaitasuna zabaltzeko? Horretarako, azken aldian prentsan oso maiz agertzen den Irlandako gatazka lantzea proposatzen da (2.2 dokumentua). Lehen atalean irakurritako *Angelaren errauntsak* eleberriarekin lotzeko erraza delako eta gatazka konplexua delako aukeratu dugu gai hau. Izan ere, zaila da ulertzea gatazka kokatzeko informazio-parametrorik gabe. Dokumentuen artean, gaiari buruzko azalpen zabal bat dago. Erabiltzen bada, kasu bakoitzeko berariazko interes eta beharretara egokitzea komeni da.

Jakina, beste adibide asko erabil daitezke —batzuk hurbilagoak— gai hauek lantzeko: Jugoslaviako gatazka, Afrikako herrialde batzuetako arazoak edo Espainiako Estatuko beste adibide asko.

—2.2.1.b. *Zer egingo nukeen nik egoera horretan?*

Gertakizun historikoek pertsonen bizitzan duten eragina. Ikasleek, egiten zaien proposamenaren bitartez, pertsona jakin batzuek Espainiako gerra zibilean eta gerraren ondoren izandako erreakzio batzuk (urte askotan egoera politikoaren beldur ezkutatuta bizi izan ziren «sator» izenekoak adibidez) ulertu ahal izateko enpatiazko jarrera bat hartu behar dute (2.3 dokumentua).

Nola ikertzen da historian?

Historia egitearen zeregina ez da erraza. Izan ere, iraganari buruzko ezagutza osatuga-bea da, batzuetan iturriek behar adinako datu esanguratsurik (behar adina argibiderik emango dutenik) ematen ez dituztelako, besteetan galderak erantzun gabe geratzen direlako eta hipotesiak besterik ez daudelako (kasu honetan datuak beti interpretagarriak izanik). Beharrezkoa da ikasleak historia datuetan eta gertakarietan oinarritzen dela baina aldi berean historiak gertatutakoak azaltzeko eta ulertzeko zeregina betetzen duela jabeaztea.

Antzeko zerbait gertatzen da detektibe batek kasu bat ikertu behar duenean: pistak bilatu, hipotesiak atera eta galderak egin behar ditu. Hauxe da proposatzen zaien lana: detektibearena egitea eta, ematen zaizkien datuekin, kasu bat ebaztea.

Soluzioak edo interpretazioak askotarikoak izan daitezke baina denek nolabaiteko logika bat izan behar dute eta gertatutakoari argibideren bat eman behar diote. Zeregin nagusia *Aitor Gonzalezen heriotza bitxia (2.4 dokumentua)* da baina beste polizia-kasu txiki batzuk ere ematen dira (koadernoan zein dokumentuen txostenean) datu gutxiagorekin eta errazago lan egin ahal izateko.

Ikerketaren ondorioak laneko koadernoan idatzi beharko dira. Zeregin hau taldeka ere egin daiteke.

2.2.2. jarduera. Ikertzeko geure lan-gidoia egiten dugu

Ikasleek zer landuko duten jakin eta pertsonaia hurbil baten bizitzari buruzko azterlanaren zentzua planteatuta geratu ondoren, lanean hasteko prest egongo dira.

Une honetan funtsezko hiru fase daude:

- a) Ikaslearengan bere ustez aukeratutako pertsonaiaren bizitzaz dakienaren eta aurkitutakoaren arabera ez dakienaren (hutsuneak informazioari eta azalpen garrantzitsuei dagokienez) arteko ezagutza-gatazka bat sortzea. Arazo hau dagoela jakiten dutenean, pertsonaiaren bizitzari buruzko gauza gehiago ezagutzeko prozedura bat hartu beharko da.
- b) Arazoaren funtsezko elementuak definitzea:
 1. Galderei erantzuteko orduan kontuan izan beharreko dimentsio kolektibo edo sozial bat dute.
 2. Pertsona baten bizitzak iraganeko errealitateetan kokatutako azalpenak eskatzen ditu edo, beste modu batean esanda, planteatuta dituzten galdera batzuk aurrekoen bizitzan dute erantzuna.

Iturriak landu egin behar dira informazioa ateratzeko: argazki batek, dokumentu batzuek, objektu batek... etekin handia ematen dute ongi erabiliz gero (*2.5 dokumentua*).

Kasu gehienetan ikasleek pertsonaiaren bizitza ikertzeko egin duten gidoia partziala eta osatugabea izan daitekeela ulergarria denez gero, jarraian azalduko ditugun jardueren bidez lana ezagutza historikorako bide probetxugarriagoetatik bideratzen saiatuko gara.

Multzo hau ondoko lan-ildoek osatzen dute.

2.2.3. jarduera. Gure pertsonaiari buruzko ikerketa egiten dugu: denbora

Hau da, denborari lotutako iturrien azterketa: gertakari historiko edo bizitza oro denboran gertatzen da, bai eta aukeratutako pertsonaiaren bizitza ere. Beharrezkoa da denbora-parametro hau ulertzea (zuhaitz genealogikoa, abizenei buruzko azterlanaren ga-

rrantzia). Bi gai lantzen dira: 2.2.3.a (2.6 eta 2.7 dokumentuak). Nondik gatoz eta 2.2.3.b. Denbora ere neurtzen da (2.8, 2.9 eta 2.10 dokumentuak).

2.2.4. jarduera. Gure pertsonaiari buruzko ikerketa egiten dugu: espazioa

Iturrien eta espazio historikoaren arteko erlazioa: espazioa ezagutzeak gertakari historikoak argitzen laguntzen du. Asmoa ez da azterketa espazial (geografiko) bat egitea, espazioa gertakari historikoak azaltzeko informazio gisa erabiltzea baizik (2.11 dokumentua).

2.2.5. jarduera. Gure pertsonaiari buruzko ikerketa egiten dugu: eguneroko bizitza

Ikasleek gehiegizko balioa eman ohi diete alderdi indibidualei eta historia indibidual eta pasadizokora jo ohi dute, historia kolektiboa kontuan hartu gabe. Halaber, eguneroko bizitza, «mundu guztiari gertatzen zaiona», hots, «normala dena» gutxiesteko joera dute. Ulermen historikorako hain garrantzitsuak diren alderdi kolektiboak sustatzeko landu dugun atal honetan, aldaketak eta iraunkortasunak, belaunaldien arteko aldibere-kotasuna eta abar landuko dira.

Iragana berreraikitzeke ahozko iturriak erabiltzen dira eta jasotzen diren lekukotasunek eskaintzen dituzten esperientzia pertsonalak oso baliagarriak dira oroimen kolektiboa berreskuratzeko; gehienak bezalako pertsona apalen bizitzari buruzko oroitzapenetan grabatutako iraganeko ikuspegiak dira. Ahozko historiako espezialista ospetsua den Ronald Fraser-en arabera, «hobekien gogoratzen dena eguneroko bizitza da ia beti, eguneroko errutinak eta borrokak lanean, etxean, eta abar. Politika ordea ez da hain ongi gogoratzen. Ahozko lekukotasuna iturri baliagarria izan daiteke ikerketa historikorako, betiere oroimenak hobekien erraz diezazkigukeen alderdiak kontuan hartzen baditugu». Beraz, ikasleek ahozko iturrien ikuspegitik ekingo diote pertsona zehatz eta hurbilen eguneroko bizitzari: ikertu beharreko alderdien artean haurtzaroa, eskola, modak, ohiturak, aisia, lana, etxeko arazoak, bizitzaren aurrean azaldutako jarretan agertzen den balore-sistema aipa daitezke. Dena den, esan beharra dago lehen mailako bestelako iturriak (dokumentalak, ikonografikoak edo materialak) eta historiografiaren interpretazio berriak ere erabiltzen direla lekukotasunak ikuspegi ahalik eta orokorrean kokatzeko eta ahozko iturrietan azal daitekeen subjektibotasuna erlatibizatzeke.

Proposatzen dugun zeregin nagusia eguneroko bizitzari buruzko galderak egitea eta ondoren aukeratutako pertsonari elkarrizketa egiteko erabiltzea da. Elkarrizketan, datu objektiboak zein iritzi pertsonalak edo jendeak egoera jakin batzuetan izan zuen bizimoduari edota aldaketa historikoak eguneroko bizitzan zuten ondorioen bitartez antzemateko moduari buruzko oroitzapen kuttunak interesatzen zaizkigu (2.12 dokumentua).

2.2.6. jarduera. Gure pertsonaiari buruzko ikerketa egiten dugu: gertakizun historikoak

Ikasleek pertsonaiaren garai berean eta espazio desberdinetan gertatutakoen eta pertsonaiaren bizitzaren artean nolako erlazioa dagoen kontuan izan dezaten lortu nahi da. Jarduera hauetan aldiberekotasunaren ideia sendotzen da eta gertakari bat azaltzeko ikuspegia zabaltzen da, hainbat aldagai garrantzitsu sartzen baitira (politikoak, zientifikoak, ekonomikoak, artistikoak eta abar).

Gertakizun hauetako batzuk taldeka aztertuta, beren pertsonaia jaio zenean zer gertatzen zen azertu (horrek egunkari baten azala edo lehen orrialdea lantzea ahalbidetuko du), XX. mendeko kronogramak landu eta historia pertsonalaren eta gertakizun historikoen arteko erlazioak ezarri beharko dituzte (*2.13, 2.14 eta 2.15 dokumentuak*).

2.2.7. jarduera. Jasotako datuekin txostena egitea

Aurreko jarduera guztien bidez, lan-gidoia lantzean segur aski kontuan hartuko ez zituzten azterketa eta informaziorako posibilitateak zabaldu nahi zaizkie ikasleei. Hori dela eta, jarduera-multzoa amaitzean txostena egin aurretik gidoia berrikustea proposatzen dugu, era honetan txostenak lehen proposamenaren sinpletasunari erantzun ez diezaion.

Txostena egiteko zenbait iradokizun eta irizpide aurkezten dira laneko koadernoan.

HIRUGARREN ATALERAKO ORIENTABIDEAK: AMAIERAKO PROIEKTUA

Atal honen bitartez, ikasleek kontakizun biografiko baten produkzio idatzia egin beharko dute. Kontakizuna proiektuaren lehen zatian aukeratutako pertsonaiari buruzkoa bada ere, pertsonaiaren nortasuna eta ingurune soziohistorikoa osatuko duten funtsezko datu batzuk barne hartu beharko dira. Datu hauek 2. atalean amaitu berri den ikerketa-zatian lortu eta aukeratutakoak izango dira.

Kontakizuna osatuagoa izan dadin, proiektuaren lehen zatian aurreratu ditugun eta orain *ikaskuntza-moduluen* bidez osatuko ditugun hizkuntza-izaera handiagoko hainbat ezagutza barne hartu beharko dituzte ikasleek. Hain zuzen ere, generoari berari (biografiari) eta narrazioari lotutako alderdiak dira. Horrela, bereziki diskurtso deskribatzailea ikusiko dugu eta, aipatutako generoaren ikuspegi berritik, hainbat gairi (narratzailea, denbora, espazioa eta abar) helduko diegu.

Ikaskuntza hauek guztiek bat egin ondoren, hasitako kontakizuna osatu, berrikusi eta behin betiko produkzioa idatziko dute. Ondoren, ebaluazioaren txanda izango da.

Hirugarren atal honetan barne hartutako atalak eta jarduera-multzoak ondokoak dira:

Blokeak	Jarduerak	Dokumentuak
3.1. IDATZITAKOA BERRIKUSTEN DUGU	3.1.1. Gure lehen idatzia berreskuratzen dugu. 3.1.2. Informazioa antolatzen dugu. 3.1.3. Ikaskuntza-moduluak.	3.1. Biografiaren ezaugarriak. 3.2. Deskribapena. 3.3. Narrazioa.
3.2. BIOGRAFIAREN IDAZKETA	3.2.1. Gure idatziaren bigarren bertsioa.	3.4. Lanerako jarraibideak.
3.3. EBALUAZIOA	3.3.1. Zuzenketa. 3.3.2. Azken idatzia. 3.3.3. Berrikuspena.	3.5. Ebaluaziorako jarraibideak.

3.1. BLOKEA. IDATZITAKOA BERRIKUSTEN DUGU

3.1.1. jarduera. Gure lehen idatzia berreskuratzen dugu

Proiektuaren hirugarren atal honetan, ikasleek lehen idatzia berreskuratu eta berritu beharko dute azken bertsioa lortu arte. Horretarako oinarrizko hiru eragiketa egin beharko dituzte:

- a) Ikerketa historikoari buruzko 2. atalean lortutako informazioa eranstea.
- b) Atal honetan erantsitako ikaskuntza-moduluak aplikatzea.
- c) Idatzia berrikustea eta behin betikoa idaztea.

Jarduera honetan, I. atalaren amaieran egindako idatzia berreskuratu eta ondoko galderak erantsiko dizkiote:

- Zure ustez, zer du faltan zure idatziak?
- Eta soberan?
- Ongi idatzita dagoela uste al duzu?
- Zure ustez, biografia behar bezain osatua al da?
- Ikerketaren bitartez lortutako zein datu barne hartu behar dituzu oraindik?
- ...

3.1.2. jarduera. Informazioa antolatzen dugu

Ikerketa-proiektuaren bidez lortu duten informazio guztia berrikusi egin beharko da biografiarako interesa duena aukeratzeko.

Horretarako, datuak sistematizatzeko balio duen taula bat barne hartzen da koadernoan, datuak behar direnean jaso ahal izan daitezten.

3.1.3. jarduera. Ikaskuntza-moduluak

Lehen proiektuan adierazi bezala (ikus 3. atala, 3. Fasea: berariazko ikaskuntza-moduluak): Lehen atalaren emaitza gisa hasierako produkzio bat sortu zen eta, bakoitzaren berariazko balorazioa egin ondoren (irakasleak hasieran eta ikaslearen eta irakaslearen artean eta taldearen eta irakaslearen artean ondoren), zenbait arazo antzematen dira eskatutako testuaren testualizazioan. Arazo hauek askotarikoak eta desberdinak izan daitezke esanahiari eta eraginari dagokionez. Gainera, batzuetan ikasle guztientzat komunak izango dira eta beste batzuetan berriz, ikasle jakin baten berariazkoak.

Berariazko ikaskuntza-moduluetan oinarritutako proposamen honen alderdirik interesgarriena ondokoa da: denek ez dute nahitaez dena eta aldi berean egin behar; aitzitik,

dituzten ezagutzetatik eta hasierako produkzioan ikusitako berariazko arazoetatik abiatuta, egindako testuak hobetzeko helburua izango duten hainbat lan-sekuentzia antola daitezke.

Ikaskuntza-modulu hauek testuaren dimentsio problematikoetan oinarrituta egon behar dute eta hainbat jarduera (kolektiboak, talde txikitan edo bakarka) eta prestaketa-riketa aurkeztuko dituzte ikasle bakoitzari laneko moduak aldatuta nozio edo trebetasun desberdinak lortzeko aukera ematearren.

Ikaskuntza-modulu hauek, ikasleek ezagutzen dutenaren eta ikasteko falta zaienaren artean tentsioa sortzea eskatzen dute. Ikasleek, narrazioa bezalako testu-mota baten ezagutza-tratamendua errazten duten elementu komunez gain, sekuentzia honi dagokion generoaren (biografikoa) berariazkotasuna ezagutzea ahalbidetzen duten desberdintasunak landuko dira.

Fase honetan gara daitezkeen ikaskuntza-moduluak erabiltzeko modu bat baino gehiago dago:

- Garrantzitsuak edo oinarritzkoak izateagatik ikasle guztiek elkarrekin landu beharreko modulu bat edo batzuk aukeratzea klaseko talde osoarentzako ezagutza homogeneo eta komun bat bermatzeko.
- Modulu bakoitza ikasle edo ikasle-talde bakoitzak dituen defizitak kontuan hartuta lantzea eta, kasu bakoitzean, ikasle batzuk dituzten berariazko arazoetan oinarritzea.
- Talde osoarekin landuko diren modulu batzuetako edo guztietako jarduera batzuk aukeratzea eta, bakoitzaren egoeraren arabera, beste jarduera batzuk zabaltzeko edo sendotzeko uztea.

Modulu hauetarako materialak ondokoetan aurki daitezke: *3.1 dokumentua (Biografiaren ezaugarriak)*, *3.2 dokumentua (Deskribapena)* eta *3.3 dokumentua (Narrazioa)*. Jarraian bakoitzari buruzko iradokizun eta azalpen batzuk eskainiko ditugu.

3.1 DOKUMENTUA. BIOGRAFIAREN EZAUGARRIAK

A) *Zer da biografia bat?*

Azalpenezko testu labur baten bidez biografia eta historian izan duen eboluzioa definituko dugu.

B) *Biografiaren egitura*

Atal honetan ondoko alderdiak barne hartuko ditugu:

- Biografiaren berezko gaiei eta arrazoiei buruzko azalpenezko testua.
- Biografien egitura posibleak (kronologikoak, tematikoak...).
- Biografia bat hasteko modua: genero honetako kontakizun bati hasiera ematen dioten hainbat testu eta irakurritakoa praktikan jartzeko hainbat jarduera eskaintzen dira:

Biografiaren egiturari lotutako jarduerak:

1. Binaka pertsonaia ezagun baten azalpen biografikoa egitea. Lehenik eta behin, datuak bilduko dira eta ondoren, irizpide kronologikoei edo bestelakoei jarraiki, ordenatu egingo dira. Gogoan izan behar da azalpen biografikoak laburra izan behar duela. Ondoren, azalpenak talde handian irakurriko dira eta gainerakoek pertsonaia nor den asmatu beharko dute.
2. Biografia labur bat —ohar biografiko moduan— egitea ondoren ikaskideari irakurtzeko. Kontuan izan behar da pertsonaiaren bizitzari buruzko daturik azpimarragarrienek kronologikoki ordenatuta egon beharko dutela.
3. Hasita dugun produkzio biografiko *indibidualari* dagokionez:

—Aukeratutako pertsonaiari buruzko ohar biografiko bat egitea. Ohar hau eskema gisa baliagarria izango da pertsonaiaren bizitzan izandako gertakari-
ren bat ez ahazteko.

—Idatziaren egitura:

- Ordena kronologikoari jarraituko al diozu beti?
- Nola hastea pentsatu duzu? (Adierazi idatzia zehazki, zein bizi-ziklori buruzko izango litzatekeen eta zein diskurtso-mota erabiliko zenukeen).
- Ohar biografikoan oinarrituta, saia zaitez egitura bat kapituluka egiten eta adieraz ezazu, oso azaletik bada ere, kapitulu bakoitzean zer barne hartuko zenukeen.

C) *Biografia-motak*

Atal honetan ohar biografikoa eta azalpen biografikoa deskribatzen dira. Ondoren, identifikatu beharreko bi testu barne hartzen dira, ohar biografikoa bata eta azalpen biografikoa bestea.

—*Ohar biografikoa*. Kronologikoki aukeratutako datu-multzo bat da. *Curriculum vitae* baten forma du: gertakari azpimarragarriak, urteak, lekuak, gertakizunak...

Zenbaitetan, ohar biografikoa hotza eta laburra izan daiteke.

—*Azalpen biografikoa*. Biografia osatugabe bat da, zehaztugabe samarra. Pertsonari buruzko daturik esanguratsuenak besterik ez dira aukeratzen. Aukeratutako apunteak dira.

D) *Biografiaren eta autobiografiaren arteko desberdintasunak*

Bai biografiak, bai autobiografiak, gai berari, hots, pertsona baten bizitzari buruzko idatzi bat garatzen dute.

Autobiografiaren kasuan, autoreak berak kontatzen du bere bizitza, berak deskribatzen du bere burua eta, beraz, autorea, narratzailea eta protagonista bat bera dira. Autobiografiak beste hainbat azpigenere ere eskaintzen ditu: eleberrri autobiografikoa, oroitzenak, aitortzak, egunkaria eta abar.

Ildo honetan, ikusi ditugun testu biografikoak hasieran irakurritako *Angelaren errautsak* liburuarekin osa litezke.

Ondoko taulan bi generoen arteko desberdintasunak ikus ditzakezu:

Desberdintasunak	Biografia	Autobiografia
1. Narratzailea	Norbaitek pertsonaia bati buruz idazten du. Autorea eta narratzailea bat bera dira.	Autorea, narratzailea eta pertsonaia nagusia pertsona bera dira.
2. Heriotza	Biografia gehienak pertsonaiaren heriotzarekin amaitzen dira.	Pertsonaia ez da hiltzen. Norberaren bizitzari kohesio bat eman nahi zaio heriotza heldu aurretik.
3. Oroimena	Informazio-iturri desberdinekin (irakurritako datuak, lekukotasunak, dokumentuak eta abar), hau da, besteen oroimenarekin lan egiten da (zenbaitetan norberaren oroitzapenak barne har badaitezke ere).	Norberaren oroimenean oinarrituta lan egiten da.
4. Ordena	Abiapuntua ez dago oso definituta, zenbaitetan oraina bada ere. Esperimentzia ez ezik, dokumentazioa ere kontuan hartzen da. Iragana aurkitzen da.	Orainetik abia daiteke iraganera iristeko. Iragana aurkitzen da berriz.
5. Estiloa	3. pertsonan kontaktzen da normalean, autorearen iritziak ager badaitezke ere. Hainbat narratzaile ager daitezke (lekukotasunak).	1. pertsonan kontaktzen da. Beste narratzaile batzuk ere ager daitezke (lekukotasunak) baina ez da hain ohikoa, lehen pertsonak bere burua deskribatzen baitu.

3.2. DOKUMENTUA. DESKRIBAPENA

Biografia batean, deskribapen egokiak egitea oso garrantzitsua da, era honetan gure pertsonaiaz gauza gehiago eta zehatzagoak jakingo baititugu: nolakoa zen (fisikoki eta izaeraz), bere ingurukoak nolakoak ziren, zein zen bere giroa, bere hiria, inguruko objektuak...

Kapitulu honetan ikasleak deskribapenaren gaian oinarrituko dira: zer den, nolakoa izan daitekeen, zer deskribatzen den eta abar. Horretarako, ondoko atalak izango dituzte:

- A) Zer da deskribatzea?
- B) Deskribapen-motak: objektiboa/subjektiboa.
- C) Deskribatzen duguna (animaliak, objektuak, lekuak...).
- D) Erretratua.
- E) Hizkuntza deskribapenean.
- F) Berrikuspena.

Atal hauetako bakoitzak hainbat jarduera barne hartzen ditu. Batzuk oso zabalak dira, hala nola erretratuari dagokiona (horrela zenbakituko dira: D.1, D.2...). Azken batean, horixe da gehien interesatzen zaigun alderdia gure biografia ezagutzeko.

A) *Zer da deskribatzea*

Ikasleentzako azalpenezko testua barne hartu dugu:

Deskribapen bat egin aurretik, oso garrantzitsua da *behaketa*. Deskribatuko duguna ikasi ondoren, nahi dugun alderditik hasiko gara eta ahalik eta datu gehien bilduko ditugu aurrerago garrantzitsuenak aukeratzeko («Aspertzearen sekretua dena esatea da» zioen Voltairek). Ikusten ari garena ezagutzeko ezinbestekoa besterik ez dugu gordeko.

Idazten hasi baino lehen, komeni da *erabaki* batzuk hartzea ikusten duguna eskuinetik ezkerrera edo alderantziz deskribatuko dugun, deigarrietik zuhurrenera, orokorretik xehetasunetara eta abar. Halaber, deskribatuko denari buruzko apunteak hartu edo funtsezko termino batzuk idatzi ahal izango dira (funtsezkotzat hartzen dena adibidez). Prozedura zehatza zure esku egongo da.

Estilo deskribatzaileak plastikoa eta garbia izan beharko du, itzulinguru eta azalpen luzeegirik gabe.

Kontuan izan behar da idatziaren *hartzailera*, kasu honetan gainerako ikasleak eta irakaslea. Deskribapena talde handian azalduko denez gero, komeni da publikora nola irits daitekeen pentsatzea. Halaber, ezin dugu gure deskribapenaren *helburua* ahaztu: gure asmoa deskribapena ahal bezain argia, argigarria, misteriotsua eta abar izatea edota, besterik gabe, irakurleak deskribatu nahi dugunari buruzko ideia bat egitea izan daiteke.

Edozein deskribapenetan, hizkuntza-elementu jakin batzuk hartu beharko dituzu kontuan, aurreko ariketetan ikusitakoak hain zuzen ere:

- Erabiliko duzun *aditz-denbora* nagusia. Normalean iraganaldi burutugabea erabiltzen da, zenbaitetan orainaldiarekin konbinatuta.
- Deskribapenetan maiz gertatzen da *izenak eta adjektiboak* kategoria nagusiak izatea. Izenei dagokienez, objektuak eta izakiak izendatu eta sailkatzen dituzte. Zehatzak dira zerbait erreal, zehatza (gauza bat, objektu bat, paisaia bat...) aipatzen dugunean, eta abstraktuak sententziak edo sentimenduak deskribatzen ditugunean (tristura, alaitasun eta abarri lotutakoak).
- Edonola ere, deskribapen batean protagonista *adjektiboa* da baina horrek ez du esan nahi neurritz kanpokoak izan behar dutenik edo testua oso kargatuta utzi behar dutenik. Izenaren atzetik joan ohi dira: kamioi gorria, bufanda luzea eta abar. Adjektiboek ikusten dugunaren edo ikusten dugunean sentitzen dugunaren inpresio zehatzagoa edo orokorragoa ematen dute.
- Bestelako *literatur baliabideak*: deskribapenetan oso maiz ikus daitezke hainbat literatur prozedura, hala nola pertsonifikazioak, konparazioak eta metaforak.

Aurrerago, deskribapenak funtsean bi *motakoak* izan daitezkeela ikusiko dugu: objektiboak edo subjektiboak. Gainera, oso deskribapen desberdinak egin ditzakegu deskribatu nahi dugunaren arabera (pertsonea, animalia, gauza, eszena, irudia eta abar).

Deskribapena	
Oinarria	<ul style="list-style-type: none"> • Behaketa
Kontuan hartu beharrekoak	<ul style="list-style-type: none"> • Hartzailea • Helburua • Ordena jakin bat
Estiloa	<ul style="list-style-type: none"> • Argia, zehatza
Elementu bereizgarriak	<ul style="list-style-type: none"> • Aditzak iraganaldi burutugabeen • Izen ugari • Adjektibo ugari
Literatur baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Metafora • Konparazioa • Pertsonifikazioa

Jarraian irakurriko duten Eduardo Mendozaren *El misterio de la cripta embrujada* testuan, adjektiboak moztu eta testuingurutik atera dira. Jardueraren helburua, ikasleek adjektiboak leku egokian jartzea da. Horrela, adjektibo bakoitzak eskaintzen duen zehaztasunaz deskribapenean erabiltzen direnean nabari den estilo-aberastasunaz jabetuko dira.

Testuaren ondoren, landutako alderdiei buruzko galdera-sorta labur bat agertzen da.

B) *Deskribapen-motak: objektiboak / subjektiboak*

Iritzi eta sentsazio pertsonalak (edo besteenak) barne hartu ordez datu errealei ahalik eta zehaztasunik handienarekin mugatzen zaien deskribapen bat egiten dugunean, deskribapen objektibo bat egiten dugu.

Aitzitik, erreferente berari buruzko deskribapen subjektibo batek aurreko deskribapenean aipatutako datu asko hartuko ditu kontuan baina zure ustez egokienak direnak aukeratu eta adierazi ahal izango dituzu. Datu batzuk errepikatu egingo dira bi deskribapenetan —ia denak— baina deskribapen subjektiboan zer iradokitzen diguten, objektu horrekin edo leku horretan zer egin genezakeen, ikusten dugunak zer transmititzen digun (alaitasuna, harridura, haserrea) eta abar barne hartuko dugu. Deskribatzeko askoz modu libre eta literarioagoa da, mota orotako iruzkinak eta estilo-baliabideak barne hartzeko aukera ematen duena.

Ondoren hiru deskribapenak ikusi eta iruzkinak egingo dira ondoko galdera-sortaren bitartez:

- 1) Zein iruditzen zaizu objektiboena? Eta subjektiboena?

- 2) Azpimarra itzazu testuetan subjektibotasuna adierazten duten elementuak: pentsamendu propioak, iritziak, iruzkinak, gustuak...
- 3) Adieraz ezazu literatur baliabideren bat (konparazioa, metafora, hiperbolea, pertsonifikazioa) hiru testuetako edozeinetan.
- 4) Zein deskribapen-mota erabiliko zenuke zure idatzi biografikoan?

C) *Deskribatzen duguna (animaliak, objektuak, lekuak...)*

Deskribapenari buruzko atalarekin jarraituta, izenburuan aipatutako alderdien deskribapena aztertuko dugu. Hurrengo kapituluan erretratua azalduko dugu.

Funtsean, dena deskriba daiteke baina deskribatu behar duguna aukeratu behar dugu (begien aurrean duguna, barruan daramaguna, burura datorkiguna...).

Bestalde, oso desberdina da pertsona baten erretratua egitea eta objektu bat eta bere erabilerak, animalia bat, paisaia bat eta abar deskribatzea.

Atal honetan, ondoko jarduerak eskaintzen zaizkie ikasleei:

1. Deskribapen desberdinak dituzten hiru testu eta osatu beharreko iruzkin bat.
2. Hiru irudi (objektua, lekua eta animalia). Ikasleek bat aukeratu eta deskribatu egin beharko dute jarraibide batzuen arabera.
3. Fitxa baten bidez aukeratutako pertsonaiaren bizitzari lotutako animalia, leku edo gauza bat deskribatzea.

D) *Erretratua*

Terminoak laburki argitzen hasiko gara, prosopografia eta etopeia aipatuko ditugu eta ondoko adibideak barne hartuko ditugu:

—Prosopografia: kanpoko itxuraren, ezaugarri fisikoen eta arroparen deskribapena.

Polifemo izeneko Toledano koronelak lebita luzea, koadrozko galtzak eta kapelu luze eta hegal-zabala eramaten zituen. Garaiera erraldoia, ibilera zurruna, beldurgarria [...]

A. Palacio Valdés

—Etopeia: sentimenduen, ohituren, izaera-ezaugarrien eta nortasunaren deskribapena.

Baroia, gure aita, gizon nekagarria zen, egia da, baina ez zen gaiztoa; nekagarria bere bizitzan ideia desegokiak nagusi zirelako, trantsizio-garaietan maiz gertatzen den bezala [...]

I. Calvino

Horrez gain, erretratu objektiboa eta subjektiboa aipatuko ditugu.

Erretratua, gainerako deskribapenak bezala, subjektiboa edo objektiboa izan daiteke. Adibidez, erretratu robota objektiboena izango da (ez du balorazio edo konparaziorik

iradokitzen, indibidualizatzen duena nabarmentzen du —orbain bat adibidez—. Erretratu subjektibo batean aldiz, adibidez maitatzen edo gorrotatzen den norbaiten deskribapen idealizatua, konparazioak, metaforak eta abar agertzen dira.

Jarraian erretratuarekin zerikusia duten 11 jarduera aurkeztuko ditugu. Beharbada gehiegi izango direnez gero, gutxien komeni direnak utzi ahal izango dira.

Jarduerak ondoko izenburuak dituzte:

- D1. Kanpoko eta barruko erretratua.
- D2. Pertsonaiaren deskribapena.
- D3. Erretratua zatika.
- D4. Abisua.
- D5. Lan-iragarkia.
- D6. Haurtzaroko argazkia.
- D7. Buruhausgailua*.
- D8. Sentsazioak.
- D9. Orientabide-oinarria.
- D10. Zodiakoaren zeinuak.
- D11. Argazkiko pertsonaia*.

Jarraian D7 eta D11 jardueren soluzioak aurkeztuko ditugu.

—D7 jardueraren soluzioak:

«Alma Mahler: con garras de acero», *Historias de mujeres*, Rosa Montero, Alfaguara, Madril, 1995.

Alma Mahler (Alma Schindler sortzez, Schindler pintore ezagunaren alaba) artista bat zen. Bederatzi urterekin musika konposatzen hasi zen eta hogeitau urte bete zituenerako ehun bat lieder eta zati instrumentalak eta opera-zatiak idatzita zituen.

Pianojole aparta zen eta Vienan denen ahotan zebilen bere etorkizun handiko talentua. Eta are aipatuagoa zen bere edertasuna, garai hartan emakumeen talentua apaingarri bat, bitxikeria bat besterik ez baitzen. Alma garai hartako emakume ederrenetako bat zen: garaia, oparoa, begi urdin-urdinak, hazpegi perfektuak. Egungo ikuspegitik, bere aurpegiera agian zuzenegia eta azukreztatua suertatzen da, bere gorpuzkera mardulegia. Bere garaian ordea, modaren ezaugarri guztiak betetzen zituen. Dena dela, erakartzeko ahalmen mitikoaren arrazoia, bere itxura soila ez ezik, bere nortasuna zen. Irtirina, azkarra, jantzia, distiratsua, originala zen. Inguruko gizonezkoak erotuta ibili ziren bere atzetik.

Aztia, sorgina, ona, ama lurra: horrela aipatzen zuten Alma gizonezkoek. Hitz legendarioak, funtsezkoak, Alma «femeninoaren» eredu gisa definitzen dutenak. Alma *emakumea* da, gizonezkoaren burutik, ametsetatik eta beldurretatik sortutako arketipoa. Eta Alma beste batzuek asmatutako irudikeria horretara egokitu zen. Izan ere, bere lorpen handia (eta bere erabateko porrota) gizonezkoen nahiak betetzea izan zen.

—D11 jardueraren soluzioak:

1. pertsonaia: CAMILO JOSÉ CELA	
PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Gorpuzkera, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, zer egin zuen bizitzan, hil ote zen eta nola...)
<p>Garaia da, ile ilun eta lisoa du, aho handia, kopeta leuna eta oso handia. 40 kilotik 60ra bitartean gizendu zen behin.</p> <p>Izaera gogorra du, agresiboa (horregatik etsai ugari izan ditu). Hainbatetan isekari eta zakarra da, batzuetan iraingarria.</p> <p>Oso txukuna eta sistematikoa da bere lanean. Aisialdian ostera, alaia eta bizia da.</p>	<p>Idazle hau Galizian jaio zen 1916an. Bere ama ingelesa zen. Filosofia eta Letretako ikasketak hasi baina amaitu gabe utzi zituen. Poema-liburu bat idazten hasi zen. Gerraren ostean, hainbat lanbide-tan jardun zuen (kazetari, idazkari, toreatzaile-aprendiz, bidaiari, aktore eta abar) idazten zuen bitartean. Hitz-maisutasun eta egoerak (gerraostearen ingurukoak batez ere) islatzeko gordintasun harri-garria erakusten zuten liburu asko idatzi zituen. Bi aldiz ezkondu da.</p> <p>Hainbat sari jaso ditu eta, horien artean, mundu osoan ospetsua den Nobel Saria.</p>

(Argazkiak, oharrak eta datuak: *Cela, mi padre*, C.J. Cela Conde. Temas de Hoy).

2. pertsonaia: IPARRAGIRRE	
PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Gorpuzkera, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, zer egin zuen bizitzan, hil ote zen eta nola...)
<p>Bere gorpuzkera ezaguna argazkiak erakusten duena da: gizon galanta, begirada zorrotzekoa, ile luze eta izurra eta bizar itxia. Askotan kapelua eramaten zuen eta gitarra ganean eramateko ohitura zuen.</p> <p>Diotenez, bizizale-izaera zuen, hainbat seme-alaba izan zituen ezagututako beste hainbat lekutan. Dena dela, bere bizitzari buruzko datu faltsu batzuk ere zabaldu omen dira.</p> <p>Egia da behintzat bere abestiekin jendearengana iristeko dohaina zuela. Bere errezitaldietara joaten zen jendea —jende asko eta asko— hunkitu egiten zen bere abestiak entzutean. Horixe izan zen, hain zuzen ere, bigarren aldiz erbesteratzeke arrazoia, bere inguruan jendea biltzeko zuen ahalmen handia alegia.</p>	<p>Urretxun 1820an jaio eta Itsason 1881ean hil zen. Abeslari eta poeta gisa izan zen ezaguna. Txikitan osaba batekin ikasi zuen eta aurrerago jesuitekin Madrilan, familiarekin bizi izan zen garaian. 1834an etxetik ihes egin eta Euskal Herrira itzuli zen Karlistadan parte hartzeko. Bertan hasi zen konposatzen, abesten eta gitarra jotzen. Karlistek gerra galdu zutenean Frantziara egin zuen ihes, handik Europako beste herrialde batzuetara abiatzeko: Suitza, Italia, Alemania eta Londres. Euskal Herrira itzuli zen baina espainiar liberalek bere abestiak arriskutsutzat hartu zituztenez gero, Amerikara ihes egin behar izan zuen berriz. Buenos Airesen gipuzkoar batekin ezkondu zen.</p> <p>1878an Gipuzkoara itzuli zen —emaztea eta 8 seme-alabak bertan utzita, aurrerago etorri baziren ere— eta bertan omenaldi bat egin zioten. Pobre hil zen, beti izan zen bezala. Ospetsu egin ziren abesti asko konposatu zituen; horien artean, bereziki, Gernikako Arbola.</p>

(Iparragirrerri buruzko ilustrazioa, oharrak eta datuak: *Xabier Iparragirre*, Elkar eta Lur Hiztegi Entziklopedia).

3. pertsonaia: FRIDA KAHLO	
PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Gorpuzkera, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, zer egin zuen bizitzan, hil ote zen eta nola...)
<p>Oso emakume ederra izan zen. Begi handiak zituen, aho handi eta perfektua, bekoskoa eta bibotea. Beti Indiako arropa tehuarrak, jantzi luzeak, azpiko gonak eta farfailak erabiltzen zituen beti. Saten-zintekin eta loreekin txirikordak egiten zituen eta antigoaleko estiloko bitxiak eramaten zituen, kolonaurrekoak. Bere itxura fisikoari oso arreta handia eskaintzen zion.</p> <p>Pertsona apala zen lanean, bizitzan jasan zituen sufrimenduei aurre egiteko borondate eta gaitasun handikoa. Politikoki ezkerrekin inplikatu zen. Komunista izan zen hil arte.</p>	<p>Mexikon jaio zen 1907an eta produkzio urri baina garrantzitsuko pintorea izan zen. Bere koardroetako asko autorretratuak izan ziren. 18 urterekin bere bizitza osoa markatu zuen istripu larri bat izan zuen. Bizkarra, hankak eta sabela kaltetuta geratu zitzaizkion eta ohean luzaroan egon behar izan zuen. Hain zuzen ere, bertan hasi zen pintatzen. Bera baino 20 urte zaharragoa zen Diego Rivera pintore mexikar ospetsuarekin ezkondu zen. Elkarren arteko harremana ekaiztsua izan zen eta biok maitaleak izan zituzten. Hala ere, elkar maitatu zuten, elkarri lagundu zioten eta elkarrekin jarraitu zuten azken unera arte. Hainbat erakusketa arrakastatsu egin zituen eta gaur egun bere herrialdeko artistarik garrantzitsuenen artean sailkatuta dago.</p> <p>Sufrimendu eta oinaze luzeen ondoren, 1954an hil zen.</p>

(Argazkiak, oharra eta datuak: *Historias de mujeres*, Rosa Montero, Alfaguara).

4. pertsonaia: ELISABETH BAVARIAKOA (SISSI EMPERATRIZA)	
PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Gorpuzkera, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, zer egin zuen bizitzan, hil ote zen eta nola...)
<p>Emakume jantzia zen, nabarmena, konbentzioen kontrakoa, azkarra eta liberala. Enperatriza izanik ere, gobernu-forma gisa errepublikaren aldekoa zen. Horrez gain, pertsona kontraesankorra zen eta, dirudienez, neurotiko samarra, bere mundu propioa zuena. Gorroto zion bizitza publikoari eta amaren eta emaztearen zeregina ezohiko era batean bete zuen. Arrantza egitea, mendian ibiltzea eta zaldiz ibiltzea atsegin zuen. Irakurtzeko zaletasuna zuen eta literatur obrak itzultzen zituen.</p> <p>Bere edertasuna liluragarria zen.</p>	<p>Bavarian jaio zen 1837. urtean. 16 urterekin Austriako enperadorearekin ezkondu zen eta Viena-ko gortera bizitzera joan zen. Viena garai hartan gerrak hondatutako eta aristokrazia ezjakin eta asmo handiko batek menpean hartutako hiri bat zen eta enperatriz gaztea berehala itota sentitu zen. Ekitaldi ofizialak egin eta bere zaletasun guztiak alde batera utzi behar izan zituen. Azken batean, egin behar zituen zereginak betetzeko ez zegoen prestatuta. Gainera, bere senarra, bikainegia ez izateaz gain, izugarri aspergarria zen. Bidaiak egiten hasi zen etengabe, bai eta Austriatik kanpo denboraldi luzeak ematen ere. Bi seme eta alaba bat izan zituen baina alabaz besterik ez zen benetan kezkatu. Bere senarrarekin ia ez zuen harremanik eta honek, 57 urterekin, aktorea bat izan zuen maitale. Enperatriza gero eta bitxiago bihurtu zen, kirola neurritz kanpo egiten zuen eta, dirudienez, anorexiak hartuta zegoen. Seme oinordekoak bere buruaz beste egin zuenean, beltzez jantzi zen, aurpegia belo eta haizemaile baten atzean betirako ezkutatu zuen eta ez zion inori argazkirik ateratzeko baimena eman. Anarkista batek hil zuen. Bere senarra 1916an hil ondoren, Austriako inperioak behea jo zuen.</p>

(Argazkiak, oharra eta datuak: *Extraviadas ilustres*, Ana M.^a Moix. Qué leer).

5. pertsonaia. ERNESTO CHE GUEVARA	
PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Gorpuzkera, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, zer egin zuen bizitzan, hil ote zen eta nola...)
<p>Pertsona erakargarria da fisikoki: begi handi eta ilunak, zorrotzak neurri batean, aho zabala eta haragitsua. Bere itxura ezaguna —ia bizitza osoan izan zuena— bere argazki ospetsuetan ikusi duguna da: bizar motza, ile luzea, txapel iluna —izar gorriarekin— eta gerrillarien jantziak.</p> <p>Pertsona serioa zen, bere ideiekin oso koherentea, eginkizunetan oso zorrotza (eta, dirudenez, gogorra bere soldaduekin), izpiritu kritiko handikoa eta giza duintasunaren defendatzailea. Oso gutxirekin bizi zen, behar ekonomiko eta materialez kezkatu gabe.</p>	<p>Argentinan jaio zen 1928. urtean. Buenos Airesen ingeniariitza ikasten hasi zen baina utzi egin zuen medikuntza-ikasketak egiteko. Hegoamerikan zehar bidaiatzen ibili ondoren, Guatemalan geratu zen bizitzen. Bertatik ihes egin behar izan zuen estatu-kolpea zela eta. 1956an Fidel Castro ezagutu zuen eta elkarren artean sortu zen adiskidetasuna funtsezkoa izan zen bion bizitzan. Urte horretan bertan Hilda Gadearekin ezkondu zen eta Kubara joan zen iraultzaren alde borroka egitera. Dibortziatu ondoren, Aleida Marche-rekin ezkondu zen eta honekin hainbat seme-alaba izan zituen. Txinan, Afrikan eta abar ibili ondoren, Boliviara joan zen gerrilla prestatzera. Hantxe egin zioten segadan hil zuten, 1967an. Historia modernoan zalantzarik gabe garrantzi handia duen irudi politiko eta soziala da, bai eta borroka iraultzailearen mito bat ere.</p>

(Argazkiak eta datuak: *Che* (1997), Aitor Zuberogoitia, Elkar).

6. pertsonaia. KATALINA ERAUSO	
PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Gorpuzkera, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, zer egin zuen bizitzan, hil ote zen eta nola...)
<p>Emakume ausarta izan zen, oso saiatua eta independentea. Soldadu ona zen, ezpatarekin trebea eta ausarta. Horregatik, zenbait alditan preso eduki zuten.</p> <p>Emakume polita izan arren, bere itxura mutil batena zen. Txikitatik gizonen jantziak eta portaerak hartu zituen eta, dirudenez, jarrera hau baliagarria izan zitzaion bere bizimodu bereziari eusteko.</p>	<p>Donostian jaio zen 1592. urtean. 4 urte zituela komentu batean sartu zuten 12 urterekin ihes egin zuen arte. Handik aurrera, bidaia eta abentura asko eta asko bizi izan zituen (bere bizitzak etengabeko ihesaldi bat dirudi). Gainera, gizonez jantzi eta gizon bezala bizi izan zen beti.</p> <p>Hainbat pertsona publikorentzat lan egin zuen eta soldadu izan zen. Bidaiak penintsula osoan, Italian eta Hegoamerikan egin zituen. Mexikon hil zen 1630. urtean. Oso bizitza aktiboa izan zuen beti. Emakume bat baino gehiagorekin hurreman sentimentalak izan zituen.</p>

E) *Hizkuntza deskribapenean*

Atal honen barruan, deskribapenetan erabili ohi den hizkuntzaren oinarriko ezaugarri batzuk ezagutzeko hainbat jarduera egingo dituzte. Jarduerak ondokoak dira:

—E1. Desberdintasunak.

Testu laburrak, iruzkin bat eta taula bat erabilia, narrazioaren eta deskribapenaren hizkuntzen artean dauden desberdintasunak ikusi behar dituzte.

—E2. Kategoria gramatikalak.

Izenburua oso iradokitzailea ez bada ere, horixe da gaia, ikusten ari garen testu-motaren kategoria gramatikal bereizgarriak alegia.

—E3. Beste modu batean esatea.

Jarduera honetan sinonimoak eta antonimoak landuko dira.

—E4. Gehiago esatea.

Jarduera honetan eremu lexikoen gaia aztertuko da.

—E5. Politago esatea.

Literatur baliabideen artean, metafora eta konparazioa aztertzen dira.

F) *Berrikuspena*

Atal honetan testu-iruzkin bat egiteko jarduera barne hartzen da. Bertan, ikusitako deskribapenaren alderdiak aztertzen dira.

3.3. DOKUMENTUA. NARRAZIOA

Atal honetan aztertuko ditugun alderdi batzuk lehen proiektuan ikusitakoak dira (ikus «Hirugarren zatia. Idazketa-proiektua» ikaskuntza-moduluetan) baina ez da alferrik izango berriz hartu eta zabaltzea edo gure idazketa-proiekturako hain garrantzitsua den genero honi buruzko ezagutza zabalduko duten beste batzuk barne hartzea.

Hainbat eduki interesgarri eta adibide moduko testu batzuk barne hartuko dituzten azalpenezko testu batzuk agertuko dira.

Aztertuko diren puntuak ondokoak dira:

A) Nork eta nola kontatzen du istorioa? Narratzailea.

B) Noiz gertatu zen? Denbora.

C) Non? Espazioa.

D) Nor? Pertsonaiak.

3.2. BLOKEA. BIOGRAFIA IDAZTEA. GURE IDATZIAREN BIGARREN BERTSIOA

Orain arte ikasleek biografiaren bertsio bat idatzi dute eta bertsio hori, kasurik onean, egindako jardueretatik ateratako apuntez beteta eta ukituekin egongo da. Orain bigarren bertsioa idazteko unea da.

Helburua, ikasleek ikaskuntza-moduluetan ikusitakoa adieraztea eta idatzian aplikatzen saiatzea da.

Horretarako ondoko urratsak emango dituzte:

1. Lehen idatzia berreskuratzea.
2. Informazioa sistematizatzea.
3. Ikaskuntza-moduluak aplikatzea.

Azken atal honetan ondokoak kontuan hartuko dituzten hiru txantilo eskainiko dira: biografiaren egitura, narrazioa (eta deskribapena) eta zuzenketa-irizpide batzuk (ikus *3.4 dokumentua*).

3.3. BLOKEA. EBALUAZIOA

Ebaluazio-prozesuan honako hauek dira eman beharreko urratsak:

- 3.3.1. Zuzenketa.
- 3.3.2. Azken idatzia.
- 3.3.3. Berrikuspena.

Urrats hauek idazketa-prozesua ebaluatzeko txantiloï batzuen bidez emango dira.

Berez proiektuko atal bakoitza ebalua daiteke, atal horietan ikasleak bereganatzen duena baiesten duten ikasteko hainbat jarduera agertzen baitira. Bestalde, idazketa-proiektuaren ebaluazio zehatza idatzia bera izango da. Idatzi honek, lan osoan proposatutako ezagutza gehienak bilduko ditu.

3.3.1. jarduera. Zuzenketa

Jarraian idatzia ebaluatzeko hainbat txantiloï aurkeztuko ditugu. Horietako batzuk behin betiko testua egin aurreko jarraibide gisa ere kontuan hartu ahal izango dira. Bestalde, batzuk formulazio desberdinekoak baina antzekoak dira (egokiena aukeratzeko).

Hemen agertzen diren txantiloï asko lehen proiektutik hartuak dira. Nahi izanez gero, lehen proiektura jo daiteke tresna gehiago izateko.

1. AUTOEBALUAZIO-TXANTILOIA.

Biografia

1. Izenburu eta aurkezpen egokia du.
2. Istorioa koherentziaz egituratuta dago.
3. Logika bat dago azaldutako bizi-zikloetan.
4. Hasiera erakargarria du.
5. Pertsonaia eta bere garaia ongi ezagutzeko aukera ematen du.
6. Pertsonaiaren garaiko giroa ongi deskribatuta dago, behar adina datu ematen ditu.
7. Bidezko alderdi formalak kontuan hartu dira: ortografia, ordena sintaktikoa eta abar.

2. AUTOEBALUAZIO-TXANTILOIA

1. Nolako biografoa zara (historizista, objektiboa, subjektiboa, dibertigarria)?
2. Zein ikuspuntu hartu duzu narratzaile gisa? Idatzian zehar mantentzen al da?
3. Ba al da deskribapenik testuan?
4. Pertsonaia nagusiaren behar adinako ezaugarriak agertzen al dira?
5. Pertsonaia ezagutzeko funtsezko daturen bat falta al da?
6. Bigarren mailako pertsonaiak ongi definituta al daude?
7. Garbi azaltzen al dira ekintzak garatzen direneko denbora eta giroa?

3.3.2. jarduera. Azken idatzia

Azken idatzi bat txantiloirik gabe (apunteekin bakarrik) idazteko gai badira, halaxe egingo dute. Nolanahi ere, hona hemen lagungarria izan daitekeen txantiloia bat:

IDAZTEKO PROZESUA	
Txantiloia hau —pertsonala— <i>Idazteko prozesuaren eta ikasteko prozesuaren erregulazioa: jarraibideen funtzioa prestakuntza-ebaluaziorako tresna gisa</i> izenekotik (Textos, 16. Alea, 55 or.) ateratako eta egokitutako lehen proiektuan eskainitakoaren antzekoa da.	
1. Testua idatzi dut	—Non? —Zenbat denboratan? —Bakarrik? —Jarraibiderik edo eskemarik erabili al dut?
2. Irakaslearen argibideak	—Baliagarriak izan zaizkit. —Korapilatsuak iruditu zaizkit. —Ez ditut ulertu.
3. Jarduerak	—Idatziaren azken produkzioan lagungarriak izan zaizkit. —Nahasi egin naute. —Ez didate lagundu.
4. Testuaren plangintza plangintza	—Plangintza txikia/handia egin dut. —Zirriborro ugari egin ditut. —Eskemak, laburpenak, mapak eta abar erabili ditut.
5. Testua berrikusi dut	—Idazten ari nintzen heinean. —Zirriborroen bidez. —Ortografia eta puntuazioa besterik ez ditut zuzendu. —Testuaren edukiari eta antolamenduari lotutako alderdiak zuzendu ditut.
6. Ikerketa eta moduluak	—Idatzia garatzeko funtsezko datuak eman dizkirate. —Korapilatsuegiak izan dira. —Biografia osatu eta hobetu ahal izan dut. —Ez zaizkit baliagarriak izan.
7. Zailtasunak izan ditut	—Ikerketan. —Moduluetan. —Biografia idazten hastean.
8. Kostatu zait	—Narrazio biografikoa. —Deskribapenak. —Ikerketako datuak eranstea. —Garai hartako giroa islatzea. —Idatzia egituratzea.
9. Testua irakurri ondoren berriz idatzi dut; izan ere	—Ez zen ongi ulertzen. —Datu garrantzitsuak falta ziren. —Irakasleak agindu dit. —Oro har, oker ugari zeuden (ortografikoak, lexikoak, gramatikalak eta abar).

.../...

10. Testua idazteko erabili ditudanak:	—Hiztegiak. —Testuliburuak eta gramatikak. —Liburutegiko liburuak. —Materialak eta jarduerak besterik ez.
Testua idazten gehien lagundu didana ondokoa da: Ikasi dut: Komeni da hurrengorako ondokoak kontuan izatea:	

3.3.3. jarduera. Berrikuspena

TESTU BIOGRAFIKOAREN AUTOEBALUAZIOA		
	BAI	EZ
Testuaren antolamendua		
<i>a) Istorioaren hasiera</i>		
—Hasiera egokia aukeratu dut		
—Zer gertatzen den kontatu dut		
—Non gertatzen den adierazi dut		
—Agertzen diren pertsonaiak deskribatu ditut		
—Atal honen idazketan ortografia eta puntuazioa kontuan izan ditut		
<i>b) Istorioaren jarraipena</i>		
—Pertsonaiaren bizi-zikloak errespetatzen ditut		
—Istorioaren barruko gertakariak koherentziaz kateatu ditut		
—Giroa eta ingurunea behar bezala azaldu ditut		
—Gertakari hauek noiz gertatzen diren kontatu dut		
—Non gertatzen diren deskribatu dut		
—Pertsonaia egokiak egokiro barne hartu ditut		
—Narrazioaren koherentzia kontuan hartu dut		
—Narrazioaren kohesioa kontuan hartu dut		
—Ortografia eta puntuazio-zeinuak kontuan hartu ditut		

.../...

.../...

	BAI	EZ
<i>c) Istorioaren arabera</i>		
—Pertsonaiaren bizitzaren azken zatia deskribatu dut		
—Ondorioak idatzi ditut		
—Nola idatzita dagoen kontuan hartu dut (araua, koherentzia, kohesioa...)		
Pertsonaiak		
—Pertsonaia nagusiaren izaera, itxura eta aldaketak deskribatu ditut		
—Bigarren mailako pertsonaien ezaugarriak adierazi ditut		
—Gizakiak ez diren pertsonaiak deskribatu ditut (animaliak, objektuak...)		
Narratzaile gisa		
—Gertakarietara mugatzen naiz, objektibotasunez idazten dut		
—Kontatzen dudana horretan sartu egiten naiz, iritzi pertsonalak ematen ditut		
—Ia beti 3. pertsonan kontatzen dut		
—Orojakilea naiz		
Denbora		
—Istorioa iraganean gertatzen da batez ere		
—Istorioa orainaldian ere garatzen da		
—Bi denborak konbinatzen dira		
—Batez ere orainaldi historikoa erabiltzen dut		
—Aditza batez ere iraganaldian erabiltzen dut		
Aurkezpena		
—Arretaz zaindu dut (marjinak, azala eta abar)		

BINAKA EBALUATZEKO JARRAIBIDEA

1. Aukeratu ikaskide bat testuak eskuz berrikusteko.

Zure zeregina:

—Testua ozenki irakurtzea.

—Beste ikaskideak bere idatzia irakurtzen duenean arretaz entzutea.

2. Kontuan izan ondoko puntuak iruzkina (ahozkoa) egiteko. Nahi izanez gero, aipatu gabe utzi nahi ez duzuen zerbaiti buruzko apunteak har ditzakezue:

—Zure ustez testua interesgarria al da? Eta dibertigarria?

—Ezer al du faltan?

—Ba al da oso garbi ez dagoen edo gaizki adierazita dagoen ezer?

—Iradoki al ditzakezu testua hobetzeko hitz edo esamolde batzuk?

—Gustatzen al zaizu testuaren hasiera? Eta amaiera?

—Luzeegia irizten al diozu? Laburregia?

—Ken al daiteke ezer?

—Testua bat al dator idatzi beharreko biografiarekin?

TESTU BIOGRAFIKORAKO ELKAR-EBALUAZIOA

	BAI	EZ
Zure ikaskidearen testua irakurri edo entzun ondoren, ebalua ezazu...		
—Ongi adierazita dago		
—Ez da ongi ulertzen, ez du koherentziarik		
—Nire ustez, datu asko falta zaizkio		
—Deskribapen gutxi dago		
—Denboran ongi kokatuta dago		
—Pertsonaiaren giroari eta inguruneari lotutako alderdiak agertzen dira		
—Oso testu subjektiboa da		
—Narratzailearen ikuspuntua aldatu egiten da istorioan		
—Hasiera erakargarria da		
—Pertsonaren bizi-zikloak argi geratu dira		
—Lana ongi aurkeztuta dago		
—Bigarren mailako pertsonaiak ekintzan ongi lotuta daude		
—Elkarrizketak agertzen dira		
—Ez dut ortografia edo puntuazioko okerrik aurkitu		

BIOGRAFIEI BURUZKO IRUZKINA		
Alderdiak	Zure balorazioa	Zure hobetzeko aholkua
Kontakizunaren izenburua		
Pertsonaia nagusiaren ezaugarriak		
Pertsonaien ezaugarriak		
Biografiaren interesa		
Gizarteari eta inguruneari buruzko datuen ekarpena		
Pertsonaiaren bizitzaren antolamendua		
Garai hartako giroa		
Sinesgarritasuna		
Hizkuntzaren egokitasuna		
Aurkezpena		

BIBLIOGRAFIA

- MADELÉNAT, Daniel (1984): *La biographie*, Presses Universitaires de France (P.U.F.), Paris.
- MAY, Georges (1982): *La autobiografía*, Fondo de Cultura Económico (F.C.E.), Mexiko.
- MARTÍN VIVALDI, G. (1986): *Curso de redacción*, Paraninfo, Madril.
- GENETTE, G. (1993): *Ficción y dicción*, Lumen, Bartzelona.
- ROMERA, J., YLLERA, A., GARCÍA-PAGE, M., CALVET, R. (Eds.) (1993): *Escritura autobiográfica*, Visor Libros, Madril.

ERANSKINA. FAMILIAKO ISTORIOAK ORDENAGAILUAREN BITARTEZ

Erabil ezazu zeure PCa familiako albuma sortzeko eta zure seme-alabak beren gizarte-ingurunearen historiaz interesatzea lortuko duzu. Historia, erregeek, erreginek, batailek, datek, merkataritzako legeek edo industria-iraultzak ez ezik, pertsonak ere egiten dute. Amona bezalako pertsona arrunt batek, adibidez, zein lekutan izan zen, zer erosi zuen, zein film ikusi zituen eta nola jantzita zihoan konta diezaguke. Zure historia idazten duzun bitartean, zure PCarekin zerbait baliotsua sortuko duzu eta, bide batez, ordenagailuaren erabileran trebetasuna eskuratuko duzu.

Hasteko, amonak edo aitonak beren haurtzaro edo gaztaroko gertakizunen bat gogora dezaten lortu behar duzu. Laneko lehen eguna, oroitzapenik kuttunena edota gizakia ilargira lehen aldiz iritsi zenean edo Konstituzioa onartu zenean egiten ari zirena izan daiteke. Ahal bada, erabil ezazu grabagailua.

Etxera itzultzean, idatzi istorioa zure testu-prozesadorean. Horretarako Windows-ekin batera doan barne hartzen den WordPad aplikazioa erabil dezakezu. Dena dela, hau oso prozesadore sinplea da. Ahal baduzu, erabil ezazu testu-prozesadore aurreratuago bat egunkarietan bezala zutabeak sortzeko eta kaxak sartu ahal izateko. Dibertigarriagoa izango da. Testu-prozesadore on batek ez du nahitaez oso garestia izan behar: familia osoa jatetxe batera bazkaltzera eramatea baino merkeagoa izan daiteke. Istorioa zuk zeuk edo seme-alabekin idatz ondoren, saia zaitez seme-alabek istorioari buruz duten iritzia idatz dezaten. Eskaezu istorio horretako gertakizunak marraz ditzaten. Testu-prozesadoreak uzten badizu, erantsi kaxa batzuk istorioaren testuan hurrek beren iritzia idatz ditzaten. Agian iturri-estilo eta iturri-tamaina desberdinak erabiltzea komeni zaizu bereizteko.

Halaber, zure seme-alabekin eta istorioaren protagonistarekin egindako argazkiak sartu ahal izango dituzu. Saiatu istorioaren garaiko argazki bat aurkitzen. Argazki horiek eta seme-alaben marrazkiak eskaneatu egin daitezke testuan txertatzeko.

Lantokian eskanerrik ez baduzu, bilatu dendetan eta segur aski eskuko modelo txuri-beltz bat aurkituko duzu prezio onean. Eskanerra erosi ordez, argazkietarako eskanerra duen fotokopia-denda batera joan zaitezke.

Istorioa idatzi irudiak orrialdean dagokien lekuan ipini ondoren, izenburu batzuk jar-tzea eta albuma nola inprimatu nahi duzun erabakitzea besterik ez zaizu geratzen. E-maila amonaren urtebetetzerako edo gabonetarako opari berezi bat izan daiteke.

Seme-alabei ariketa gustatu bazaie, beste urrats bat eman dezakezu: egin bisitaldia Udal Liburutegiko historia-sailera eta bilatu amona haurra zenean egindako argazkiak. Bilatu bere garaiko egunkariak, gogoratu duen gertakizunaren egun berekoa ahal bada. Eskatu albumean eskaneatzeko erabiliko dituzun fotokopiak. Horrela, garai haietan munduan gertatzen zenari buruzko hondo historiko bat emango diozu. Horrez gain, publizitatea bilatu (desagertu diren produktu eta dendena bereziki) eta fotokopiak eska ditzakezu.

Aiton-amonen bizitzaren eta bizi izan zireneko lekuaren inguruan aritzean, noizbait izan zireneko dendak eta bertan erositakoak aipatzean eta irudimenean orduko kaleak gogora ekartzean, zure seme-alabek beren historia ezagutzea lortuko duzu.

Gainera, amonarentzat ere pertsonak, lekuak eta gauzak gogora ekartzeko modu bat izango da. Horrela, bere oroitzapena gauza zehatz egingo da.

Proiektu-mota hau eskolen esparruaren barruan jaso daiteke auzoko edo hiriko une bat berritzeko. Familiek balio handiko material historikoko bilduma zabal bat gordezten dute. Baliteke gure izeba Inesen argazki batek berez interesik ez izatea baina, era berean, baliteke argazkia aspaldi eraitsitako eraikin baten parean atera izana. Zergatik ez? Amaituta dagoenean, oroitzapen eta marrazkien bilduma hau liburutegiko herriko historiari dagokion bildumako osagai garrantzitsua izan daiteke. Argitaratu ere egin liteke!

NOLA SORTU FAMILIAKO ALBUM BAT?

Familiako albuma lan handi baten azken emaitza da baina hasieratik egin daitekeen zerbait da. Ezerk ez dizu eragozten, adibidez, azal bat diseinatzea. Ordenagailuarekin erraza da testua aldatzea, zatiak puntu batetik bestera eramatea eta historia datu gehiago lortzen diren neurrian osatzea.

- 1. *etapa*. Egiozu bisita amonari eta jaso materiala: bere istorioa.
- 2. *etapa*. Idatzi amonaren istorioa zure testu-prozesadorearekin. Word bezalako testu-prozesadore simple bat nahikoa da. Grafikoak inportatzeko ahalmena behar du.
- 3. *etapa*. Saiatu zure goiburukoak testua belztuta eta Centrar botoian «clic» eginda zentratzen. Ipin tamaina handiko letra kapital bat «Tamaño de fuente» aukeran «clic» eginda (iturriaren izenaren ondoan, kasu honetan Arial OUP). Jarraian, ipini kolore-apur bat: «Formato» menuan, aukeratu «Fuentes» eta, ondoren, «Color».
- 4. *etapa*. Paperaren tamaina etzana jartzeko, «Archivo» menutik egin «clic» «Configurar página» aukeran eta aukeratu «Tamaño de papel». Egin «clic» «Horizontal» eta «Aceptar» aukeretan. Zutabeak aplikatzeko, zoaz «Columnas» botoira eta aukeratu zutabe-kopuru bat.
- 5. *etapa*. Irudi bat barne hartzeko, egin «clic» «Insertar» menuan. Aukeratu «Cuadro de texto» pantailan kaxa bat agertzeko. Egin «clic» ertzetan tamaina aldatzeko. Egin berriz «clic» «Insertar» aukeran eta aukeratu «Imagen» komandoa. Aukeratu nahi duzun irudia; agian beste direktorio batera aldatu beharko duzu. Irudia kaxaren barruan ikusi ahal izango duzu.
- 6. *etapa*. Beste irudi bat eta liburuak hartuko duen itxura ikusi ahal izango dugu. Informazio gehiago ere barne hartu ahal izango da lortzen den heinean.

ZER DA ESCANER BAT?

Eskaner batek fotokopiagailu batek bezala funtzionatzen du baina paperean kopiak egin ordez irudia PCan kopiatzen du. Horrela, zatiak zabaltzeko edo efektu berezi bat aplikatzeko irudia manipulatzeko duten programak erabili ahal izango dituzu.

Txuri-beltzeko eta koloretako eskanerrak daude, hiru modelotan. Eskukoa merkeena da. Beste batzuek, paper edo argazki biribilkatua eskanerraren sentsorearen inguruan pasatzen duen papera aitzinatzeko arrabol bat dute. Modelo honek, eskuko eskanerretan pultsu txarragatik edo gainazal aldakorreatatik sortzen diren arazoetako asko konpon-tzen ditu.

Ordainez, argazki solte bat edo testu eta irudien arteko konbinazio bat besterik ezin da eskaneatu. Hirugarren modelo mahaiko eskanerra da, fotokopia baten antzekoa. Garestiena da baina prezioak behera doaz ziztu bizian eta berrogeita hamar mila pezetatik beherako koloretako mahaiko eskanerrak aurki daitezke.

II.

LANEKO KOADERNOA

Mundu guztiak du bere bizitzaren sekretua ezagutzeko eskubidea, bai eta zoritxarrekoa izanik ere, bai eta tragikoa izanik ere. Nondik gatozen jakin behar dugu. Hori guztia berritzea da ulertzeko modu bakarra.

Mario BENEDETTI

AURKEZPENA: ZER LANDUKO DUGU PROIEKTU HONETAN?

Segur aski sarritan pentsatu duzu zure aiton-amonei edo hurbileko senitarteko helduei buruzko gauza gehiago jakitea atsegin izango zenukeela. Beharbada pertsona horietako baten biografia bat egitea (bere bizitzako gorabeherak sakonean ezagutzeko) interesgarria izango litzatekeela ere pentsatu duzu. Izan ere, bizitza guztiak dira interesgarriak, guztietan izan dira egoera bitxiak edo zailak neurri handiago edo txikiago batean, guztiek eza-gutu dituzte gertakizun historikoak: zenbaitetan jakitun izan gabe ere, denok bizi ditugu gertakizun historikoak.

Proiektu honetan pertsonaia baten *biografia* landuko dugu. Horretarako, genero honek zer esan nahi duen aztertu eta informazio historikoa bilatu beharko dugu. Proiektu honetan landuko ditugun atalak ondokoak dira:

Lehenengo atala: BIOGRAFIA ETA AUTOBIOGRAFIA

Bigarren atala: IKERKETA HISTORIKOA

Hirugarren atala: ANAIERAKO PROIEKTUA



Hurrengo orrialdeetan lan hau egiteko beharrezko material eta laguntza guztia aurkituko duzu...

LEHENENGO ATALA: BIOGRAFIA ETA AUTOBIOGRAFIA

Lehen atal honetan biografiaren eta autobiografiaren generoari hurbilduko gatzazkio. Horretarako hainbat testu irakurri eta landuko ditugu, zirriborroak idatziko ditugu eta azkenik, interesatzen zaigun pertsonaia aukeratu eta hainbat ahalegin egin ondoren, azken produkzioa idatziko dugu: ezagutzen duzun eta hurbilekoa duzun norbaiten biografia osoa.

Zer egin
nahi dugu?

- Biografia eta autobiografiaren generoen oinarritzko ezaugarriak ezagutu eta identifikatzea.
- Narrazio-testuen eta deskribapen-testuen ezaugarriak ezagutzea.
- Ahal den neurrian generoaren berezko ezaugarriak errespetatuko dituzten testu biografiko eta autobiografikoak sortzea.
- Pertsonaia bat aukeratu —bakoitzak berea— eta bere biografia egitea eta, horretarako, bere bizitza ikertzea eta bere inguruneari buruzko datuak biltzea.
- Testu biografiko eta autobiografikoekin eta egingo ditugun beste-lako jarduerekin gozaten saiatzea.

Hona hemen proiektuaren hasiera honetan garatuko ditugun atalak eta jarduerak:

Atala	Jarduerak	Zentzua
1.1. ZER DAKIGU BIOGRAFIAZ ETA AUTOBIOGRAFIAZ?	1.1.1. Testuak irakurtzen ditugu 1.1.2. Hitz egiten dugu. 1.1.3. Ikertzen dugu. 1.1.4. Biografia eta autobiografia bereizten ditugu. 1.1.5. Idatzi beharra dugu. 1.1.6. Biografia eta zinea.	Lehen atal honetan biografia eta autobiografia ezagutzen hasiko gara hainbat jardueraren bitartez: hainbat testuren irakurketa, solasaldia, inkesta, iruzkinak eta abar.
1.2. IRAKUR DEZAGUN	1.2.1. Zertan datza? 1.2.2. Antola gaitzen. 1.2.3. Tresnak.	Liburu bat irakurriko da taldeka eta, ondoren, iruzkinak egingo dira eta lanerako baliagarriak izango diren ondorioak aterako dira.
1.3. ZEIN DIRA GENERO HONEN EZAUGARRIAK?	1.3.1. Narrazioa eta deskribapena biografietan.	Gure idatzietan eragina izan dezaketen narrazio biografikoaren ezaugarriak ikusiko ditugu: pertsonaiak, lekua, denbora, narratzailearen ahotsa... Gainera, deskribapena ikusiko dugu, idatzi-mota honetan eta, beraz, gure proiektuan funtsezkoa baita.
1.4. IDATZ DEZAGUN	1.4.1. Nire pertsonaia aukeratzten dut. 1.4.2. Lehen bertsioa idazten dut.	Biografia idazteko pertsonaia aukeratu beharko dugu. Dena dela, zirriborro edo lehen bertsio bat besterik ez dugu egingo oraingoz.

1.1. BLOKEA. ZER DAKIGU BIOGRAFIAZ ETA AUTOBIOGRAFIAZ?

1.1.1. jarduera. Testuak irakurtzen ditugu

Segur aski zuetako askok ideia zehatz samar bat izango duzue biografiaz eta autobiografiaz eta bi genero hauen arteko desberdintasunaz. Nolanahi ere, komeni da gogorraztea eta aurrerago biografia bat idazteko lanean lagunduko diguten funtsezko alderdi batzuk kontuan izatea.

Testu batzuk irakurriko ditugu (*1.1 dokumentua*) eta gure gaira hurbilduko gaituzten galdera batzuei erantzuna emango diegu:

¿A Zein ondoriotara iritsi zara?

.....

.....


.....

.....

.....

.....

1.1.2. jarduera. Hitz egiten dugu



Solasaldi bat egingo dugu ondoko gaiari buruz: *Pertsona baten bizitzaren zein alderdik agertu behar dute idatziz?* Zenbaitetan, norbait hiltzen denean, egunkarian bere biografia agertzen da eta, pertsonaia ospetsuen kasuan, beren bizitzari buruzko datu asko iristen zaizkigu argitalpen, liburu edo prentsaren birtartez. Sarritan informazio hauek ez dira benetakoak, biografiak faltsutu ditzaketen zurrumurruak, inpresioak eta horrelakoak baizik. Horrela, arazo bat planteatzen da: zein neurritaraino ikertu edo publiko egin dezakegu pertsona baten bizitza?

Adibidez, irakurri Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren ondoko artikulua:

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 12. artikulua:

Inor ez du esku-sartze arbitrarioz jasango bere bizitza pribatua, familia edo korrespondentzian, ez eta bere ohore edo izen onaren aurkako erasorik ere. Pertsona orok legearen aldetik esku-sartze edo eraso horien aurkako babesa jasotzeko eskubidea du.

«Solasean» hasi aurretik, bete ondoko taula eta ondorengo galdera-sorta; ideia emango dizkizute.

NI		
Idatzi 1. zutabearen publiko egingo ez zenituzkeen zure bizitzako datu pertsonalak. 2. zutabearen berriz, idatzi arazorik gabe jendaurrean jarriko zenituzkeen datuak.	1	2
PERTSONAIA PUBLIKOA		
Egin ariketa bera pertsona ezagun batekin: zure iritziz bere bizitzari buruzko zein datu agertu beharko luketen eta zein ez.	1	2

GALDERA-SORTA:
<p>— Zein da aztertutako gaiari buruz dudan iritzia?</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>— Zein ondoriotara iritsi gara taldean?</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>— Zein ideia edo teoriaren alde egingo dugu gure azalpenean?</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>— Gure ustez, gaiari lotutako zein alderdik ez dute inolako justifikaziorik?</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>

1.1.3. jarduera. Ikertzen dugu

Zer dakigu biografiaz eta autobiografiaz? Gaia interesatzen al zaigu? Nola egingo genuke biografia bat? Gai hauei buruzko gogoeta egingo dugu jarraian agertzen diren galderen bitartez:

Erantzun ondoko galdera-sortari:

1. Zer da, zure ustez, norbaiten bizitza ezagutzeko ezinbestez jakin beharrekoa?
 - Bizitzan egin duen lana (betetako kargu publikoak, idatzitako liburuak, egindako obrak eta abar).
 - Bere bizitza pribatua.
 - Gertakizun historikoen aurrean azaldutako jarrera.
 - Bere nortasunaren ezaugarriak.
2. Irakurri al dituzu inoiz inoren bizitzari buruzko biografia edo daturik garrantzi-tsuenak?

.....

.....
3. Zure ustez, zein da biografia eta autobiografia bereizten dituen elementu nagusia?
 - Hizkuntza. Zergatik?
 - Istorioa kontatzen duen narratzailea. Zergatik?
 - Kontatzen diren gertakizunen ikuspegia eta interpretazioa.
 - Obraren egitura.
 - Beste hainbat.
4. Ezagutzen al duzu pertsonaiaren baten biografian edo autobiografian oinarritu-tako filmik? Eta komikirik? Eta abesti biografiko edo autobiografikorik? Adierazi baten bat.

.....

.....
5. Zure ustez, pertsona normal baten bizitzan garrantzi eta eragin handia al dute «gertakizun historiko» izenekoek? Adierazi bururatzen zaizkizun edo ezagutzen dituzun adibide batzuk.

.....

.....
6. Egunkari edo aldizkari batean pertsona ezagun baten biografia aurkitzen duzunean, zein arrazoi dituzu irakurtzeko?
 - Pertsonaia interesgarria da niretzat.
 - Pertsonaiaren xehetasun ezezagunak kontatzen ditu.
 - Xehetasun «morbosoak» edo «txutxu-mutxuak» kontatzen ditu.
 - Beste hainbat.

7. Zure ustez, zer da garrantzitsuena biografia on bat egiteko?

- Datuak gogoratu ahal izateko oroimen ona izatea.
- Ikertzeko eta informazioa biltzeko prozedura onak izatea.
- Kontatu nahi denaren egitura argi izatea.
- Gertakari ezagun eta sozialak gertakari pertsonalekin nahastea.
- Beste hainbat.

8. Oro har, nola izaten duzu hainbat pertsonen biografiaren berri?

- Egunkari edo aldizkarietako artikuluen bitartez.
- Filmen bidez.
- Liburu biografiko edo autobiografikoak irakurtzen.
- Telebista-programen bitartez.
- Kontatzen dizutelako.
- Beste hainbat.

9. Biografia bat irakurtzen duzunean, zer da zuretzat deigarriena?

- Pertsonaiak bizi izandako gertakizun historikoak.
- Bere nortasuna eta izaera ezagutzea.
- «Txutxu-mutxuak» eta bizitza pribatuaren aipamenak.
- Bere familia-bizitzako alderdiak.
- Pertsonaiaren irudi ezezaguna.
- Beste hainbat alderdi.

10. Zure ustez, nork izango du irakurtzeko moduko bizitza interesgarririk? Zergatik?

.....

1.1.4. jarduera. Biografia eta autobiografia bereizten ditugu

Arestian ikusi dugun bezala, testu biografiko edo autobiografikoak hainbat erabilera-esparrutan ager daitezke: prentsan, liburu akademikoetan (hiztegiak edo entziklopediak), literaturan eta abar. Hala ere, ez gara testu biografikoak eta autobiografikoak bereiztera iritsi. Hori dela eta, jarraian bi azpigenero horietako testuak ikusiko ditugu eta bereizten saiatuko gara.

Irakurri emango dizkizuten testuak (*1.3 dokumentua*) eta erantzun planteatzen zaizkizun galderei. Testu hauek testu desberdinak konparatzen eta ezaugarri komunak eta desberdintasunak aurkitzen lagunduko dizute.

1.1.5. jarduera. Idatzi beharra dugu

Testu biografiko eta autobiografiko batzuk irakurri ondoren, idazketa-proba batzuk egingo ditugu, aurrerago bakoitzak idatzi beharreko biografiaren lehen bertsio batera eramango gaituztenak hain zuzen ere.

a) *Pertsonaia komuna*

Jarduera honen bidez, pertsonaia bati buruzko biografia labur bat egingo dugu guztion artean. Horretarako, ondoko urratsak emango ditugu:

- Taldetan antolatuko gara.
- Pertsonaia bati buruzko datu batzuk bateratuko ditugu (pertsona ezaguna edo irudietan dituzunetako bat izan daiteke).
- Pertsonaiaren bizitzaren atalak taldeetan banatu eta dagokiguna osatuko dugu.
- Taldea bakoitzak, ordena kronologikoan, dagokion zatia irakurriko du eta gure pertsonaiaren bizitza gure ustez nolakoa izan den azalduko du.
- Taldea guztiei entzun ondoren eta datuak moldatu ondoren, azken bertsioa idatziko dugu. Horrela, pertsonaiaren bizitza osoa izango dugu.





Gutxieneko datu-kopuru bat behar dugu biografiak zentzua izan dezan eta pertsonaia berberari buruzkoa izan dadin:

PERTSONAIA				
PERTSONAIAREN JAIOTERRIA (Leku hurbila edo ezaguna izan daiteke)	BERE BIZITZA ZEIN GARAITAN KOKATUTA DAGOEN (Bizimodua lantzeko datuak eskaintzen dituen etapa)	PERTSONAIAREN SEXUA (Honek informazio garrantzitsua eman diezaguke: adibidez, ezinezkoa da gizonetako bat erditzean hiltzea)	ONINARRIZKO EZAUGARRI FISIKOAK (Emakume atletiko baten bizitza eta gaxorik dagoen gizonetako batena desberdinak izango dira)	ONINARRIZKO EZAUGARRI MORALAK (Pertsona alai, traidore, hiltzaile edo santu baten biografia lantzeko arrastoak emango dizkigu)

Osatu zutabe bakoitza talde guztietan berbera izan dadin ezinbestekoak izango diren datu batzuekin eta bizitzan egindako ibilbidearekin.

Talde bakoitzak, garatu beharreko etapa bat aukeratuko du eta, horrela, biografia osatuta geratuko da. Idatziak segidan eta ordena kronologikoan idatzitako esaldiak izango dira.


Azkenik, talde guztiek dagokien zatia denen aurrean kontatu ondoren, jarraian agertzen den taulan biografia osoa idatziko da. Taula honetan gainerako taldeetatik lortutako datuak bildu eta pertsonaiaren bizitzaren atalak egokituko dira komenigarritzat hartzen den neurrian.

TALDEA 1	Jaiotza eta haurtzaroa... 	
TALDEA 2	Gaztaroa 	
TALDEA 3	Helduaroa 	
TALDEA 4	Zahartzaroa, azken egunak 	

b) *Albiste bateko pertsonaia*

Jarduera honetan biografia bat osatu beharko dugu taldeka. Prentsako albiste baten bidez pertsona bati buruzko informazioa lortuko dugu eta, informazio horretatik abiatuta, bere iragana eta etorkizuna irudikatuko ditugu.

Ondoko eskema erabilia, albistea «Oraina» taulan itsatsiko duzue eta iraganari eta etorkizunari buruzko taulak beteko dituzue. Ondoren, biografia gainerako ikaskideekin bateratu ahal izango duzue.



1.1.6. jarduera. Biografia eta zinea

Dakizun bezala, film asko eta asko dira pertsonaia batzuen —ospetsuak edo arruntak, errealak edo fikziozkoak— bizitzan oinarrituta daudenak eta askotan aldeztatik idatzitako biografia bat dute abiapuntu. Askok ezagutuko dituzu, seguru.

Jarraian bi galdera-sorta eskainiko dizkizugu, lehena filma ikusi aurretik betetzeko eta bigarrena berriz, ondoren betetzeko.

—*Filma ikusi aurreko galdera-sorta:*

- Interesgarria iruditzen al zaizu filmak aztertzen duen pertsonaia?
- Izenburua kontuan hartuta, pertsonaia erreal ala fikziozkoa da?
- Kokatu pertsonaia denboran.
- Zein gertaera garrantzitsu ager litezke pertsonaia horren bizitzan?
- Zein girotan mugitzen dira pertsonaiak?
- Pertsonaia erreal baten kasuan, saiatu bere bizitzari eta egin zuenari buruzko informazioa bilatzen.
- Filmean zer ikustea espero duzu? Gerrak, maitasuna, heriotzak, gizarte-gatazkak, intriga...

—*Filma ikusi ondorengo galdera-sorta:*

- Gustatu al zaizu filma? Zergatik?
- Nola, zein unetan hasten da (jaiotzan, bizitzako gertakari esanguratsu batean, hil aurreko unean)?
- Nola amaitzen da?
- Interesgarria iruditzen al zaizu pertsonaia?
- Bigarren mailako pertsonaiak ongi karakterizatuta al daude?
- Eta giroa?
- Kontuan hartu zein puntutan datozen bat filma eta zuk pertsonaiari buruz dakizuna. Harritu egin al zaitu filmak alderdi honetan?

1.2. BLOKEA. IRAKUR DEZAGUN

1.2.1. jarduera. Zertan datza?

Orain arte testu labur eta zati biografiko eta autobiografikoak ikusi ditugu, beren oinarrizko ezaugarriak aztertu ditugu eta taldean eztabaidatu ditugu. Orain obra oso bat irakurtzeko unea da baina modu berezi batean egingo dugu, denon artean hain zuzen ere.

Jarduera honen helburua obra biografiko edo autobiografiko oso bat irakurtzea eta aipatutako generoekin ohitzea da. Horrela, askoz errazagoa izango da testu biografiko edo autobiografikoak egin eta berariaz aztertzea.

Irakurketa osatzeko ondoko urratsak emango ditugu:

- a) Erreferentzia gisa, denon artean irakurriko dugun liburu bat hartuko dugu. Kapituluak klaseko taldeen artean banatuko ditugu. Talde bakoitzari hainbat kapitulu badagozkio ere, taldekide bakoitzak taldeari egokitutako kapitulu guztiak irakurri beharko ditu aurrerago denon artean iruzkinak egiteko.
- b) Ikasle bakoitzak irakurritakoari buruzko fitxak edo laburpenak idatziko ditu eta ondoren taldeko gainerakoekin aztertuko ditu.
- c) Amaieran bateratze-lana egingo da talde handian eta, horrela, liburu osoaren ikuspegi orokor bat izango dugu (1.4 eta 1.5 dokumentuak).

Irakurri beharreko liburua: Frank McCourt-en *Angelaren errautsak* (*Las cenizas de Ángela*).



FRANC MCCOURT. HAURTZARO AHAZTEZINA.



Hogeita hamar urte bete gabe beren bizitza laburtzen duten autore modernoek ez bezala, Frank McCourt-ek 60 urte ongi beteak izan arte ez du bere bizitzaren historia idatzi. Izan ere, idazteko moduko haurtzaro bat zuen (haurtzaro triste eta gogorra, Irlandan eta Amerikan), bai eta haurtzaro hori kontatzeko hitz fresko eta batere samindua ere. Pulitzer saria berriki jaso duten *Angelaren errautsak* izeneko bere oroitzapenak genero honetako obra klasiko bihurtu dira. Izan ere, Estatu Batuetan eta Europan bi milioi aletik gora saldu dituen, 18 hizkuntza baino gehiagotara itzuli den eta munduko zerrendarik entzute-tsuenetan (horien artean, *The New York Times* egunkaria edo *Newsweek* eta *Time* aldizkariak) lehen postua hartu duen obra dugu honako hau.

Frank McCourt Brooklyn-en jaio zen Depresioaren garaian. Orduan gurasoak Irlandatik etorkin gisa heldu berriak ziren. Hazi ordea, Limerick-eko auzo pobreetan hazi zen, Irlandan. Franken amak —Angelak—inoiz ez zuen dirurik izaten seme-alabei jaten emateko; izan ere, aitak oso gutxitan egiten zuen lan eta, egiten zuenean, soldata osoa edaten zuen. Aita narritagarri, arduragabe eta erakargarri honek piztu zuen protagonista txikiarengan ipuinekiko maitasuna. Beharbada ipuinei esker jasan zituen Frankek pobrezia, gosea eta ankerkeria, adierazgarritasun, oparotasun eta barkatzeko gaitasun handiz kontatzen duen bezala. Inork ez du pobrezia edo haurtzaroari buruz horrela idatzi, inork ez du miseriaren kontakizun bat sortu halako umore, lañotasun, zolitasun eta eskuzabaltasunarekin. Bere zoritxarra ezinbestez irakurri beharreko maisu-lan ahaztezin bihurtu duela esan daiteke.

El Semanal, 1997ko azaroaren 9an



1.3. BLOKEA. ZEIN DIRA GENERO HONEN EZAUGARRIAK?

1.3.1. jarduera. Narrazioa eta deskribapena biografietan


Liburuaren irakurketarekin eta jardueretan bildu dugun informazioarekin, biografia-
ren funtsezko alderdiak ezagutuko ditugu. Garrantzitsua izango da datu hauek gogoan
izatea proiektu honen amaieran egin beharreko produkzioarako (*biografiarako*).

Elementu nagusien laburpen bat egingo dugu jarraian. Funtsean, biografia bat *narra-
zio* bat dela ikusiko dugu. Hona hemen bere ezaugarriak:

- Narrazioak *egitura* jakin bat du. Irakurri dugun liburuan egitura oso garbia da: kronologikoa, hau da, istorioa pertsonaia nagusiaren jaiotzarekin eta haurtzaroarekin hasi eta nerabazarora iristen da. Horrez gain, ikusi dugun bezala liburua kapitulututa banatuta dago eta bakoitzak gai jakin bat hartzen du bereziki nahiz eta, jakina, istorioari koherentzia ematen dioten gai batzuk behin eta berriz agertzen diren. Aurrerago ikusiko dugunez, biografia batzuk ez dira pertsonaiaren bizitzaren hasieratik hasten baina, kasu hauetan ere, narrazioan nolabaiteko linealtasun bat errespetatzen da irakurlea gal ez dadin.
- Narrazio-testuaren barruan funtsezko ezaugarri batzuk kontuan hartu beharko ditugu, hala nola *narratzailea*. Narratzailearen kasuan bi alderdi bereiziko ditugu.
 - *Modua*. Alde batetik, narratzaileak idatziarekin hartzen duen distantzia (hurbi-lagoa izango da esku hartzen badu, emozioak, iritziak edo digresioak adierazten baditu... eta alderantziz) eta, bestetik, *ikuspuntua*, hau da, narratzaileak istorioa informazio guzti-guztiaren jakitun gisa kontatzen duen (orojakilea) edota gainerako pertsonaiek adina dakien.
 - Beste alderdi bat narratzailearen *ahotsa* da: besteak beste, istorioa zein pertsonatan kontatuta dagoen adierazten du (liburu honetan, 1. Pertsonan).
- Denborari* dagokionez, bi denbora hauek bereiziko ditugu: *denbora erreala*, hau da, pertsonaiaren bizitza errealeko urteak eta *kontakizunaren denbora*, hau da, narratzaileak azpimarratu nahi duena kontatzeko hartzen duen denbora. Adibidez, gerta daiteke pertsonaiaren bizitzako funtsezko ordu batzuk deskribatzen orrialdeak eta orrialdeak ematea eta aurrerago aldiz, «Eta hainbat urte igaro ziren...» moduko esaldi batekin denboraldi luze bateko jauzi bat egitea. Kontakizunean denbora gure esku dago. Gainera, kontakizunaren denborak atzera begiratzea edota etorkizuneko gertakizunak iragartzea ahalbidetzen digu. Atal honetan denbora markatzen duten elementu nagusiak, hau da, aditz-denborak (orainaldi historikoa hartuko dugu kontuan bereziki, kontakizun hauetan sarritan agertzen baita) eta denboraren iragaitea adierazten duten aditzondo edo lokuzioak hartuko ditugu kontuan.
- Espazioa*. Ikusi dugunez, deskribapena narrazioaren osagai bat da, ezinbestekoa baina beti narrazioaren menpekoa. Deskribapena erretratuan ez ezik espazioan ere oinarrituko da: pertsonaiaren bizitzako lekuak, bere inguruko giroak, bere etxebizitzak, gustuko bazterrak, hiriak...

- Halaber, narrazioan pertsoniarekin zerikusia duten datu historiko-sozialak agertzen direla ikusi dugu: lekuak (EEBB, Limerick...), gertakizunak (gerrak, miseria, gaixotasunak), ohiturak, zirkunstantzia puntualak, garaiko egoera tipikoak... Datu hauek guztiak ikerketa-prozesu baten bitartez lortuko ditugu.
- Deskribapena* narrazioaren osagai bat da. Narrazioak bere denborazko proiektzioarekin jarraitzen du, hau da, denboran gertatutako gauzak dira; deskribapenaren kasuan berriz, dena gelditzen da eta espazioak garrantzia hartzen du. Pertsonaiekin zerikusia duten lekuak deskribatzeaz gain, pertsonaiak ere erretratuaren bidez deskribatuko dira. Pertsonaia nagusiaren deskribapena (bere itxura fisikoarena, alderdi moralena edo bere ezaugarriek denborarekin jasaten duten aldaketa edo eboluzioarena) ezinbestekoa da biografia batean.

Hona hemen azaldutakoaren eskema bat:



1.4. BLOKEA. IDATZ DEZAGUN

Iragarri dugun biografia idazten hasteko unea iritsi da. Idatzi aurretik, jakina, pertsonaia bat aukeratu beharko duzu. Ondoren biografiaren lehen bertsioa idatziko duzu eta lortu beharko dituzun askotariko datu eta informazioekin aberastuko duzu.

1.4.1. jarduera. Nire pertsonaia aukeratzen dut

Biografia bat egiteko, jarraian adieraziko dizkizugun ezaugarriak izango dituen pertsonaia bat aukeratu beharko duzu. Aukeratu ondoren, aukeratutako pertsonaiarekin asmatu duzun ala ez baloratzeko baliagarria izango zaizun galdera-sorta txiki bat osatu beharko duzu. Aurrerago pertsonaiari buruzko informazioa bilatu behar dugula —ahal dugun guztia— pentsatu behar duzu.

PERTSONAIAREN GUTXIENeko EZAUGARRIAK

1. Pertsona hurbila izan behar du, datuak lortzeko aukera ematen duena, bai zuzenean (pertsona horren bitartez), bai inguruko beste pertsona batzuen bitartez, familiakoa ahal baldin bada (neba-arreba, osaba...).
2. Egokiena pertsonak gutxienez 60 urte izatea da (edo gehiago ahal bada), hau da, historia eta bizipenak dituen eta iraganeko egoerak ezagutu dituen norbait izatea.
3. Hobe pertsona hori bizirik badago. Hala ere, informazio ugari lortzeko aukera emango dizun beste pertsonaiaren batek erakartzen bazaitu, nahikoa izan daiteke.
4. Informazio ugari, argazkiak, pasadizoak, iruzkinak, gutunak, grabazioak, dokumentuak eta abar lortzeko eta berari buruz hurbileko beste pertsona batzuekin hitz egiteko (informazioak osatzeko, bizi izandako egoerak aberasteko...) aukera emango dizun pertsonaia bat izan beharko du.

Pertsonaia aukeratu ondoren, erantzun ondoko galdera-sortari:

—Zein arrazoi izan dituzu pertsonaia hori aukeratzeko?

.....

—Zerk erakartzen zaitu pertsona horrengan?

.....

—Lor al dezakezu bere aldetik lana egiteko laguntzarik?

.....

—Zure ustez, erraza izango al da pertsona horri buruzko daturik biltzea?

.....

—Orain gauza asko al dakizkizu berari buruz?

.....

—Pertsona horri buruzko informazioa eman diezazukeen beste inor ezagutzen al duzu?

.....

1.4.2. jarduera. Lehen bertsioa idazten dut

Jarraian lehen idazketa honetan lagungarria izango zaizkizun alderdi batzuk barne hartuko ditugu.

Lehen idazketa:

- Irakurri berriz narrazioako kontuan hartu ditugun puntuak, biografia narrazio-testua baita.
- Saiatu aurretik eskema edo apunte batzuk prestatzen testuak nolabaiteko koherentzia izan dezan: nondik hasiko zaren, zein pertsonaia barne hartuko dituzun, pertsonaiaren bizitzako gertakari garrantzitsuak, zein denbora-tartetan geldituko zaren gehiago edo gutxiago, zein pertsona eta zein aditz-denbora erabiliko dituzun, iritzi pertsonalak barne hartuko dituzun (zure ikuspuntua) eta abar. Zalantzarik baduzu, galdetu zure irakasleari.
- Segur aski osatu nahiko zenituzkeen pertsonaiaren alderdi batzuk izango dituzu; idatzi zure orriaren marjinetan aurrerago osatuko dituzun datuak.
- Ez dio axolarik paper bat edo gehiago zikintzen baduzu, garrantzitsuena idatziarekin gustura geratzea da (ez da behin betikoa).
- Egiaztatu erabiliko duzun bertsioa ahal den garbiena eta zuzenena dela: marjinak errespetatzen ditu, ez dago zikinduta, ez du oker ortografikorik (izanez gero zuzendu beharra dago).
- Azken bertsioa duzunean, egin ezazu proba jarraian emango dizkizugun txantiloien bidez. Gogoan izan behin betiko testua sortzeko behar duzun informazioa eta prestakuntza ondorengo jardueretan eskuratuko dituzula. Ez duzu behin betiko bertsioa bi egunetan egin beharrik.

Erantzun ondoko galderak. Konturatuko zarenez, zure biografiari begira zenbait alderdi osatu gabe daude oraindik.

—*Bere bizitzari buruzko datuak*

- Ba al dakizu non eta noiz jaio zen aukeratu duzun pertsonaia?
- Nolako haurtzaroa izan zuen?
- Zer egiten zuen gaztetan ongi pasatzeko?
- Zertan egin zuen lan? Noiz hartu zuen erretiroa?
- Norekin bizi izan zen?
- Ezer erakutsi al dizu zuri?
- Ba al dakizu zein den bere bizitzako gertaerarik zorientsuena? Eta zoritxarrekoena?
- Aipatu pertsonaia horren garaiko beste pertsonaren bat.
- Ezagutzen al duzu berari gertatutako pasadizorik? Eta gertakari harrigarrik?

—*Bere ingurune historiko-soziala*

- Zein gertaera historiko gertatu zen edo ziren bera bizi zenean?
- Zein aurkikuntza edo aurrerabide?
- Zein objektu ziren ohikoak bere gaztaroan?
- Nola janzten zen?
- Ba al dakizu zein ordutegi zituen?
- Egingo al zenuke bera bizi zeneko gertaera historikoak adieraziko dituen taula kronologiko bat?

—*Espazioa*

- Non eman zuen denboraldirik luzeena?
- Zer egin zuen bizi izan zeneko leku bakoitzean?
- Zein hizkuntzatan hitz egiten zuen?

—*Deskribapenak*

- Zure ustez, pertsonaia ongi deskribatuta al dago? Zer erantsiko zenuke?
- Bigarren mailako pertsonaien ezaugarriak agertzen al dira?
- Eta leku eta giroenak?

—*Egitura*

- Kronologikoa al da?
- Idatzia zatitu egin al duzu?
- Zer barne hartzen du zati bakoitzak?
- Garai batzuetan besteetan baino gehiago sakondu al duzu? Zergatik?
- Zure ustez, datuak ongi barne hartuta al daude narrazioan (deskribapenak, pasadizoak, denboraren iragaitea, gertakizunak...)? Berrikusi.

—*Testu-alderdiak*

- Begiratu zure testuan hitzik errepikatzen den edo lexikoari dagokionez eskasa den: gogoeta egin edo sinonimoen hiztegian idatzia aberastuko duten hitzak bilatu beharko dituzu.
- Testua paragrafoetan bereizita al dago? Elkarri ongi lotuta al daude?
- Denboraren iragaitea nabarmentzeko denborazko lokarriak egokiak al dira?
- Begiratu testuan oker gramatikalik dagoen.

Gerta daiteke oraingoz galdera-sortako galdera batzuei erantzutea ezinezkoa izatea. Garrantzitsuena azken produkziarako (behin betiko biografiarako) baliagarria izango den datu-base bat egiteko irizpide gisa erabiltzea da.

BIGARREN ATALA: IKERKETA HISTORIKOA


ZER LANDUKO DUGU PROIEKTUAREN BIGARREN ZATI HONETAN?

Biografia batek pertsona baten eboluzioa azaltzen du bere esperientzia, sentimendu, emozio, pentsamendu eta abarren bitartez, hau da, bizitza modu jakin batekoa izatera eraman duten gertakizun eta zirkunstantzia guztien bitartez.

Eboluzio hau azaltzeko, ez dugu ahaztu behar pertsona bakoitza, aldi berean, *tipikoa* —ezagututako bizipenak eta egoerak pertsona-talde zabal baten bereizgarriak izan daitezkeen neurrian— eta *bakarra* —gertakizun pertsonalak islatzen dituen neurrian— dela. Historia pertsonala ezin da isolatuta aztertu, gertaera historiko bati eta gizarte-egitura bati lotuta baizik. Horrela, gizakien historia pertsonalaren eta beren gizartearen historiaren arteko erlazioa aztertu ahal izango dugu eta kausalitatea eta aldaketa historikoa ulertzen hasi ahal izango gara.

Pertsona baten bizitza aztertu eta ikertzeko, beharrezkoa da pertsona horren ikuspuntuan jartzea (izaki indibidual gisa eta kolektibitate bateko kide gisa) pertsona, gertatu dena eta arrazoiak ulertu ahal izateko.

Lan honen bidez, beste pertsona baten bizitza, pentsamendua eta gertakizunak ezaugutzen eta gure egiten saiatuko gara. Horrela, azalpen historikorako beharrezkoa den enpatia eta berritze historiko orok behar duen arrazoiaren azalpena bilatuko dira: gauzak ez dira berez gertatzen, gertakariak kausa batzuk dituzte. Azken batean, pertsona jakin batek (bakoitzak aukeratutako pertsonaiak) egoera jakin batean hainbat pobiltateren artean aukera egin beharra duela ikusten saiatuko gara. Etengabeko tentsio horrek pertsona guztien bizitza osoan irauten du.



2.1. BLOKEA. GURE LEHEN IDAZLANA EBALUATZEN DUGU

Lan-proiektu honen lehen zatian zure pertsonaiari buruzko biografiaren lehen bertsioa egin duzu. Horretarako zure ezagutzak eta oroitzapenak besterik ez dituzu erabili; beraz, hurbil-hurbiletik ezagutzen duzu aukeratutako pertsonaiari buruz dakizuna. Halaber, informazioetatik eta egindako jardueretatik abiatuta, hasierako idazlan horren hizkuntz ebaluazioa egin duzu eta konpondu beharreko arazo batzuk antzeman ahal izan dituzu.

Proiektuaren bigarren zati honetan, biografiaren hizkuntz alderdiak alde batera utzi eta biografia dokumentu historiko moduan aztertuko dugu. Horretarako, barne hartutako datuen zabaltasuna eta zehaztasuna, jarraitasuna eta adierazgarritasuna, gertakizunen arrazoiaren azalpena eta abar ebaluatuko ditugu. Dokumentu historiko bati (eta biografia bat, oro har, halakotzat har daiteke) ezaugarri jakin batzuk eskatzen zaizkio, guk pertsonaiaren biografian barne hartuko ditugunak hain zuzen ere.

Erantzun ondoko galdera hauei:

- a) Egin zure pertsonaiaren bizitzaren iraupenaren baliokidea izango den luzerako ardatz kronologiko bat eta ipini bertan idazlanean jaso duzun informazioa.

.....

- b) Idatzi zein urteri buruz duzun datu gehien. Datuak eta urteak esanguratsuak al dira?

.....

- c) Idatzi zein urteri buruz duzun datu gutxien. Bilatu arrazoiak.

.....

- d) Konparatu zure datuak zure taldekideen datuekin.

.....

- e) Ba al da pertsonaiari buruz kontatu gabe utzi duzun alderdirik? Zergatik nahiago dituzu isilpean gorde, ez dira garrantzitsuak, ez dituzu ezagutzen...?

.....

- f) Pertsona batek zure idazlana irakurriko balu, nahikoa izango al litzaioke zure pertsonaiaren bizitza ulertu eta ezagutzeko? Zer falta zaio?

.....

Aurreko galdera-sortan, datuak falta zaizkizula, pertsonaiaren bizitzako aldi batzuk ezagutzen ez dituzula, urte batzuek gehiegizko garrantzia dutela eta abar ikusiko zenuen segur aski. Orain beste urrats bat eman beharko duzu eta zure informazioa osatzeko ezagutu nahi eta behar dituzun alderdiak identifikatu beharko dituzu. Halaber, zer egin behar duzun eta non bila dezakezun jakin beharko duzu. Adibidez:

Zein dira ezagutu nahi ditudan gertakariak edo informazioak?	Zer egin dezaket horiek ezagutzeko?
<p>—<i>Ez dakit ezer bere jaiotzari buruz: egoera, lekua, datu bitxiren bat...</i></p> <p>—<i>Ez dut bere lan-bizitzari buruzko informaziorik: zein lekutan eta enplegutuan lan egin duen, soldatak eta lan-baldintzak...</i></p> <p>— ...</p>	<p>—Pertsonaiari galdetu gogoratzen duena konta diezadan.</p> <p>—Jaiotzan izan zen senitarteko helduago bati galdetu.</p> <p>—Pertsonaia jaio zeneko garaian erditzeko zeuden baldintzei buruzko informazioen bat irakurri.</p> <p>—...</p>

Saiatu ondoko taula osatzen. Horretarako, aurreko galdera-sortan erantzun duzuna kontuan izan beharko duzu.

Zein dira ezagutu nahi ditudan gertakariak edo informazioak?	Zer jakin beharko nuke horiek ezagutzeko?

2.2. BLOKEA. GURE PERTSONAIARI BURUZKO IKERKETA EGINGO DUGU

Orain arte, biografia egiteko lana aukeratu dugun pertsonaiari buruz dugun ezagutzan eta berarekiko interesean oinarritu dugu. Baina, aurreko ebaluazioan ikusi ahal izan dugunez, datu hauek ez dira nahikoak, informazio gehiago behar dugu. Horrela, kontatuko ditugun gertakizunei dagokienez, biografia osatu, erreal eta esanguratsuagoa egin ahal izango dugu.

Hortaz, informazioa leku askotan eta prozedura ugariaren bitartez bilatu behar dugu. Ikusiko dugunez, pertsonaia ez da informazio-iturri bakarra; aitzitik, alderdi eta informazio asko izan behar ditugu kontuan bere bizitzari zentzua emateko eta zehaztasun handiagoz galdetu ahal izateko.

Dena dela, ikertzen hasi aurretik, historiak zertarako balio duen eta gertakizun historikoak nola ikertzen diren ulertzen lagunduko diguten jarduera batzuk garatuko ditugu. Segur aski ikasle-bizitzan aukera asko izango zenituen historiako eskolez «gozatzeko» edo eskola horiek «pairatzeko» eta, segur aski, iritzi bat izango duzu beren zentzuari eta balioari buruz. Hauxe da eztabaidatuko dugun lehen alderdia. Horretarako, inkesta bat beteko dugu (*II.1 dokumentua*) eta, bete ondoren, ondorio batzuk aterako ditugu.

Zein dira zure ondorioak eta taldearenak?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2.2.1. jarduera. Nola egiten da Historia?

[...] Gizakiaren iragana ongi ezagutzen eta interpretatzen ez den neurrian, gizakiek eta gizaki-taldeek orainaren eta etorkizunaren ikuspegi oker bat dute. Eta logikoa den bezala, horrek eragin praktikoa du.

Pierre Vilar

Aurreko esaldia iradokitzailea izango zaizu agian: adierazten digunez, historia ez da iragana, gaur egun gertatzen zaiguna eta gertatutakoaz jabetzen ez bagara etorkizunean gertatu ahal izango zaiguna interpretatzeko beharrezkoa den zerbait baizik.

Aurreko ikasturteetan, Gizarte Zientzien arloan, historia zer den jakiteko eta ikerketa historikoa egiteko metodora hurbiltzeko aukera izan duzu. Historian, prozedurarik garrantzitsuenetako bat —garrantzitsuena beharbada— frogen bilaketa, bilketa eta, batez ere, egiaztapena eta balorazioa da.

Hurrengo jardueren bidez, historia zer den, zertarako balio duen eta bere ikerketa-metodoak zein diren sakonago aztertuko dugu. Gainera, denon artean gogoeta egiteko oinarri gisa baliagarriak izango zaizkigun adibideen bitartez egingo dugu.

Zergatik egiten dugu historia eta zertarako balio du?

Atal honetan historia nola egiten den, historialariaren ofizioa zein den, zein arazo izaten dituen eta historiaren xedea eta helburua zein den ikasiko duzu.

Arestian esan dugunez, biografia egiteko protagonistari buruzko datuak bilatu behar ditugu eta, gainera, historialariek egiten duten bezala egin beharko dugu, hau da, iturrien bidez lortzen dituzten informazio, pista, aztarna eta abarretan oinarrituta, gertakizunak berritzen saiatuta eta gertakizunen kausak eta ondorioak azaltzen saiatuta.


Nolabait ere, lana detektibe batek egin dezakeenaren antzekoa da: kasu bat argitzeko behatu egiten du, pista batzuk antzematen ditu, aurkitutako frogei buruzko hipotesiak egiten ditu, hurbileko pertsoneri eta protagonistei galderak egiten dizkie, aurreko kasuekin konparatzen du eta abar. Hala ere, badira desberdintasunak historialari baten eta detektibe baten artean. Izan ere, detektibe batentzat garrantzitsuena zer gertatu zen eta nork egin zuen jakitea da eta historialariarentzat aldiz, zer eta zergatik gertatu zen.

Historia berritzeak dakartzan zailtasunak eta, aldi berean, historia ezagutzeak gure egungo gizartean zer gertatzen den ulertzeko duen garrantzia ikusteko aukera izango duzu. Hau guztia, ondoko galderei erantzun ahal izateko hainbat kasuren azterketaren bitartez egingo dugu:

- Jakin al daiteke gaur egun zer gertatzen den historia, neurri batean bederen, eza-gutu gabe?
- Ziur al zaude zirkunstantzia jakin batzuetan zeuk ere orain zentzugabea deritzozun gauza berbera egingo ez zenukeela? Kritika al daiteke iraganean gertatutakoa gertakizun historiko horiek ezagutu zituzten pertsonen larruan jarri eta beren zirkunstantziak ulertu gabe?
- Historia objektiboa al da? Datu historikoek interpretazio bakarra al dute?

Historia egin aurretik, garbi eduki beharra dago zertaz ari garen. Horretarako, ondoko kontzeptuzko mapa aztertuko dugu:

Kontzeptuzko mapa: «Ezagutza historikoa»



Trepat, C. y otros (1994): «Procedimientos en Historia. Secuenciación y enseñanza», *IBER* aldizkaria. *Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 1. zbkia. 2. irudia, «Kontzeptu-mapa: Historiaren ikasketa epistemologikoa».

2.2.1.a. JARDUERA. IRAGANEAN ERROTUTAKO EGUNGO GERTAKIZUNA

Gogoratuko duzun bezala, irakurri dugun eleberria (*Angelaren errautsak*) Irlandan girotuta zegoen: ezinbestekoa ez izanik ere, komeni da Irlanda eta Ingalaterraren arteko gatazka zertxobait ezagutzea eleberriaren atal batzuk, pertsonaia batzuen portaerak eta harremanak, gertakizun jakin batzuen aurrean izandako erreakzioak eta abar ulertzeko. Adibidez, protagonistaren aitak dioena irakur dezakegu:

diotenez, Irlanda zaharrean ez zegoen arkakusorik, ingelesek gure onetik erabat ateratzeko ekarri zituzten, eta niri ez litzaidake harrizko ingelesek halakorik egin izana. Eta, ez al da bitxia San Patriziok Irlandatik sugeak bota eta ingelesek arkakusoak ekarri izana? Mende askotan Irlanda herrialde xarmangarria eta lasaia izan zen: sugeak desagertu egin ziren, ez zen arkakuso bakar bat ere ikusten. Irlandako zelai berdeetatik sugeen beldurrik gabe paseatzeko eta gero gau osoan arkakusoen arazorik gabe lo egiteko aukera zegoen [...]

Segur aski azken aldiotan Irlandako gatazkari, bakea lortzeko emandako urratsei eta prozesu honetan sortzen ari diren zailtasunei buruzko informazio ugari irakurri eta entzungo zenituen.

1999 astero - 28 igandak - GARA **MUNDUAI**²⁵

Apoyo condicionado unionista al proceso irlandés

► El Consejo del UUP aprobó la propuesta de David Trimble para formar el Ejecutivo del norte de Irlanda ► Introdujo una nueva condición sobre el decomiso de armas que provocó las críticas de Sinn Féin

El Consejo del Partido Unionista del Ulster aprobó ayer la propuesta presentada por el presidente del partido, David Trimble, abriendo las puertas a la formación de un Ejecutivo para el norte de Irlanda. Sin embargo, la decisión de los unionistas de compartir el poder con representantes de Sinn Féin no es definitiva, ya que será revisada por el Consejo en un período de tres meses y su aprobación definitiva dependerá del progreso en el proceso de desarmas, decisión que fue criticada por el presidente de Sinn Féin, Gerry Adams, por ser opuesta al Acuerdo de Viernes Santos y alentar a quienes desean su fracaso.

INTERNACIONAL

EL CORREO DOMINGO 21 DE NOVIEMBRE DE 1999 42

El 'sí' unionista garantiza la formación de un gobierno autónomo en Ulster

Los protestantes aceptan integrar un Ejecutivo con Sinn Féin previo al desarme del IRA

El IRA, preocupado por las condiciones de los unionistas

Reitera que nombrará mañana un representante para el decomiso

El Ejército Republicano Irlandés (IRA) reiteró el decomiso del personal de las organizaciones an-

Satisfacción general tras la ratificación del compromiso por parte del IRA

La declaración del Ejército Republicano Irlandés (IRA), en el que la organización reafirma su compromiso con el Acuerdo de Viernes Santos, el reconocimiento a la labor del equipo negociador de Sinn Féin y su disposición a la nominación de un representante que se encontrará con la Comisión de Decomiso ha sido bien recibida por los grupos políticos y los gobiernos británico e irlandés. Representantes de todos los partidos políticos signatarios del Acuerdo de Viernes Santos se reunieron ayer con De Chastelain, en un momento que el jefe negociador de Sinn Féin, Martin McGuinness, calificó como muy positivo.

24 EL MUNDO. DOMINGO 21 DE NOVIEMBRE DE 1999

Mandelson asegura que Irlanda del Norte tendrá nuevo Gobierno el 2 de diciembre

El ministro británico para el Ulster presentó ayer el calendario de transferencias

ALBACETEKO LABANA BATEKIN

Inspektoreak nerbioak dantzan zituen geltokiko nasan zehar zebilen bitartean.

Torrepostigotik Torreblancara zihoan arratsaldeko tren bakarra 6:30etan irteten zen eta hoge minutu behar zituen ibilbidea egiteko.

Itxaron behar izan zuen ordea, duela hiru egunetik ordutegia ordubete atzeratu baitzuten.

Horregatik, Torreblancara iritsi eta bi kilometro oinez egin ondoren, ezin izan zuen gorpua ikusi.

Felipe Reig, ganaduzale aberatsa, ordubete lehenago ehortzi zuten.

Hortaz, gauzak ilunago geratu ziren. Felipe Reig jauna aurreko egunean hil zuten, arratsaldeko seiak eta laurdenetan. Lurrean etzanda aurkitu zuten, borroka bortitz bat eduki izanaren seinaleekin eta bihotzean labana bat sartuta zuela.

Inspektorea labanari begira geratu zen. Ezer ez. Albaceteko probintzian saltzen diren ugarrietako bat. Arrastorik gabe.

Eduardo Aibert jaunak beste bide batetik heldu zion ikerketari.

Nori interesatzen zitzaien heriotza hori?

Oinordekoei deitu zitzaien. Bakoitzak bere koartada zuen.

Manuel Reig (anaia). —«Arratsalde osoa behizainekin eman nuen. Ganadua aukeratzan izan ginen.»

Francisco Muñoz (iloba). —Aurrekari penalak ditu. Mozkorraldi baten ondoren, adiskide bati labana batekin eraso egin zion:

«Egun osoan mendian eman nuen, ehizean. Ehiza oparoa izan zen».

Eliseo Capelo (bazkidea). —«Seietatik aurrera etxean izan nintzen atsedean hartzen».

Francisco Esteban (iloba). —«Arratsalde osoa Torrepostigon eman nuen. 6:30etako trenan itzuli nintzen, lehen klasean».

Mateo López (iloba). —«Bostetatik aurrera zinean izan naiz lagun batekin».

Eduardo Albert jauna pentsatzen hasi zen. Hurrengo egunean poliziak oinordekoetako bat atxilotu zuen.

Nork hil zuen ganaduzalea? Zergatik bera eta ez beste inor?

2.2.1.c JARDUERA. AITOR GONZALEZEN HERIOTZA BITXIA

Hurrengo jardueraren bitartez (*Aitor Gonzalezen heriotza bitxia, 2.4 dokumentua*), historia ikertzeko modua praktikan jarri ahal izango duzu, gertatutakoa berritzen saiatuko zara eta beti froga guztiak izaten ez direla eta historia berritzeko datuak eta elementuak beti nahikoak ez direla ikusiko duzu. Ondorioz, beharrezkoa izango da dauden froga eta datuetan oinarrituta hipotesi batzuk egitea eta froga berriak agertzen diren heinean bete beharreko hutsune batzuk egitea. Denborarekin objektuak, arrastoak, gertatutakoa ikusi ahal izan zuten edo ustez ikusi zuten (bakarrik edo beste norbaitekin, leku batean edo bestean eta abar) pertsonak desagertu egiten dira. Halaber, oroitzapenak galdu egiten dira, lekuko oroimenak huts egiten du, gertaerak nahasi egiten dira eta abar. Horrela, gertakari jakin batzuen argibidea galdu egin daiteke, zenbait galderaren erantzuna aspaldiko gerta-kizunetan egon baitaiteke.

Ezagutza historikoa etengabe eraikitzen dela ulertu behar dugu. Izan ere, egingako interpretazioak berrikusi eta zuzentzera behartuko duten froga berriak ager daitezke. Historia giza jardueraren emaitza dela eta, beraz, subjektibotasun-karga bat duela uler dezazun lortu nahi dugu. Horrela, berritze historikoa ahalik eta objektiboen izan dadin eta ikuspuntuen eta interpretazioen aniztasuna ager dezan, historialariek berritze historikoaren oinarri diren datuak aukeratzeko ados jarri beharra dagoela aitortzen dute.

Garatuko dugun jarduerak (*Aitor Gonzalezen heriotza bitxia*) portuko uretan aurkitutako gizonezko gazte baten gorpuaren kasuari buruzko materialak biltzen dituen txosten bat barne hartzen du. Material horiek hildako gaztearen diru-zorroan aurkitutako dokumentuen kopia zehatza dira. Horiekin batera, poliziaren txosten batek froga marko gisa balioko du. Hona hemen txostenak biltzen duenaren zerrenda osoa:

- Poliziaren txostena.
- Emakume gazte baten argazkia.
- Zinema-kate baten zozketarako txartela.
- Bisita-txartel bat klinika baterako hitzorduarekin.
- Neska baten gutun bat.
- Kontakizun-liburu bati buruzko prentsa-zati bat.
- Rock-jaialdi baten propaganda.
- Klinika mediko bateko txartela.
- Gorputz-konposizioari buruzko azterlan baterako publizitatea.

Zure taldearekin batera, detektibe bihurtu eta zer gertatu den ikertu beharko duzu. Lanaren lehen zatia denon artean egingo dugu hipotesi batzuk egin ahal izateko. Ondoren, taldeka, gainerako frogak aztertu beharko dituzue. Aztertutakoan, ondoko galderasortari erantzun beharko diozue:

1. Nor da pertsona? Definitu ezaugarriak bereizgarrienak: izaera, gustuak, jarduerak, ideiak eta abar.
2. Berritu Aitor Gonzalezen «auto-eguneko» mugimenduak.
3. Azaldu bere heriotzaren arrazoi posibleak.


GIDOIA Zein dira ezagutu nahi ditudan gertakari edo informazioak?	BEHARREZKO INFORMAZIOA Zer jakin beharko nuke horiek ezagutzeko?	ITURRIAK Zure pertsonaiaren bizitza hobeto ezagutzeko informazioa ematen dizun oro

Beharrezkoa da *iturrien fitxategia* antolatzea erabiltzen dituzun iturriak eta jasotzen duzun informazioa sailkatu ahal izateko. Iturri bakoitzetik ahalik eta informazio gehien ateratzen saiatu behar dugu. Horretarako, fitxa-eredu bati jarraitzea komeni da. Honako hau baliagarria izan daiteke:

EZAGUTU BEHARREKO GERTAKARIA	ITURRIAREN IZENA (sailkapenaren arabera)
Erantzundako galderak «BEHARREZKO INFORMAZIOA»	Zer erantzuten du?
1.
2.
3.
Galdera berriak:	
1.
2.

Iturri honen erabilerak planteatutako arazoak:	

Hurrengo orrialdean historiako iturriei buruzko kontzeptuzko mapa bat aurkituko duzu. Horren bitartez, historialariak zer egiten duen eta zein prozedura erabiltzen dituen ikusi ahal izango duzu.

Kontzeptuzko mapa: «Prozedurak historian»

Trepat, C. eta besteak (1994): «Procedimientos en Historia. Secuenciación y enseñanza», *IBER* aldizkaria. *Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 1. zbkia.

2.2.3. jarduera. Geure pertsonaiari buruzko ikerketa egiten dugu: Denbora

2.2.3.A. JARDUERA. NONDIK GATÓZ?

Koadernoaren azalari erreparatu badiozu, pertsona orok bere jatorria, bere sustraiak ezagutzeko duen eskubidea aipatzen duen Mario Benedettiren esaldi bat dagoela ikusiko zenuen. Pertsona baten sustraiei buruz hitz egiteak familiaz hitz egitea eta arbasoetara jotzea dakar.

Nire aita, Malachy McCourt, Toome-ko landetxe batean jaio zen, Antrimgo konderrian. Bere aita bezalaxe, mutiri hazi zen, ingelesekin, irlandarrekin edo biekin batera istiluetan [...]

[...] Nire ama, Angela Sheehan (ezkondu arteko izena), Limerick-eko auzo pobre batean hazi zen bere amarekin, bi nebarekin (Thomas eta Patrick) eta ahizpa batekin (Agnes). Ez zuen inoiz bere aita ikusi, bera jaio baino aste batzuk lehenago Australiara egin baitzuen ihes.

Angelaren errautsak, Franck McCourt

Familiak elementu komun bat du («sustrai berbera, odol berbera»), hau da, geneak. Horixe da, hain zuzen ere, *genealogia* hitzaren jatorria, gure geneak eta arbasoak aztertzen dituen alegia. Horren isla bat, familia bateko kideek duten abizen komuna da (zenbaitetan familiek lehen seme edo alabari izen berbera jartzen diote belaunaldiz belaunaldi).

Euskarazko etxeok hitzak «familia» eta «etxe» kontzeptuak biltzen ditu. Hitz honek, etxe batean bizi direnak adierazteaz gain, familia baten gunerik estuena esan nahi du.

Bizkaiko familia zirkulu zentrokide batzuetan barne hartuta dago. Esan dugun bezala, funtsezko zirkulua «etxekoa denak» edo, zehazkiago, jaiotetxean jarraitzen dutenek osatzen dute. Hauxe da *etxekoa* hitzaren benetako esanahia. Hainbat belaunalditako odoleko kideak dira (aiton-amonak, gurasoak, seme-alabak), etxean bizi dira eta etxearen iraunkortasuna eta jarraitasunaz arduratzen dira.



Bigarren zirkulu batean *senideak* daude. Hitz honek odoleko ahaidetasuna adierazten du. Etxean jaiotakoak eta beste familia bat osatzera beste etxe batera joandakoak dira. *Senide* hauek *jaiotetxearekin* harremanak izaten jarraitzen dute, herriko jaietan edo urteko egun jakin batzuetan (gabonetan eta, bereziki, Santu guztien egunean) egiten dituzten ospakizunetan agerian geratzen diren harremanak alegia. *Senide* hauek beren ezkontidearekin eta seme-alabekin ospakizun hauetako batean biltzen direnean, *familia osoa* bildu dela esan ohi da.

Hirugarren zirkulu periferikoago batean *senitarte* dago. Hau *urruneko senideek* eta *erantsiek* osatzen dute. Azken hauek, Bizkaiko hizketa herrikoian —gaztelaniaz— «contrapariantes» eta euskaraz *izter-senide* deitzen direnak dira. Familia-talde hauek kideetako bi ezkontzen direnean sortzen dira. Zirkulu honetako familiako lotura ehorzketan eta hiletetan gauzatzen da batez ere.

La familia tradicional de Bizkaia, A. Manterola (13-14 orr.)

Zuhaitz genealogikoa

Zuhaitz genealogikoa pertsona jakin baten aurrekoak eta ondorengoak jasotzen dituen eskema bat da. Zenbaitetan zuhaitz moduan irudikatzen da eta horrexegatik hartzen du izen hori. Zuhaitz horren sustraia familiako lehen pertsona da, abizena sortu zuena alegia. Enborretik ondorengoaren sinbolo diren adar batzuk ateratzen dira. Familiaren historia kontatzen du eta familia horretako kideak beste familia batzuetakoekin ahaidetzearen ondorioz ezartzen diren ahaidetasun-harremanak adierazten ditu.

Zuhaitz genealogikoaren irudikapenak familiaren eta familia osatu duen pertsona bakoitzaren historia islatzen du. Familia jakin batean jaiotzeak bizitza baldintzatu edo erabaki dezake. Zure pertsonaiaren bizitza aztertzean, alderdi hau erabakigarria izan zen, bere bizitzan eraginik izan zuen eta nolako eragina izan zuen egiaztatu ahal izango duzu.

Zuhaitz genealogikoa egiteko (2.6 dokumentua) zure biografiako pertsonaiaren aurreko eta ondorengoei buruzko datu batzuk lortu behar dituzu. Hortaz, hainbat iturritatik lor ditzakezun hainbat datu ezagutu behar dituzu. Arbasoei buruzko datu batzuk nortasun-agirian, jaiotza-agirian, bere gurasoen familia-liburuan eta abar aurkituko dituzu eta ondorengoei buruzko beste datu batzuk berriz, bere familia-liburuan, familia ugariko txartelean eta abar. Bere seme-alabak ezkontuta egonez gero, «*familia politikoari*» buruz galdetu beharko diozu (suhaiak eta errainak) eta bilobak baditu, zuhaitz genealogikoa haiekin osatu ahal izango duzu.

Egin ditzagun ariketa batzuk

—Bilatu zure pertsonaiaren abizenei buruzko informazioa familian bertan eta kontsultatu bere jaiotza-agiria, bere gurasoena (eta, ahal bada, bere aitona-amonena), testamentuak, senideen eskelak eta hilarriak, heriotza-oroigarria, ezkontza, bataio eta abarreko gonbidapenak edo berri-emateak eta abar. Zenbat abizen aurkitu dituzu beste iturri batzuk erabilita?

Pertsonaiaren abizenak

—Familia izen bereziren batekin ezagutzen al da? Zer dela eta?

.....

.....

.....

.....

—Abizenen tipologia kontuan hartuta (2.7 dokumentua), saiatu pertsonaiaren abizenak sailkatzen eta beren esanahia zein den bilatzen (jatorrizko leku edo etxeari, familiaren ohiko lanbide edo ofizioari... lotuta).

.....

.....

.....

.....

Zerrendatu informazio-iturri posibleak eta lortutako informazioarekin osatu taula.

Abizenak	Kontsultatutako iturriak	Abizenaren arrazoi posiblea
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		

Zuhaitz genealogikoa osatzeko, ondorengoak beste familia batzuekin ahaidetzean nola zabaldu den jaso behar duzu. Bizitzako gorabeherak, agian, gure pertsonaia bidaia-tzera behartu zuten, agian jende edo leku interesgarriak ezagutuko zituen eta, agian, horien oroitzapena bere seme-alaben izenean irudikatuta utzi zituen.

Bilatu bere seme-alaben eta hauen bikotekideen izen-abizenei buruzko informazioa. Saiatu izenek aurrekoen izenekin, jaiotegunarekin edo familiari lotutako herriren bateko zaindariarekin zerikusirik duten jakiten. Datu hauek guztiak baliagarriak izan dakizkizuke biografia aberasteko (sinesmen, kultura, harreman edota pertsonaiaren sentimenduei dagokienez).

2.2.4. jarduera. Gure pertsonaiari buruzko ikerketa egiten dugu: Espazioa

Gogoratu ondoko pasartea:

Kuartelaren muinoa izeneko eremu baten goialdean kokatutako Roden kaleskara joan ginen bizitzera. Kaleskaren alde batean sei etxe daude eta bestean bakarra. Etxeak «bi goian, bi behean» motakoak dira, hau da, goiko solairuan bi gela eta behe-oinean beste bi dituztenak. Gure etxea kaleskaren amaieran dago, seietako azkena da. Gure atearen ondoan estalpe bat dago —komuna— eta honen ondoan ukuilua.



[...] Bi ohe ditugu, arasa bat ispiluarekin, mahai bat eta bi aulki. Gela batetik bestera igaro gaitezke eta eskailerak igo eta jaitsi ditzakegu. Pozik gaude etxearekin [...]. Oso aberats sentitzeko modukoa da egun osoan eskailerak nahi adina alditan igo eta jaitsi ahal izatea [...]. Tea hartzen dugun bitartean agure bat pasa da gure atetik, eskuan ontzi bat duela. Ontzia komunean hustu du, kateari tira egin dio eta gure sukaldetik izugarrizko kiratsa irten da [...]

Angelaren errautsak (109-11 orr.)

Agian deskribapen hau harrigarria irudituko zaizu, literatur testu batekin antz handiagoa duena. Autoreak —F. McCourt-ek— ordea, ez zuen exageratzen. Hau hala dela ikus dezazun, irakurri ondoko testua, XX. mendeko lehen hamarkadetako Bizkaiko langileen etxebizitzaren egoerei buruzkoa:

Hogeiko eta hogeita hamarreko hamarkaden inguruan, etxe merkeen eraikuntzari eta dirulaguntzen bidez emandako maileguei esker, bizileku egonkor bat izateko aukera bakar moduan alokairua zuten familiek etxebizitza bat jabetzan eskuratu ahal izan zuten. Hala ere, zurezko txaboletan, zubietako arkuetan, garbitegietan edo gaueko babesetxeetan bizi ziren familiak —langabetuenak batez ere— ez ziren desagertu. Beste zenbait kasutan, irtenbide bakarra hainbat familiak etxebizitza bakarra izatea zen baina horrek pilaketa-arazoak, higieze eza, gaixotasunak eta intimitate-gabezia zekarren. [...] etxeak, oro har, txikiak eta ilunak ziren, gaizki aireztatuak eta higieze-baldintza txarrekoak. Tximitzak eta arkakusoak nonahi.

Argi elektrikoa eta komunak langileen ia etxebizitza guztietan bazeuden ere, askotan bonbilla bakar batek etxe osorako balio behar zuen baliabide ekonomiko urriak zi-

rela eta. Muturreko kasuetan, komun bakar bat eta iturri bakar bat eraikin bateko biztanle guztientzat zen [...] Bizkaiko etxebizitzaren krisialdiak, dirudienez, mugikortasun handia eragin zuen familien artean. Izan ere, maiz samar aldatzen ziren etxez bizi-baldintza hobeak lortzearen.

Eremu askotan inguruneak ere ez zuen etxebizitzaren kalitatean laguntzen: kale estu eta ilunak, espazio zabal gutxi, zoru zikinak eta usain ezatseginak higiene-ezaren eta garbiketa-zerbitzu publikoen urritasunaren ondorioz. Udalek higiene-arau berriak ezarri nahi bazituzten ere (alfonbrak leihoetan astintzeko debekua adibidez), nekez betetzen ziren praktikan. [...] Urbanizazio txar honen ondorio bat suteak ziren; maiz gertatzen ziren, auzorik pobreenetan hain zuzen ere (nondik hartua: 51-52 orr.).

Gertaerak denboran finkatzea bezain garrantzitsua da espazioan finkatzea. Espazioa eta denbora gertakariak interpretatzen laguntzen diguten elementuak dira. Izan ere, mende hasierako gertaera bat eta mende amaierako beste bat ez dira modu berean eta arrazoi bereberekin azaltzen, arrazoiak eta egoerak desberdinak baitira. Era berean, ez da gauza bera Europako herrialde batean, Amerikako batean edo Asiako beste batean gertatzea, kasu honetan ere egoerak desberdinak baitira. Kasu gehienetan jaioterria datu erabakigarria da bizitzan, bai bizitza pertsonalean edo familiakoan, bai lanbide-garapenean, gizarte-konpromisoan, militantzia politiko edo sindikalean.

Nik ez dakit familiaren etxearen topografiak eragin handia ala txikia duen izaeran. Mundura gatozenez, egoera ekonomiko jakin batera eta giro moral jakin batera ez ezik aurretik erabakitako logela jakin batera ere bagatoz. Etxeak guk uste baino tiranoagoak dira. Etxeek ezartzen dute zer izango den jangela, egongela, logelak eta abar. Eta norberaren logela ez da norberaren borondatea kontuan hartuta aukeratzen, familiari komeni zaiona kontuan hartuta baizik. Horrexegatik diot etxearen topografiak tristatu edo alaitu gaitzakeela, gure zoriaren arabera. Jakina, bakoitzak dagokion logela bere izaera eta gustuen arabera antola dezake. Batzuek, garbitasunagatik eta apaltasunagatik, diseinu sinpleko altzariak aukeratzen dituzte eta beste batzuek berriz, hormak eta altzariak behar ez diren mota orotako apaingarriz betetzen dituzte. Halaber, batzuek damasko eta kuxin nabarren artean bizitzea atsegin dute eta beste batzuek aldiz, kare zuriko hormak eta grisez forratutako dibanak nahiago dituzte. Baina, hori guztia egia izanik ere, logelaren tamainak, heltzen zaion argiak, leihotik ikusten den paisaiak eta banaketa orokorraren barruan duen lekuak eragina izan dezake norberarengan. Nik barneko logelak ez ditut inoiz gogoko izan eta zirkunstantziek eraginda horietako batean lo egin behar izan dudanean, zigor-gelara nindoala iruditu izan zait.

Vida en claro, José Moreno Villa

Zenbaitetan pertsonaia ez da jabetzen elementu honek bere bizitzan izan duen garrantziaz baina heldutasunera eta zahartzarora iristean, atzera begiratzean, hainbat hipotesi baloratzen eta kontuan hartzen dira («hemen jaio beharrean han jaio izan banintz, halako tokitan halako lan hura onartu izan banu [...], orain halakoa izango nintzateke edo hala egongo nintzateke [...])».

Etxebizitzaren gaiari buruz informazio ugari bil dezakezu. Aukeratu ondoko proposamenetako bat eta saiatu datuak eta erantzunak lortzen:

- saiatu, zure pertsonaiak ematen dizun informazioarekin, jaio zeneko etxearen edo berarentzat esanahirik handiena duenaren deskribapena lortzen edo irudikatzen;
- egin gelarik garrantzitsuenen zerrenda eta idatzi ezaugarri estetiko eta funtzionalak eta izan dituzten aldaketarik garrantzitsuenak (dimentsioak, kalitatea, banaketa, gela-motak eta espazioa, eraikuntza-mota, bainugela...);
- eskatu zure pertsonaiari etxe horretan bizi izandako gertakizunak eta pasadizo bitxiak gogora ditzan;
- ikertu etxebizitzetan izandako aldaketarik esanguratsuenak, konparatu garai bakoitzeko bizimodua eta etxebizitza eta atera ondorioak.
- ...

Zalantzarik gabe, aurreko gaiei buruz lortzen duzun informazioarekin zure pertsonaiari eta bere inguruan agertu diren aurrerapen teknikoei buruzko datu garrantzitsuak eta bitxiak izango dituzu. Ikusiko duzun bezala, kokapen geografikoak eta familien bizi-mailak izugarri baldintzatzen zuen etxebizitza-mota, gaur egun baino gehiago zenbaitetan.

2.2.2.4.a. JARDUERA. JOAN-ETORRIEN MAPA

Jarduera honen bidez (*2.11 dokumentua*), gure protagonistak hainbat arrazoiren ondorioz (lana, familia, atsedena, bizilekua edo beste edozein zirkunstantzia) zein lekurekin izan duen zerikusia aztertuko dugu.

Bilatu leku horiek identifikatzeko moduko mapa bat. Leku hauek ezagutzeko zure pertsonaiari edo zure ustez informazio esanguratsua eman diezazuketen pertsonen galde-tuko beharko diezu ezagutzen ez dituzun edo lehenago oso argi geratu ez zaizkizun alderdiak osatu ahal izateko. Zuhaitz genealogikoa egitean bere gurasoak jaio zireneko, bera jaio zeneko edo bere emazteari, seme-alaben jaiotzei eta ezkontzei edo biloben jaiotzei lotutako lekuak ezagutu ahal izan dituzu. Orain berriz, lantokiarekin zerikusia duten lekuak bilatu beharko dituzu. Izan ere, baliteke landatik hirira, herrialdeko toki batetik bestera edo atzerrira —Europara edo Amerikara— emigratu izana edo lanbideagatik (marinela, arrantzalea, pilotua, merkataritza-saltzailea, treneko langilea...) bidaiatu behar izana. Halaber, zenbat bidaiara egin behar izan zituen, noiz egin zituen, arrazoiak zein izan ziren eta hauek zure pertsonaiarengan nolako ondorioak izan zituzten galdetu beharko duzu.

Hortaz, informazio horiek guztiak eta esanguratsuak diren beste antzeko batzuk bilatu beharko dituzu.

2.2.5. jarduera. Gure pertsonaiari buruzko ikerketa egiten dugu: gure eguneroko bizitza

Historia aztertzean, gertakizun eta pertsonaia handien aipamenak etengabeak dira eta, horren arabera interpreta dezakegunez, jardun indibidualaren bitartez mundua eta milioika pertsonen ohiturak eta bizi-zirkunstantziak aldatzeko gai diren pertsona gutxi

batzuek egiten dute historia. Entziklopedietako eta testuliburuetakoko historia klasikoa da. Baina...

[...] badira, urruneko eta hurbileko paisaia ugariaren egunerokotasun mingotsa adierazi arren, albiste ez diren beste bizitza eta heriotza batzuk ere.

Orain ez ditugu gertakizun historiko handiak landuko, pertsona normalen (zure pertsonaia bezalakoak segur aski) eguneroko edo etxeko bizitzan, bizitzarik hurbilenean eragina izan duten aldaketak baizik.

Eguneroko bizitzaz hitz egitea gauza berri samarra da azterlan historikoen esparruan eta, besteak beste, soziologia, antropologia, ekonomia eta abarrekin zerikusia du. Gure pertsonaiaren eguneroko bizitza ikertzen hasi aurretik, *eguneroko bizitza* terminoak zer esan nahi duen eta zer adierazten duen argitu behar dugu.

Irakurri ondoko testua eta erantzun ondorengo galderari.

Eguneroko bizitzaren adierazpeni buruzko azterketak garrantzia hartu du errealitatearen berritze historiografikoaren esparruan. Historialari batzuen ustez, egunerokotasunaren esparru hauek beste diziplina bat ekarri dute, *antropologia historikoa* hain zuzen ere. Beste batzuen ustez aldiz, gizarte-historia soila da. Edonola ere, bi kasuetan ohikoa denaren, etxeko bizitzaren munduari interesa eskaintzeko iradokizuna egiten da.



Pribatua denaren esparru nagusia familia da, hala Erregimen Zaharrean nola gure garaian. Horrela, XVIII. mendeko gizartean noblezia-ereduak agintzen zuen eta egungo gizartean berriz, estamentu-oztopoak desagertu badira ere, gizartea osatzen duten mailak hurbiltzea lortu gabe dago.

Familiari hertsiki lotuta, senar-emazteak daude. Hauen egoera ekonomikoa erabakigarria da oraindik ere, garai ez hain urrunetan baino proportzio txikiagoetan bada ere. Halaber, sexualitatearen eta maitasunezko jarreraren esparruak barne hartzen dituzte; hain zuzen ere, esparru hauetan nabari dira bizikiago azken hirurehun urteotako aldaketak.

Espazio pribatu nagusia etxea da, etxebizitza, Erregimen Zaharrean eta landa-munduan babes, atsedean eta laneko funtzioak betetzen zituena. XIX. mendetik aurrera, familia burgesen etxeko espazioa senarraren atsedean-leku bihurtu zen eta, bertan, «etxeko» lanak lan-mundutik baztertuta zeuden emakumeek eta neskek egiten zuten. Eredu hau herritarrengana ere zabaldu zen baina, kasu honetan, amak etxetik kanpo lan egitera behartuta zeuden.

Aldi berean, etxeak beste transformazio batzuk izan zituen bere oinarritzko funtzioetan (elikadurari, higienerari eta berokuntzari lotutakoak bereziki) eragina izan zuten aurrerapen teknikoen ondorioz. Aldaketa hauek hertsiki lotuta daude zientzia-aurrerpenei.

Familia hauetan guztietan talde batzuetatik besteetara transmiti daitezkeen eta gizarte baten pentsaeraren oinarria osatzen duten balore batzuek agintzen dute. Zenbaite-

tan, balore hauek etnia edo erlijio txikiei lotutako berariazko kultur jarraibide batzuei erantzuten diete. Kasu hauetan, kohesio-maila handia behar da kultura nagusiak irentsi ez ditzan.

Etxebizitzen atea igarotzeak, joan den mendetik gizarte-bizitzari dagokion inguru-nea, etxeko solasaldien eta esparruen dekadentzia ezagutzea dakar, egunerokotasuna garatzen deneko espazio publikoak zeharkatzea eta aztura batzuen iraunkortasuna eta jai batzuen jarraitasuna ikustea bezalaxe.

Hiria aldaketa-espazioa da, bertan agertzen dira bizitza modernoaren lehen adierazpenak, jantzien modak, biltzeko eta atsedean hartzeko leku berriak. Aldi berean, bertan finkatzen dira gizarte-sinboloak, talde desberdinen arteko hurbiltasunak boteretsuen jarraibideak hartzera eramaten baitu eta asmo horrek frustrazioak eta gatazka ekonomikoak ekar ditzake.

Eguneroko bizitzak beste aldaketa garrantzitsu batzuk ere izan ditu azken mendeotan, hala nola irudiari eta komunikazioari lotutakoak. Oro har, bizitza pribatua gaur egun komunikabideen eraginpean dagoela esan daiteke. Adibidez, autore askok ez du zalantzarik zineak maitasunezko jarreran izan duen eragina erabakigarria izan dela adierazteko.

—Zer da «eguneroko bizitza» terminoarekin ulertzen duguna?

.....

—Funtsezko zein alderdi edo gai aztertu behar dira pertsona baten eguneroko bizitza ezagutu nahi izanez gero?

.....

—Zertarako izan daiteke interesgarria pertsona baten eguneroko bizitza bizitzako une desberdinetan nolakoa izan zen ezagutzea?

.....

Jarraian zure pertsonaiak bizitzako hainbat unetan (txikitan, gaztetan, helduaroan, zahartzaroan) izandako bizimoduari buruzko informazio eta datu interesgarri batzuk bi-

2.2.6. jarduera. Gure pertsonaiari buruzko ikerketa egiten dugu: gertakizun historikoak

[...] historia pertsonal bat ezin da kontatu aldaketa historikoa aipatu gabe.

Thompson

Thompson historialariak dioenez, gertakizun historikoek eragin erabakigarria dute pertsonen bizitzan, Gerra Zibilaren ondorengo «sator» izeneko kasu batzuk aztertzean ikusi dugun bezala. Historia pertsonak bizitzen eta askotan sufritzen dute, sarritan bizitzen ari garen aldaketez edo gertakizun historikoez jabetzen ez bagara ere.

Jarraian egingo ditugun jarduerekin zure pertsonaiak bizi izandako gertakizun historiko batzuei buruzko datuak eta informazioak biltzen, jaio zeneko urtean zer gertatzen zen ikusten eta XX. mendeko kronologia lantzen saiatuko gara.

2.2.6.a. JARDUERA. ZER GERTATZEN ZEN JAIO ZENEAN?

Pertsonaia jaio zeneko urtean munduan eta Euskal Herrian zer gertatzen zen eta zein gertakizun historiko izan ziren ezagutzea lan berezia izan daiteke (hil ziren pertsonaiak, aurkikuntzak, gerrak, gertakizun politikoak, sozialak, kulturalak, zientifikoak eta abar).

Lan hau egiteko informazioa hainbat iturritan jaso beharko duzu (bai eta zure pertsonaiaren oroitzapenak edo bere gurasoek kontatutakoak ere). Helburua, pertsonaia jaio zeneko urteko gertakizun historikorik garrantzitsuenak bilduko dituen EGUNKARI-AZAL bat egitea da. Hasi aurretik, egunkari-azalen funtzioa eta egitura ezagutu beharko dituzu (2.13 dokumentua).

Azal hau egiteko ondoko arauak izan beharko dituzu kontuan:



- egunkariari izen bat eman eta zein urtekoa den argi eta garbi adierazi beharko duzu;
- gertakizun historikorik garrantzitsuena izango da egunkariaren titulua, letra handi eta nabarmenetan;
- azaleko gertaerarik garrantzitsuenen arteko baten argazki bat bilatu beharko duzu gutxienez;
- azalaren gainerako zatian aukeratutako beste albisteak ipini beharko dituzu, bakoitzaren laburpen bat barne hartuta.

Azalaren egiturak askotarikoak izan daitezke. Jarraian, *El Mundo* egunkariko adibide bat ikusiko duzu. Bere egitura ezkerreko grafikoan adierazi dugu.

Lan hau bakarka edo urte bereko azala egin behar duten beste ikaskide batzuekin egin dezakezu.

El Diario del Siglo xx
AÑO 1937

FRANCO DESTRUYE GUERNICA CON AYUDA DE LA AVIACION ALEMANA

LANZARON SOBRE LA VILLA VASCA 50.000 KILOS DE BOMBAS
El bombardeo duró tres interminables horas

El 26 de abril, la villa de Guernica, símbolo de la libertad del vasco, fue martirizada por la aviación alemana, que descargó todo su poder sobre la población indefensa. Un huracán y una caótica lluvia de bombas azotó, por minutos sucesivos, sin dejar lugar a dudas sobre quienes fueron los autores de la catástrofe.

El periodista Noel Masferrer, responsable de varias periódicas europeas, fue uno de los primeros en bombardear Guernica, reduciendo la ciudad a cenizas. Tras el bombardeo de Madrid, primera ciudad del mundo atacada nuevamente por la aviación, es ahora Guernica la que sufre las consecuencias de la devastadora arma.

Página 9

PABLO PICASSO EVOCA LA TRAGEDIA EN UN CUADRO
La exhibe en la Exposición de París a los cinco meses

En uno de los cuadros del pabellón de España en la Exposición de París quedó reflejado en septiembre el horror Guernica, el impresionante reflejo del bombardeo de la localidad vasca cinco meses del pasado de Pablo Picasso.

Página 14

EL PRESIDENTE AZAÑA TAMBIEN ABANDONA MADRID
Negra, impetuoso por el PCE, forma el 5º Gobierno republicano de la guerra

Los bombardeos y el exilio en San Sebastián, así como las presiones del presidente Azaña a través de Valeriano, jefe del Gobierno de la República. Un mes, cuando a diario el doctor Juan Negrín, en sustitución de Largo Caballero, tras una violenta sesión por las pelotas entre comunistas y socialistas.

Página 2



Una vez vista en estado de la destrucción el pueblo del pasado desde a un año en la confusión de la villa San Juan y la carretera de Durango.

CAEN MALAGA, BILBAO Y SANTANDER
Durisimas batallas en el Jarama, Guadalajara, Brunete y Belchite

EL EJERCITO REPUBLICANO CONTRATA UN TREN

La guerra ha sido siempre para uno y otro bando en las grandes batallas. En el Jarama y Brunete quedaron en calma. Sólo en Guadalajara el triunfo de los republicanos fue total, y provocó la huida del ejército italiano. Pero el frente norte ha desaparecido. Toda su capacidad industrial y minera está ahora en manos nacionales. Por uno lado, es el frente de Aragón. Entre otros Belchite. Finalmente, las repúblicas han contratado un tren, que comienza una línea de ferrocarril de Madrid a Barcelona.

Página 4 y 7

LOS OBISPOS APOYAN A FRANCO
El general Mola muere en un accidente de aviación

La Iglesia ha tomado partido definitivamente. En una pastoral que ha sido muy comentada, los obispos españoles han justificado la rebelión emprendida por los generales debido al peligro de revolución comunista, cuyo avance impediría en el clima tradicional una misión de tipo religioso. La pastoral para un gran servicio a Franco, quien es ahora mismo la figura más destacada de los aliados. Sobre todo después de que el general Mola falleciera en un accidente de aviación.

Página 6

El mundo pierde al célebre inventor Marconi

Fallece también Ravel, Gershwin y Gramsci

Guillermo Marconi, el inventor de la telegrafía sin hilos y premio Nobel de Física, falleció en Roma el 20 de julio a los 63 años de edad.

En 1937 también han fallecido Antonio Gramsci, impulsor del comunismo en Italia, y dos compositores el estadounidense George Gershwin, autor de Porgy and Bess, y el francés Maurice Ravel.

Página 13

La guerra divide a los intelectuales y muchos huyen de España
Artículo de André Gide que propone tomar partido y de Pio Baroja que lamenta la impotencia de ser neutral

Página 15

Entrevista a Hemingway: «En España se juega el destino del mundo»
El popular periodista estadounidense evalúa sus críticas sobre la guerra civil a 68 publicaciones de América

Página 16

Ikus dezakezunez, azalean aztertutako gertakizun bakoitzari buruzko informazioa birlatu behar duzu. Horretarako, hainbat motatako dokumentuetara jo dezakezu: testuliburuak, egunkarien urtekariak, *El año que yo nací* bilduma, *Crónica del siglo xx* liburua («Gertakizunak» liburukian edo eranskineko kronogrametan) eta abar. Halaber, Zeta Multimedia-ren *Crónica del siglo xx* eta *Crónica de la Historia* CD-rometan eta Argiaren *Gure mendea* izenburukoan datu asko aurkitu ahal izango dituzu, urtez urte eta egunez egun.

Laguntza gisa, saiatu ondoko taula betetzen:

Gertakizunak	Urtea ...
POLITIKOAK	
EKONOMIKOAK	
KULTURALAK	
SOZIALAK	
KIROLAK	
BESTE BATZUK	

2.2.6.b. JARDUERA. XX. MENDEKO KRONOGRAMA

Zure pertsonaia gure mendekoa da, XX. mendekoa hain zuzen ere. Hori baliagarria izango zaigu mende horren kronologia aztertzeko. Bilatu ondoko alderdiei buruzko informazioa (taldeka egin daiteke):

- Egin, aurreko jardueretan egin ez baduzu, XX. mendearen kronograma bat eta adierazi bertan gertakizunik garrantzitsuenak.
- Bilatu zein gertakizun historiko handik eragin zituzten aldaketa garrantzitsuak bere bizitzan.
- Hitz egin pertsona nagusiekin eta gorde idatziz gogoratzen dituzten gertakizunik garrantzitsuenak.
- Saiatu hitz egin duzuen pertsonak aipatutako gertaerak kronologikoki ordenatzen.
- Sailkatu gertaera horiek, adibidez, politikoekin zerrenda bat, ekonomikoekin beste bat, hondamen naturalekin beste bat eta abar eginez.
- Osatu zure datuak beste ikaskideek dituztenekin.
- Zein dira gertakizunik aipatuenak? Zein motatako gertakizunak dira? Zure ustez, zergatik gogoratzen dituzte gertaera horiek batez ere?
- ONDORIOAK.

2.2.7. jarduera. Jasotako datuekin txostena egitea

Orain arte egindako urratsek txostenera garamatzate. Kontuan izan behar duzu atal hau funtsezkoa dela, bertan egindako lanaren ahalegin osoa jasotzen baita. Gainera, gertakizun historikoa berritzeko erabiltzen den metodoa ulertu duzula frogatu ahal izango duzu.

Zure pertsonaiaren bizitzaren historiari buruzko gidoian oinarrituta, egin historia horren garapena. Zure lanean, kontuan izan behar duzu ez zarela hasierakoa bezalako narrazio batera mugatu behar. Hasierako idazlana egin zenuenetik orain egin beharreko txosten honetara iristeko ikerketa-lan bat egin behar izan duzu. Lan horrekin ikasi duzuna ongi antolatuta erabili behar duzu zure kontakizunak koherentzia izan dezan eta beste pertsona batzuek ulertzeko modukoa izan dadin.

Jarraitu arretaz ondoko orientabideei:

a) Erabili egindako jardueretan bildutako informazio eta dokumentazio guztia zure lanean:

- ardatz kronologikoak,
- planoak, desplazamendu edo joan-etorrien mapak,
- egunkarietako albisteak eta aztertutako informazioak,
- eztabaiden ondorioak,
- zure pertsonaiak galdera-sortei emandako erantzunak,
- jasotako irudiak, argazkiak edo marrazkiak,
- aztertu dituzun eta eragina izan duten gertakizun historikoak,
- aztertutako fase bakoitzean pertsonaiaren eguneroko bizitzari lotutako giroak, ezaugarriak eta gertakizunak,
- ezagutu dituzun pasadizo eta alderdi bitxiak,
- beharrezkotzat hartzen duzun beste edozein material.

Asmoa ez da egindako material eta jarduera guztiak berriz ere egitea. Saiatu zure txostenean kontatzen dituzun gertakariei buruz eman beharreko azalpenetarako euskarri moduan erabiltzen. Kontuan izan idatziko dituzunak iturrietan eta jasotako informazioetan oinarritu beharko dituzula. Zure lanean aipatu eta erabilitako iturri guztiekin, egin zerrenda bat eta erantsi txostenaren amaieran.

Ez ahaztu pertsona baten *biografia* egiten ari garela. Hortaz, txosten honen antolamendua biografiari eman nahi diozun egiturari egokitu beharko zaio, beharrezkotzat hartzen dituzun kapituluekin. Agian izenbururen bat jarri beharko zenieke:

- haurtzaroa, halako lekutan emandako denbora, halako garaiko urte luzeak...
- haurtzaro lasaia, gaztaro geldiezina;
- lasaitasun-urteak,
- halako garaiko oroitzapenak;
- erretiroko sosegua,
- halako garaiko monotonia...

Autoebaluazioa

Txostena amaitu ondoren, aztertu ondoko alderdiak:

- a) Nola egokitzen zaion zure lana ikerketan jarraitutako garapenari. Horretarako, bilatu zure koadernoan dituzun eztabaidetako ondorioak eta egiaztatu zure txostenean kontuan hartu dituzun ala ez (adibidez, pertsona guztiek dimentsio kolektibo bat dutela eta dimentsio horrek guztiengan eragin handiagoa edo txikiagoa duela ondorioztatu badugu, egiaztatu alderdi hau zure pertsonaiaren bizitzari buruzko istorioan islatuta dagoela).
- b) Aztertu zure txostenaren azalpen-ahalmena: gertakarien arteko erlazioak, azalpenak orokortzeak eta abar.
- c) Egiaztatu iturrien (ahozkoak, idatziak, grafikoak) eta horietan oinarrituta egindako materialen (planoak, ardatz kronologikoak, zuhaitz genealogikoa, joan-etorrien mapa...).
- d) Zaindu aurkezpena (marjinak, ordena, letra, kapituluaren banaketa eta abar).
- e) Kontuan izan zure pertsonaiari bizitzan gertatutakoak kontu behar direla eta, gainera, hainbat motatako deskribapenak barne hartu behar dituzula (pertsonaiarenak, hiri eta etxeenak, bere bizitzako objektu esanguratsuenak...).
- f) Irakurri berriz hasierako idazlana, konparatu egin berri duzun txostenarekin eta saiatu ondoko alderdiak aztertzen:
 - Ba al da kontraesanik bien artean? Ba al dute zentzurik?
 - Zein dira bi lanen arteko desberdintasun nagusiak?
 - Emandako urratsen ondoren, zure pertsonaiaren bizitza hobeto ezagutzen duzulakoan al zaude?
- g) Egin zure lanaren balorazio orokor bat eta kontuan izan aurrerago landu duzun dokumentuaren hizkuntz alderdiak hobetzen saiatuko garela.

Gogoan izan pertsonaia hobeto ezagutzea ahalbidetu diguten urratsak ondokoak izan direla:

1. Pertsonaiari buruz dakidanetik abiatzea, ezagutza mugatua dela kontuan hartuta.
2. Neure buruari biografia oso bat egiteko jakin nahi dudana eta jakin behar dudana galdetzea.
3. Laneko gidoi baten bidez galdera horiei erantzuteko moduari buruzko hipotesiak zerrendatzea.
4. Hainbat iturritan informazioa bilatzea eta iturri horiekin lan egitea (denbora, espazioa, eguneroko bizitza, gertakizun historikoak).
5. Gidoia berrikustea eta txostena egitea.
6. Emaitzak egiaztatu eta ebaluatzea.

Urrats hauek guztiek definitzen dute *metodo zientifiko* bat gizarte-esparruan.

HIRUGARREN ATALA: AMAIERAKO PROIEKTUA

Atal honen laguntzarekin kontakizun biografiko baten produkzio idatzia egin beharko dugu. Kontakizuna proiektuaren lehen zatian aukeratutako pertsonaiari buruzkoa bada ere, pertsonaiaren nortasuna eta ingurune soziohistorikoa osatuko duten funtsezko datu batzuk barne hartu beharko dira. Datu hauek 2. atalean amaitu berri dugun ikerketaren bidez lortu eta aukeratutakoak izango dira.


Kontakizuna osatuagoa izan dadin, proiektuaren lehen zatian aurreratu ditugun eta orain *ikaskuntza-moduluen* bidez osatuko ditugun hizkuntz izaera handiagoko hainbat ezagutza barne hartu beharko ditugu.

Zer dira ikaskuntza-moduluak? Testu biografikoaren berezko ezaugarriei buruzko informazio osagarriak dira, biografia bat egiteko ezagutu behar ditugun alderdiak, hala nola istorioaren narratzailea, espazioa, denbora, deskribapenak, pertsonaiak eta abar. Pixkanaka ikusiko ditugu eta esku artean dugun produkzioan aplikatzen saiatuko gara.

Bestalde, funtsezkoa da atal honetan proiektuaren lehen zatian egindako lehen idatzia berreskuratzea, horretan oinarrituko baikara lana osatzeko.

Hurrengo orrialdean, biografia idazteko proiektua osatzen duten faseak agertuko dizkizun taula bat barne hartzen dugu. Idazketa-prozesua eta bere ordena zehaztuta ematen duen eskema ikusi ondoren, hirugarren zati honetan ondoko atalak eta jarduera-multzoak egingo ditugu:

Blokeak	Jarduerak
3.1. IDATZITAKOA BERRIKUSTEN DUGU	3.1.1. Gure lehen idatzia berreskuratzen dugu. 3.1.2. Informazioa antolatzen dugu. 3.1.3. Ikaskuntza-moduluak.
3.2. BIOGRAFIAREN IDAZKETA	3.2.1. Gure idatziaren bigarren bertsioa.
3.3. EBALUAZIOA	3.3.1. Zuzenketa. 3.3.2. Azken idatzia. 3.3.3. Berrikuspena.



3.1. BLOKEA. IDATZITAKOA BERRIKUSTEN DUGU

3.1.1. jarduera. Gure lehen idatzia berreskuratzen dugu

Une honetan lehen idatzia berreskuratu eta berritu beharko dugu azken bertsioa lortu arte. Horretarako oinarrizko hiru eragiketa egin beharko ditugu:

- a) Ikerketa historikoari buruzko II. atalean lortutako informazioa eranstea.
- b) Atal honetan erantsitako ikaskuntza-moduluak aplikatzea.
- c) Idatzia berrikustea eta behin betikoa idaztea.

Jarduera honetan, I. atalean egindako idatzia berreskuratu eta ondoko galderak erantsiko dizkiogu:

Zure ustez, zer du faltan zure idatziak?

.....

Eta soberan?

.....

Ongi idatzita dagoela uste al duzu?

.....

Zure ustez, biografia behar bezala osatuta al dago?

.....

Ikerketaren bitartez lortutako zein datu barne hartu behar dituzu oraindik?

.....

3.1.2. jarduera. Informazioa antolatzen dugu

Ikerketa historikoko proiektuaren bidez lortu duzun informazio guztia berrikusi beharko duzu biografiarako interesa duena aukeratzeko. Horretarako, datuak sistematizatzeko balio duen tresna bat barne hartzen da jarraian, datuak behar dituzunean jaso ahal izan ditzazun.

Zure biografia berriz idazteko orduan, ez ahaztu datu hauek. Taulan guztiak idatzi nahi ez badituzu, adierazi non aurki daitezkeen (koadernoan, apunteetan, liburuan, zein pertsonaren bitartez, lehen idatzian...).

BIOGRAFIARAKO INFORMAZIOAREN ANTOLAMENDUA	
<i>Pertsonaiaren garaiari buruzko informazioa</i>	
<i>Bizi izan zeneko lekuari buruzko informazioa</i>	
<i>Asmakuntza edo aurrerapen interesgarriei buruzko informazioa</i>	
<i>Ezagutu zuen giroari buruzko informazioa</i>	
<i>Beste datu garrantzitsu batzuk</i>	

3.1.3. jarduera. Ikaskuntza-moduluak

Zure beharren eta biografiaren lehen bertsioak egitean aurkitu dituzun zailtasunen arabera, zure produkzioa hobetzen lagunduko dizun informazio osagarria eskuratzeko aukera izango duzu. Lan hau ikaskuntza-moduluen bitartez egingo da (narrazio biografikoari, espazioen eta pertsonaien deskribapenari edo historiaren denboraren kontrolari buruzkoak).

Une honetan egiten duzun ahalegina oso garrantzitsua izango da zure idatzia hobetzeko (3.1., 3.2 eta 3.3 dokumentuak).

3.2. BLOKEA. BIOGRAFIAREN IDAZKETA

Une honetan zure pertsonaiaren biografiaren bigarren bertsioa idazten hasi behar duzu, interesgarritzat eta beharrezkotzat hartzen dituzun informazio guztiak erantsita eta narrazioari, deskribapenari, biografiaren hizkuntz alderdiei buruz landu dugun guztia kontuan hartuta.

Zeregin honetan laguntza izan dezazun, lanerako kontuan har ditzakezun jarraibide batzuk emango dizkizugu (*3.4 dokumentua*).

3.3. BLOKEA. EBALUAZIOA

Ebaluazio-prozesuan honako hauek dira eman beharreko urratsak:

1. Zuzenketa.
2. Azken idatzia.
3. Berrikuspena.

Urrats hauek idazketa-prozesua ebaluatzeko txantilo batzuen bidez emango dira. Berez proiektuko atal bakoitza ebalua daiteke, atal horietan bereganatu duzuna baiesten duten ikasteko hainbat jarduera agertzen baitira. Bestalde, idazketa-proiektuaren ebaluazio zehatza idatzia bera izango da. Idatzi honek, lan osoan proposatutako ezagutza gehienak bilduko ditu.

Zure biografia zuzendu eta berrikusi ondoren, laneko koaderno honekin batera aurkeztu beharko duzu proiektua ebaluatzeko oinarri gisa balio izan dezan.

III. DOKUMENTU-TXOSTENA

LEHEN ATALARI DAGOZKION DOKUMENTUAK

1.1. DOKUMENTUA. IRAKURKETA-TESTUAK

1. testua: Dinesen, Isak

Izena Karen Blixen idazle danimarkarraren (1885-1962) goitizena da. Literatura ikasi zuen Oxforden eta artea Erroman, Parisen eta Kopenhagen. Bere lehengusua zen Bror Blixen-Finecke baroiarekin ezkondu ondoren Keniara joan zen. Bertan senar-emazteak kafea landatzen eta merkaturatzen jardun zuten. Herrialde honetan izandako esperientzia pertsonalek (gaixotasuna, dibortzioa, porrot ekonomikoa) arrasto sakona utzi zioten bere bizitzan eta bere obran. Danimarkara itzuli zenean hainbat liburu argitaratu zituen eta, hauen artean, zinera eramandako *Afrikako oroi-tzapenak* izenburukoa. Hil ondoren, bere obra gehiago argitaratu ziren. (*Diccionario de escritores célebres* (1995), Espasa).

2. testua: Antonio Machado (poema)

Mi infancia son recuerdos de un patio de Sevilla
Y un huerto claro donde madura el limonero;
Mi juventud, veinte años en tierra de Castilla;
Mi historia, algunos casos que recordar no quiero.

Ni un seductor Mañara, ni un Bradomín he sido
—ya conocéis mi torpe aliño indumentario—,
más recibí la flecha que me asignó Cupido,
y amé cuanto ellas pueden tener de hospitalario.

Hay en mis venas gotas de sangre jacobina,
Pero mi verso brota de manantial sereno;
Y, más que un hombre al uso que sabe su doctrina,
Soy, en el buen sentido de la palabra, bueno.

Adoro la hermosura, y en la moderna estética
Corté las viejas rosas del huerto de Ronserad;
Mas no amo los afeites de la actual cosmética
Ni soy un ave de esas del nuevo gay-trinar.

Desdeño las romanzas de los tenores huecos
Y el coro de los grillos que cantan a la luna.
A distinguir me paro las voces de los ecos,
Y escucho solamente, entre las voces, una.

¿Soy clásico o romántico? No sé. Dejar quisiera
mi verso, como deja el capitán, su espada;
famosa por la mano viril que la blandiera,
no por el docto oficio del forjador preciada.

Y al cabo, nada os debo; debéisme cuanto he escrito.
A mi trabajo acudo, con mi dinero pago
El traje que me cubre y la mansión que habito,
El pan que me alimenta y el lecho donde yago.

Y cuando llegue el día del último viaje,
Y esté al partir la nave que nunca ha de tornar,
Me encontraréis a bordo, ligero de equipaje,
Casi desnudo, como los hijos de la mar.

3. testua: «Mike Tyson, Una bomba a punto de estallar», John Carlin
(*El País Semanal* 11-04-99)

*Hona hemen irainak, iruzurra eta tratu txarra jasan dituen gizon baten istorioa.
Epaile batek azken kolpea eman dio: ez du onartu otsailetik agresioagatik
betetzen duen urtebeteko gartzela-zigorra laburtzea*

[...] Arakutzen amaitu ondoren, *Iron Mike* (*Burdinazko Mike*) esaten dioten milioiez jositako boxeolari harroputz eta bortxatzaile konbiktuak txorienganako zaletasuna duela ikusi dut. Txikitant, Tysonek usoak hazten zituen Brooklyngo eraikin abandonatu baten teilatuan, amarekin bizi zeneko etxe zikinaren ondoan. Txoriak gaixorik zeudenean edo jaioberriak zirenean, Tysonek gau osoa ematen zuen haiekin. Eguraldi hotza zegoenean bere etxera eramaten zituen, mimatu egiten zituen, «nire umetxoak» esaten zien. Goiz batean, txakur batek 25 txori hil zituela ikusi zuenean, nahigabe handiz egin zuen negar.

Zortzi edo bederatzi urte zituela, bortizkeria gizarte-lege bihurtu zeneko hiri-oihan batean bizi zen haur txiki, adeitsu eta sentibera zen. Ahots leun eta xirula-antzekoa zuen. Zizipaza egiten zuen hitz egitean. Gainerako mutilek maritxu esaten zioten eta jo egiten zuten. Bai eta neskek ere. Diru pixka bat izanez gero, lapurtu egiten zioten; jaka polit bat jantzita eramaten bazuen, kendu egiten zioten. Korrika etxera amarengana itzultzzen zenean are iseka handiagoak egiten zizkioten. «Maritxu, maritxu!».

10 urte bete zituenean hazten hasi zen. Baita ongi hazi ere. Egun batean, bere ahul-ospea hankaz gora jarri zuen. Bera baino 5 urte gehiago zituen mutil batek, auzoko nerabe handiputz batek hain zuzen ere, bere usoetako bat hartu zuen. Mikek usoa uzteko erregutu zion baina beste mutilak, barre artean, hegaztiaren lepoa bihurritu zuen, bai eta hautsi arte bihurritu ere. Ondoren burua atera zion. Lehen aldiz bere bizitza osoan, sena beldurrari nagusitu zitzaion. Mikek borroka egin zuen. Barruan pilatutako irain guztiek eztanda egin zuten suminduraitsu batean. Mutila gogor jo zuen, ostikadak eta ukabilkadak eman zizkion, odolotan uzterainoko zauriak egin zizkion. Delitugile, pistolari, zaharren lapur, erdi-gizon, erdi-haur bihurtu zen. Beldurra zioten auzoan, bai eta bigarren etxe izan zituen gazte-zentzategietan ere. 13 urterekin ez zekien irakurtzen eta idazten baina 1,73 m-ko garaiera eta 90 kiloko pisua zuen. Cus d'Amato-k, Floyd Patterson eta Jose Torres boxeolariei munduko tituluak lortzen lagundu ziren boxeo-entrenatzaileak alegia, Tysonek barruan zuen deabrua ikusi zuen. «Horixe da pisu astunen munduko txapelduna» esan zuen miraz, «berak hala nahi badu».

D'Amatok etxera eraman zuen, gazteriaren arloko agintariei Tyson iskanbiletan ez sartzeko ardura hartuko zuela agindu zien eta bere familiako kideztat hartu zuen. Tysonek 16 urte zituela ama hil zitzaionean, d'Amatok semetzat hartu zuen legez.

Horrela, mito bat sortu zen. Urrezko bihotza duen gizon zuri zaharrak gazte beltz basatia babespean hartu eta gazteak inoiz izan ez zuen aita bihurtzen da. Zaharraren maitasunari esker gaztea pobreziatik irten eta sekula pentsatuko ez zuen arrakasta lortzen du. Amerikako ametsaren erredentzio-istorio klasikoa zen. Komunikabideak liluratu egin ziren istorioarekin; sustatzaileei ere izugarri gustatu zitzairen.

Tysonek, aurreikusten badu ere, ez du eztanda egin oraindik. Hala ere, askotan lehertzearegon da, azkena duela aste gutxi batzuk, Maryland-eko bi zoritxarrekeri egindako erasoagatik bidali duteneko (berak eta bere abokatuek aurkakoa uste izan arren) presondegiko bi guardiari telebista bota zienean hain zuzen ere.

Otsailaren 25etik preso dago, urtebeteko zigorra betetzen. Joan den martxoaren 26an epaileak ez zuen zigorra zortzi hilabetera murriztea onartu, epaia «justua eta egokia» baitzen artean. Kartzelatik irteten denean 33 urte izango ditu eta, beraz, ringean bere karrerari berriz ekiteko bezain gaztea izango da (ikusbizinari kalitateari baino garrantzi handiagoa ematen dion negozio honetan).

Erredentzioa pentsaezina dela dirudi. Boxeoan jarduteari utzi eta dirua erruz lortzeko aukera amaitzen zaion arte bederen. Orduan, agian, lagun zintzo batzuk, hots, Tysonen sakonera —oso, oso sakonera— heltzeko beharrezkoa den pazientzia eta irmotasuna izango duten lagun paregabe batzuk izango ditu inguruan eta lagun horiek, agian, bere sumindura isilarazteko eta neurri berean torturatu eta saritu duen munduarekin tregoa bat sinatzeko gauza den pertsona on batekin egingo dute topo.

Galdera-sorta

Galdera hauen bidez arestian irakurri ditugun testuen iruzkina egingo dugu:

1. Zein da gehien gustatu zaizun pertsonaia?:

- 1. testuaren idazlea, bere bizitza eta bere lana zirrargarriagoak direlako.
- 2. testuaren idazlea, bere bizitza apalagatik.
- Boxeolaria; izan ere, oso bizitza gogorra izan arren, ospea lortu du eta diru asko irabazi du.
- Ez zait hiru biografieta ezein gustatu, ez zaizkit interesgarriak iruditu, ez naiz bizimodu horiekin identifikatzen.

2. Zein testuk du biografiaren tankera eta zeinek autobiografiarena?

.....

.....

3. Esango al zenuke zein testu-mota den hiru hauetako bakoitza (kazetaritzakoa, akademikoa, administraziokoa, literarioa, gutun bidezkoa...)?

.....

.....

4. Zein da gehien gustatu zaizun testua (nola dagoen idatzita, zer kontatzen den...)? Zergatik?

.....

.....

1.2. DOKUMENTUA. HITZ EGITEN DUGU

Jarraian egingo dizugun proposamena Rosa Monterok idatzitako eta *El País* egunkarian argitaratutako Robert L. Stevenson eta Fanny Vandegrift-en biografiaren irakurketan oinarrituta dago. Irakur ezazu arretaz eta azpimarra itzazu zatirik deigarrienak. Ondoren, erantzun galdera-sortari.

«ROBERT LOUIS STEVENSON ETA FANNY VANDEGRIFT

Haurrak gela ilun batean bezalaxe»

Rosa Montero, *El País* (*Semanal*).

Pasioak/12. Elkar ezagutu zutenean Fannyk 36 urte zituen, ezkondata zegoen eta seme-alabak zituen; Stevenson berriz, 25 urteko gaztea zen, dirurik gabe eta gaixorik zegoen, artean Altxor-uhartea eta Jekyll doktorearen eta Mr. Hyderen kasu harrigarria idatzi gabe zituen. Maitemindu egin ziren eta bizitza harrigarri eta intentsitate handikoa eraiki zuten

Ez dut ongi ulertzen *Altxor-uhartea* eta *Jekyll doktorearen eta Mr. Hyderen kasu harrigarria* obren autore izan zen Robert Louis Stevenson bikainaren biografoek zergatik diren beti hain ankerrak Fannyrekin, bere emaztearekin alegia. Izan ere, emakume aparta izan zela esan dezakegu. Agian nahasi egiten ditu Fannyren heterodoxiak, bere arrarotasun nabarmenak edota *dama zahar duinez* zoragarri bihurtu izanak eta Stevensonen alargun zela bere azken maitalearekin (Ned Field marrazkilari, Hollywoodeko gidoilari eta dramagilearekin) mundua zeharkatu izanak. Ned Field mutil azkar eta ederra zen eta, Fannyrekin maitemindu zenean, Fannyk 63 urte zituen eta berak 23.

Ned eta Fanny hamarkada oso batean egon ziren elkarrekin, Fanny 1913an —74 urte zituela— hil zen arte. Orduan Nedek testu nekrologiko hunkigarri batean idatzi zenez, Fannyri «basatasun-lurrina zerion» eta «gizon bati beragatik bizitza emateko prest egoteko adinako zirrara sor liezaiokeen emakume bakarra zen munduan, ezingo nukeen besterik irudikatu». Ez zen oker egongo. Beste garai batean Robert Louis Stevenson beragatik hiltzeko zorian egon zen.



Fanny Vandegrift 1840an jaio zen Iparramerikako ekialdeko kostalde zibilizatuan. Basetxetar eta merkatarien alaba zen. Pertsona txikia zen, metro t'erdiko emakumea, oso ile eta azal ilunkoa, begi beltzak eta ile kizkurra. Itxura exotikoa eta mestizo samarra izan zuen beti, edertasun victoriar fin eta gardenaren antitesia hain zuzen ere.

Arazo psikologikoak zituen, Stevensonek bezalaxe. Segur aski horixe izan zen elkarrenganako mirespenaren oinarrietako bat: adimenaren amildegiak oso erakargarriak izan daitezke, mugetan kokatuta dauden pertsonentzat bereziki. Bi familietan erotasun-aurrekariak zeuden eta bai Fannyren, bai R.L. Stevensonen aita erdi-ero hil ziren. Fanny eta Stevenson berdin amaitzeko beldurrez bizi izan ziren beti.

Robert Louis Edinburgoko ingeniari aberats baten semea zen eta sehaskatik izan zituen osasun-arazoak: sukar gastrikoak, erreuma, bronkitisa, denboraldietan itsututa uzten zuten oftalmiak eta oso birika ahulak. 1,70 m-ko garaiera zuen eta bere garairik onenetan berrogeita hamar kiloko

pisura iritsi zen. Pertsona mengela zen, profil hutsa. Bere adimen-egoerari dagokionez, gaztetan entzumen-haluzinazioak jasan zituen eta bere nerbio hauskorren ondorioz negar batean hasten zen edozer gauza zela eta: «Atsegin izango nuke gutxien espero duzunean negar egiten hasiko ez balitz», zioen Fannyk elkar ezagutu zuten garaian. Denborarekin eta batez ere —ziur naiz— bere idazketarekin, RLS baretu egin zen hein handi batean.

Fannyk literaturaren baliabide salbatzailea ez zuenez gero, bere gogo-aldartearen gorabeherak bizitza osoan iraun zioten. Hainbat adimen-krisialdi larri, hilabete bateko edo biko eldarnioaldiak, nerbio-itsutasunak, toteltasun iragankorra eta oroimen-galerak izan zituen. Mediku batzuek eski-zofrenia-sintomak ikusi nahi izan dituzte Fannyrengan baina erabateko kolapsoaldiak gutxi batzuk besterik ez ziren izan eta beti kanpoko arrazoiren batek sortutakoak. Bestalde, desorekarako joera hori ez zen bizitza normal bat garatzeko oztopo izan. Gaizki esan dut: bizitza harrigarri eta erabateko bat.

Fanny ez zen inoiz nolana hikoia izan. 16 urte zituela Sam Osbournerekin ezkondu zen. Sam abokatu eder, ahul eta abenturazale bat zen. Aberastasun bila mendebaldera joan zen eta zilarrezko meatze bat erosi zuen Nevadako mendietan. Hango muga basatian, 4.000 gizonezkoren artean 57 emakumezko besterik bizi ez ziren eskualde batean, meatzari zakarren eta indiar shoshone mehatxagarrien artean, Fannyk aitzindari-bizitza gogor bat ezagutu zuen. Etengabe erretzen zuen, kartak arrakero batek bezala erabiltzen zituen eta gerrian zeraman pistolatzarrarekin hainbat metroko distantzia batean kriskitin-suge bati burua lehertzeko gauza zen.

Meatzeak erabateko porrota izan zuen, senarraren gainerako eginkizun ero guztiek bezalaxe. Fannyk ia hogeitertan iraun zuen Sam dohakabe, erakargarri eta andrezalearekin, senarra eta izan zituzten hiru seme-alabak zaindu zituen, basamortuaren erdian baratzeak landatu zituen, etxeko altzariak egin zituen, autodidakta gisa irakurtzen eta ikasten hasi zen eta sormenezko denbora-pasak landu zituen (dagerrotipoak egitea adibidez).

1874an Fannyk ezin zuen maitaleekin ezkutatu gabe ibiltzen zen Sam senarra jasan. Garai hartan San Frantziskotik hurbil bizi ziren eta 16 urteak beteta zituen eta gorpuzkeran Fannyren berdina zen Belle alaba zaharrena (Fannyk eta Bellek maitasunezko eta lehiazko harreman zaila izan zuten beti) Arte Ederretako akademian marrazketa ikasten hasi zen. Fannyk ere izaera artistikoa zuen (pintatzea eta idaztea gogoko zituen) eta alabarekin ikastea erabaki zuen. Horrek bizitza aldatu zion, akademian bere neurriko mundu bat aurkitu baitzuen. Konbentzionala ez zen jendea, jende desberdina erakusten zion mundu bat.

Aurkikuntza horrek sortu zion zirrara hain handia izan zen, ezen Fanny eta Belle, Sam uzkurra konbentzitu ondoren, Europara joan ziren pintura ikastera. Horrela, 1875eko udaberrian Parisa iritsi ziren bi seme txikiekin: Lloyd, zazpi urtekoa, eta Hervey —amaren begikoa—, laukoa. Samek San Frantziskotik dirua bidali behar zien baina hilabete askotan ez zuten deus jaso.

Parisen bizi izandako lehen urte hura izugarria izan zen. Miserian bizi ziren, gosez eta hotzez. Belle zintzo-zintzo joaten zen egunero akademiara baina Fannyk berehala utzi behar izan zituen eskolak, Hervey txikia larriki gaixotu baitzen. Dirurik, janaririk eta adiskiderik gabe, haurrak okerrera egin zuen ezinbestez. Hezur-tuberkulosia zuen antza, eta 1876ko apirilaren 5ean hil zen agonia motel eta beldurgarri baten ondoren (hezurra hautsi egiten zitzaizkion eta haragia mozten zioten). Fannyk lagun bati Herveyren sufrimendua eta heriotza kontatzeko idatzitako gutuna nire bizitzan irakurri dudak testurik ederrenetako bat eta segur aski bortitzena da, nekez jasan daiteke (Alexandra Lapierrek Stevenson-en emazteari buruz idatzitako liburu interesgarrian barne hartzen du). Halako laztura jasan ondoren onik irtetea ezinezkoa dela esan nahi dut. Fannyk, jakina, kolapso bat izan zuen haurra hil zenean, eta ez da batere harrigarria. Harrigarria zera izango litzaiteke, handik bi hilabetera zutik jartzeko gauza izatea.



Fanny eta Robert Louis Stevenson, Honoluluko Kalakaui erregearen jaian egindako argazki batean.

Baina Fanny alaitasun izugarri batez beteta zegoen. Honetan ere Stevensonen antza zuen. Bere gaitz guztiak eta bere hauskortasuna gorabehera, idazleak zoriontsu izateko gaitasun harri-garria zuen. Bai batak eta bai besteak, heriotzaren ideia aurrean izanik ere, bazekiten bizitzarekin intentsitate handiz gozaten. Muturrean kokatutako bi izpiritu melodramatiko ziren, barrerako eta negarrerako joera handikoak.

1876ko uztailean ezagutu zuten elkar, Hervey hil eta gutxira, Grez izeneko Frantziako herri txiki batean (bertan artista bohemio eta atzerritar batzuk uda igarotzen ari ziren). Fanny eta Belle emakumezko pintore bakarrak ziren. Stevenson lehen unetik maitemindu zen Fannyrekin baina honek hainbat hilabete behar izan zituen maitemintzeko. Fannyk 36 urte zituen eta Robert Loui-sek 25. Belus higatuko jaka barregarri batzuk eramaten zituen gazte argal-argala zen. Pertsona arraroa zirudien baina hitz egiten hasten zenean liluratu egiten zuen.

Hurrengo udan topo egin zuten berriz ere Grezen eta maitale izan ziren. Amodio horren hasieran, Robert Louisek *Maitasunaren sorreraz* saiakera idatzi zuen: «Maitasunean urratsez urrats —bi haur gela ilun batean bezalaxe— menturatzen diren bi izakiren istorioa da orain». Segur aski biena zen bitxikeria horretan ezagutu zuten elkar, Stevenson literatur jenio bat izan ez balitz bazterketara eramango zituzkeen heterodoxia horretan hain zuzen ere.

Fanny oso bitxia bazen eta batere konbentzionala ez bazen ere, ongi zekien Stevensonekiko harremana erokeria zela. Stevenson bera baino 11 urte gazteagoa zen, oso gaixorik zegoen eta ez zuen dirurik, ez eta estatusik ere. Berak hazi beharreko bi seme-alaba zituen eta, gainera, emakume zuzen batek ez zuen horrela jokatzetik. Samek ultimatuma eman zion eta Fannyk zentzutasuna aukeratu eta senarrarengana itzuli zen 1878ko abuztuan. Hilabete gutxira ordea, *erotu* egin zen: depresioa eta haluzinazioak berriz ere. 1879ko uztailean, etsita, telegrama bat bidali zion Stevensoni. Gaixorik samar egon arren, idazleak berehala abiatzea erabaki zuen. Aitari bidaia egiteko dirua eskatu zion baina honek, libra bakar bat ere ez emateaz gain, bidaia egitea debekatu zion eta azkenean desoinordetu egin zuen. Orduan lagunengana jo zuen baina inork ez zion lagundu nahi izan: ez zuten gogoko emakume heldu eta ezkondu harekiko harreman ero hura eta bidaia Roberten osasunari egin ziezaiokeen zoritxarreko kaltearen beldur ziren. Azkenean Stevensonek kazetaritza-artikulu batzuen aurrerapen txiki bat lortu zuen eta abuztuan Estatu Batuetara abiatu zen, ia jateko dirurik gabe. 23 egun (11 itsasontziz eta 12 trenez) behar izan zituen Montreireyra —Fanny zegoen lekura— iristeko. Zortzi kilo galdu zituen, hazteria zuen eta tuberkulosiak

jota zegoen. «Oraindik ere nire amak ikusi zuenean egindako oihua entzuten dudala iruditzen zait, barreak, malkoak, berriz elkarrekin egotearen zoriontasun eroa», idatzi zuen bere oroitzapenetan Fannyren semeak.

Samek oztopo handiak jarri zituen dibortziazeko eta ondorioz, RLS eta Fanny bananduta eta elkar ikusi gabe bizi behar izan zuten prozesuak iraun zuen bitartean. Maitalea ez kezkatzearren, Stevensonek ez zion bere egoera tamalgarria aipatu. Izan ere, bi alditan gosez hiltzear egon zen. Lehen aldian basamortuaren erdian eldarnioka aurkitu zuten behizain batzuek salbatu zuten eta bigarrenean berriz, etxeko jabeak, bi egun irten gabe zeramatzala ikustean bere gelako atea bor txatu ondoren. Fannyk izugarri eskertu zuen gizon horrek egindakoa eta, aurrerago, biziarteko errenta bat ordaindu zion.

1880ko urtarrilean Fannyk dibortzioa lortu zuen. Otsailean Stevensonek 40 kiloko pisua zuen eta hiltzen ari zen. Hitz egitea eragozten zioten biriketako odoljarioekin hasi zen. Fanny hiltegi-tara jaisten zen eta edanarazten zizkion odol-katiluak ekartzen zizkion; gau eta egun zaintzen zuen. Dolar bakar bat ere ez zutenez gero, Fannyk Stevensonen gurasoei idatzi zien larrituta. Gurasoek berehala erantzun zuten: semeari barkatu eta diru salbatzaile bat bidali zuten. Maiatzerako ezkontzeko bezain osatuta zegoen Stevenson baina denek senargaia aurki hilko zela uste zuten. Horrela, Fannyren abokatuaren oparia hilkuxa bat izan zen.

Europara itzuli ziren eta Fannyk bere amaginarrebaren eta aitaginarrebaren mirespena lortu zuen. Hala ere, senar-emazteen lehen zortzi urteak ikaragarriak izan ziren. Biriketako odoljarioen torturapean, Stevenson heriotzaurreko gaixoa zen. Garai hartakoa da, hain zuzen ere, Stevensonen lagunek Fannyri zioten gorrotoa. Izan ere, Fanny oso erizain arduratsua zen: bisitariak musuzapia erakustera behartzen zituen eta ez zien etxean sartzen uzten katarrorik txikiena izanez gero. Gehiegizko jarrera zen baina, sakonean, zentzuzkoa, kutsadurarik txikienak sorrarazten zituen odoljarioak zoritxarrekoak izan baitzitezkeen. Garai hartan ordea, gaixotasunak mikrobioen bitartez kutsa daitezkeela frogatu gabe zegoen artean eta, beraz, lagunek erotzat hartu zuten.

Egoera benetan larria izanik ere, Robert Louisek bere bi obrarik garrantzitsuenak idatzi zituen: *Altxor-uhartea* eta *Jekyll doktorearen eta Mr. Hyderen kasu harrigarria*. Bi liburuek berehalako arrakasta izan zuten eta, egun batetik bestera, mundu osoko idazlerik ospetsuenetako bat izan zen. Adierazi beharra dago Fannyk *Jekyll doktorearen...* lehen bertsioa kritikatu zuela sarkontasun alegorikorik ez zuela esanez. Halaber, berak iradoki zion Stevensoni pertsonaiaren dualtasuna indartzeko. Stevenson sutan jarri zen, irainka hasi zitzaion, min handia hartu zuen (biek oso izaera gogorrekoak ziren eta liskarra izaten zuten maiz). Baina berehala egongelara itzuli eta arrazoia eman zion. Ondoren, zirriborroa sutara bota eta eleberria osorik idatzi zuen berriz. Garai hartan, lehen eta funtsezko urteetan, Fanny bere literatur aholkularirik onena zen.

Robert Louisek beti izan zuen itsaso exotikoetan nabigatzeko ametsa eta horregatik, 1889an Fannyk goleta bat alokatzea eta Hegoaldeko Itsasoetan bidaiatzea erabaki zuen. Idazlea hain gaixo-itxura zuen San Frantziskon itsasontziratu zenean, ezen kapitainak hilabete oso bat bizirik iraungo ez zuela uste izan baitzuen. Itsasontziak eta bero tropikalak ordea, miraria egin zuten: Stevensonen odoljario izugarriak desagertu egin ziren. Gaixorik jarraitu zuen baina ez zen elbarri bat. Markesak artxipelagoa, Tahiti eta Gilbert uharteak bisitatu zituzten. Hawaiko Kalakaui errege zibilizatuarekin eta Tembinok buruzagi basatiarekin tratua izan zuten (azken horren gerrariak beren kanoak ainguratzeko Singer josteko makinak erabiltzen zituzten). Kanibalismoa utzi berria zuten biztanleak zituzten urruneko artxipelagoetan zehar ibili ziren. Sidney (Australia) lehorreratzen ziren bakoitzean Stevensonek odoljarioak jasaten zituen berriz eta laster ulertu zuten ezingo zirela inoiz Europara itzuli.

Hortaz, 130 hektareako oihan-zatia erosi zuten eta Fannyk lurra garbitzeko eta bertan etxe handi bat jasotzeko balentria lortu zuten. Gortinak josten eta altzariak egiten hasi zen berriz, ur korrontez hornitzeko kanalizazio bat asmatu eta eraiki zuten eta bere eskuekin seme-alabentzako tenis-pista bat egin zuten. Paradisu horri Vailima izena eman zioten eta Fanny, amaitutakoan, bere adimen-krisialdietako bat izan zuten. Okerrena.

Ez zen akidura hutsa izan. Ordurako Stevensonek ez zion literatur aholkurik eskatzen. Robert Louisek bere egin zuten Samoako independentisten kausa eta Amerikaren eta Britainia Handiaren inperialismoa salatzen zuten gutun sutsuak hasi zen argitaratzen *The Times* egunkarian. Fanny bat zetorren jarrera horrekin baina, zentzu handiz, Stevensonek bere literatur gaitasuna alde batera uzten ari ote zen beldur zen. Elkarren arteko tirabirak ohikoak ziren eta RLS «nekazari ezjakin» esaten hasi zitzaion. Gainera, are okerragoa zena, Belle aukeratu zuten konfiantzazko lagun eta idazkari. Fannyk zeloek hilko zutela uste izan zuten. Erotu egin zen berriz. Ez zuten jan nahi, ez zuten erre nahi, ez zuten ezer esaten, ez zen mugitzen. Stevenson ikaratu egin zen: liskarrak gorabehera, izugarri maite zuten. Arretaz eta pazientziaz zaindu zuten eta, pixkanaka, Fanny bere onera etorri zen.



Elkarrekin emandako azken urteak indigenen gerrari lotuta daude. Ingelesek Stevensonen lagun samoarrak menperatu eta Vailima ondoan zegoen Apiako presondegira eraman zituzten. Ausardia handiz, Robert Louisek eta Fannyk janaria eta laguntza medikoa eraman zieten. Handik urtebetera indigenak askatu zituztenean, Stevensonentzako opari gisa, oihanean zehar Vailimara iristen zen errepide bat eraiki zuten. 1894an amaitu zuten eta Esker Onaren Bide izena jarri zioten. Ordurako Stevensonek 44 urte zituen eta Fannyk 55. Handik hila-bete t'erdira, abenduaren 3an, Stevenson goiz jaiki zen, beti bezala, eta goiz osoa idazten eman zuten. Egun hartan Fanny kezkatu zebilen. Zorigaiztokoren bat gertatuko zen susmoa zuten. Arratsaldeko seietan Stevenson Fannyren ondoan afarirako maionesa egiten hasi zen, Fannyri bere iragarpen txarrak ahaztarazteko txantxetan. Halako batean oihu egin eta eskuak burura eraman zituen: «Hau oinazea!», bota zuten lurrera konorterik gabe erori aurretik. Garun-odoljarrio bat izan zuten eta ordu pare batean hil zen.

Hau da Stevensonen azken argazkia Tui nagusiarekin Samoan.

Bere samoar maiteek Vailimaren gainean zegoen Vaea mendiaren gainaldean ehortzi zuten eta, bertara iristeko, bertakoek gau osoan jardun zuten aihozkadaka bideska bat zabaltzen. Aurrerago, 1915ean, Bellek eta Nedek Fannyren errautsak ehortzi zituzten bertan. Esan beharra dago ordurako Belle (56 urtekoa) Nedekin (34 urtekoa) ezkondu zegoela. Agian alabak bere Fanny maitea ekarriko zion gogora Nedi, baliteke Belle bere amarekin lehian jarraitzea, bai eta hil ondoren ere. Nolanahi ere, bikote egonkorra osatu zuten. 23 urte iraun zuten elkarrekin, Ned hil arte hain zuten ere.

Vaea mendiaren gaineko hilobian Stevensonek emazteari eskainitako poema idatzita dago: «Maisu eta samur, adiskide eta maitale, emazte / bidelagun / leial bidaia amaitu arte / arima libre, absolutuaz maitemindutako bihotz». Gaixotasuna eta oinazea gorabehera, Robert Louis eta Fanny Stevensonek intentsitatez bizitzen jakin zuten eta gelaren iluntasuna argi-pirrintekin argitu zuten.

Galdera-sorta:

1. Zergatik iruditu zaizkizu deigarriak azpimarratu dituzun paragrafoak?
.....
.....
2. Azaldu testu honen eta aurrekoaren (*Angelaren errautsak*) artean ikusi dituzun desberdintasunak.
.....
.....
3. Gustatu al zaizu testuan agertzen diren pertsonaien bizitza? Zergatik?
.....
.....
4. Zure ustez zein testu-mota da biografia hau (literarioa, akademikoa, kazetaritza-koa, administraziokoa...)?
.....
.....

1.3. DOKUMENTUA. TESTUEN AZTERKETA

Testuen irakurketa1. testua: Moix, Terenci, *El peso de la paja*

[...] Haur lotsagabe batzuei esker jakin nuen nik gauez masturbatzen nintzela. Aurkikuntza berezia izan zen; izan ere, aspalditxotik niharduen kirol horretan eta nola izendatu ere ez nekien.

[...] Masturbatzen zirenak aipatzeko, kaleko helduek eufemismo bat erabiltzen zuten. «Ukitzen diren haurrak» esaten zieten. Eta istorio hau, sexuarekin zerikusia zuten guztiak bezala, ñabardura beldurgarriekin kontatu zidaten beti. Gainera, mehatxuak birjina ofizial baten ahotik helden zitzaizkidan (zergatik ote?). Hain zuzen ere, izeba Florentziak egin zidan haurtzaroa beldurgarri, behin eta berriz aipatzen zizkidan funtsezko hiru zigorrekin:

[...] Ukitzen diren haurrei muina lehortzen zaie.

[...] Muina lehortuta ere ukitzen jarraitzen duten haurrak «Convent de la Punxa» izeneko komentuko tximistorratzaren puntan lotzen dira.

[...] Muinak lehortu gabe irauten badu, «Convent de la Punxa» komentuan tximistarik jo ez badu eta haurrak ukitzen jarraitzen badu, zeharo tisiko geratzen da.

[...] Helduei dagokienez, ezin esan askoz hobeto pasatzen zutenik.

[...] Emakumeekin joaten badira, zakila emearen aluan ezkututzen diren hortz basati batzuen artean harrapatuta uzteko arriskua dute. Horrez gain, baliteke zulo ilun haren sakonean zakilik erregaitzenak kiskaltzen dituen su bat egotea. Eta ar bat halabehar anker horretatik bizirik irtenez gero, gaixotasun hilgarriren baten mehatxua geratzen zaio oraindik. Sendatzeko, belagile batek zakil-zuloan gori-gori jarritako puntua egiteko orratzak sartu behar ditu.

[...] Izeba Florentziak ez zidan inoiz esan zer gertatzen zitzaien gizonezkoekin joaten zirenei. Hori ezin zuen ulertu ere egin.

[...] Masturbazioari dagokionez, erraza zuen ni harrapatzea, ohe berean egiten baikenuen lo.

Testuari buruzko galderak:

1. Zure ustez, zein genero-mota da testu hau, biografia ala autobiografia? Idatzi bereizteko baliaerriak izan zaizkizun datuak.

.....

2. Adieraz itzazu testuan deskribatzen diren alderdiak.

.....

3. Bizitzaren zein etapaz hitz egiten digu autoreak?

.....

4. Atsegin izango al zenuke istorio osoa irakurtzea?

.....

5. Lehendik ezaguna al zenuen?

.....

6. Badakizu zer edo zer bere bizitzaz. Bestelako zein datu ezagutuko zenituzke?

.....

2. testua: *Minik, New Yorkeko eskimala. Izotzezko bihotzak*
 (*Minik, el esquimal de Nueva York. Corazones de hielo*). Nuria Barrios

Ondoko kazetaritza-testua irakurri ondoren, galdera-sorta beteko duzue binaka.

Duela 80 urte, 1918ko urrian, eskimal gazte bat hil zen Estatu Batuetan. Ipar Poloaren ustezko konkistatzaileak eta antropologo ospetsuek tragedia bihurtu zuten bere bizitza, Walt Disneyra ez eramateko modukoa



1897an, New Yorken zegoen Amerikako Historia Naturaleko Museoak gonbidatuta, poloko sei eskimal Estatu Batuetara iritsi ziren «zientzia-lankidetzako lan baterako». Beraiekin Robert Peary zetorren, Ipar Poloaren ustezko konkistatzailea. Eskimalen itxura exotikoak ikusmin izugarria piztu zuen: New Yorkeko 30.000 biztanlek Lurreko herririk iparraldekoeneko biztanleak etorri zireneko itsasontziaren barruan ikusteko ordaindu zuten. 7.500 dolar bildu ziren. Halaber, asko ziren eskimalek osatu hartu zuteneko museoaren sotoko argizulo batetik ikusteko makurtzen zirenak.

Bat bateko tuberkulosi batek lau eskimal hil zituen. Bizirik iraun zuten bietako bat Groenlandiara itzuli zen eta bestea New Yorken gelditu zen. Minik zuen izena, zortzi urte zituen eta hildakoen artean aita zuen. Umezurtz txikiaren aurrean, Estatu Batuetako antropologo ospetsuek hileta ikusgarria egin zuten museoaren barrutian. Bere familia, herrialde eta hizkuntzatik bereizita, Minik funtzionario batek semetzat hartu eta Mene Wallace izena eman zion. Estatu Batuetako abegi onaren sinbolo bihurtu zen.

18 urte zituela, museora egindako bisitaldi batean, Minikek bere aitaren eskeletoa beira-arasa batean ikusgai zegoela ikusi zuen ezustean. Haurraren aurrean egindako ehorzketa ez zen gezur hutsa besterik: hilkutxaren barruan ez zegoen bere aita, enbor bat baizik. Mutilaren oihu lazgarria egunkarien azalean agertu zen Gabon-egunean. «Eman nire aitaren gorpua! Hau da eskatzen dizuedan opari bakarra, kristauak!».

Milaka eskeleto bilduta zituen Amerikako Historia Naturaleko Museoak ez zuen horri buruzko inolako informaziorik eman. Garai hartan zientzia pertsonen aurretik zegoen eta hezurren bitartez gizakiaren historiari buruzko ezagutza erabakigarriak lor zitezkeela pentsatzen zen.

Minikek komunikabideetara jo zuen laguntza bila. Garai hartan poloko esploratzaile handietakotzat hartuta zegoen Robert Peary laudatua 1897an eskimalek erabiltzen zituzten bi meteorito handiren salmentarekin aberastu izanaz salatu zuen. Horrez gain, mutilak zioenez, irabazi-asmu berarekin erakusketetan hildako inuiten eskeletoak bost upeletan garraiatu zituen Peary handiak. Bere adierazpenek aldaketa hautemangarriak ekarri ez bazuten ere, museoaren metodoak eta Peary harroaren moralitate-maila zalantzan jarri zituzten. Honek Ipar Poloa berea zela esaten zuen lasai asko: «Nirea da eta nire izenari lotuta egongo da ni hil eta hainbat belaunaldiren ondoren ere». «Zientzialari kriminalez osatutako arraza bat zarete!», erantzun zion gazte eskimalak. Azalpen gehiegirik eman gabe, aberriratu egin zuten. Aitaren eskeletoa, jakina, ez zen erakusgai zegoen beira-arasatik mugitu.

Ez amerikar, ez eskimal

Utzi zuen herrialdeak pailazo baten moduan tratatu bazuen, herrialde berriak ez zion mina arindu. Kanpoan emandako 12 urteetan Minikek bere jendearen hizkuntza ahaztu zuen eta ama hil egin zitzaion. Minik gaztea ordea, bizirauteko gaitasuna zuen. Hizkuntza, ohiturak eta ehizarren artea ikasi zituen. Baina ez zuen etxean sentitzea lortu. Estatu Batuek bere inguruetik atera eta leku guztietan arrotza zen pertsona bihurtu zuten. Ez zen ez estatubatuar, ez eskimal. «Bitarteko puntu batean» sentitzen zen, «eta bertatik inora iritsi ezin naizela dirudi».

1916an Minik Estatu Batuetara itzuli zen. Bere historia ez zitzaion inori interesatzen, Munduko Gerra bete-betea baitzegoen. Bere itzulerari buruz argitaratu ziren informazioak guztiz zentzugabeak ziren, txantxa ziruditen. *Times* egunkariak zioenaren arabera adibidez, hotel batean ostatu hartu ondoren «bainu bat hartu zuen izotz-zati askorekin». Gazteak egurgile-lana aurkitu zuen New Hampshireko herrixka txiki batean. Bertan hil zen, 1918ko urrian, bronkopneumonia baten ondorioz. 29 urte zituen.

Ia mende oso bat behar izan da neurri batean justizia egiteko eta Miniken aitaren eta hildako gainerako eskimalen hondakinak aberriratzeko. Kanadako Ken Harper irakasleak Miniken bizitza kontatzen digu liburu interesgarri honetan. Bertan, poloaren esplorazioarekin zerikusia izan zuten konkistatzaile, antropologo, politikari eta mezenasek erabilitako metodoen ankerkeria eta ziniz-moa azpimarratzen ditu.

Testuari buruzko galderak:

1. Biografia ala autobiografia da?

.....

2. Nor adierazten du «Izotzezko bihotzak» izenburuak? Izenburu egokia dela uste al duzu?

.....
.....

3. Zertan nabari dezakezu kazetaritza-testua dela?

.....
.....

4. Adierazi kazetaritza-idatziaren zatiak (gorputza, burukoa, leada...).

.....
.....

5. Zure ustez zein kazetaritza-generotakoa da, informaziozkoa ala iritzizkoa?

.....
.....

6. Nolako testu-mota da (elkarrizketa, albistea, artikulua, erreportajea...)?

.....
.....

7. Zure ustez autoreak iritzi pertsonalak barne hartzen al ditu? Bilatu adibideak.

.....
.....

8. Zer iruditu zaizu istorioa?

.....
.....

9. Zientzialari batzuek «sakrifizio» batzuk gizakien mesederako direlako ustearekin justifikatzen dituzte. Zein da horri buruz duzun iritzia?

.....
.....

10. Zer iruditu zaizkizu artikulua egilearen ondorioak?

.....
.....

11. Atsegin izango al zenuke Miniki buruzko liburua irakurtzea?

.....
.....

BI GENEROAK BEREIZTEKO JARDUERA

Bi testuak irakurri eta aztertu ondoren, ikus dezagun orain zein desberdintasun —eta antzekotasun— aurkitzen dituzun biografia baten eta autobiografia baten artean:

Alderdiak	Biografia	Autobiografia
Nor da autoreak?		
Nor da narratzailea?		
Zein pertsona erabiltzen da idaztean?		
Nor da pertsonaia nagusia?		
Zure ustez, zein denboratan idatzi ohi da?		
Zein da errealagoa?		
Zein modalitate nahiago duzu?		

Biografiaren eta autobiografiaren arteko bereizketa

Bi genero hauen arteko alderdi komunak eta alderdi desberdinak ikusi ondoren, ez zaizu zail gertatuko ondoko testuen artean zein diren biografikoak eta zein autobiografikoak bereiztea. Testuak obra zabalago batzuen zatiak dira. Orain interesatzen zaiguna galdera-sortari erantzutea eta testu bakoitzaren ondoan «biografia» edo «autobiografia» idaztea eta arrazoiak adieraztea da. Aurreko lana egin ostean, erantzun testuen ondoren aurkituko dituzun galderari.

1. testua

Hurrengo goizean hoteleko jatetxean egin genuen topo. Iristean harrিতa begiratzen zidala iruditu zitzaidan.

—Ongi egin al duzu lo? —galdetu zidan irribarre batekin.

—Oso ongi. Eta zu?

—Lo gutxi egin dut. Senarrari gutun bat idatzi diot..

2. testua

Iritsi bezain laster, kolerak eraso egin zion hiriari. Alexis izeneko lau urteko umea izan zen gaixotu zen lehena. Adorez zainduta, sendatu egin zen zorionez baina gaitza aitari kutsatu zion. Aita ia berehala hil zen hogeita hamaika urterekin. Ordurako Barbarak bigarren semea, Maximo, ekarri zuen mundura. Alargun eta baliabiderik gabe, gogo onez edo txarrez gurasoengana itzuli behar izan zuen Nijni-Novgoroda.

—Luzea?

—Oso luzea.

—Maitasunezkoa?

—Denetik pixka bat.

—Pozik al zaude? Ikusi al duzu zein eguraldi zoragarria?

—Bai, oso.

—Parisen halako eguraldia izango bagenu!

Ordu bietan Le Dorat-erako departamenduko tren hartu genuen. Bakarrik geunden bagoian. Nire sorbaldan eutsita eta zigarro usaintsuak erretzen, bere istorioa azaldu zidan. Ez dut zehatz-mehatz gogoratzen. Egun garbia zen, epela, leun-leuna. Txundituta entzun nion. Geltoki batean jaitsi, zelai baten ertzeko mitxoletekin sorta bat egin eta eraman egin nizkion. Bidaia zoragarria izan zen. Nik barre egiten nuen berak hala egiten zuenean. Bere nahigabeak azaldu zizkidanean begiak busti egin zitzaizkidan benetan.

3. testua

Handik bi egunetara iraultzak eztandaegin zuen. Azken bisita Ortegari egin nion. Oso gaixorik zegoen eta norabide jakinik gabe bere automobilean irten zen Pittalugarekin eta nirekin berriketan izan eta Don Gustavo doktoeari azken hitz batzuk entzun ondoren. «Begira, tiro batzuk egin eta langileak hiru pezetako lansaria irabazten hasiko dira berriz».

Bakoitza bere etxean sartu eta kanoikadak eta tiroak hasi ziren. Goizeko hamarrak arte esna egon nintzen. Ondoren nire logelako leihoan koltxoi batzuk jarri nituen —nire amonak bere garaiko Madrilen sortzen ziren matxinadetan gauza bera egiten zuela gogoratu ta— eta, esnatu nintzenez, zer gertatu zen galdetu nion Bartolozziri.

Hau gaizki doa.

Iraultza heriotzarekin antzik handiena duen gauza da. Gerra bera baino askoz krimen handiago da (...).

Espainiarrek —ondorioztatu nuen orduan— ehun urtez behin elkar hil nahi dute.

Alexis eta Maximorekin Volga ibaian gora zihoan pakebote batean ontziratu zen. Baina Maximo txikia bertan hil zen. Saratoven ehortzi zuten. Aldi berean, Vassili Kachirin-ek alabari barkatu egin zion. Nortasun zeken eta basatikoa izanik ere, alaba eta honen seme bakarra zuhurtziaz hartu zituen.

Berarentzat babes izan beharko zukeena infernu bihurtu zen aurki. Vassili Kachirinen izaera garraztu egin zen, bere artisautza moduko enpresa teknikaren aurrerapenen ondorioz behera egiten hasi baitzen. Makina hobetuak zerabiltzaten tindategi berriek gero eta bezero gehiago erakartzen zituzten.

4. testua

Prentsaurrekoa Tokioko Okura hotelean da. Berak eta Yokok 2 urteko Sean semea zaindu eta hezi besterik egin nahi ez dutela dio (...).

Azken hilabeteotan Japonian izan dira Sean Yokoren familiari aurkezten. Bidaia egin aurretik Johnek japonieraz ikasi zuen pixka bat New Yorken. Prentsaurrekoa, «etxera», hau da, New Yorka (lennondarren bizileku ofizialera) itzuli aurretik japoniarrak agurtzeko eta bere bizitza pribatuarekiko erakutsi duten errespetuagatik publikoki eskerrak emateko da.

Kazetariak ziotenez, John urduri baina osorik zegoen Yokok itzultzen zuen bitartean. Traje beltza zeraman, garestia, puntuzko gorbata eta ile motza.

Beste hainbat adierazpenen artean, «Elvis soldadutzara joan zenean hil zen» esan zuen. Jarraitu zuenez, «nire semeak eta Japoniak eragin erabakigarria izan dute nigan». Eta amaitzeko «Zen dizipulua naiz orain».

5. testua

Itzul gaitezen Katalina komentutik ihes egin zueneko gauera. Denbora-tarte labur batean noraezean ibili ondoren, neska komentu atzean zegoen gaztainadi batean ezkutatu zen. Bertan, bere izebaren gelatik hartutako gurai-zeak, orratza eta haria erabiliz, ilea moztu eta mutilen arropa prestatu zuen. Handik hiru egunetara Gasteiza abiatu zen gizonez jantzita.

Sexu-rolaren aldaketa honek eta aurrerago emakume batzuekin izan zituen harremanek esamesa ugari sortu dituzte (...).

Garai hartan Italiako bidaiari ospetsua zen Pietro della Valleren lekukotasunaren arabera, Katalinak oso bular txikiak zituen (gazteek izaten dituzten kozkor txiki batzuk baino ez). Katalinak berak, italiarrari aitortu zion bezala, ukendu bat jartzen zuen bularretan lehor zekizkion. Ukenduak, dirudienez, bularrak lehortzeaz gain oinaze izugarriak sorrarazten zizkion. Gainera, Pietro della Vallek kontatzen duenez, Espainiako soldaduek «Eunuco» ezizenez ezagutzen zuten, ez baitzuen bizar-arrastorik ere.

6. testua

Gure etxea Errekalde Zumardiaren izkinan zegoen Lersundi kalean zegoen. Hain zuzen ere, Bilbo zeharkatu ondoren itsasoratzen den eta bere ur koipetsuetatik gora eta behera zihoa-zen atoiontziak, gabarrak eta zingo handiagoko ontziak hartzen zituen Nerbioi ibaiaren atzean. Gau lainotsuetan, goizaldera arte ontzien sirenak entzuten nituen ohetik. Urte haietan Deustuako zubia bitan irekitzen zen masta garaiegia zituzten ontziei pasatzen uzteko eta farolak buruz behera geratzen ziren ur gainean, erotu balira bezala. Zubia irekita ikusten nuen bakoitzean abestia etortzen zitzaidan gogora:

Las farolas de palacio
Se están muriendo de risa
Al ver a los estudiantes
Con corbata y sin camisa

Janari-hondakinak hartzera amiltzen ziren kaio zalapartarien saldoak nonahi ageri ziren. Gauetz ibaia laranja eta gorri jartzen zen kono-forman bildutako mineral-mordoa pilatzen zeneko Labe Garaietako sugarren argiarekin.

Testua	Biografia	Autobiografia	Arrazoia
1.			
2.			
3.			
4.			
5.			
6.			

Galderak:

1. Zein da bi generoak bereiztea ahalbidetzen dizun lehen ezaugarria?

.....
.....

2. Zein pertsonan daude idatzita testuak?

.....
.....

3. Zein da subjektiboena eta zein objektiboena? Zergatik?

.....
.....

4. Zein da gehien atsegin duzun testua? Zergatik?

.....
.....

5. Kokatuko al zenuke testu bat gutxi gorabeherako denbora historiko batean?

.....
.....

6. Aukeratu, testu hauen artean, biografia bat egiteko eredu gisa interesgarrien iruditu zaizuna.

.....
.....

Berridazketa

Aukeratu testu bat eta idatzi berriz generoa aldatuta (biografia bada autobiografia moduan eta alderantziz). Ondoren, erantzun galdera hauei:

1. Zein dira aldatu dituzun alderdiak?

.....
.....

2. Ba al da testuan ulertzen ez duzun edo ezohikoa iruditzen zaizun hitzik? Adierazi zein diren eta bilatu esanahia hiztegian.

.....
.....

3. Kokatuko al zenuke testuan agertzen den ekintza zure garaian? Zergatik? Adierazi hori erakusten duten elementuak.

.....
.....

4. Ezagutzen al duzu testua girotzen duen gizarte-egoerarik?

.....
.....

5. Adierazi azpimarratuko zenituzkeen testuaren zatiak.

.....
.....

6. Adierazi deskribapenik dagoen eta zein motatakoa den.

.....
.....

7. Zein pertsonan dago idatzita testu bakoitza? Esanguratsua dela esango al zenuke?

.....
.....

1.4. DOKUMENTUA. IRAKURKETA-LIBURUA: ANGELAREN ERRAUTSAK, FRANK MCCOURT

Zein liburu irakurriko dugu?

Hona hemen proposatutako liburua: Frank McCourt-en *Angelaren errautsak*.

—Mccourt, Frank. *Angelaren errautsak* (1996), Círculo de lectores.

—Mccourt, Frank. *Angelaren errautsak* (1998), Maeva.

Hona hemen proposatzen dugun liburuaren azala:



Jarraian liburu honi buruz prentsan agertutako artikulu eta albiste batzuk dituzu. Irakurtzen dituzunean, zergatik den aztergai dugun generoko liburu bat, autoreak bere bizitza pertsonalaz ematen dituen datuak zein diren, liburuak zertan datzan eta abar ikusiko duzu.

Lehen testua 1998ko ekainaren 7an *El País* egunkarian agertutako artikulu zabal baten (Juan Cavestanyren «Frank McCourt-en bizitza gogorra» —«La dura vida de Frank McCourt»—) zati bat da.

«FRANK MCCOURT-EN BIZITZA GOGORRA»

Juan Cavestany

Angelaren errautsak obraren autoreak bere oroitzapenen bigarren zati ilunago bat kontaktzen du.

Frank McCourt etxebizitza garesti batean bizi da New Yorkeko Central Park ondoan Ellene-kin, bere bigarren emaztearekin alegia. 67 urte ditu eta astiro ibiltzen da, itxuraz inoiz erantzten ez duen artilezko jaka berde batekin. Aurpegi agurgarri batean sartutako bere begi txikiek ahultasun

fisiko handia adierazten dute, umore irlandarreko dosi batzuekin arintzen duena hain zuzen ere. Duela hilabete gutxi batzuk, mundu osoko milaka eta milaka pertsonak gizon honen bizitza —edo zati bat bederen— zehatz-mehatz ezagutzen dute.

Jendeak ezagutzen duen Frank McCourten bizitzaren zatia Brooklynen (New York) jaio eta familiarekin Limerick-erako (Irlanda) bidaia egin zuenetik hogeitau urteren ondoren Estatu Batuetara itzuli artekoa da. Tarte horretan miseriari eta gaixotasunari lotutako istorio tragiko bat gertatzen da, hiru anaiaren heriotza —baldintza penagarrietan— eta eskean lortutako diru-apurra sistematikoki lapurtzen zion arren beti miretsi izan zuen aita alkoholikoaren irudia tarteko. Hauxe da *Angelaren errautsak* liburuak barne hartzen duen aldia. Liburu honekin, New Yorkeko eskola-irakasle honek Pulitzer saria jaso zuen joan den urtean. «Okerrena kontatu gabe gainera» dio berak.

Frank McCourtek ez zuen inoiz pentsatu Irlandan igarotako eta gosea eta gaixotasuna nagusi izan zireneko haurtzaroari buruzko kontakizunak halako eraginik izango zuenik. 19 hizkuntzara itzuli da eta milioi askoko salmentak izan ditu mundu osoan. McCourt giza mundu osoko giza miseriaren konplize antzeko bihurtu da. «Aske sentitzen naiz liburuko oroitzapen horiek guztiak atera ondoren», dio. «Egin izan ez banu uko egingo nioke heriotzari!».

Nahigabe mordoa

Orain oroitzapen horien bigarren zatian murgilduta dago eta guztion bizitza liburu bat izan daitekeela uste duen arren («bizitza guztiak merezi dute idaztea, bakoitzak misterio handiak gordetzen ditu»), bere zoritxarrak kontatzen ditueneko gutun gehiago ez bidaltzea erregutzen dio jendeari. «Jasotzen dudan gutun piloa irekitzeko ere denborarik ez dut», dio kafe bat ahoratzen duen bitartean.

«Estatu Batuetarako itzulera oso zaila izan zen» esanez laburtzen du McCourtek bere liburu berria izango dena. «Ez nuen inolako heziketarik eta gainera itxura beldurgarria nuen. Beti pentsatu nuen oso itsusia nintzela. Lotsatia nintzen eta gauza guztien beldur nintzen, bai eta jendearekin hitz egitearen beldur ere». Sakelari 50 dolar zituela heldu zen eta Limericken zegoen amari dirua bidali behar zion. Hoteletan lan egiten zuen zoruari erratza pasatzen, hautsontziak husten, bainugelak garbitzen eta abar. Umiliatuta sentitzen zen gehiago espero zezakeela uste zuelako. Ez zuen heziketa akademikorik baina asko irakurri zuen.

[...]

El País, 1998ko ekainaren 7an

Bigarren testua autoreari bere autobiografiaren bigarren zatia (*Hala da* izenburua duena) argitaratu ondoren egindako elkarrizketa bat da. Elkarrizketa honetan lehen zatiari buruzko aipamen ugari egiten ditu eta zati horretako alderdi asko arrazoitzen ditu.

«FRANK MCCOURT»

«*Angelaren errautsak* liburuarekin pobrezia nolakoa den azaldu nahi nuen»

Javier Martínez de Pisón

Hala da liburuan bere oroitzapenen bigarren zatia kontatzen du idazle irlandarrak

Frank McCourt Irlandako telebistarekin elkarrizketa bat egiten ari da bere apartamentuko gela batean eta Samuel Beckett-en erretratu bat da nagusi. «Niretzat Beckett literaturaren

ikono bat da eta ni beti itzultzen naiz ikono horretara», dio Irlandako doinu nabarmenez. McCourt itxura marduleko, begirada bizi eta sarkorreko eta ile erabat zuriko gizona da. Daraman traje ilunak maisu-tankera ematen dio eta hain zuzen ere lanbide horretan aritu izan da bizitza osoan, bertsio zinematografikoaren estreinaldia urte hasieran ikusiko duen *Angelaren errautsak* argitaratu arte. Espainian *Hala da* argitaratu da berriki, bere kontakizun autobiografikoaren bigarren zatia.

Galdera. Zergatik erabaki zenuen zure oroitzapenak idaztea?

Erantzuna. *Angelaren errautsak* liburuarekin pobrezia nolakoa den azaldu nahi nuen. Izan ere, pobrezia buruz ez da asko irakurtzen ezein herrialdetan. Zenbaitetan bere irudi batzuk ikusten badira ere. Ingeleseztan Charles Dickens dugu baina ezer gutxi idatzi da pobrezia-mota horri buruz eta nik Irlandako herriak pasa behar izan zituenak azaldu nahi nituen bere umorearekin, estiloarekin eta erakutsi duen duintasunarekin batera. Gazteago nintzela halako libururik inork irakurri nahi izango ez zuela pentsatu nuen. Baina idatzi beharrekoa nuen zerbait zen.

G. Baina zure istorioak, Dickensenek bezalaxe, amaiera zoriontsua du.

E. Bai, nire bizitzak amaiera zoriontsua du baina inoiz ez nuen espero izan. Liburua Scribner argitaletxeari saldu nionean 27.000 ale inprimatu ziren eta horixe zela guztia eta irakaskuntzara itzuliko nintzela pentsatu nuen. Baina *best seller-en* zerrendan gora eta gora egin zuen.

G. Zure ustez, inoiz uzten al zaio Estatu Batuetan etorkin izateari?

E. Jendeak sarritan galdetzen dit: «zer zara, irlandarra ala estatubatuarra?». Baina ni New Yorkekoa sentitzen naiz. Irlandarra ere bai, noski, uneoro barruan eramaten den zerbait da. Maisu nintzenean, klasean sartu bezain laster haurrek «Irlandarra da» esaten zuten baina handik aste batzuetara ahaztuta zuten eta irakaslea nintzen, besterik gabe. *Angelaren errautsak* idatzi nuenetik irlandartzat hartzen naute. Gainera, maiz joan behar izan dut Irlandara liburuak —eta orain filma— sustatzera.

G. Maisu zinen garaiko oroitzapen onik gordetzen al duzu?

E. 30 urtetan izan nintzen maisu eta 15 behar izan nituen ikasgelan eroso sentitzeko. Gogorra da, ikasleen aurrean egon behar baituzu egunero bost eskolatan eta asteko bost egunetan. Eta haien aurrean zaudenean kementsua izan behar duzu, zureak egin du bestela. Neska-mutilek modu zoliak dituzte tratatzeko. 35 nerabe estatubatuar dituzu aurrean, ondoren beste 35 hurrengo eskolan eta aurrera jarraitu behar duzu. Harrituta nago lortu izanaz. Niretzat munduko lanik gogorrena da, ez baitu ihesbiderik.

G. Zure ustez, aldatu al dira Estatu Batuetako etorkinen egoera?

E. Orain errazagoa da lan egitea edo ikastea. New York University-ra joan nintzenean zaila zen sartzea baina gaur egun edonor joan daiteke unibertsitatera, batek beti egin dezake nahi duena behar bezain kementsu eta asmo handikoa izanez gero.

G. Baina irlandarrek aspalditik egin dute aurrera Amerikan.

E. Bai, une erabakigarria John F. Kennedy Etxe Zurira iritsi zenekoa izan zen.

G. Zure ustez, beste idazle iparamerikar-irlandarrek (hala nola Pete Hamill edo Jimmy Breslin) zergatik ez dute inmigratioari buruz idatzi?

E. Estatu Batuetako irlandarrak berriki hasi dira fikziozko obrak idazten. Irtsi zirenean politikan, eraikuntzan, elizan eta kazetaritzan sartu ziren. Eugene O'Neill gure dramagile handia da

baina ez dugu eleberrigilerik izan juduek edo beltzek izan dituzten bezalaxe elizagatik, atzera, itsasora, Irlandara begiratzeko kultura horrengatik.

G. Zein neurritan izan da negatiboa eliza katolikoa Irlandan?

E. Alor guztietan agintzen zuen, Limericken batez ere, unibertsitaterik gabeko hiria baitzen. Limericken ezin zenuen ezer egin, beti zenuen norbait zelatan. Lanik behar izanez gero elizaren bitartez lortu behar zenuen. Nire aita ez zen ezein erakunde erlijiosotakoa eta ondorioz, oso zaila zen lan egitea. Elizak alor guztietan agintzen zuen. Zaila da iparamerikarrentzat eliza katolikoa-ren boterea ulertzea. Beti diot eragin erlijioso eta izpiritual handi hori, alaitasunik gabeko erlijio ilun baten obskurantismo hori duten hiru herrialdeak Irlanda, Espainia eta Errusia direla.



G. Zure ustez, irlandarrek edarian aurkitu duten ihesbidea eta ghe-ttoetan drogekin gertatzen dena antzekoak al dira?

E. Alkohola beste ezer ez zegoelako izan da irlandarren droga beti. Ez zegoen libururik, telebistarik eta filmik. Italian, herrialde katolikoa —baina epelagoa— izanik ere, ardoa eduki arren ez dute gehiegi edaten. Nire ustez, irlandarrek jendaurrean edaten dutelako, kantinetara joan eta bertan edan eta abesten dutelako dute edale handiak izatearen ospea. Beste talde etniko batzuek ez dute jendaurrean edaten, etxean baizik. Gaur egun ordea, Europako Batasuneko alkohol-kontsumoari buruzko indizeen arabera, irlandarrak hamaikagarrenak dira eta lehenak frantziarrak eta txekiarrak direla uste dut. Ez da lehen bezala.

G. Zure liburuetan ez dira irlandarren arrazagatiko arazoak aipatzen.

E. Beti izan zen arrazakeria eta bazterketa. Borroka egin behar zenuen Harvard-en sartzeko. John F. Kennedyren aita, Joseph Kennedy alegia, Harvarden ikasi zuen lehen katolikoetako bat izan zen. Aurrerago, hogeigarren hamarkadan, sartzan utzi zieten baina erresistentzia handia izan zen. Irlandarrak ez ziren bestelako etorkin-taldeak bezalakoak, ez ziren lotsatiak. Eta makineria politikoen jabe egin ziren. Lehenik Bostongo alkatetza, ondoren gobernazioa eta New Yorken Tammany Hall talde politikoa sortu zuten. Dohain berezia dugu politikarako, hitzerako, elkarrizketarako.

G. Kritikarik jaso al duzu Irlandan zure liburuaren izaeragatik?

E. Beno, *Angelaren errautsak* lehen postuan dagoen *best sellerra* da oraindik eta *Hala da* ere lehenen artean dago. Limerickeko egunkariko batzuek kontra jardun zuten baina horrek liburuaren publizitateari mesede besterik ez zion egin. Bere onarpenaren frogarik onena jendeak erosten duela da.

G. Zer moduzkoa da *Angelaren errautsak* liburuan oinarritutako filma?

E. Ona dela iruditzen zait, oso pozik nago. Emily Watsonek nire amaren papera egiten du eta hiru mutilek nirea, nire bizitzako garai desberdinetan (6, 10 eta 16 urterekin) Gabonetan estreina-tuko da New Yorken eta geroxeago Europan.

G. Zikloarekin jarraitzeko asmoa al duzu?

E. Ez, orain eleberri bat idaztea pentsatu dut, fikzio hutsezko obra bat.

Jarraian Alan Parker-ek autobiografiari buruz egindako filmaren kritika bat duzu.

«MISERIAREN ESTETIKA»

Á. Fernández-Santos

*Angelaren errautesak filmean Alan Parker erretorika bisualean erori da berriz**Angelaren errautesak***Antzezleak:** Emily Watson, Robert Carlyle, Michael Legge, Ciaran Owens, Joe Breen, Ronnie Masterson, Pauline McLynn, Liam Carney, Eanna MacLiam.**Zuzendaria:** Alan Parker.**Drama** /Erresuma Batua, Irlanda, Estatu Batuak, 1999**Iraupena:** 145 minutu.

Angelaren errautesak filmeko eszena batek parez pare zabaltzen du filmak, distiraren azalpean, bere hutsalkeria, bere hustasuna eta, azken batean, bere soberako izaera ezkutatzen dueneko txokoa. Hain zuzen ere, mutiko protagonista elizara aitortza bila joaten deneko unea da, *off* ahots batek etorkizunetik elegiazko doinu batean bere bizitzako funtsezko une hura gogoratzen duen bitartean. Ikusten duguna hain da hutsa eta arrunta eta entzuten duguna hain sendoa eta hunkigarria, ezen filmaren artifizialtasun eta ezintasun guztia barrutik argitzen baita: liburua, filmaren oinarri den hitza, hitz hori pantailaren hizkuntzara itzuli nahi duen —loritu gabe— irudia baino askoz hobea da.



Liburua Frank McCourt autorearen Irlandako autobiografia ospetsua da. Filma ikusita literatur testuaren kalitatea antzeman daiteke eta,aldi berean, Alan Parkerrek bere filmak benetan direna baino gehiago direlako ustea sortzeko duen maltzuratasuna (zuzendu ezina itxuraz, *The Commitments* filmak beste gauza bat —ez hain doilorra— zirudien arren) geratzen da agerian. Izan ere, bere filmak ezer gutxi dira eta batzuetan ezer ez edo ezereza bera. Ezereza disimulatua, erretorika bisualaren mozorroarekin, zinea literaturaren amarru apaingarri eta ganoragabe parasitario abil bihurtzen denean hartzen duen azal oportunistak, distirarazi eta engainagarri horrekin jantzita.

Elegiazko gozoki baten moduan, Parkerrek miseriaren estetikaren erakustaldi doilor bat egiten digu gaitasun handiko antzezleen —Emily Watson buru izanik— eta McCourten oroimenak eskaintzen dion argumentu-zutabe izugarriaren euskarriarekin: foiletoi-edukien zaparrada bat, tranpati zital bat, umoreak berrerosi ez duen lazturaren oroitzapen bat. Ikuspegi formal sendorik gabeko oinazea, bigunkeriaz edo, are okerrago, *Gauerdiko espresa* edo *Aingeruaren bihotza* filmetakoa bezain faltsua eta itxurakoa den gogortasunaz kontatua (Parkerrek zirkulazioan jarritako gezur unibertsalek bi besterik ez aipatzearen).

1.5. DOKUMENTUA. LAN-TRESNAK ETA GALDERA-SORTAK

Jarraian irakurketarako osatu beharko dituzuen hainbat fitxa eta galdera-sorta dituzu.

TALDEAREN IRAKURKETA-FITXA	
Taldekideak	
Liburuaren izenburua	
Autorea	
Kapituluak	
Kapituluen laburpena edo oharrak ordenatuta	
Taldearen iritzia irakurrita-koari buruz	

Hurrengo fitxa taldeetako idazkari bakoitzak egingo du; bakoitzak liburu osoaren ikuspegi orokorra —oso laburtua, oharren bidez— emango du.

IRAKURKETA-FITXA OROKORRA	
Liburuaren izenburua	
Autorea	
Liburuari buruzko iritzi orokorra (iritzi desberdinik izanez gero, komunena adierazi)	1. taldea
	2. taldea
	3. taldea
Talde bakoitzak irakurritako kapituluaren laburpena	

Galdera-sortak

Jarduera hauek amaitu ondoren, irakurketari buruzko galdera-sorta pertsonal bat beteko dugu:

a) Galdera orokorrak:

1. Gustatu al zaizu liburua? Zergatik?

.....

2. Zein zati iruditu zaizu interesagarrien edo dibertigarrien?

.....

3. Zure ustez, istorioa errealia eta egiazkoa al da?

.....

4. Idatzi gutun bat autoreari eta azaldu liburuari buruz duzun inpresioa eta iritzia.

.....

b) Berariazko galderak:

1. Zure ustez, autoreak ematen al du bere ingurune sozial eta historikoari buruzko daturik? Aipatu baten bat.

.....

2. Nola sartzen dira gertakizun historiko hauek (pertsonaia baten bidez, egoera jakin bat deskribatuta, zirkunstantzien bidez...)? Adierazi adibideren bat.

.....

3. Liburuan deskribapenak oso garrantzitsuak dira. Zein deskribapen iruditu zaizu deigarrien?

.....

4. Pertsonaia nagusia bizi deneko lekuei buruz irakurri dituzun deskribapenen bidez, esango al zenuke pertsonaia zein girotan mugitzen den?

.....

5. Bigarren mailako pertsonaiak ongi deskribatuta al daude zure ustez? Gogoratu pertsonai hauetakoren bat.

.....
.....

6. Nolakoa da Frankie? Saia zaitez, gogoratzen duzuna abiapuntutzat hartuta, pertsonaia honen erretratu bat egiten.

.....
.....

7. Nolakoa da narratzailea?

.....
.....

8. Zenbat denbora igarotzen da istoria hasten denetik amaitu arte?

.....
.....

9. Autoreak zein unetan egiten ditu geldialdiak batez ere?

.....
.....

10. Narratzailea kontatzen dituen gertakizunetan barne hartzen dela edota gertakizun horietara hurbiltzen dela iruditzen al zaizu? Erantzun adibideekin.

.....
.....

c) Hizkuntz alderdiei dagokienez, osatu ondoko atalak:

1. Zein aditz-denbora dira nagusi?

.....
.....

3. Elkarrizketarik agertzen al da? Hala bada, deskribatu baten bat (nola idatzita dagoen eta hitz egiten dutenak zein diren).

.....
.....

3. Oro har, autoreak hizkuntza erraza darabilela uste al duzu? Bilatu hiztegian ulertu ez duzun hitzen bat.

.....
.....

4. Autoreak kontatzen ari denaren aurrean duen jarrera ironikoa, baikorra, ezkorra... dela uste al duzu? Arrazoitu erantzuna.

.....
.....

5. Zure ustez, autoreak lortzen al du irakurleen arreta eta interesa erakartzea? Zu erakarri al zaitu? Zergatik?

.....
.....

BIGARREN ATALARI DAGOZKION DOKUMENTUAK

2.1. DOKUMENTUA. INKESTA

Erantzun planteatzen dizkizugun galdera hauei:

1. Zer ekartzen dizu gogora *Historia* hitzak?

- data eta izen asko;
- erregeek eta militarrek egiten dutenari buruzko azterketa;
- jende arruntarekin zerikusirik ez duten gerrak eta gertakizun handiak;
- ...

2. Erraz egiten al zaizu historian gauzak noiz gertatu ziren gogoratzea?

Bai zer egiten duzu gogoratzeko?

Ez zure ustez, zergatik dituzu zailtasunak?

3. Historiak jende arruntak egiten duena aztertzen duela uste al duzu? Zertarako izan daiteke interesgarria azterketa-mota hau eta datu historikoei buruzkoa?

.....

4. Zer da historian ikastea gehien gustatuko litzaizukeena?

.....

Zergatik?

.....

5. Gertakizun historikoak ikastean, noiz egoten zara gusturago?

- a) Gauzak argitzeko galdera asko egin daitezkeenean.
- b) Ikasgela azalpenak entzuteko isil eta ordenatuta dagoenean.
- c) Ikasgelan talde/jarduerak egiten direnean.
- d) Beste egoera batzuetan:

6. Zure ustez, nola landuko lirateke hobekien alderdi historikoak?

- a) Irakaslearen azalpen teorikoen bidez eta azaltzen dena ikasten.
- b) Testuliburua ikasten.
- c) Ondorioak ateratzeko testuak, dokumentuak, mapak eta datuak aztertzen.
- d) Gaiak ikaskideekin eztabaidatzen eta taldean lan egiten.

7. Historia gizakiarentzat zerbaitetarako baliagarri izan daitekeela uste al duzu?

Bai Ez

Zertarako?

.....
.....

8. Zuretzat baliagarria izan al daiteke?

Bai Ez

Zertarako?

.....
.....

2.2. DOKUMENTUA. IRLANDAKO GATAZKA

Ipar Irlandari buruzko datu orokorrak

- Azalera: 14.120 km².
- Biztanleria: 1,5 milioi biztanle.
- Erlijioa: %41,4 katolikoak, %54 protestanteak eta %4 bestelakoak.
- Militarrak: 18.000 soldadu britainiar eta 13.085 polizia.
- Talde armatu nazionalistak: IRA, INLA eta Jarraipen Kontseilua izenekoak.
- Mapa politikoa (azken hauteskundeetan):
 - Ulsterko Alderdi Unionista (unionista), %24,1.
 - SDLP (nazionalista, errepublikarra eta sozialdemokrata), %21,4.
 - Alderdi Demokratiko Unionista (unionista), %18,8.
- Sinn Féin (nazionalista, errepublikarra eta ezkertiarra), %15,5.
- Aliantzaren Alderdia (konfesioartekoa), %6,5.
- Gatazkaren biktimen zifra ofizialak 1996ko abenduaren 31 arte:
 - Hildakoak, guztira: 3.209
 - Zibilak: 2.260
 - Soldadu britainiarrak: 449
 - Poliziak: 500
- Talde armatu unionistak: Ulsterren Askatasunerako Borrokalariak (UFF), Ulsterko Boluntarioen Indarra (UVF) eta Esku Gorriaren Komandoa (RHC).

Gatazkaren historia¹

GATAZKAREN HISTORIA

Ingalaterrako Enrike VIII.a erregeak bere burua Irlandako errege izendatu zuenetik (1539), kolono britainiar protestante asko iritsi ziren Irlandara eta lurren zatirik handienaz jabetu ziren. XVII. mendearen amaieran Gilermo Orangekoa erregeak matxinada bat zapaldu zuen eta gaur egun komunitate protestanteak gertaera hau gogora ekartzen du bere ustezko nagusitasun kultural eta moralaren froga gisa.

Katolikoak parlamentutik kanpo zeuden eta eliza katolikoa, toleratuta izanik ere, debekatuta zegoen. Amerikako eta Frantziako iraultzek eragina izan zuten Irlandan eta matxinada bat izan zen. Ondorioz, parlamentua indargabetu egin zen.

XIX. mendean protestante burges eta ilustratuek Irlandako nazionalismoaren hasiera sustatu zuten. Nekazariak, katolikoak eta behartsuek osatzen zuten masak jarraitu egin ziren baina nahasi gabe, kasta bereziak izango balira bezala.

Mendearen erdialdean «gose handiarekin» milioi bat biztanle baino gehiago hil ziren eta beste milioi batek Estatu Batuetara emigratu behar izan zuen, Irlandako kausa nazionalistaren

¹ Ondoko lanetik hartua eta berriz landua: ELKARRI (1997): *Irlanda: una puerta a la esperanza*. Elkarrikasi 3; 2. argitalpena. Donostia. Testua Francisco Letamendiak idatzitako, *Deia* egunkarian 1994ko irailaren 1, 3 eta 4an agertutako hiru artikuluren laburpena da, Elkarrik 1997ra bitarteko datu eta azterketekin osatua. Data horretatik aurrerako aldiari buruzko edukiak gureak dira.

gaur egungo jarraitzaileen arbasoek hain zuzen ere. Baina hondamendi demografikoaren ondorioz, nekazari jabe, libre, katoliko eta demokratez osatutako klase berri bat sortu zen, aurrerago Irlandako nazionalismoaren oinarri izango zena. Izaera marxistako Alderdi Errepublikar Sozialista eta nazionalista eta kontserbadorea zen Sinn Féin («geu bakarrik» gaelikoz) alderdiak sortu ziren.

XX. mendearen hasieran protestanteak nagusi ziren Ulsterko bederatzi konderrietan, Ipar Irlandan, Belfasteko portuaren inguruan. Bertan, urte horietan Euskadin izandakoaren antzeko industrializazio bat gertatu zen.

Lehen Mundu Gerra hasita zegoela, marxista eta nazionalista moderatuek matxinada bat hasi zuten 1916an baina britainiarrek zapaldu egin zuten. Horrek eragindako kolpe emozionalak Sinn Féin alderdiaren hauteskundeetako garaipena eta Irish Republican Army (IRA) taldearen sorrera ekarri zuen 1918an.

Giro horretan piztutako gerraren ondorioz Britainia Handiko gobernuak uhartea bi sektoretan zatitu zuen: katolikoek 26 konderri bereganatu zituzten (Dublin hiriburua izanik) eta protestante unionistak Ulsterko bederatzi konderrietako seirekin geratu ziren. Hala ere, iparraldean gehiago katoliko nazionalista batez osatutako eremu ugari geratu ziren. Milioi t'erdi biztanleetatik, %60 protestanteak ziren eta %40 katolikoak. Portzentaje horrek ia berdin jarraitu zuen 40 urtetan, 60. hamarkadatik aurrera katolikoek tasa demografiko handiagoak oreka hori beren alde aldatu zuen arte.

Katolikoek zati batek ez zuten egoera onartu (De Valerak, Sinn Féinek eta IRAk) eta urtebeteko iraupena izan zuen gerra zibil bat piztu zen. 1926an De Valerak Fianna Failu izeneko bat sortu zuen eta honek egoera onartu zuen. 1936an konstituzio demokratiko bat idatzi zen. Honek Eire izena eman zion hegoaldeari eta maila pribilegiatua eman zion eliza katolikoari.

Aitzitik, Ipar Irlandan gehiago unionistak botere politikoa monopolizatu zuen. Koroaren ordezkari zen gobernu bat zegoen Belfasten, parlamentu bat Stormont-en eta bertako polizia bat, Royal Ulster Constabulary (RUC) izeneko bat (bertako katolikoek portzentajea %12koa besterik ez zen). Irakaskuntza bananduta zegoen eta gutxiengo katolikoa modu basatian baztertzeko zuten enpresen, etxebizitzaren, gizarte-zerbitzuen eta eskubide politikoaren arloetan. Katolikoek osatzen zuten hiriko langileria eta azpilangile-riarentzat, IRA jasotako irainen mendekatzaileria eta beren eskubideen defendatzailea zen. Hala eta guztiz ere, II. Mundu Gerran eta 1956-1962 urteetan egindako kanpainak ez zuten herritarren aldetik espero zen atxikimendua lortu.

60. hamarkadatik aurrera gizarte-geruzapen bat gertatu zen bi komunitateetan. Erdimailako klase unionista, bere pribilegioei uko egin gabe, Irlandako Errepublikarekiko hurbilketa handiago baten alde agertu zen eta atsekabez hartzen zuten langileria protestantearen gehiegizko sektarismoa. Ingurune katolikoetan, protestante dirudunekin batera bizi zen eta IRAren alde agertzen ziren langile katolikoengandik urrunduta zegoen erdimailako klase bat hasi zen sortzen Belfasten eta Derryn. 1969-1972 urteetan Luther King iparamerikarrarengandik hurbil zegoen eskubide zibilen aldeko mugimendu bat sortu zen. Mugimendu honek etsaitasuna piztu zuen Orangeko ordenan eta talde unionisten artean.

GATAZKAREN AREAGOTZEA

1968an, Orangeko ordenaren desfileen aldi berean egin ziren manifestazio bakezaleen ondorioz, katolikoek errepresio basatia jasan behar izan zuten. 1969an, People's Democracy mugimenduak, aurrerago diputatu izango zen Bernadette Devlin-ena izan zen unibertsitate-mugimenduak alegia, Belfastetik Derryrako ibilaldi bat antolatu zuen. Unionista erradikalek, poliziaren laguntzarekin, ibilaldia suntsitu egin zuten. Poliziak Derryko Bogside auzo katolikoa bereganatu zuen eta Londresek Ipar Irlandara 5.000 soldadu bidaltzeko erabakia hartu zuen bi komunitateen artean kokatzeko. Indar hauek ordea, auzo katolikoetan sartu ziren IRAko militanteen bila eta, ondorioz, istiluak, zaurituak eta hildakoak izan ziren eta katolikoak lubakitu egin ziren («Free Belfast» eta «Free Derry»).

IRAk 1971ko urtarrilean lehen soldadua hil zuen. Poliziak eta armadak ahalmen bereziak jaso zituzten edozein katoliko susmagarri atxilotzeko eta kontzentrazio-esparruetan sartzeko. Irailean soldaduak 12.000 ziren eta, urtearen amaierarako, IRAk horietako 30 hil zituen.

1972ko urtarrilaren 30ean Derryn egindako eskubide zibilen aldeko manifestazio bat jauskari britainiarrek erreprimitu zuten. Hauek jendetza artera tiro egin eta 13 pertsona hil zituzten Bloody Sunday (igande odoltsua) izenarekin ezaguna den egun hartan. Ondoren, Newry-n egindako 50.000 pertsonako manifestazio handiaren ondoren, IRA ofiziala Ingalaterran atentatuak egiten hasi zen (ibilgailu-bomba batek 7 pertsona hil zituen jauskarien kuartel batean eta Ulsterko barne-ministroa beste atentatu batean hil zen).

Londresek Stormonteko parlamentua desegin eta zuzeneko gobernua iragarri zuen. Aldi berean, bi komunitateen bereizketa antolatu zuen: hiri-eremuak eta landa-eremu asko erlijio bakarreko bihurtu ziren 15.000 familia ingururen nahitaezko lekualdaketaren ondorioz; horma garai batzuek langileen auzoak zatitu zituzten protestanteen eta katolikoen artean; soldadu britainiarrek auzo katolikoetan razzia asko eta asko egin zituzten eta kartzeletan ere presoak bereizita zeuden.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, mapa politikoa komunitateen zatiketaren eta gizarte-geruzapenaren isla zen. Protestanteen artean Ulsterko Alderdi Unionista zen nagusi baina 1971n Ian Paisley artzain protestanteak Alderdi Unionista Demokratikoa sortu zuen. Alderdi honek jarrerarik sektarioenak eta katolikoekiko konpromisoaren aurkakoenak bildu zituen. Talde erradikal hauen baitan talde paramilitarrak antolatu ziren eta hauek katolikoek kontra jardun zuten bereizketarik egin gabe.

IRA ofiziala desagertu eta IRA «behin-behinekoak» hartu zuen bere lekua. Aldi berean, talde honetan gutxiengo bat bereizi egin zen, Irlandaren Askapenerako Armada Nazionala (INLA) izeneko talde erradikalagoa hain zuzen ere. Era berean, katolikoek klaserik dirudunenak bultzatuta Alderdi Sozialista Laborista Demokratikoa (SDLP) sortu zen, Ipar Irlandari botereak itzultzearen aldekoa eta Eireko Errepublikarekin harreman onak zituena. Alderdi honen lider nagusiak, John Hume europeistak alegia, estatu nazionalen Europaren ordezkariak bilduko zituen Europa baten aldeko diskurtsoa sustatu zuen.

1973an Londresko gobernuak Erresuma Batuekiko loturak mantentzeari buruzko erreferendum baterako deialdia egin zuen. Komunitate protestanteak baiezkoa eman zuen (%58) eta IRAk, Sin Féinek eta SDLP alderdiak abstentzioa aldarrikatu zuten (%41). Unionisten, SDLPren eta Aliantza alderdi ez sektarioaren ordezkariak barne hartu zuen Ipar Irlandako gobernu bat antolatu zen eta, horrez gain, Londres eta Dublingo gobernuak Irlandako Kontseilua sortzea erabaki zuten. Oposizio unionista erradikalaren ondorioz ordea, Londresek Ulsterko zuzeneko gobernuak ezarri zuen berriz ere.

GATAZKA KONPONTZEKO BIDEAK

IRAko presoek gose-greba bati ekin zioten preso politikotzat har zitzaten eskatzeko. Westminster-erako hautagaia zen Bobby Sands presoak 1980ko maiatzean hil zen eta greba amaitzerako beste hamar hil ziren (1981eko urrian). IRAk ospe handia lortu zuen Estatu Batuetan eta botoen %13 lortu zuen (katolikoek %35) 1984ko Europako Parlamenturako hauteskundeetan.

Hego eta Ipar Irlandako katolikoek Irlanda Berriaren Forma sortu zuten 1983an eta nortasun unionista baterako eskubidea eta adostutako konstituzio berri baten beharra onartu zuten. Unionistek proposamen hau baztertu bazuten ere, Dublinek zuzeneko harremanak ezarri ahal izan zituen Londresekin. Harreman hauen emaitza Hillsborough-eko akordioak izan ziren (1985eko azaroaren 15ean). Akordio hauek bi Irlandan arteko harremanak aztertuko zituen gobernuarteko konferentzia bat ezarri zuten.

Bestalde, katolikoek hazkunde demografikoak bere horretan jarraituz gero, 2010. urtean gehiengoa izango liriteke eta protestanteen nagusigoa amaituko litzateke. Horrez gain, 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera (eta Euskadin bezalaxe) Ulsterko industria zaharreko enpresa siderurgikoak eta ontzi-erakuntzakoak gainbehera hasi ziren.

1992an SDLP alderdiak, Aliantzak eta unionistek egindako lehen elkarrizketek (Sinn Féin alderdia falta zelarik) ez zuten aurrera egin. Aurrerago, Gerry Adams-ek (Sinn Féin) eta John Hume-k (SDLP) Ipar Irlandan Londres eta Dublinen arteko gobernu bat sortzeko proposamena adostu zuten. Pasleik proposamena baztertu eta unionisten bortizkeria areagotuko zela iragarri zuen. Londresek berriz, Ulsterko herritarren gehiengoaren borondatea errespetatuko zuela adierazi zuen. IRA katolikoek arteko akordioaren alde agertu zen eta, bi Irlandatako lider katolikoak bildu ondoren, Reynolds Eireko presidentea eta Major Britainia Handiko lehen ministroa bildu ziren. Downing Street-eko deklarazioaren atarian gaude.

PROZESUAREN GARAPENA

Deklarazio honen bidez, bi agintariek elkarrizketa politikoak egiteko prozesu batean parte hartzera gonbidatu zuten IRA taldea, bortizkeriari uko egin eta hiru hilabeteren ondoren egitekoak hain zuzen ere. Sinn Féin alderdiak soldadu britainiarrak Ipar Irlandatik alde egitea eskatu zuen eta 1994an Gerry Adams-ek lehen bidaia egin zuen New Yorka. Bertan adierazi zuenez, Estatu Batuek zeregin garrantzitsua bete zezaketen bake-prozesuan. IRA taldeak, bestalde, hiru eguneko su-etena egin ondoren, baldintzarik gabeko su-etena muga-

gabe bat ezarri zuen abuztuaren 31n. Halaber, bake-prozesu demokratikoan izandako aurrerapenak onartu zituen baina negoziaketetan alde guztiek parte hartzea exijitu zuen.

Hasiera batean jendea su-etenari buruz eszeptikoa bazen ere, sei asteren buruan paramilitar unionistek ere su-etena ezarri zuten. Distentsioa nabaria zen: komunikabideetan zentsura amaitu zen, bi aldeetako presoak pixkanaka askatzen hasi ziren eta soldaduek borroka-uniformearekin patruilatzeari utzi zioten.

Hala eta guztiz ere, Londresen gobernatzeko unionisten laguntza behar zuen Major-en gobernuaren ahultasun politikoaren eta edozein elkarrizketa hasi aurretik IRAri armak entregatzeko zuzendutako exijentziaren ondorioz, egoera korapilatu egin zen. Mugimendu errepublikarrak traiziotzat hartu zuen baldintza hori eta, su-etena iragarri eta 17 hilabete-ren ondoren, bertan behera utzi zuen. Londresen jarritako bonba batek bi hildako eta ehunka zauritu eragin zituen, bai eta mundu osoan zirrara handia ere. Handik aurrera, estrategia komunikabideetan oihartzun handia lortzea eta Ingalaterrako komunikazioak geldiaraztea izan zen. Paramilitar unionistek, ofizialki su-etena hautsi ez bazuten ere, komunitate katolikoak jasandako erasoan atzetik zeudela dirudi.

Alderdi positiboen artean, Ipar Irlandako gizartearen nahiak (hainbeste urtetako lis-karren ondoren) eta gatazkan oso errotuta zeuden talde batzuetan (hala nola Sinn Féin alderdian) sakon sartu zen bake-dinamika aipa daitezke. Elkarrizketek aurrera egin zuten eta, beraz, gatazkari irtenbide bat emateko konpromisoa sendoa zen.

Egoera hori behin betiko gainditzen lagundu zuen gertaera Londresko gobernuaren aldaketa izan zen. Kontserbadoreak galtzaile izan ziren eta Tony Blair-en gobernu labo-ristak hartu zuen Major-en lekua. Blair-ek berriz ekin zien errepublikarrekiko elkarrizke-tei eta, aldi berean, George Mitchell Estatu Batuetako senatariak armak entregatzearen arazoa gainditzeko mekanismo bat planteatu zuen. Blair-ek iragarri zuenez, IRA taldeak beste su-eten bat deklaratu gero Sinn Féin taldeak negoziaketa-mahaian parte hartzeko aukera izango zuen sei asteko su-etenaren ondoren.

BIGARREN AUKERA

1997ko uztailaren 19an IRAk beste su-eten bat iragarri zuenetik, hainbat preso osa-sun-egoeragatik askatu eta beste batzuk Irlandara hurbildu zituzten. Halaber, Tony Blair Gerry Adamsekin bildu zen lehen aldiz. Alderdi unionistak zatitu egin ziren Stormon-teko elkarrizketetan parte hartu zutenen eta kanpo gelditu nahi izan zutenen artean. Gehiengoa zuen David Trimble-ren alderdiak (UUP) prozesua oztopatzeko estrategia bat garatzen hasi zen.

Handik aurrera, elkarrizketak oso gogorrak eta luzeak izan ziren, urrats txikiak eta oztopo ugari tarteko. Gatazkan zeuden interes desberdinen bitartekari moduan jardun zuen George Mitchell senatariaren eragina funtsezkoa izan zen.

Azkenik, Ostiral Santuko Akordioa lortu zen 1998ko apirilaren 10ean. Akordioa na-zionalistek, unionistek eta Britainia Handiko eta Eireko gobernuak sinatu zuten eta, ber-tan, erakunde autonomoak sortzea, amnistia bat deklaraztea (su-etenak bi urtetan irauten bazuen) eta hainbat batzorde sortzea (batek RUCen zeregina aztertuko zuen) hartzen zen

kontuan. Dokumentuak, gainera, desarma 2000ko maiatzaren aurretik lortzeko, zuten eragina erabiltzera behartzen zituen alderdi sinatzaileak. Bake-proposamen hau, Ostiral Santuko Akordioa alegia, erreferendum bidez berretsi zuten Hego eta Ipar Irlandako herriarrek maiatzaren 22an.

PASO HISTÓRICO EN EL ULSTER

Irlanda del Norte estrena autonomía

La reina firma la ley que pone en manos de unionistas y republicanos el destino de la provincia

EL REINO UNIDO Belfast. La última campaña de mediocredito alijo finalmente está madurada a Irlanda del Norte el más progresivo experimento de paz en la historia del Ulster, y por

primera vez colocado en manos de unionistas y republicanos el destino de la turbulenta provincia donde en tres décadas de violencia acartada los únicos ganadores han sido los sepulchros. Irlanda del

Norte entra en una histórica fase de reconciliación y democracia experimentada. Ayer por la tarde todo estaba listo en el castillo de Stormont para la apertura esta mañana de la inauguración del Go-

bierno presidido por David Trimble, el jefe del Partido Unionista del Ulster (UUP), y cuyo Gobierno de 10 miembros incluye a dos representantes figurar del Sinn Féin, el frente político del IRA.

En ese imponente edificio neoclásico construido en 1912, que hasta su hace mucho repudaban los republicanos como símbolo de la vieja dominación de los señores protestantes, brigadas de técnicos electrónicos instalaban ordenadores. Los alfabetos daban los últimos alfileres a paredes y portales, mientras los nuevos ministros trataban de familiarizarse con empinados pablos y subterfugios en un aragallé arribante que combinaba la justicia con el servilismo.

El olor de pintura fresca se mezclaba incómodamente con el aroma que emanaba de la flamante cafetería subterránea. Era tan extraño ese olor como el espectáculo que ofrecía el asustado, desde se podía ver, bajo una óptica un tanto surrealista, el primer producto del actual proceso político en marcha: Ian Paisley, el septuagenario y furibundo predicador protestante que dirige el intranquilo Partido Demócrata del Ulster (DUP), contrario al acuerdo de paz, guardaba celo para pagar un plato de arroz con pollo, no lejos de Jerry Kelly, el apuesto y ensobornado cerebro militar del IRA, que parecía indolente ante la epifanía que ofrecían las bombas y las enlatadas. No intercambiarían miradas.

Los enemigos mortales de ayer corrían bajo el mismo techo y las únicas armas de los guardaspaldas habían sido reemplazadas por teléfonos portátiles. A la entrada de Stormont hay una salida donde, discretamente y a carbón de una pequeña tarjeta verde, todo el que lleva una pistola debe depositarla en una guardermería especial; un recinto que los gulas tácticos del castillo que atienden a grupos de escolares protestantes y católicos se encargan de ocultar a sus visitantes para no darle drama a la situación.

"¿Qué todo esto funciona?", dijo una quinquicena protestante del seivno colegio de Saint William, mientras ella y su grupo se hacían fotografías alegremente en las mismas escalinatas de mármol que tanto Trimble y sus otros recordados enemigos como Gerry Adams y Martin McGuinness aserriben desde hace dos días para Regar a sus nuevos desahucios.

Aunque con buenos augurios de Londres, Dublín y Washington, el Gobierno autónomo del Ulster —con Trimble a la cabeza y seguido en importancia por Seamus Mallon, el número dos del Partido Social Demócrata y Laborista (SDLP) de John Hume, y también el nuevo día del Gobierno en su calidad de vicepresidente—, hace inevitablemente bajo el signo de la incógnita.

En una incógnita que archa cámara del Parlamento británico —los Lords y los Comunes, convocación del comité reconvencido de mantener bajo directo control al Ulster— tratan los asuntos de Ulster con su respaldo a la "devolución" de poderes a las nuevas

autoridades de la provincia. Tras la rimbombante pero típicamente obsoleta demostración de su existencia, los Lords pasaron la ley de devoción a los Comunes. En esa Cámara, el voto fue apaballante: 338 votos a favor y 10 en contra. El ampliamente predecible y formal trámite de pasar la legislación a la plana de la reina Isabel II fue fácil. "Aprobado", fue la única palabra que utilizó la soberana para sellar, bajo su regia firma, el proyecto de autonomía para el Ulster. Fue un trámite rápido diseñado a acelerar la separación político-administrativa. Pero, en la política, Londres continuará manejando, a través del ministro para Irlanda del Norte, Peter Mandelson, el controvertido brazo derecho del primer ministro laborista, Tony Blair, las tareas clave de la, variedad y recaudación de impuestos.

En Belfast no hubo explosión de ningún tipo. Ni de júbilo, en forma de bulas, ni de júbilo, en forma del desconchamiento de botellas de champán. Acostumbrados como están los norirlandeses a las incógnitas firmadas para mejorar sus vidas y aquellas de sus generaciones venideras, las palabras que brotaban de una sendadora de zapatos, de un banquero, de un agente turístico, de un policía de tráfico, de tres universitarios, demostraban un puro escepticismo.

Economía sólida

Fue una joven vendadora de champán en una de las nuevas tiendas que brotan ante la ilusión de una economía sólida quien resumió la situación y las expectativas de su país con un cansancio, una fatiga casi palpable, quien se encargó de resumir el sentimiento de su generación. "Con tal de que nos dejen vivir en paz..."

La agenda del Gobierno que se instaló hoy en el Ulster es tan maticada como aquella de los constructores del Titanic, la famosa nave que trágicamente salió de los astilleros de Belfast el 15 de abril de 1912: desarmar a los paramilitares de ambos bandos. El IRA se ha comprometido a desarmar hoy un interludio con previa expresión del Sinn Féin, dijo el martes que no será dispuesto a tolerar planes. Pero también aseguró que respetará



Mallon (izquierda) y Trimble hablan a la prensa en Belfast. (AGENCIAS REUNIDAS)

los unionistas de Trimble, esperan hechos concretos (en la forma de una resolución) hacia febrero, tres meses antes de la prevista fecha aceptada por los mediadores para obtener una muestra de su vocación de paz.

El IRA, en consecuencia con previa expresión del Sinn Féin, dijo el martes que no será dispuesto a tolerar planes. Pero también aseguró que respetará

¿Por qué fracasó hace 27 años?

EL PAÍS, Madrid. El 30 de enero de 1972 paracaidistas británicos abrieron fuego contra los manifestantes en una marcha en Derry por los derechos civiles de los católicos norirlandeses. A consecuencia de los disparos 14 personas murieron y numerosos resultaron heridos dando lugar al día conocido como Domingo sangriento.

La manifestación había sido prohibida por las autoridades británicas pero, sin así, 10.000 personas se habían congregado en Derry. Los soldados aseguraron que respondieron a ataques con armas de fuego que habían salido mientras procedían a arrestar a algunas personas, pero la comunidad católica opuso que 14 personas había sido ejecutadas sumariamente.

Dos días después del atentado sangriento la Embajada británica en Dublín fue asaltada e incendiada y pocas semanas más tarde el IRA había explotado una bomba en el cuartel de Aldershot (Inglaterra) asesinando a siete personas.

Un suceso, teniendo que la escalada de violencia desembocara en una estética guerra civil, el primer ministro británico, el conservador Edward Heath, decidió que se sería Londres quien tomara el control sobre la política de seguridad en la provincia. En denunciando castillo, el primer ministro socialista Brian Faulkner presentó la dimisión junto a todo su Gobierno.

La Asamblea para Irlanda del Norte se reunió por última vez en el castillo de Stormont. Más de 100.000 manifestantes unionistas se congregaron ante el edificio como señal de respaldo al Gobierno autónomo y de rechazo a la medida adoptada desde Londres. Faulkner salió al balcón y la multitud victoriosa lo aplaudió. El Ulster llevaba entonces dos días paralizado por una huelga general que había afectado no sólo al transporte y a los negocios, sino incluso al suministro de energía. Faulkner se hizo cir entre los vitores y pidió a los manifestantes que se marcharan a sus casas y éstas, en un último acto de lealtad, le obedecieron.

El poder efectivo en Irlanda del Norte quedó desde aquella fecha en poder del nuevo secretario de Estado para el Ulster, William Whitelaw. El político irquino impuso desde Westminster y su Oficina para Irlanda del Norte fueron responsables desde entonces del día a día en la gestión de los asuntos de la provincia.

Los unionistas que se marcharon a sus casas y los católicos que esperaban en sus hogares no sabían que se disponían a atravesar un largo túnel de 27 años.

Grupos paramilitares en el Ulster

OFI, Belfast. La Comisión Internacional Independiente del Desarme tiene la difícil misión de destruir todas las armas que están en posesión de los grupos paramilitares del Ulster, tanto protestantes como católicos. Estas organizaciones son las siguientes:

- ▶ **Luchadores por la Libertad del Ulster (LUV).** Mantiene su tréguo desde octubre de 1994.
- ▶ **Asociación para la Defensa del Ulster.** Mantiene su tréguo desde octubre de 1994.
- ▶ **Fuerza Voluntaria del Ulster.** Mantiene su tréguo desde octubre de 1994.

- ▶ **Fuerza Voluntaria Leal (LVF).** Mantiene su tréguo desde mayo de 1998.
- ▶ **Defensores de la Mano Roja.** Siguen activos.

CATÓLICOS

- ▶ **Éjército Republicano Irlandés (IRA).** Mantiene su tréguo desde julio de 1997.
- ▶ **Éjército Nacional de Liberación Irlandés (INLA).** Mantiene su tréguo desde el mes de agosto de 1998.
- ▶ **IRA de Conciencia (CIRIA).** Permanece activo en la lucha armada.
- ▶ **IRA Auténtico (IRA).** Mantiene su tréguo desde agosto de 1998.

Nazioarteko komunitateak prozesuaren alde egin nahi izan zuen eta horretarako laungarria izan zen David Trimble eta John Hume-ri Bakearen Nobel Saria eman izana, prozesua etenda egon zenean George Mitchell-ek izandako esku-hartze erabakigarria edo Bill Clinton Estatu Batuetako presidentearen bisitaldia. Bestalde, Europako Batasunak Ipar Irlandaren susperraldi ekonomikoa sustatzen duen fondo berezi bat du.

Akordio honen ondoren, biztanleriak behin betiko irtenbide bat lortzeko itzaropena berreskuratu zuen baina bidean zeuden oztopoak nabarmenak ziren artean. Horrela, molotov koktel batek hiru haur katoliko kiskali zituen uztailean eta IRA Benetakoak Omagh herrian egindako atentatu batean jarritako bonba-auto baten eztandaren ondorioz 29 pertsona hil eta beste 220 zauritu ziren abuztuaren 29an. Aldi berean, bando desberdinetako talde armatuen eragina nabaria zen Ipar Irlandako gizartean, lausotuagoa baina bi komunitateak eraginpean hartzen zituena (barneko kontu-garbitzeak, delinkuentzia arruntaren errepresioa eta abar).

Azkenik, parlamentuan ordezkariak zuten indar politiko guztiek ordezkaturik egongo zireneko Ipar Irlandarako gobernu autonomo bat osatzeko akordioa lortu zen. Gobernu hau 1999ko abenduaren 1ean eratu zen eta Trimblek zuzendu zuen. Gobernu honetan Sinn Féinek parte hartu zuen gainerako alderdi unionista eta katolikoekin batera. Hurrengo urratsa IRA taldeak eta talde paramilitarrek eman beharko dute eta armak entregatzea eta oraindik dituzten armategiak suntsitzea izango da. Ekintza hori De Chastelain Kanadako jeneralak zuzendutako batzordearen aurrean egiaztatu beharko dute.

Bi komunitateen arteko bereizketa desagerraraztea eta eragile desberdinen arteko adostasunaren emaitzazko behin betiko irtenbide politikoa lortzea nekeza eta korapilatsua da oraindik ere, mendeetako bortizkeria eta elkarrenganako mesfidantza ezin baita egun batetik bestera desagertu. Nolanahi ere, gatazka konpontzeko bidea itzulerarik gabeko bidea da.

2.3. DOKUMENTUA. BIZITZAREN TRANSFORMAZIOA GERTAKIZUN HISTORIKO BATEN ONDORIOZ: «SATORRAK»

Pertsona guztiek ez dituzte berdin bizitzen gertakizun historikoak. Batzuetan gertakizun historikoek eragin zuzena eta behin betikoa dute pertsonen bizitzan eta betirako markatzen dute bizitza hori. Une horretatik aurrera bizitzak «beste bide bat», «beste ildo bat» hartzen du, ezer ez da lehen bezala. Pertsona hauetako batzuk ezagunak eta liburuetan hilezkortuak izan dira; beste batzuk berriz, anonimatuak jarraitzen dute. Azken hauek, kasu askotan, galtzaileak dira, beren pairamenetatik eta jasandako galerengatik inoiz inolako ordainik jaso ez dutenak (ez beraiek, ez senideek).

Jarraian bitxia dirudien erabaki bat hartu zuten pertsona batzuk ezagutuko ditugu, «satorrak» alegia. Izan ere, urte askotan ezkutatuta bizitzea eta hil edo desagertu zirela sinistaraztea (ofizialki desagertutzat har zitzaten) erabaki zuten. 1936-39ko Gerra Zibilaren ondoren beldurak eraginda urte askotan (batzuk 30 baino gehiagotan) desagertuta egon ziren gizonak eta emakumeak dira.

Pertsona hauen istorio batzuk ikusiko ditugu jarraian. Kasu hauek ia anonimatuak egon ziren bi kazetarik —Jesús Torbadok eta Manuel Leguinechek— 1977ko urrian (Gerra Zibila amaitu eta ia berrogei urteren ondoren) *Los topos. El testimonio estremecedor de quienes pasaron su vida escondidos en la España de la posguerra* izenburua zuen liburua argitaratu arte. Mehatxupear, izututa, ezintasunean edo oker bizi izan ziren eta ezkutalekutik denboraren tuneletik bezala irteten ziren pertsona hauen bila ibili ziren hamar urtetan. Estatuko ia probintzia guztietan eta ehunka zeudela ikusi zuten. Zailena ordea, non zeuden jakitea eta beren zoritxarreko pasadizoak konta zitzaten konbentzitzea izan zen, hainbeste urteren ondoren beldurra gainetik kendu gabe baitzeuden artean. Adiskide eta ezagunengana jo behar izan zuten eta zurrumurru, susmo eta pertsonen eta udaletako funtzionarioen errezelo ugari aurkitu zituzten. Adore handiz eta zenbaitetan gezurretan ibili ondoren, pertsona horiek aurkitzen hasi ziren. Horrela, unean komenigarria zenaren arabera, beste pertsona batzuk zirela esanez Guardia Zibilaren kuarteletara ere joan ziren datuak eta helbideak bilatzera. Diktadorea hil zen arte liburua ezin izan zen argitaratu.



«HAMAIIKA AHIZPAK»²

Pedro Perdomo (Las Palmas), 33 urte ezkatututa

Hemen ez zen gerrarik izan, kristaua; hemen Francok dena prestatu zuen eta ez zen gerrarik izan. Haiek ahal izan zuten guztia egin zuten. Nire anaia ezkertiarra izateagatik bilatzen zuten, beste hainbat bezalaxe; asko harrapatu zituzten. Gau batean hemeretzi gizonezko zeramatzan kamioneta bat ikusi nuen; gizagaixoak, La Isletatik bueltak ematen aritu ziren eta gero amildegira eramane eta bertatik bota zituzten bizirik. Ez zituzten hiltzen, ez, bizirik botatzen zituzten.

Hamaika ahizpa ginen baina dagoeneko bi besterik ez gara geratzen. Eta gero neba bat, oso zaharra, eta Pedro Perdomo. Ni Antonia naiz. Pedro Perdomo Pérez Lanzaroten jaio zen gu bezalaxe, Harían. Orain hirurogeita bost urte ditu eta, beraz, 1906an jaio zen. Berak ez du hitz egin nahi oso nekatuta dagoelako eta beldur handia duelako eta, gainera, gaixorik dago. Ia ezin du arnas hartu. Zigarro bat eskatzen du eta poliki erretzen du. Ondoren, utzi eta aurrerago pizten du berri. Bihotzetik gaizki dago eta asmatikoa da.

Uztailaren 18an bertan ezkatutu zen, goizean. Egunkari batek zioenez, bi mila pezeta eskaintzen zizkieten non zegoen esaten zuenari, eta hori diru asko zen. Hemen, La Isletan, denok oso behartsuak ginen, gosea eta miseria zen nagusi; gizonek portuan lan egiten zuten baina ez zuten ezer irabazten. Orduan, Esteban Soca izeneko bizilagun bat diru bila etorri zitzaidan eta ikusi egin zuen. Falangistei esan zien baina, ordurako, nire neba ez zegoen hemen. Dendatxo bat genuelako eta bertan janaria genuelako ezkatutu zen lehenik nire etxean. Gainera, oilategia genuen atzealdean, patioaren beste aldean, eta bera hantxe sartu zen.

Berehala etorri ziren bere bila. Igandea zen, ni egun hartan ondoezik nengoen, ohean etzanda. [...] Falangistak etorri zirenean ez zuten aurkitu.

Ordurako Catalina izeneko beste arreba baten etxean zegoen. Catalina landan bizi zen, Angosturan [...]. Alpapa-fardel piloa zuen eta marmarrak aditzen zituenean fardelen artean sartzen zen. Horrela, guardiak edo falangistak sartu arren, ez zuten aurkitzen.

Emakumea gaixorik zegoen eta hil egin zen. Bera hona etorri zen, dorrearen aurrean bizi zen beste arreba baten etxera. Hau gerra amaitu ondoren gertatu zen, hiruzpalau urte geroago. Arreba honek, Manuelak alegia, hobeto egin zuen. Lehenik patioan zulo bat egin eta bidoi bat sartu zuen bertan. Ondoren, horman bao bat egin zuen, oso bao txikia, eta bizilagunen bat sartzen zela nabaritzen zuenean, nire neba bertan sartu eta nire ahizpak kaxoi bat jartzen zuen, aurrean su txiki bat zuela. Hantxe egoten zen, denbora pasa zain; ondoren gela batean sartzen zuten. Baoa horman zegoen, behean, saguen zuloak bezalakoa baina handiagoa.

Hantxe egon zen nire ahizpa hil zen arte, duela hamabost bat urte. Manuela hil zenean, nire ahizpa Eloina eta ni gaez joan ginen etxera. Handik atera eta beste ahizpa baten —Rafaelaren— etxera eramane genuen [...]. Bertan, gela txiki batean sartu zen eta hantxe pasa zuen bizitza osoa. Guztira, hogeita hamahiru urte eman zituen. Neuk laguntzen nion mantenuan baina Rafaelak janaria prestatu eta eramane zion. Bere seme-alabek ere ez zekiten norentzat zen janaria. Ahizpok besterik ez genuen ezagutzen ezkatututa zegoen sekretua.

Ordurako ez zuen inork bilatzen. Hasieran bakarrik bilatu zuten, bere buruagatik bi mila pezeta ematen zituztela jakin zenean. Hau gerra hasi eta bizpahiru hilabeteko kontua izan zen. Orduan falangistak ahizpa guztion etxera joaten ziren eta harriak bota, oihi egin eta guardiekin sartzen ziren bere bila.

² TORBADO, J. eta LEGUINECHE, M. (1999): *Los topes*, El País-Aguilar, Madril, 121-126 orr.

Esteban Soca-k salatu zuenean polizia-etxera eramán ninduten, Guardia Zibilaren koartelera. Hainbeste gizon zeuden kontzentrazio-esparrura edo fusilatzerá eramango zituztenak, ene Jainko maitea! Nik hasieran esandakoari eutsi nion, hari lotu nintzaion. Etxetik irten zenean Agaetera zihóala esan zidala esan nuen eta ez zidaten beste ezer atera. Epaile-lanetan ziharduenak zinpeko deklarazio bat egin behar nuela esan zuen eta nik zinez egia esan nuela esan nuen baina barkamena eskatu nion Jainkoari. Ondo daki Jainko maiteak nire neba gizagaixo haiek bezala amildegitik botatzera eramaterik nahi ez nuelako egin nuela gezur-zina!

Falangeek nahi izan zutena egin zuten. Gau batean eskailera bat ekarri zuten eta ahizpa guztien etxean sartu ziren, hamaika etxeetan. Batzuek patiotik eta beste batzuek aurrealdetik egin zuten jauzi. Ezer aurkitu ez zutenez gero, ez ziren inoiz itzuli. Orduan bera bidoian sartuta zegoen.

Gizagaixoa neke eta nahigabe asko pasa zituen. Behin ispiluan bere buruari begiratu eta hilda bezala erori zen hain argal eta zuri zegoela ikusita. Beste behin ia hil egin zen, nik hiltzorian zegoela uste nuen eta «ehortzi behar dugunean zer gertatuko da?» esaten nuen. Ito egiten ari zen, ezin zuen arnas hartu eta eldarnioak zituen. Ni farmaziara joan nintzen itotzen ari zen pertsona batentzako zerbait eskatzera, berari eman nion eta ongi jarri zen. Baina beti oso gaizki egon zen.

Apirilaren 18an bera ikustera joan nintzen eta honako hau esan nion nire ahizpa Rafaelari:

—Baina, non dago?

—Bere burua aurkeztera joan da.

Egunkari batean barkatuta zegoela irakurria zuen eta bere burua aurkeztera joan zen. Joan zitekeela esan zioten, beste edozein bezalako hiritarra zela, baina gizagaixoak hainbesteko beldurra zuen, atxilo zitzaten zain geratu zen. Arratsaldean, burua itzuli zenean, hantxe ikusi zuen.

—Baina hemen al zaude oraindik? Ez al dizut esan joateko?

Bi polizia etorri ziren berarekin. Rafaela negarrez irten zen eta poliziek honako hau esan zioten:

—Ez negarrik egin, andrea.

Urtebete igaro denean, Pedro Nolasco Perdomo Perez beldur da oraindik. Ez du lanik aurkitu eta bere osasuna oso eskasa da. Bere irribarre apala imintzio kaskar bat da aurpegi zurbil eta luze batean. Uko egiten dio erabat bere iraganaz hitz egiteari; izan ere, ia ez du ezer gogoratzen. Bere arrebak hil diren heinean berak lekua eta bakardadea aldatu du. Azken garaiotan leiho txiki bat zuen hiru metro karratuko gela batean bizi zen. Bonbilla bazter batean sartuta zegoen, horma-konka antzeko batean, argia kanpotik ikus ez zedin. Ohe estu bat, aulki bat, mahaitxo bat, aldizkari zahar piloa. Egunkariak eta aldizkariak izan dira laguntza bakarra. [...] Ikusmena oso ahula du, zenbaitetan burua joaten zaio, ez da gogoratzen non dagoen eta zein jende duen inguruan. Obsesio bakarra du: lana bilatzea bizirik dituen bi ahizpei gastuak ordaintzeko.

Erreferentzia judizialen arabera, Perdomo gerra hasi eta bi hilabetera erreklamatu zuen Las Palmasko 1 zenbakiko Epaitegi Militarrek, bizi zeneko La Isleta langile-auzoan izandako bi zentinelaren hilketan inplikatu gisa. Gertakari hauek uztailaren 18 baino lehenagokoak ziren baina, ia beti bezala, ez dago argitzerik soldaduei tiro egin ziena Perdomo izan zen ala ez. Garai hartan, herriko Alderdi Sozialistako Batzorde Betearazleko batzordekidea zen.

Ezkutatu aurreko bizitzari eta itxita emandako hogeita hamabi urte eta bederatzi hilabetei buruzko mututasuna erabatekoa da (69ko indultu-dekretuaren ondorioz aurkeztu zen). Lana eta ahanztura besterik ez du nahi.

Post scriptum: Pedro Perdomo 1975eko neguan hil zen arnas-kolapso baten ondorioz. Ez zuen lanik aurkitu.

«ELEBERRIGILE KOLDARRA»³

Juan Rodríguez Aragon (San Fernando), 31 urte ezkatuta

Gonzalo Juan Rodríguez Aragon-en seme zaharrena da, hogeita hamaika urtetan familiaren baratetik irten gabe bizi izan zen arotz eta eleberrigilearena alegia. Baratzea aitona okupatu zuen joan den mendearen erdialdean, San Fernando herriak La Carraca-n irakiten zuenean.

Gaur egun, Gonzalo Rodríguez bizitzak jartzen dizkion zailtasunaz kexu da. Bere aitaren itxialdiagatik (ia borondatezkoa izan zen itxialdiagatik) izan ez balitz, gaur mediku izan liteke, bere adiskideetako batzuk bezala. Aitarenganako gorroto-apur batekin esaten du Gonzalok hori.

Ez dirudi izugarri maite duenik. Egia esan, ezezaguna du erabat, hain hurbil, hain ondoan edukita ere. Bere ama, Trinidad, oso gaixorik dago eta honek ere ez du senarraren istorioa onartzen. Harekin hitz egiten ari ginela jakin zuen hiru aldietan erratzarekin edo ur-ontziekin bota gintuen etxetik. Juan Rodríguez Aragon ez du gogoratu ere egin nahi, duela hiru urte hilerrian badago ere. Elkarrekin aske bizi izan ziren sei urte t'erdi horietan baratzean ezkatuta eduki zuen. Inorekin hitz egin ez zezan, kalera irten ez zedin saiatu zen, hogeita bost urte zituenetik bere erruagatik pairatu zuen zigor berbera ezarri nahi izan balio bezala. Juan 1974an hil zen hirurogeita hamahiru urterekin, bere bizitzako eleberri handia hasi gabe. Eleberri hori gutun gutuetan aipatzen zuen proiektu eder bat zen, inork ezagutuko ez dituen aitzakia, damu eta teoriez osatutako amets bat.

Gonzalok dioenez, ez zuen denborarik izan. Bere bizitzako azken urteak, askatasunean bizi izan zituen urte gutxi horiek, aurrekoak bezala pasa zituen, baratzean landatzen, bilobekin noizean behin hitz egiten, asko irakurtzen, telebista ikusten. Bakarrik bizi zen. Gonzalok ez zuen ia inoiz ikusten. «Nire emaztea kanpokoa da eta tarte bat dugunean haurrak hartu eta bere gurasoak ikustera joaten gara. Beraz, ulertuko duzue bera ikusteko denborarik ez nuela». Egia esan, inoiz ez zen bisitatzaera joan. 39 urtetan itxita egon zelakoan dago, 31 urte izan baziren ere. Ez daki zein egunetan ezkatatu zen, zergatik, aurretik zer egin zuen, idatzi zituen eleberriak non dauden. Kaligrafia ona zuela eta liburu asko irakurtzen zituela, hori besterik ez daki. Inoiz ez zen aitak barruan eramango zuen tristuren eta saminen itsasoan sartzen saiatu, susmoa badu ere. Orain denak hilda daude. «Galdutako bizitza izan da», dio. «Zertarako gogoratu gauza txarrak?». Liburuak, paper zaharrak, desagertu egin dira.

Juan Rodríguez Aragon altzari bat, objektu bat bezala bizi zen baratzearen atzealdeko gelan, bere gogogabetasunak eta bere gurasoen neurritz kanpoko maitasunak bahituta. Histeriko eta agresibo agertzen den eta azken urteotan erotasunaren mugaren inguruan ibili den Trinidad emazteak, gorroto eta erdeinuzko hitzak besterik ez ditu berarentzat. Seme-alabek aita erabat ahaztuta duten bezala, Trinitadek gorrotatu egiten du, besterik gabe.

«Juan Rodríguez Aragon San Fernandon (Cádiz) jaio zen 1901eko ekainaren 16an. Gonzalo eta Sebastianaren semea zen, ezkondua, arotza, San Fernandoko General García de la Herran kaleko 40 zenbakian bizi zena. «Glorioso Movimiento Nacional» deitu ziotena gertatu aurretik, Lanaren Konfederazio Nazionala sindikatuan (CNT) hartu zuen parte kide kotizatzaile gisa eta sindikatuaren alde jardun zuen. Halaber, Razón izeneko astekariko erredakzio-buru izan zen (baliabide-faltagatik astekariak hilabete bakar batean iraun zuen). Erredaktore moduan, jende-ari adorea emateko zegoen giroaren kutsua zuten artikuluak idatzi zituen, kaleko iskanbiletan

³ TORBADO, J. eta LEGUINECHE, M. (1999): *Los topos*, El País-Aguilar, Madril, 447-457 orr.

parte hartu gabe. Orduz geroztik ezkutatuta egon da bere etxean 1968ko urtarrilaren 24an San Fernandoko polizia-etxean borondatez agertu zen arte. Adierazi zuenez, errepresalien beldur jarraitu zuen egoera horretan eta bere itxialdian gurasoek eta anai-arrebek lagundu zioten».

1969an, urtebete aske zeramala, gizon zahar eta ahula zen Juan.

Dozena-erdi bat alditan errepikatu du gogoeta askoren ondorioa dirudien esaldi bat, bere bizitzaren emaitzazko axioma antzeko bat: «Kulturak koldar bihurtzen ditu gizakiak». Hona hemen bere hitzak:

Eskolatik irten nintzenean, lan egiteko ondoko aukera eskaini zidaten etxean: «Begira, errementaria, igeltseroa edo arotza izan zaitezke». Hiru gauza horiek besterik ez zizkidaten eskaini. Arotza izatea aukeratu nuen. Ez ordea gustatzen zitzaidalako, garbiagoa iruditzen zitzaidalako baizik. Beste horretan busti beharra zegoen eta errementari gisa, ene, belarriak estaltzen nituen... Ni etxeko zaharrena nintzen, sei anai-arreben artean zaharrena, ezin nuen karrerarik ikasi; familia baratzeaz bizi zen. Hamar urte bete arte joan nintzen eskolara, anaiatxoetan. La Salleko Anaiak, baberoak. Hamaika urterekin, etxean sarrerako azterketa egingo ote nuen galdetzeko agindua eman zen eta etxean nik familia osoak baino gehiago nekiera erantzun zuten. Hortaz, eskolatik atera eta lana aukeratzera bidali ninduten, lanera. Txikitatik nekien nire etorkizuna lan egitea zela eta ez nuen inolako kontraesanik, inolako ezusterik sentitu. Bizitza horrelakoxea zen orduan.

Lehenik altzari-bazar batean aritu nintzen mutil moduan, mandatari gisa. Pixkanaka ikasi egin nuen eta hamabi urterekin lanean hasi nintzen. Arotz nagusi gisa. Matagordan sartu nintzen, ontzioletan, txalupak egiten. Zortzietatik bostetarako ordutegia nuen, jateko atsedenaldi batekin. Nik janaria etxetik eramaten nuen (tortilla, arraia, txorixo frijituren bat...). Nire amak sakontzia zorroan sartzen zidan. Bertan beste mutil batzuekin sartu nintzen baina haiek itzuli egin ziren, porrot egin zuten. Niri ez zetorkidan ongi Cadizen ostatua ordaintzea eta, horregatik, goizeko seietan jaikitzen nintzen, ibilgailua hartu eta zazpiak eta koskatan iristen nintzen San Juan de Dios-a. Han, Polśía kaleko izkinan kafea hartu, atoiotzia hartu eta lanera joaten nintzen. Nire soldata —helduxeagoa nintzenean— bost pezeta eta hamabost zentimokoa zen, hamabost zentimo horiek erremintaren higaduragatik. Erreminta nirea zen; bertan uzten zen baina bakoitzak berea erosi behar zuen. Ez zegoen gaizki ordainduta. Hemeretzigarren urtean itsas armadako kapitain mediko batek hogeita hamahiru duro irabazten zituen hilabetean. Gerra hasi zenean nik hamaika pezeta irabazten nituen arotz gisa eta beste bost txartel-saltzaile gisa, hamasei guztira. Bostehun pezeta inguru ziren hilabetean. 33. urtean udalerriko funtzionario batek hirurehun pezeta irabazten zituen.

Hamazazpi edo hamazortzi urte izango nituen poesia idazten hasi nintzenean. Gauzei buruzko ezagutza izatea oso gustukoa nuenez gero, iristen zitzaidan oro irakurtzen nuen beti. Tertulia bat sortu genuen hemen bost mutilek; pezeta bana jarri eta gaurkotasuneko liburuak erosten genituen denontzat. Batek liburu on bat ezagutzen bazuen denontzat erosi behar zuela adostu genuen. España kafetegian elkartzen ginen, orain Nacional izenekoa dagoen tokian. Besteak beste Montes joaten zen (printzeari buruz idatzi zuen mutila), De Lucas izeneko bat (gazteena) eta beste batzuk. Irakurtzen genituen autoreak ondokoak ziren: Galdós, Blasco Ibáñez, Unamuno —gehien atsegin genuenetako bat—, Gorki —hau ere izugarri gustatzen zitzaidan paisaia bat edo sentimendu bat islatzean erakusten zuen zehaztasunagatik—, Julio Verne, Chéjov, Schopenhauer, Dostoievski, Goethe, frantziarrak zer esanik ez, errusiarrak —bilduma merkeetan argitaratzen zirenak—... Horrela trebatu nintzen ni, asko eta etengabe irakurtzen eta ondoren idazten.

Garai hartan egunkari bat sortu zen Puerto Real-en, Dávilak egiten zuela uste dut. *Acción Popular* zuen izena eta han ipuinak idazten hasi nintzen. Oroimen miresgarria nuen eta irakurritako

esaldiak gogoratzen nituen; idazten hasten nintzen eta esaldi bat, paragrafo oso bat etortzen zitzaidan burura. Ipuin guztiek sustrai filosofikoa zuten.

Hogeita hiru urterekin Madrila joan nintzen. Soldadutzaz aske geratu nintzen. Madrilen Leganitos kalean bizi nintzen, Espainiako plazatik oso hurbil. Egun osoa pintatzen ematen nuen lan-tegi batean eta arratsaldez, garbitu eta jantzi ondoren, Madrid-Paris izeneko denda (gaur egun Sepu izeneko) ikustera joaten nintzen, Unión Radio delakoa zegoen aldean. Han giro ona zegoen beti. Egunero pezeta bat ordaintzen nuen ostatuagatik eta arropa garbitzeagatik; bazkaria eta afa-ria tabernetan egiten nituen ikasleak ziren pentsioko adiskideekin eta hasi berriak ziren idazlee-kin. Ia astero ipuin bat idazten nuen eta *El Imparcial* egunkariko gutunontzian sartzen nuen baina ez nintzen konturatzen beste batzuek abizen ospetsua edo eragina zutela eta nik ezer ez nuela. Eta Madrilen ez zidaten ezer argitaratu. Garai hartan obretan zegoen Arte Ederretako Eskolako hor- metan errotuluak idazten zituen Armando Caribe izeneko poeta ibiltari bat bezalakoa nintzen. Galdu egin zen poeta ibiltari bat. Behin honako hau idatzi zuen: «Poeta naiz eta bizi behar dut, ez dut nahi Bécquer-i bezala gerta dakidan (gosez hiltzen utzi ondoren arrosa artean ehortzi zuten)».

Madrilen urtebete eskas eman nuen, 1924an. Orduan lehen eleberria argitaratu zidaten Bartze- lonan, *El ramo de un amor vulgar* izenburukoa eta Boccherini-ri eskainia. San Fernandorako kro- nikak ere idazten nituen eta bertan Madril nolakoa zen kontatzen nuen. Baina ez nuen inor ga- rrantzitsurik aurkitu. Behin Gijón kafetegian sartu nintzen baina ezin izan nuen inorekin hitz egin.

Hartaz nekatuta, San Fernandora itzuli nintzen. Han idazten jarraitu nuen, asko, denetik. Ele- berrien izenburuen artean *El drama de un amor burgués*, *Un talión contemporáneo*, *El Señor de Unca*, *La batalla de los aguadores*, *El Cantar de los Cantares...* gogoratzen ditut. Ospetsu egiten den eta gogoeta egiteari ekiten dion toreatzaile bati buruzko azken honek gazte-ukitu poetiko bat zuen. Eleberria esaldi honekin amaitzen da, ondo gogoratzen dut: «Koldarrak kultura handiko gi- zakiak dira, kulturak gizakiak koldartu egiten baititu».

Ez dut alerik gordetzen. «Mugimenduaren» garaian dena erre zuten, liburuak eta gordetzen ni- tuen egunkariak. Nik hemen idazten nuen, hiru astetan («Mugimendua» hasi arte) iraun zuen al- dizkari batean: *La Razón*. Bai eta jendeak *La Meona* deitzen zion egunkarian ere (*La Correspon- dencia de San Fernando* zuen izena). Nire izenarekin ipuinak eta saiakera txikiak sinatzen nituen eta Samuel goitzenarekin berriz, ikuskizunen kritikak.

Teatro de las Cortes izeneko antzokian lan egin nuen. Txartel-saltzailea nintzen emanaldia hasi eta ordu-erdi geroago arte. Gero sartu eta ikuskizuna ikusten nuen kritika egiteko. Dramen, zartzuelen eta kontzertuen kritikak egiten nituen. Ikusten nuenak nigan pizten zituen sentimen- duen arabera egiten nuen kronika. Schubert-i buruzko zerbait ematen bazuten, ni irakurritakoaren arabera hitz egiten nuen Vienaz eta bere giroaz. Ez zen kritika-lana, literatur lana baizik, literatur trobadore batena bezalakoa. Nik ez nuen zentimorik kobratzen lan horrengatik, ez zidaten egun- karia ere ematen, neuk erosi behar izaten nuen. Prentsa Elkartearen ordezkari bat zegoen he- men eta Marcelo Manzo jaunak, *La Correspondencia de San Fernando* egunkariko zuzendariak, informazio-erredaktore eta kritikariaren kredentziala eman zidan. Jendea harritu egiten zuen arotz batek idazten zuela jakiteak. Garai hartan San Fernandoko lantegirik onenean egiten nuen lan. 31ko martxoaren 5ean ezkondu nintzen. Gerra hasi zenerako bi seme-alabak banituen. Gero ezin izan nituen gehiago izan.

Nire kritikari-lana uztailaren 18an amaitu zen, eguerdiko hamabietan. Larunbata zenez gero, arratsaldea libre nuen eta etxera itzultzean lagun batekin egin nuen topo:

—Jakin duzu altxa direla, ezta?

—Ba ez. Arazoak izango direla uste al duzu?

—Ez dut uste —esan zidan—. Hartu dugun erabakiaren arabera, militarrek gobernuarekin bat egiten badute gure postuetan jarraituko dugu, gure karguetan eta, bestela, derrigorrez egingo dugu. Beraz, zaude lasai.

Besteek baino gehiago jakitea nire kalterako izan zen. Nik egoera ezagutzen nuen, errealitatea. CNT sindikatuan afiliatuta nongoen baina ez nuen politikaz ezer jakin nahi. Hemen jendea zatituegia zegoen baina denak oso demokratikoak ziren. Batzuk falangistak ziren baina askoz gehiago UGTkoak, langileen alde ziharduen sindikatukoak alegia. José Antoniok sindikalista zela zioen, gizon txukuna eta egunean jarria zen, jendea konbentzitu besterik ez zuen egin nahi. Zera gertatzen da, José Antonio militarrei eta apaizei lotuta zegoela.

Nik idazten nuena batzuek gustukoa zuten, beste batzuek berriz, ez, gauza guztiakin gertatzen den bezalaxe, baina inoiz ez nuen inorekin istilurik izan. Egun haietan, 36an, kronikak politikoak ziren langileen geldialdia gertatu zenean. Nik doktrina humanista nuen oinarri, nire iritzia, nire iritzi partikularra ematen nuen ezein alderdiren alde egin gabe. Nik jateko eta bizitzeko adina emango zidan lekuren batean lan egiteko asmoa besterik ez nuen. Horrexegatik egoten nintzen gauero txartel-leihatilan, lantegian amaitu ondoren. Han bost pezeta ordaintzen zidaten eta liburuak erosteaz gain amari dirua eman niezaiokeen.

Hilaren 18an, bazkaldu ondoren, kalera irten nintzen. Konpainia bat pasa zen Udaletxe aldera, Cayetano Rodal alkatea hartu zuten eta bere etxera eraman zuten ezer egin gabe. Ondoren bere alabekin eraman zuten. Iskanbila txiki bat izan zen Udaletxea hartzean eta etxera joan nintzen.

Hurrengo egunean tiroketaren bat edo beste izan zen eta nik nire etxean egin nuen lo, beti bezala. Hirugarren egunean berriz, herriko jendeari tiro egiten hasi ziren eta batzuk hil zituzten. Kallean falangista batzuek ikusi ninduten eta, hitzik esan gabe, gomazko porra batzuekin jotzen hasi zitzaizkidan. Itsututa utzi ninduten kolpeen ondorioz.

Etxean sartu eta hurrengo egunean berriz irten nintzen, istripu bat besterik izan ez zela uste bainuen. Bizartegian nengoela ordea, lantegiko adiskide batzuk etorri zitzaizkidan falangistak nire bila zebiltzala esatera. Gainera, nire etxera ni hiltzera joan zirela esan zidan bizilagun batek. Arazo pertsonala zen. Falangistetako batek antzokiko txartel-leihatila bereganatu nahi zuen eta, «Mugimenduari», hil egin nahi ninduen hori lortzeko. Bere adiskideek txartel-leihatila harentzat lortzeko bilatzen ninduten. Horixe zen gertatzen zen guztia, tontakeria bat. Ni ordea, lasaitasunetik larritasunerako aldaketa egin nuen.

Ezin nuen etxera itzuli. Astebete eta gehiago eman nuen eremuetan noraezean, lo egiteko hilerrian ezkututzen nintzen. Manta bat nuen eta horma-hilobi batean sartzen nintzen lo egitera. San Fernandon ez zen ezer gertatzen. Batzuk hiltzeko asmoz bilatzen zituztela eta horietako bat neu nintzela, besterik ez. Emazteari nitaz galdetzen zioten. Beste askorekin landan zehar Almeriara joan nintzela uste zuten.

Abuztuaren hasieran, dena amaituta zegoela, etxean sartu nintzen. Eta 1968ko urtarrilaren 24 arte ez nintzen irten. Hasieran baratzearen hondoan genituen untxi eta oilo tartean sartu nintzen baina aurrerago atzealdeko gela batera joan nintzen. Baratzean sartzeko hesitik gela horretara distantzia handia dago eta inor sartuko balitz berehala ikusiko litzateke. Baina ez zen inor nire bila etorri. Hogeita hamaika urte eman ditut gela horretan itxita, irakurtzen, pentsatzen. Hamar edo hamabi urte igaro zirenean noizean behin irteten nintzen, gaez, baratzetik paseatzera.

Hain denbora luzean egon izana hutsegite bat izan zela uste dut orain baina horrela hartu behar da, bizitzak dituen gauza asko eta askoren arteko bat bezala.

Ni familiaz inguratuta nengoen. Hasieran, aitak ez irteteko esan zidan; berak beldur handia zuen. Gaixorik zegoen eta nahigaberik ez ematearren gelditu egin nintzen. Aita duela hogeitatu bat urte hil zen eta orduan ere irten nahi izan nuen baina nire amak ez zuen nahi. Ez eta anaiak ere. Berak egun osoa ematen zuen lanean ezer faltan izan ez nezan eta nirekin egoteagatik ez zen ezkondu. Ama hil zenean, 66. urtean, irteteko nengoela hauxe esan zidan anaiak:

—Ezer falta al zaizu hemen, Juan?

—Ez zait ezer falta, ez.

—Orduan, zertarako irtengo zara?

Eta gelditu egin nintzen. Baina nire anaia 1967ko abenduan hil zen, ni ondo egoteko hainbeste lan egiteagatik hil zen. Orduan koinatuari deitu nion (Itsas Armadako komandantea da eta ez zekien ezer nitaz) eta berak konpondu zuen irteera, agintariengana aurkeztea.

Urte hauetan guztietan, nire gurasoek, anai-arrebek eta emazteak izan ezik, inork ez zekien hor nengoenik. Nire seme-alabak hasieratik «tito» deitzen zidaten eta ia ez ninduten inoiz ikusten. Atzerrira alde egin nuela eta nitaz ezer ez zekitela zioten denek. Jendeak hasieran galderak egiten zituen baina gero ahaztu egin zen eta hilda banengo bezala geratu nintzen.

Ni lasai bizi izan naiz. Inoiz ez dut kalera irteteko beharrik sentitu eta ez dut beharrik izan ere; ez naiz inoiz gaixorik egon. Urte hauetan guztietan pertsona bakar batek ikusi nau baina duela gutxi. Gainera, pertsona horrek ez zekien nor nintzen eta, beraz, ez zuen ezer esan, ez zen harritu.

Gauza bat egin badut, pentsatzea izan da. Irakurri, asko ere ez, «Mugimenduaren» egunetan aitak dena erre baitzuen; gero, ez zegoen liburuak erosteko dirurik. Baratzeak eta nire emazteak eta arrebak jarri zuten jostun-negozio txiki batek ematen zutenaz bizi ginen. Etxeko arotzeria-konponketak egin izan ditut eta azkenean, noizean behin, baratzean ere lagundu dut, baina oso gutxitan. Ia denbora osoa ezer egin gabe, ezertxo ere egin gabe eman dut. Nire gelan egoten nintzen gustura, lasai, inolako kezkarik gabe. Huraxe zen nire tokia eta nire kezka itxarotea, itxarotea eta itxarotea zen. Inoiz ez dut jakin zeren zain nengoen baina ziur nengoen hura noizbait amaituko zela. Orain konturatzen naiz jarrera horrek neurekoikeria handia adieraz dezakeela baina nire familiak han egon nendin nahi zuen, denek dena ematen zuten niregatik, anaiak batez ere. Ezkontzeari uko egin zion eta lan asko egin zuen niregatik. Nola irten eta neke horiek guztiak pikotara bidali? Orain pentsatzen dudanean, oker jokatu dudala eta oso garesti ordaindu dudala konturatzen naiz. Segur aski falangistek txartel-leihatilaren tirabiragatik hilko ninduketen lehen egunetan hartu izan banindute, baina gero ez nuen inolako arriskurik izan.

Inoiz ez da une arriskutsu edo esturik izan. Inork ez zuen susmatu etxean ezkutatuta egon nintzeenik, inork ez zuen ezer ikertu nahi izan. Nire lagunak familiaren lagunak izan ziren handik aurrera edo ez ziren lagun izan, baina ni ahaztu egin ninduten pixkanaka.

Orain lasai egon besterik ez dut nahi, geratzen zaizkidan egunak patxadaz igaro, Jainkoari eskerrak emanez seme-alabek oso portaera ona izan dutelako, nire bilobengatik. Harrituta nago dena hain ongi doala ikustean, garapen-planak, herritarrak. Espainia osoa bere handitasun, oparotasun eta ospearen alde lanean ari dela ikusten dut. Kanpoan nagoenetik besarkadak eta hitz atseginak besterik ez ditut jaso. Orain patxada-apur bat besterik ez dut eskatzen idazten hasteko eta nire istorioa kontatzeko, ez ordea nire gerra aurreko eleberrietan bezala irakaspen bat emateko, batere ohikoa ez delako baizik, ezta?, sinestezina da. Indarrrik badut pixkanaka kontatuko dut etxekoei, nire emazte Trinidad eta nire seme-alabei esker moduan eskaintzeko, benetako meritua hauena izan da eta. Nirea hogeita hamaika urteko hutsegitea besterik ez da izan, nire bizitzako urterik onenekin ordaindu dudana hutsegitea. Baina, tira, gauzak horrela gertatzen dira.

Irakurritako testuei buruzko galdera-sorta

Aurreko kasuetatik abiatuta, saiatu ondoko galderari erantzuten:

—Zein izan zen pertsona hauen bizitzan gertatu zen eta ondorengo bizitza osoa aldatu zien gertakizun historiko handia?

.....

—Zure ustez, pertsonaiak erabaki zuzena hartu zuen ala fusilatuta hiltzeko beldurra nagusitu zitzaion?

.....

—Nolako eragina izan zuen horrek bere senide eta adiskideen bizitzan? Zure ustez, zein izan zen edo ziren hainbeste urtetan ezkutatuta jarraitzeko eraginik handiena izan zuten arrazoiak?

.....

—Eragin hori denborarekin gainditu ahal izan al zuen?

.....

—Zuk zer egingo zenukeen bere kasuan? Ezkutatuko zinatekeen? Bizitza ezkutatuta galtzeko adinako beldurrik izan daitekeela uste al duzu?

.....

Aurreko galderari erantzun ondoren, irakurri ondoko informazio osagarria eta batoratu, informazio horretatik abiatuta, pertsona horien jarrerari buruzko iritzia aldatu duzun.

«Satorrei» buruzko informazio osagarriak

1936ko uztailearen 18an espainiarrak elkar akabatzen hasi ziren. Kronikariek estatu-kolpea, errebolta militarra, altxamendua, gurutzada... izan zela esan zuten aurrerago. Protagonistek lazturak aipatzen dituzte funtsean.

Gerraren errealitate soziopolitikoak une batez bereizten baditugu eta ikuspegia gizabanakoen eta beren auzo-harremanen historia zehatz eta berariazkora mugatzen badugu, heroiak desagertuko zaizkigu, jeneralen izenak eta estrategiak, politikoen ideia handiak, aberriaren edo erlijioaren motibazioak eta abar urtuko zaizkigu eta egoera kontrolaezin batek harrapatutako gizonak, emakumeak eta haurrak besterik ez zaizkigu geratuko.

Ikus ditzagun datu batzuk istorio hau argitzeko:

1. *Zein ondorio izan zituen gerra zibilak?* Gerra zibilaz gehien dakienetako bat den Gabriel Jackson historialari iparamerikarrak kalkulatu duenaren arabera, ehun mila pertsona inguru hil ziren bataila-eremuan. Zifrak barregarria dirudi borroka zein luzea izan zen eta erretagoardian zenbat hil ziren kontuan hartuta: berrogeita hamar mila gaixotasunen eta desnutrizioaren ondorioz, hamar mila herritarren gainera egindako bonbardaketen ondorioz, hogeita mila errepublikarren eremuan izandako errepresalia politikoen ondorioz eta berrehun mila nazionalisten kontrako errepresalien ondorioz. Baina lauhun mila hildako hauei garaileek *garai-penaren ondoren* mila modutan hil zituzten beste *berrehun mila hildakoren* zifra beldurgarria gaineratu behar zaie.
2. *Zenbatak egin zuten ihes etxetik?* Milaka hildako horiekin eta mugetan zehar ihes egitea lortu zuten bostehun mila pertsonarekin batera, milaka eta milaka pertsona ihes eginda bizi izan ziren denbora batean, gertatzen ari zenaren beldur. 1969. urtean ere, gerra amaitu eta hogeita hamar urteren ondoren, erromes politiko horietako bat agertu zen Malagan, Angel Pomeda izenekoa, denbora horretan guztian paper faltsuekin Andaluziako kostaldean gorbatak saltzen aritu izan zena.
3. *Logikoa al da pertsona hauen beldurra, hain itxialdi luzeak egiterainokoa? Zergatik ez ziren lehenago irten pertsona hauek guztiak?* Badira informazio batzuk entregatzen zirenei edo harrapatzen zituztenei gertatzen zitzaiena erakusten dutenak. Argigarria izango litzatekeen arren, ezinezkoa da ezkutalekuetan hil zirenen kopurua edo bertan harrapatu zituztenei egindakoa jakitea. Felanitx-en (Mallorca), «torero» ezizena zuen eta L'amo en Joan esaten zioten gizon bat putzu batean ezkutatu zen eta inguruko komentu bateko karitateko mojek salatu zuten, gizona arropak lehortzeko zintzilik utzita zeudela ikusi eta falangistei jakinarazi zieten. Gizona harrapatu zuten eta, handik bi egunetara, *satorraren* gorpua hiriburuan agertu zen, kopetan arra bete luze zen iltze bat sartuta eta orri idatzi bat zuela: «Errepidera tatxetak botatzen jarrai dezazun». Berrogei urte inguruko gizon honek tatxetak bota zituen errepidera, Telanitxen mitin bat eman nahi zuten falangista batzuen automobila pasa baino lehen, uztailearen 18ko egunaren aurretik. Pneumatikoak lehertu egin ziren eta ez zen mitinik egin. L'amo en Joanez biziarekin ordaindu zuen egindakoa, atentatu politikoa baino baldarkeria besterik izan ez zena.
4. *Zenbat indultu edo barkamen eman ziren?* Franco jenerala oso eskuzabala izan zen bere aldekoen krimenak barkatzeko garaian, ikaragarrienak izanik ere. Are-rioen bandoan borroka egin zutenei delitu-preskripzioa emateko aldiz, hogeita hamar urte behar izan zituen. Aurreko *barkamenak* heriotza-tranpak izan ziren askotan. Izugarria izango litzateke 1969 aurreko indultu orokorren batean agintarien aurrean aurkezteagatik zenbat pertsona fusilatu zituzten kalkulatzeko. Azken indultu honen aurretik beste 11 eman ziren (arrazoi desberdinengatik: batzuk caudillo-ak Estatuaren buruzagitzan emandako denbora goraiatzeko, beste batzuk

urte santua izateagatik, zenbait Aita Santuren koroatzean edo kongresu eukaristikoan urteetan). 1969ko apirilaren 1aren aurretik egindako delitu guztiak preskribituta deklaratu zituen 1969ko martxoaren 31ko indultuaren testuak ondoko sarriera du: «Azken hogeita hamar urteotan espainiarren artean izan den bizikidetzak baketsuak sendotu egin du gure belaunaldiari sei bosturtekoko bakea, garapena eta askatasun juridikoa eman dion Mugimenduaren legitimitatea [...]». Ez da harritzekoa zenbait satorrek, halako gezurrak irakurtzean kalera irten nahi ez izana, ez eta hain denbora luzea igaro ondoren ere.

2.4. DOKUMENTUA. NOLA IKERTZEN DA HISTORIAN?

Jarduera honen bidez «historialariaren ofizioari» dagozkion trebetasunak eskura ditzazun nahi dugu. Horretarako egungo (eta asmatutako) kasu bat hartuko dugu abiapuntutzat eta detektibe baten antzera jokatu beharko duzu. Jarraian Aitor Gonzalezen diruzorroan aurkitutako hainbat dokumentu azalduko dizkizugu eta, horietan oinarrituta, zure taldekideekin gertatutakoari buruzko hipotesi bat landu beharko duzu. Ondoren, laneko koadernoko galderei erantzun beharko diezu.

BILBONDO CAPITOL COLISEO ALBIA IDEALES MAX CENTER MUELTINES


PIAT SEICENTO 100 I
 RESTON II + JARDIGUNA + 77 + SET MONTANA, ETC.
 2 GORRION ARABIAZ DUAZ (C/ TIBERZU)
 24 VOTOS DE 1.000 Ptas. para renovar, por favor, etc.

¡sientate premiado!

SERIE BD

Nº 003710

Quando este ticket, presentará en el comercio participante del CIRCULO COCA-COLA válido para todos los roles del Circuito Cottone.

 **Clínica Bidearte**

Aitor Gonzalez
 Medicina General
 I.M.Q.

Bidearte, 9
 Teléfono 449 09 00 48970 BASALRI - Bizkaia

arrigos, puede ser ese tesoro que no se agota nunca. / M. J. O.

¡GRITA! ¡Grita! Orejas, el Desgracia reclutas en

RELATOS DE LO INESPERADO

NARRATIVA CUENTOS SORPRENDENTES
 VARIAS POPULAR MADRID, 1998
 €10 PÁGINAS. 700 PÁGINAS

Conjunto de siete relatos con un objetivo común: asombrar al lector, meta plenamente conseguida. Los temas, personajes y ambientes son muy diversos pero igualmente inquietantes. En Roald Dahl encontramos una original historia contada con humor, la de Max Aab es, sin embargo, romántica e intimista; Carlos Puentes y Cortázar introducen elementos mágicos y misteriosos mientras que Vázquez Montalbán hace una crítica irónica y cruel del consumismo, pero son Elena Llana y Mario Benedetti los que escriben los finales más desconcertantes. Cuentos sorprendentes se lee con avidez y proporciona el estimulante placer que la indiscutible categoría de sus autores hacía esperar. / J. M.

Los silencios la novela de la

NARRATIVA ALCANFES
 MARÍA BARRAL, TRINIDAD LUMIN, BARCELONA, 11

MARÍA JOSÉ OBICO
 HAY UN MOMENTO que el mundo mismo que nos rodea, el mundo que nos abraza y lo uno de los universos, en el excelso Pequeño e intenso puede ser el lugar para trazar sus páginas que María Barral mío Nacional de ahora ha sido trad historia de mundo, cuya memoria, gu quienes la poseen, verdece ante un gesto a la mirada de los c

Oferta para todos los socios:

ESTUDIO DE LA COMPOSICIÓN CORPORAL

50% descuento
 precio 3.000
 ahora 1.500

INFORME ANTROPOMÉTRICO COMPLETO Y SEGUIMIENTO CUATRIMESTRAL

30% descuento
 precio 40.000
 ahora 7.000

Infórmate en recepción.
 Oferta válida hasta el 15 de noviembre

y solo 100 Ptas

LOCAAASS!!! VENIR VENIR
 LOCOOSS!!! VENIR AL

ROCK

CON THE PASOTAS

Tios idemasie' pal cuerpo!
 isera MERVEYE!

28 enero 7 tarde

PROXIMA CITA:

Día: 29 DICIEMBRE
 Hora: 8

Rogamos avise con 24 horas de antelación si no puede acudir a su cita. Gracias.

GINECOLOGIA • ANDROLOGIA • REPRODUCCION

EUSKALDUNA, 10. 4ª PLANTA • TELF.: 410 19 90 • 48008 BILBAO



Data: 1998ko urtarrilak 29

Gaia: Hildakoaren gorpuari buruzko txostena

Erregistro-sarrera: A(sx)/2120/98

Goizeko 5:30etan Iñaki Muruza López jauna, *Bermeo* atoiointziko burua agertu zen polizia-etxe honetan, Libiako banderako *Aig-rams* ontzia portuan sartzeko maniobran kaiko ur gainean gorpu bat aurkitu zutela jakinarazteko. Halaber, ontzia lehorreratu ondoren aduana-ofiziala berehala ohartarazi zutela esan zidan. Honek berehala ekin zion erreskateari portuko urpekaritza-zerbitzuaren laguntzarekin.

6:05etan iritsi nintzen kaira, gorpua uretatik ateratzen zuten unean hain zuzen ere. Gorpua, artean desitxuratu gabea (horrek duela ordu gutxi hil zela pentsarazi zidan), 18 bat urte, garaiera ertaina, ile beltza eta ez luzeegia eta begi ilunak zituen mutil batena zen. Galtza bakeroak, zisne-lepoko jertse marroi iluna eta anorak urdina zituen jantzita. Horrez gain, kremaileraz itxita zegoen gerriko poltsa bat zuen.

Gorpua laster batean Institutu Anatomiko Forentsera lekualdatu zuten autopsia egiteko.

7:20tan urpekariek BI-2012-BN matrikulako, *Bultaco* markako eta «Mercurio GT» modeloko motozikleta bat aurkitu zuten, 150 cm_-koa, gorria. Makinak mailatu bat zuen deposituaren ezker aldean eta atzealdeko pilotua hautsita zegoen. Arreta handiagotz aztertuta, ur azpian ordu asko ez zeramatzala egiaztatu ahal izan zen. Aurkitu zuten lekutik hurbil zegoen kaiko aldea ikuskatu nuen eta ez nuen argibiderik eman zezakeen ezein arrasto aurkitu. Portuko jagoletza-zerbitzuko ei galdetu nien eta portuan sartu zirenen azken motozikletak aurreko eguneko 23:30etan sartu zirela besterik ez zidaten ziurtatu (egunero goizeko 5etan sartzen diren zamaketari ezagunak salbuetsita).

Mutilak zeraman poltsan hainbat objektu eta dokumentu aurkitu zituzten. Hona hemen zerrenda:

- 2.000 pezeta eta txostenari erantsita dauden hainbat dokumentu zituen plastikozko diru-zorro bat.
- Bic* markako pizgailu bat.
- Fortuna* markako tabako beltza, 10 zigarro besterik ez zituen paketea.
- Bizitza osasuntsua eta elikadura makrobiotikoa* izenburuko liburu bat.
- Eroskiko propagandazko boligrafo bat.
- Zigarro-paperen pakete bat.
- Eguzkitako betaurreko batzuk zituen zorro bat.

Kasua Ertzantzak Bilbon duen Buruzagitza Nagusiko Ikerketa Kriminaleko Brigadako komisaria-buruaren esku geratu zenez gero, ez nuen bestelako ikerketarik egin.

Sinatua: Koldo Aretipa Garay
Komisaria-buruak.

Bilbon, 1997ko azaroaren 15ean

Iñaki maitea:

Bi aldiz deitu dizut eta zure anaiak ez zaudela esan dit. Joan den igandean huts egin zenidanetik ez dut zure berri izan.

Aspalditxotik arraro samar ikusten zaitut eta lehen baino kasu gutxiago egiten didazula dirudi. Jaialdiaren egunean esaten saiatu nintzen baina ez nintzen ausartu. Gainera, ia denbora osoan Aitorrekin eta bere emaztegaiarekin hizketan aritu zinen eta ez zenidan inolako kasurik egin.

Zuk ez duzu inoiz Aitor jasan eta arratsalde osoa bere emaztegai «maiteari» eta berari begira egon zinen, horrek ematen dit amorrua. Gainera, emaztegaiak oso modu bitxian begiratzen zidan.

Papera eman zizunean gorde egin zenuen eta ez zenidan erakutsi nahi izan. Zergatik? Zer du paper horrek nik ez ikusteko modukorik?

Iñaki, beti gauza bera errepikatu behar ez dizudala esan nahi dizut, zugatik sentitzen dut baina ez dut horrela jarraitzeko asmorik. Edozertarako prest nago. Ezin dut zure isiltasun hau gehiago jasan. Berehala etxera deituko dizut, hau guztia argitu beharra dut eta. Lotzen gaituzten gauza gehiegi ditugu eta orain ezin dugu utzi, ahaztu ideia bitxi horiek.

Zure zai.

Oraindik maite zaituen

Loli

Jarduera osagarria: kasu batzuk ikertuko ditugu⁴

1. IKASLEEN GAUZAK

Eduardito Albert batxilergoko bigarren kurtsoan dago, hiriko ikastetxe batean. Gaur, bazkarian, gauza asko ditu kontatzeko, ikasgelan ezin susmatuzko gauza bat gertatu baita.

Pakito Perezi ikastetxeko hilabeteko kuota ordaintzeko etxetik zekartzan 200 pezeta desagertu egin zaizkio.

Dena jolas-garaian gertatu da, goizeko lehen eta bigarren orduen artean.

Pakitok maisuari adierazi dionez, berak natur zientzietako liburuan zituen bi billeteak, 91 eta 92 orrialdeen artean.

Klasea irten denean billeteak hortxe zeuden baina itzultzean desagertuta zeuden.

Maisuak, guztiz txundituta, banan bana galdetu die jolas-garaian ikasgelan egon diren guztiei.

Pakito Amoros leihoak irekitzeko ikasgelan geratu da gainerakoak patiora jaisten ziren bitartean. Amaitu duenean, giltzarekin itxi eta giltza maisuari eman dio.

Santi Hernandezek patinak ateratzeko eskatu dizkio giltzak maisuari. Bi minutu inguru egon da.

Santi ikasgelatik patinekin irteten zenean Modesto Tortosa sartu da. Maisuak bidali du argazki-kamera jaso zezan, barruko xasisa errebelatzeko asmoz. Irtetean gela itxi eta giltzak itzuli ditu.

Antonio Ferrizek ikastetxeko irakasle batek zigor gisa agindutako lan batzuk entregatzeko giltzak eskatu dizkio maisuari. Hamar minutu ingururen ondoren itzuli ditu giltzak.

Ikasgelan ez da beste inor sartu.

Maisuaren galderei ziurtasunez erantzun diete denek. Beraien arteko inor izan ez zela zirudien...

Eduardo Albert jaunak bere semearen kontakizuna entzun du, isilik bazkaltzen ari zen bitartean.

Bazkaria amaitzean, Eduardotxo txikiari soluzioa eman dio...

Zein zen soluzioa?

2. NORK HIL ZUEN KAZETARIA?

Goiz hartan lagun batekin nengoen Bartzelona hirian. Goizeko egunkariak, istripu eta gertakizunen atalean, Lorenzo Lopezen heriotza aipatzen zuten. Bere buruaz beste egin zuela zioten. Bere gorpua altuera handi samarreko sakan baten hondoa aurkitu zuten.

⁴ Jatorria: TUDELA, T. (1983): *Teléfono. Detective a prueba*, EDB, Bartzelona.

Lorenzo Lopez oso umore oneko gizona zen. Batez ere, bere bibote nabarmenari buruzko txisteak egitea atsegin zuen (oso harro zegoen bere biboteaz). Kazetaria zen. Bere sinadura hiriko egunkaririk oneneko zutabe baten amaieran agertzen zen egunero. Sarritan kontrabandoari eta zorigaiztokoan esplotazioari lotutako amarru zikinen kontra aritu zen eta horren ondorioz etsai ugari zituen hanpako jendearen artean.

Hil zen gauean, egunero bezalaxe, artikulu bat bidali zuen egunkarira. Irakurleei zuzendutako artikulu bitxia zen, bere buruaz beste egiteko arrazoiak azaltzen zituen bertan.

Besteak beste, ondokoa zioen: «Zuen begiek lerro hauek irakurtzen dituztenerako ez naiz bizirik egongo. Badakit bizitzarekin amaitzea lelokeria eta koldarkeria dela baina, hala eta guztiz ere, neure buruaz beste egitea erabaki dut [...]».

Eta txisteak egiten jarraitzen zuen, gaiari garrantzia kendu nahi izango balio bezala: «Barregarri ikusten dut neure burua, nire bibote beltza aurpegi zuriaren gainean. Eta barregarri ikusten zaituztet —nire gorpua ikustera joango zaretenak—, nahigabe-aurpegiarekin «Zein ona zen!» esanez»

Artikuluaren amaieran, gizartearen gaitzen kontra aritu zenean zuzendu zizkioten adore-hitzak eskertzen zizkien irakurleei.

Polizia ikerketekin hasi zen eta kasuari buruzko txosten mardul samar bat prestatu zuen. Behin, hiriko inspektoreetako bat zen Francisco Fernandezi egindako bisita batean, txostena eman zidan irakur nezan.

Lorenzo Lopez goizeko hirurak aldera hil zen. Hil aurreko arratsaldean ile-apaindegian izan zen eta, gauza bitxia, bibotea moztu zuen. Aurrerago, hamarrak aldera, hiriko taberna batean ikusi zuten Antonio Ochoarekin. Hau gizon susmagarria zen, droga-trafikoan sartuta zegoela uste zen. Eztabaida bizian jardun zuten.

Hamabiak aldera etxean izan zen eta idazmakinan tekleatzen ari zela entzun zuten. Zalantzarik gabe, eguneroko artikulua idazten ariko zen, ordu horretan egiten baitzuen. Ordu bietan etxetik irten zen eta hor galdu zen bere arrastoa. Besteetan bezala, artikulua mutil ezezagun batek utzi zuen erredakzioan.

Poliziak bi pertsonaren susmoa zuen. Bat Antonio Ochoa zen, lehen esan bezala taberna batean Lorenzo Lopezekin eztabaida bizian ikusi zutena. Ez zuen koartadarik. Aitortu zuenez, hamabietatik goizeko zortziak arte bere etxean egon zen. Inork ez zuen sartzen eta irteten ikusi.

Bestea Ricardo Gomez zen, hau ere droga-trafikoan aritzeaz susmagarria. Koartada ona zuen. Ordu bietatik lauetara hiriko ospe txarreko taberna batean ikusi zuten. Artikulua Lorenzo Lopezen idazmakinarekin idatzita zegoela egiaztatu zen.

Hori guztia irakurri ondoren, garbi ikusi nuen soluzioa. Jakina, buru-hiltzearen ideia baztertu beharra zegoen. Poliziak berehala atxilotu zuen hiltzailea...

Zuk ere aurkitzeko gauza al zara?

2.5. DOKUMENTUA. INFORMAZIO-ITURRIAK GIZARTE-ZIENTZIETAN

Mota desberdineko datuak eta informazioak lortzeko balio duten tresnak dira. Zientifikoki eta sistematikoki erabiltzeko, ondoko sailkapena egin da:

a) Iturriak, sortzen direneko *unea* kontuan hartuta, horrela sailkatzen dira:

- *Lehen mailakoak*: hots, ezagutu nahi diren gertakarien une historikoan eta espazioan sortzen diren iturri historikoak. *Publikoak* (hala nola egunkariak, dokumentu ofizialak, literatur obrak, kronikak, kartelak, karikaturak...) edo *pribatuak*, norberarenak zein senideenak (hala nola korrespondentzia, familia-liburua, identifikazio-zedula, NAN, errazionamendu-liburuska, liburuskak militarra, bisa, argazkiak...) izan daitezke. Halaber, eskolako artxibategira jo daiteke eta, bertan, eskola-liburuak, testu zaharrak, argazkiak, irudiak eta baliabideak (abakoa, arbela...) erabil daitezke. Iturri hauen bitartez, gertatutako aldaketez jabetzeko aukera izango da eta, horrela, prozesuaren ideia bat osatu ahal izango da. Beraz, historia hurbilean, iragan hurbilean sartzea ahalbidetzen duten elementu historikotzat har ditzakegu.
- *Bigarren mailakoak*: hots, lehen mailakoak erabilita eraiki eta idatzi direnak. Gure kasuan adibidez, autobiografia lehen mailako iturria da eta biografia berri, bigarrenkoa.

b) Ematen duten *informazioaren* arabera, iturriak horrela sailka daitezke:

- *Iturri ekonomikoak*: herrialde batek, gizarte batek... alderdi ekonomikoei, produkzioari, merkataritzari, industriari, produkzio-sektoreei eta abarri dagokienez une jakin batean duen egoera ekonomikoaren berri ematen dute.
- *Gizarte-iturriak*: une jakin bateko gizarteari buruzko informazioa ematen dute (ohiturak, bizimoduak, estamentuak eta gizarte-klaseak, modak...).
- *Iturri politikoak*: Estatuaren eraketari, gobernuan dagoenari edo txanponetan, dokumentu ofizialetan eta abar hilezkortuta geratu den gertakari edo pertsonaia bati buruzko informazioa ematen dute.
- *Iturri artistikoak*: literatura, musika, pintura, eskultura, fotografia, grabazio eta abarren barruko korrante eta estiloekin zerikusia duten alderdiei buruzko informazioa ematen dute.

c) Iturriak, *euskarriaren* arabera, horrela sailkatzen dira:

Artxibo-motak		Iturri-motak euskarriaren arabera:			
		Idatziak	Ahozkoak eta soinuak	Ikonografikoak eta ikusizkoak	Materialak eta arkeologikoak
FAMILJAKOAK		Gutunak Txartelak Egunkariak Testamentuak Eskola-liburuak Liburuak Aldizkariak Prensa Eleberriak Zine-programak, opera-programak Eskelak Ezkontza eta jaiotzako berri-emateak inskripzioak	Diskoak Senidearteko ospakizunei buruzko zintak Elkarrizketak	Argazkiak Pinturak Filmak Senidearteko ospakizunei buruzko bideoak Telebistako programak Kartelak	Txanponak Eskulturak Erliebeak Erremintak Tresnak Jantziak Oinetakoak Altzariak Eraikuntzak
TOKIKOAK	Erlijosok	* Agiriak: Bataiokoak Sendotzakoak Ezkontzakoak Heriotzakoak		Horma-irudiak	Altzariak Tresnak Jantziak eta oinetakoak Hilobiko hilarriak Eraikinen hondakinak
	Zibilak	* Agiriak: Jaiotzakoak Ezkontzakoak Heriotzakoak		Horma-irudiak	Altzariak Tresnak Jantziak eta oinetakoak Eraikinen hondakinak
	Eskolakoak	Matrikula-erregistroak Eskolako testuak Kalifikazio-liburuak Titulazioak	Grabaketak Eskolako irratiprogramak	Eskolako bideoak Eskolako argazkiak Mapak eta atlasak Munduko bolak	Arropa: Uniformeak Txabusinak Kirol-ekipajeak Altzariak: Idazmahaiak Arbelak Abakoak
	Historikoak	Notario-erregistroak Katastroak Tokiko egunkariak eta aldizkariak Panfletoak Programa politikoak	Grabaketak Irudiak Filmak	Jaietako programak Argazki-bildumak Planoak Banderak Kartelak	Altzariak
MUSEOAK				Koadroak Eskulturak Erreproduktzioak Argazkiak	Jantziak Oinetakoak Tresneria Eraikin-hondakinak
LIBURUTEGIA		Biografiak Autobiografiak Liburuak Hiztegiak Aldizkariak Egunkariak	Grabaketak	Filmak Bideoak Mapak eta atlasak	

2.6. DOKUMENTUA. NOLA EGITEN DA ZUHAITZ GENEALOGIKO BAT?

Zuhaitz genealogiko batek familia baten eta familia hori osatu duen pertsona bakoitzaren historia islatzen du. Egitea neketsua da baina abantaila bat badugu; izan ere, gure estatuan familiako kide bakoitza bi abizenekin (bat aitaren familiakoa eta bestea amaren familiakoa) identifikatzen da eta estatu bakarra da Europan. Orain arte lehen abizena aitarena zen baina, Parlamentuan 1999an lege berria onartu zenetik, aitek erabakiko dute seme-alaben abizenen ordena, hau da, lehen abizena aitarena ala amarena izango den. Desadostasunik izanez gero, aitaren abizena ipiniko da aurretik.


Pertsonaiaren zuhaitz genealogikoa zuzen egiteko, zenbait urrats hartu behar dituzu kontuan:

1. Pertsonaia orriaren erdian kokatu behar da. Horrela bi zati egingo dituzu: goikoa eta behekoa.
2. Aurrekoak, hau da, arbasoak, hurbiltasunean oinarritutako ordena baten arabera kokatuko dira: gurasoak eta aiton-amonak goiko zatian. Behekoan berriz, ondorengoak ipiniko dira, hau da, seme-alabak, bilobak eta birbilobak (baldin badaude). Seme-alaben ordena ezkerretik eskuinera ezartzen da, jaio zireneko ordena kronologikoaren arabera, hau da, seme edo alaba zaharrena ezkerreko lehen laukian ipini behar da.
3. Irudikatutako pertsona bakoitzaren izena eta abizenak jartzeko laukiak diseinatu dira. Lauki bakoitzaren azpian informazio osagarria jasoko da sinboloen bidez, informazioa garbi gera dadin. Aldi berean, aurrekoak zein ondorengoak hobeto ezagutzeko eta familiaren historia eta biografia aberasteko datuak ematen dira: jaiotza-urteak, heriotza-urteak, egindako ikasketak, lanbideak eta abar.
4. Ondorengo kasuan, aztergai den enbor-familia eta ahaidetutako gainerako familiak (hau da, zuzeneko eta politikoa) bereizteko ikurrak ipin daitezke.

Jarraian, adibide gisa, sinbolo batzuk proposatzen dizkizugu:

- Ahaidetasuna: uzeneko familia ○ familia politikoa
- Jaiotza-urtea ()
- Heriotza-urtea (✕)
- Ikasketak eta lanbideak (📖)


.....-(R)EN ZUHAITZ GENEALOGIKOA




()..... ()..... ()..... ().....
 (✂)..... (✂)..... (✂)..... (✂).....
 (📖)..... (📖)..... (📖)..... (📖).....



()..... ()..... ()..... ().....
 (✂)..... (✂)..... (✂)..... (✂).....
 (📖)..... (📖)..... (📖)..... (📖).....



()..... ().....
 (📖)..... (📖).....



()..... ()..... ()..... ().....
 (📖)..... (📖)..... (📖)..... (📖).....

()..... ()..... ()..... ().....
 (📖)..... (📖)..... (📖)..... (📖).....

2.7. DOKUMENTUA. ABIZENEN SORRERA

Abizenak pertsonaiaren familiaren historia ezagutzeko informazio-iturri izan daitezke, sorreraren eta osaeraren arrazoiaren lekuko baitira. Jatorrizko arrazoiaren arabera, abizenak horrela sailka daitezke:

—*Patronimikoak*: aitaren izenean oinarrituta osatutakoak dira. Gaztelaniaz -ez amaiera dute eta ...-(r)en seme edo alaba esan nahi du: Pérez, Martínez, Giménez, Téllez, Hernández, Fernández, Bermúdez... Batzuek amaiera aldatu egin dute (Ruiz abizenak adibidez) eta beste batzuek berriz, arbasoaren izenari eutsi diote, aldaketarik gabe: Martin, Alonso, Hernan edo Ferran, Bermudo.

—*Toponimikoak*: jatorrizko lekua adierazten dutenak dira. Zaharrenak eta ugarienak dira euskaraz: Errekalde, Urkijo... Elementu edo eraikuntzak ere aipatzen dituzte: Etxea, Zubia, Olea, Jauregi, Gaztelu... Gaztelaniaz ere badira adibideak: Casas, Campo, Puente, Castillo...

Batzuek ondokoekin zerikusia dute:

- *Erliebea*: Campo, Landa, Caño, Ríos, Mendia, Sierra.
- *Lekua*: Arriba, Abajo, Goikoa.
- *Landareak eta zuhaitzak*: Ramos, Manzano, Gastañaga, Zumarraga, Pagoaga, Sagasti.

Hauetan oinarrituta beste batzuk sortu dira zenbait aldaerarekin: Etxeandia, Etxeburua, Etxebarria, Landaberri, Zubiaurre, Olabarria, Jauregibeitia, Goikolea, Gikoetxea.

—*Patronimikoak eta toponimikoak*: abizen konposatuak dira, abizen patronimiko berbera zutenen artean bereizketa egiteko sortuak. Bi motatakoak izan daitezke: herrietan oinarrituta sortuak (Ramírez de Olano, Ruiz de Arbulo, Fernández de Landa, Alonso de Linaje, Gómez de las Heras, Otxoa de Etxaguen, Gómez de Cadiñanos, Fernández de Hierro, Ortiz de Elgea, Ibañez de Gauna, Ruiz de Gauna eta abar) eta lekuetan oinarritutakoak (hala nola López de la Puente, Gómez de la Presa, Pérez del Barrio —de arriba, de abajo, de la Iglesia, de en medio—).

Abizen hauetako batzuek, denborak aurrera egin ahala eta hizkuntz ekonomiagatik, zati bat galdu dute eta, gaur egun, jatorrizko abizenaren lehen edo bigarren zatia besterik ez daramate.

—*Ondokoetatik eratorriak*:

- *Lanbidea, ofizioa edo jarduera*: Herrero, Mercader, Carpintero, Caminero, Vaquero, Alcaide, Sesmero, Fraile... Batez ere gaztelaniaz agertzen dira baina euskaraz ere badaude adibide batzuk: Aroztegia, Dendariarena, Damborenea...
- *Estamentua edo gizarte-egoera*: Caballero, Conde, Marqués, Mariscal...
- *Familiaren egoera*: Menor, Mayor, Casado, Gaztea...
- *Goitzenak*: Seisdedos, Cabezon...
- *Jatorria*: Navarro, Navarrete, Franco, Gallego, Vasco de Gama...

- *Ezaugarri pertsonalak:*

- Psikikoak:* Valiente, Lobato, Otxoa, Velasco, Garrido, Bueno, Malo...

- Fisikoak:* Beltza edo Baltza, Negro, Rubio, Mozo, Viejo, Rubiales, Lozano...

Batzuk naturako elementuen izenei dagozkie (Luna, Altozano, Río, Monte...), beste batzuk objektuen izenei (Puerta, Mesa, Atxurra, Cava...) eta badira ekintzei dagozkienak ere (Guerra eta abar).

Abizen batzuen esanahia, familia baten bereizgarria den familiako armarri izenekoetan irudikatuta dago. Abizenaren esanahia eta historia aztertzen duen zientziari heraldika deitzen zaio. Horrela, pertsona batzuen lanbide-jarduera abizenei buruzko azterketak egitea da. Nolanahi ere, egiten duten lana familia guztientzat orokorra eta soilik abizenaren jatorriari buruzkoa da. Familia bakoitzarentzat ez da azterketa partikular bat egiten, oso nekeza izango bailitzateke. Abizenen jatorriari buruzko datu bitxi gisa baliagarria izan daiteke.

Zenbaitek beren abizenaren armarria etxeko fatxadan dute, beste zenbaitek gela nagusiren bateko atearen beiratean, beste batzuek koadroen antzera zintzilik jarrita dituzte eta, azkenik, badira armarria zigiluan (eraztun antzekoa) irudikatuta dutenak.

Datu hauek kontuan har ditzakezu pertsonaia nagusiaren genealogiari buruzko informazio gehiago lortu ahal izateko.

Sakondu nahi baduzu, teknologia modernoek bilaketan lagun diezazukete. Internet adibidez, bilatzaileen edo chat-en bidez beste internauta batzuekin zuzeneko informazioa trukatzeko edo bilatzeko baliagarria izan dakizuke.

Lortutako datuekin, saiatu zuhaitz genealogikoa osatzen. Pertsonaiei buruzko datu interesgarriak jasotzeko eta datu horiek zuhaitzean toki gutxi beteta agertzeko, sinboloak edo laburdurak erabil ditzakezu. Adibidez, abizen konposatuak dituztenen kasuan egin daiteke (hala nola Ruiz de Alda, Ruiz de Mendibil, Ajuriagojeaskoa edo Ruiz de Arbulo).

Familiaren historia

Orain pertsonaiaren genealogiari buruzko zeure produkzioa idatziko duzu, hau da, bere abizenetatik eta familiako kideengandik abiatuta lortutako lehen informaziotik gaur egun arte.

Adibide moduan, hona hemen Nafarroako errege-erreginaren genealogia:

Enekok, abizenez Aritza zenak, bi alaba izan zituen: Asona andrea (Borja eta Terro-roko jauna izan zen Muzaren emazte izan zena) eta Gartzia *Gaiztoaren* emazte izan beste alaba bat. Gartzia Iñigezek [...] (irakurtezina) andrea hartu zuen emazte eta ondoko seme-alabak izan zituen: Fortun Gartzes, Antso Gartzes eta Oneka andrea, Aragoiko Aznar Galindezen emazte izan zena. Fortun Gartzes Oria andrearekin ezkondu zen eta ondoko seme-alabak izan zituen: Eneko Fortunez, Belasko Fortunez, Lope Fortunez eta Oneka andrea, Aznar Santxez Larrongoaren emazte izan zena.

RIU, M eta Erdi Aroko (v-xii. mendeak) bestelako testuen iruzkinetatik egokitua

Testua irakurri ondoren, azaldu jarraian agertzen diren pertsonaien abizenak nola osatu ziren:

Gartzia Iñiguez:
 Fortun Gartzes:
 Aznar Galindez Aragoikoa:
 Eneko Fortunez:
 Aznar Santxez Larrongoa:

Abizenak osatzeko ildo horri jarraiki, zein abizen izango lukete ondokoen seme-alabek?

Eneko Fortunez
 Belasko Fortunez
 Lope Fortunez

Urteak joan ahala, senidetzat hartuko al lukete elkar? Arrazoitu erantzuna.

.....

Nafarroako errege-erreginaren adibidearekin, biografiako pertsonaia nagusiaren genealogia osa dezakezu:

«Izan zen behin pertsona bat, izenekoa,-(e)n sortua eta abizenekoa,-(e)n sortutako eta-(r)en seme/alaba izan zen-(r)ekin ezkondu zena.

Lotura honetatik seme-alaba jaio ziren. Zaharrena, izenekoa,-(r)ekin ezkondu zen, bigarrena, izenekoa,-(e)ra bizitzera joan zen eta bertan-(e)n sortutako-(r)ekin ezkondu zen (eta abar, eta abar).»

(Zerrenda behar adina luza dezakezu, aurkitutako datuek ematen dizuten aukeraren arabera).

2.8. DOKUMENTUA. DENBORA ERE NEURTZEN DA: EGUTEGIA

Noizbait galdetuko zenion zure buruari urteak nola hasten diren kontatzen. Antzinako herri bakoitzak denbora kontatzeko bere modua zuen. Ilargiaren aldietan edo zikloan oinarritzen ziren. Egutegia egiptoarrek asmatu zuten eta historian zehar hainbat aldaketa izan ditu. Lehenik erromatarren eskutik eta, ondoren, kristautasunarekin. Orduantxe egin ziren, hain zuzen ere, aldaketarik handienak, egungo egutegia osatu arte. Kristautasuna hedatu arte, kulturek izaki mitologikoekin eta jainkoekin lotzen zuten egutegia. Horren oroigarri moduan, denok ezagunak ditugun eta egutegiari egitura ematen zioten konstelazioen izenak (horoskopoa) geratu dira. Jainkoak urtaroekin lotzen ziren; adibidez, latindar kulturari Jano jainkosa (izenak ate, hasiera... esan nahi du eta urtarri-lari izena eman zion) aldi batetik besterako igarotzearen babeslea zen. Halaber, Zeres udaberriaren jainkosa zen eta bere omenezko jaiak apirilean ospatzen dira.

Bestalde, egutegi hori osatu gabe zegoen, hilabeteak ilargiaren araberrakoak baitziren, hau da, 28 egunekoak. Erromatarren garaian hainbat ahalegin egin ziren eguzki-urtearekiko desfase hori zuzentzeko. Lehena egutegiari bi hilabete gaineratzea izan zen (urtarrila eta otsaila) eta, bigarrena, hilabete batzuen egun-kopurua handitzea, 29 eta 31 eguneko hilabeteak jarrita (otsaila izan ezik). Azkenik, Julio Zesarren garaian lau urtero urteari egun bat gehitzea erabaki zen. Erromatarren zibilizazioaren hasieran, urteak hamar hilabete zituen eta, kasu gehienetan, egutegian betetzen zuten ordenari zegokion izena zuten.

Halaber, bi hilabeteren izenak aldatu ziren. Horrela, bosgarrenari Julio eta seigarrenari Agosto jarri zieten, Julio Zesarren eta Zesar Augustoren ohorez hurrenez hurren.

Zesar Augustoren garaiko erromatar inperioa nagusi zela, Belenen izandako Jesu Kristoren jaiotza «gure aro kristaua» kontatzeko modu berriaren zero urtetzat hartu zen (+). Une horretatik aurrera, bere jaiotzaren aurreko urteak «K.a» laburdurarekin eta ondorengoak «K.o» laburdurarekin adierazten dira.

Zientziaren eta teknologiaren aurrerapenekin, egutegiak aldaketa batzuk izan ditu doitasun handiagoa lortzeko. Gregorio XIII.a *Handia* Aita Santuaren ekimenpean aldaketa batzuk egin ziren (1532) eta, horien emaitza, gisa, egungo egutegia sortu zen. Egutegi gregoriar ere esaten zaio.

Kristautasuna erlijio-doktrina gisa mundu ezagun osoan zabaldu zenean ezarri zen sistema kronologiko hau. Gaur egun ofiziala da herrialde askotan baina badira beste batzuk, hala nola «urte txinatarra», «aro musulmana» eta ia erabiltzen ez diren beste batzuk (maia, egiptoarra, azteka, judua...).

Arabiar kulturak (adierazpide gisa hizkuntza hori duelako deitzen zaio horrela) egutegi musulmana edo mahomatarra mantentzen du herrialde bakoitzean. Bere zero urtea Mahoma profetak —erlijio musulmanaren sortzaileak— aro kristauaren 622. urtean Medinatik Mekara (bere hiri sakratura) ihes egin zueneko urtea da. Herrialde horietan (Iran, Irak, Libano, Palestina, Jordania, Egipto, Yemen, Saudi Arabia, Arabiar Emirerri Batuak...) egutegi bikoitza erabiltzen da, beren kulturari dagokiona eta mendebaldekoa edo kristaua.

Juduen kulturak, K.a. 1200etik aurrera neurtzen du denbora. Urte horretan hasi zen exodoa, hau da, Moisesek zuzenduta Egiptotik basamortuan zehar Agindutako Lurrera (Palestinara) egindako ihesaldia.

Kultura horietako batekoa izango bazina, nola kalkulatu zenituzke ondokoak egutegi bakoitzean?

	Egutegi kristaua	Egutegi judua	Egutegi musulmana
Sorreraren urtea			
Egungo urtea			

Bigarren Hezkuntzako curriculum-materialen bildumako 17. ale gisa argitaratutako *Euskal Kulturari buruzko unitate didaktikoak* materialean gai honi buruzko jarduera ugari daude, II. Unitate Didaktikoan batez ere: Euskaldunak originalak al gara gure denbora eta jaiak antolatzeko garaian? (95-140 orr.).

2.9. DOKUMENTUA. ARDATZ EDO FRISO KRONOLOGIKO BAT EGITEA

Hasi aurretik:

- Hainbat material eskura behar ditut: papera, goma, arkatza, erregela, errotuladoreak edo koloretako margoak.
- Teknika ezagutu behar dut. Horretarako, hasi aurretik ondoko taula irakurri dut eta, ulertu badut, bigarren irakurketa batean urratsak ematen hasiko naiz eta galdetu egingo dut ulertzen ez dudanean.

Urratsak	Galderak	Informazio osagarria
1. <i>Kokatu beharreko lehen eta azken datak erabakitzea.</i>	—Zein da irudikatu nahi duan denbora-tartea, noiztik noiz arte?	—Ardatz oso bat egin behar bada, K.a 3000. urtetik hasi eta egiten den urtera arte iritsi behar da.
2. <i>Bi data horien arteko urteak kalkulatzeko.</i>	—Zenbat urte dira guztira (K.a urteak eta K.o urteak kontuan hartuta)?	
3. <i>Irudikapena finkatzea (urtea, hamarkada, bosturtekoa, mendea, aroa, milurtekoa).</i>	—Nola kalkulatu dira matematikoki neurria eta neurketa-unitatea?	—Denboraldi luze bat irudikatzeko, espazioan txikia den irudikapen bat eta urte-kopuru handia biltzen duen izen bat (milurtekoa, aroa...) erabiliko dugu. Kontrako kasuan aldiz, urtea, hamarkada edo bosturtekoa erabiliko dugu.
4. <i>Espazioa mugatzea: bi lerro zuzen paralelo marraztu behar dira eta, ondoren, neurtu eta emaitza idatzi beharra dago.</i>	—Nola irudikatu urteei eta gertakizunei dagokien espazioa?	—Orria horizontal ipini behar da (zabalera handiagoa hartzeko) eta, erregelaren eta arkatzen laguntzarekin, elkarren artean 1 cm-ko distantzia izango duten bi lerro paralelo marraztu behar dira.
5. <i>Lerro paraleloak elkarrekiko paralelo egongo diren beste lerro elkarzuzatuz zatitzea, distantzia berdinetan.</i>	—Lehenik zatiketa zabal egiten da azpizatu ahal izateko. Trazuak lerro paraleloetatik apur bat irtenda geratzen dira.	—5 cm = milurtekoa, 1 cm = 200 urte, 0'5 cm = 100 urte —Zatiketa hauen emaitza termometro antzeko bat izango da.
6. <i>Tarte handi bakoitza zatitzea.</i>	—5 cm-ko tarte bakoitza 0,5 cm-ko (100 urte) tarte berdinetan zatitu behar da.	—Zenbakera ipintzen da.
7. <i>Milurtekoak zenbakitzea.</i>	—Nola orientatuko naiz?	—Hasieran K.a. 3000. urtea eta amaieran K.o. 2000. jartzen da.
8. <i>Aro historiko bakoitzaren iraupena dagozkion urteekin erlazionatzea.</i>	—Aurreko lerro paraleloetatik 2 cm-ra, 1 cm-ko bereizketako 2 lerro paralelo ipini behar dira.	—Aro bakoitzaren hasiera eta amaiera kontuan hartuta, bakoitzari kolore bat ematen zaio.
9. <i>Data ipintzea.</i>	—Dituzun datak gutxi gorabehera non koka ditzakezun kalkulatu behar duzu.	—Data bakoitza dagokion lekuan ipini behar da.

2.10. DOKUMENTUA. NOLA EGIN KRONOLOGIA BAT KONTAKIZUN BATETIK ABIATUTA?

Kronologia bat kontakizun batetik abiatuta egitea erraza da. Kronologia bat egiteko, aipatu nahi diren gertaerak denboran ordenatuta idatzi behar dira. Gertaerarik zaharrene-tik hasi eta berrienarekin amaitu behar da.

- Urtea eta, beharrezkoa izanez gero, hilabetea edo eguna, ongi ikusteko moduan ipini behar dira.
- Gertakariak hobeto aurkitzeko, hamarkada bat hasten deneko urteak adieraz dai-tezke (adibidez 1910, 1920..., edota «hogeita hamarreko hamarkada», «berro-geiko hamarkada»...).
- Kasu hau istorio pertsonal bat denez gero, bizitzako etapak adieraz ditzakegu (adibidez haurtzaroa, gaztaroa, helduaroa, zahartzaroa).
- Kontakizunean data adierazita duten gertaerak idatziz jaso behar dira. Urtea ezke-rraldean ipintzen da eta iraganeko une batean kokatzen gaitu (nahiz eta aditza orainaldian jokatu).
- Perpasek ez dute subjekturik; izan ere, gaiaren batasuna mantendu egiten da (zure kasuan: *aukeratutako pertsonaia*) eta informazio berria gaia horrekin lotzen dugu.
- Adibidez, Frank McCourt-en (*Angelaren errautsak* liburuaren autorearen) biogra-fiaren kronologia horrela has daiteke:

HAURTZAROA ETA GAZTAROA

19 ...-(r)en jaiotza

19...

Berrogeiko hamarkada

19 ... egiten hasten da

- Ez da beharrezkoa kontakizunean data duten gertaera guztiak jasotzea, asko dau-denean batez ere. Lanerako interesgarrienak diruditenak hautatzea komeni da.
- Zenbaitetan, data adierazita ez badago ere, erraz kalkula daiteke arretaz irakurriz gero (adibidez, «handik bi urtera», «hamalau hilabete igarotakoan»... esan de-zake). Komeni da arretari eustea datu interesgarriak ez galtzeko.
- Kronologia eginda dagoenean, gertakariak denboran kokatzeko teknika praktiko samarra dela egiaztatuko dugu. Gertakarien denborazko antolamendu hau lagun-garria izango zaigu beste modu batean bururatuko ez zitzaizkigukeen argibideak bilatzeko.





2.11. DOKUMENTUA. NOLA LANDU JOAN-ETORRIEN MAPA BAT?

Jarduera honen bidez, biografiako pertsonaia jaio eta bizi izan zeneko lekuei dagokien atala osatu ahal izateko informazioa lortuko duzu. Agian zure pertsonaia ez zen jaio zen lekutik irten. Baina pertsona batzuek, ikasketak, lana edo familiari lotutako hainbat arrazoirengatik bizilekua aldatzen dute.

Dagoeneko badituzu nortasun-agiritik ateratako datuak, jaio eta bizi izan zeneko lekuei buruzkoak hain zuzen ere. Atala osatzeko, informazio gehiago lor dezakezu eskola-liburuetan, familia-liburuan eta iraungita dauden pasaporteetan (duela gutxi arte ezagututako herrialde guztiak islatzen ziren).

Mapa egiteko prozedura:

- Desplazamenduen mapa bat egitea lan zientifikoa da neurri batean eta lan artistikoa bestean. Mapak dagokion informazioa eman behar du, argi eta garbi gainera. Halaber, ikusteko erakargarria izan behar du.
- Hasteko, pertsonaia bizi izan zeneko lekuen zerrenda egin dezakezu; interesgarriak eta beharrezkoak badira, bisitatutako eta bidaietan ezagututako lekuak barne har daitezke.
- Leku horiek guztiak barne hartuko dituen mapa bat lortu behar duzu. Mapa-mota aurreko zerrendan adierazitako lekuen arabera izango da.
- Jarraian, kronologia kontsultatu eta kontakizuna berriz irakurri ondoren eta atlas edo hiztegi entziklopediko baten laguntzarekin, zure pertsonaia zein lekutan bizi izan den adieraz dezakezu.
- Komeni da joan-etorriak datekin adieraztea, irteera-data eta helduera jasota. Era berean, leku horiei kolorea eta izena ipin diezaiekezu.
- Mapa pertsonaiak ezagututako lekuekin osatzeko, leku horiek beste kolore edo ikur batez adieraziko dituzu. Bidaiak edo bisitaldiak kronologikoki zenbakien bidez ordenatu beharko dituzu.
- Azkenik, ez ahaztu mapari errotulua ipintzeaz eta erabili dituzun zeinu konbentzionalen esanahia adierazteaz. Hau ezinbestekoa da mapa ulergarria izan dadin.

Legenda	
	Arrazoa: ikasketak
	Arrazoa: lana
	Arrazoa: familiakoa
	Arrazoa: politikoa

JOAN-ETORRIK ESANGURATSUENEN ZERRENDA					
	Lekua	Arrazoia	Irteera	Helduera	Bestelako datuak
1.					
2.					
3.					
4.					
5.					
6.					
7.					
8.					
9.					

Desplazamenduen mapa eginda duzunean, jaso pertsonaia bizi izan zeneko lekuei eta joan-etorrien arrazoiei buruzko informazioa gertatutakoa hobeto ulertzeko. Zenbaitetan pertsonaia txikia eta data zehaztugabea izan daiteke baina aurreko atalean ikusi duzun bezala, hainbat erreferentzia hartuta kalkula dezakezu (adibidez, jaiotzaren urtea: «hiruzpalau urte izango nituen [...] arrazoiarengatik [...]-(r)a bizitzera joan ginean. Bertan [...] urte bizi izan ginen, [...] arte).

Txosten txiki hau egitean, ez ahaztu ondoko alderdiei buruzko datuak eta informazioak barne hartzeaz:

- Zein asmorekin egin zituen bidaiak? Nahi zuenerako behar bezain prestatuta al zegoen?
- Zein garraiabide erabili zituen bidaiak egiteko? Interesgarria da bidaiak nola egin zituen ezagutzea, bai joatean, bai itzultzean, garraiabideek aldaketa handiak izan baitituzte pertsonaiaren bizitza osoan. Itzulera modu berean ala beste batean egin zuen? Zein beste modutan?
- Saiatu bidaiaren izandako bizimoduari, bidaiaren zirkunstantziei (nolakoak ziren ekipajea, atsedean eta hornikuntzarako lekuak, segurtasun eza, ezustekoak, pasadizoak, bisitatutako lekuetan ikusitakoa, zirrarak handiena eragin zion gauza eta abar) eta berak duen oroitzapenari buruzko informazioa lortzen. Zer sentitzen du bere bizitzako garai hau gogora ekartzen duenean: nostalgia, malenkonía, tristura?
- Bidaia hauek bakarrik ala beste norbaitekin egindakoak izan daitezke. Norekin? Senideekin, lagunekin, ezezagunekin...? Norekin adiskidetu zen?
- Nolako egonaldia izan zuen leku horietan (etxebizitza, lana, aisialdia, familia, lagunak eta abar)? Nola bizi izan zuen senide eta lagunaren gabezia eta urruntasuna? Nola mantendu zuen senide edo lagunekiko harremana eta nola bete zuen haien gabezia gertakizun jakin batzuetan (heriotzen edo jaiotza berrien kasuan adibidez)?
- Jaio zeneko lekutik inoiz irten ez bada, saiatu bidaiak egiteko zein proiektu dituen edo zein leku ezagutuko lituzkeen jakiten.

2.12. DOKUMENTUA. EGUNEROKO BIZITZA

Documentua 2.12.1. Dantzak

«Denbora-tarte libreak betetzeko modurik ohikoena edari-establezimenduetara joatea zen, hogeita hamarreko hamarkadako Euskal Herriko lagunartekotasun-espazio nagusiak baitziren. Garai hartako euskaldunak ez ziren, Europako beste alde batzuetan bezala, edale bakartiak; aitzitik, edatea lagunak egiteko eta mantentzeko modu bat zen beraientzat [...]. Herrietan eta hirietako parte zaharretan eta langile-auzoetan taberna edo kantina tradizionalak zeuden artean, txikiak eta gaizki argizatuak, aldi berean taberna, ostatu, jatetxe merke eta solasaldirako leku zirenak. Establezimendu hauetan, herritar xumeek gehien atsegin zituzten gauzak ardoa eta musa (bertakoa eta Euskal Herrian oso errotua) ziren» (item 97 or.).

«Taberna eta kafetegiekin batera, hiri handietan dantza egiteko lokalak (“dancing”, “concert” edo “kabaret” izenekoak) modan jarri ziren. Kolore anitzeko argi elektrikoak zituzten kartelen bidez iragartzen ziren eta edariak zerbitzatzen zituzten» (item 99 or.).

«[...] Logikoa den bezala, tabernak oso beteta egoten ziren jaiegunetan. Ondorioz, gobernadoreek establezimenduek ixteko zuten mugako ordua atzeratzen zuten batzuetan» (item 104 or.).

«Era berean, hirietako kale eta parkeetan zehar paseatzea arratsaldeak eta asteburu laburrak betetzeko beste modu bat zen, XIX. mendekoa hau ere. Horrela, kalea lagunartekotasun-espazio garrantzitsu bihurtu zen. Hiri bakoitzean paseatzeko eremuak zeuden eta gizarte-klaseen arteko desberdintasunak errespetatzen zituzten» (item 101 or.).

Urteak joan ahala ordea, egoera aldatu egin zen.

«Hirurogeiko hamarkadan ongizateak gora egin zuen eta gartsuki gozatu zen igarotako urte txarren ordaina jasotzeko. Hau guztia etheen ekipamenduan, automobiletan, jantzietan, bidaietan eta abar agertzen da batez ere.

Erdi-mailako klaseko familiak igandetan eta jaiegunetan hiri handiko inguruetan ibilaldi bat egitera irteten dira. Batzuk urbanizazio batean asteburuetarako erositako lursailera joaten dira eta, bertan, etorkizuneko landetxeari buruzko ametsak taxutzen dituzte (oraingoz urrun samarrak, eraikitzeke aurreztu egin behar baita). Beren lehen jabetzako lur horietan mahai eta aulki zabalgarriak ipini eta patata-tortilla, piper-entsalada eta xerra birrineztatuak jaten dituzte, ardo beltz eta gaseosaren laguntzarekin.

Amek artean josten erakusten zieten alabei, lehen irakaskuntza amaitzen zutenean bereziki. Izan ere, aurrezteko modu bat zen eta, aldi berean, dotore-dotore janzteko». (AA.VV.: *La vida cotidiana en los años sesenta*, Ediciones del Prado).

Documentua 2.12.2. Herriko jaiak

«Herrietan udaberrian edo udan ospatu ohi ziren herriko zaindariaren omenezko jaiak. Jai-egitaraua hirietakoa baino mugatuagoa zen. Herriaren tamainaren arabera izaten ziren: meza, suziriak, *biribilketa*, estropadak, dantza eta erromeria herrikoiak.

Erromeria tradizional horietara herriko jendea, herri mugakideetako eta zenbaitetan hirikoa joaten zen [...]» (item 107 or.).

«Inauteriak gainbeheran zeuden hirietan hogeiko hamarkadatik aurrera. Neurri batean, gainbehera hau Udalak inauteriak antolatzeko modu txarraren eta gutxienez 1924. urtetik jai hauek zituzten debekuen (hala nola mozorroa edo karatula eramatea, kaletik konfetiak botatzea edo txukuntasunaren, gobernuaren edo erlijioaren kontrako moduan mozorrotzea) ondorioa izan zen. Aitzitik, herri askotan inauteri tradizionalak indarrean zeuden erabat. Hainbat egunetako iraupena zuten eta dantzak eta bestelako dibertimenduak egoten ziren, garizumako egunen zorrotasunagatik justifikatuak. Egun horietan, ez zen dantza egiten, ez eta musika-instrumenturik jotzen ere» MAS (item 109 or.).

«Oro har, jaien barruan, zezenketak ikuskizunik garrantzitsuenetakoen artean kokatzen ziren, hogeita hamarreko hamarkadan zezen-zaletasuna oso errotuta baitzegoen Euskal Herrian. Hirietako korridetara, bigantxetara eta herrietako jai batzuetan izaten ziren *sokamuturretara* jende asko joaten zen. [...] Zezen-ikuskizunak herri bakoitzeko jaietan izaten ziren» (item 105 or.).

«Hogeita hamarreko hamarkadan oso garatuta zegoen beste ikuskizun bat zirkoa zen. Herriko jaietan batez ere, pailazoak, jauzilariak, orekariak, amazonak, animalia exotikoak eta beren hezleak eta abar barne hartzen zituzten funtzioak eskaintzen zituzten» (item 106 or.).

Documentua 2.12.3. Haur-jolasak

«Logikoa den bezala, hurrek ematen zuten denbora gehien jolasean. Garai hartako jolasen ugartitasun handia —horietako asko urtaro jakin batean egitekoak— fabrikako jostailuen gabeziaren ondorioa zen, jostailu horiek familia dirudunen haurren esku besterik ez baitzeuden. Jolas gehienetan tresna naturalak, egokituak ala egokitu gabeak eta oso merkeak erabiltzen ziren. Hona hemen batzuk: *Anton-Pirulero, astoarena, korroa, txorro-morro, ezkutaketa, begiak estalita, kinkinean, iturriak edo txapak, trukemea eta abar*, bai eta harrapatzeko jolasen aldaera guztiak ere (*poliziak eta lapurrak, katea, katea eta sagua, karaba eta abar*). Beste jolas batzuk berriagoak ziren eta gehienek merkatuan erosi beharreko elementuak behar zituzten; hala ere, denentzat eskuragarriak ziren (*puxtarriak, zirindola, kromoak, diaboloa, antzara-jokoa, loteria, dadoak, ziba, goitibera, futbola eta pospolo-kaxen bildumak egitea*)». (Ondoko obratik egokitua: Santiago DE PABLO: *Trabajo, diversión y vida cotidiana. El País Vasco en los años treinta*, 111-112 orr.).

Documentua 2.12.4. Otorduak

«Hogeita hamarreko hamarkadan jadanik ohikoa zen hiru otordu egitea (gosaria, bazkaria eta afaria), eta zenbait kasutan (lan-ordutegiaren, urte-sasoia, adinaren eta

eskualde bakoitzeko ohituren arabera) hamaiketakoa eta merienda ere egiten ziren. Ordutegia asko aldatzen zen, urte-sasoaren eta ekonomia-jarduera ezberdinen arabera. [...].

Gosaririk ohikoena kafea (zenbaitetan malta edo txikoria) edo kafesnea zen, eta ogia.

Eguerdiko bazkaria, Espainia osoan bezala, oparoena eta hobekien prestatuena zen. [...] Ohikoena eltzekoa zen, babarrunak, patatak eta txerriarekin (urdaia, txorizoa eta odolkia). [...] langile-familiak ezin zuten elikagaietan gastu handirik egin, eta janaria ia beti berdina zen: ogia, zopa, patatak, lekaleak (batez ere babarrunak eta garbantzuak), txorizoa, arrautzak edo urdaia (familia pobreetan, haragiaren ordezkoa) [...] Langabeteak, adibidez, beren elikadura osoa ogia eta patatan oinarritzen zuten.

Hiriko jende aberatsaren dieta zabalagoa zen: zopa, eltzekoa, porrusalda, arraina (legatza, bisigua, sardinak), patatak, frutak (batzuk Euskal Herri kanpotik ekarriak, adibidez bananak edo laranja), arrautzak, haragia eta itsaskia ere (batez ere zigalak) [...]. Haragia familia aberatsek bakarrik jaten zuten, eta langile-familiarentzat ia eskurazina zen (idem 54. or.).

Merienda oso otordu arrunta zen haurren artean. Helduen artean, aurreko hamarkadetan asko zabaldu zen, batez ere biztanleria-sektore jakin batzuetan. Batez ere udan egin ohi zen, arratsaldea luzatu eta afaria atzeratu egiten zirelako, eta helduek ardoa eta ogia lukainka, tortilla edo sardinekin meriendatzen zuten.

Afaria, hogeita hamarreko hamarkadan, familia-bilera zen (telebista agertu zen arte, horrek benetako haustura ekarri baitzuen), eta eguerdiko bazkaria baino askoz arinagoa zen» (idem 55. or.).

Documentua 2.12.5. langilearen egoera xx. mendearen hasieran

«Industria handietako langileek (gizona, emakumea, haurra) lan egiten zuten guneak normalki osasungaitzak ziren, 12 eta 14 ordu bitarteko lanaldia betetzen zuten oso soldata txikiaren truke, eta elikatzeko lekaleak, patatak eta ogia besterik ezin zuten erosi. Elikadura desegokiaren eta ordu asko lan egitearen ondorioz, oso bizi-maila baxua zuten, erraz gaixotzen ziren, eta gehienak analfabetoak ziren, familiaren egoerak ez baitzuen haurrak eskolara bidaltzeko aukera handirik emnaten, eta ondorioz lanean aurrera egin eta hobetzeko aukerak oso txikiak ziren.

Gerra zibilaren ondoren egoerak okerrera egin zuen, berrogeiko hamarkadan lanaldia 40 ordutik 48 ordura pasa zen ofizialki, eta gerra aurretik indarrean zeuden soldadak ezarri ziren, baina langileek ordu gehiago lan egiten zituzten gerra-errekuperazioko kontzeptupean. Egunero bi ordu gehiago lan egitera behartzen zituzten, inolako dirurik kobratu gabe.

60ko hamarkadan aukera berriak sortu ziren landako langileentzat, eta industriaren eta zerbitzuen garapenak landatik kanpoko lanpostu-eskaintza handiagoa ekarri zuenez gero, landatik hirirako emigrazioa handia izan zen. Jende askok ekonomikoki hedatzen ari ziren Europako beste herrialdeetara ere emigratu zuten (*Batez ere Alemania, Frantzia eta Suitzara*)» (339. orrialdeko *PRAXISA*).

Documentua 2.12.6. Historiarako ogibideak

Bere bizitzan zehar «garapena» deitutakoa gertatu da, pertsonak egiten zuten lanean oinarritutako ekonomiatik. Sistema ekonomiko honetan animalia batzuen eta gaurtik ikusita oso primitiboak iruditzen zaizkigun zenbait makinak laguntza zegoen. Artisan-lanetik serie-ekoizpena iragan da; eta honekin batera elikagaien babesean, publizitatean, nazioarteko merkataritzan... gertatutako aurrerapenak lagundu dute nahien, ohituren eta orohar kontsumoaren aldatzen.

Gaurko ohiko bizimodua ez da lehenen modukoa. Gure pertsonak atzera begiratzekoan malenkoniaz sentituko da antzematean ogibide batzuek oroimenean baino ez direla geratzen. Batzuetan forma berdinak erabiltzen jarraitu dute baina produktua ordezkatu egin da; adibidez, gaurko elikagaiak (izozkiak, *goffreak*, saltxitxak edo *hot-dogak*...) saltzeko egokitutako ibilgailuek *barkillariak* ordezkatu dituzte. Horiek lehen beren zilindroa lepoan zeramaten, barkillo kirrikatsuz, kukurutxuz eta kandelez beterik. Bonboaren estalki biribila zenbakiz hornituta zen, non jaurtialdia ordaindu eta gero haurrek aproba egiten zuten.

Etxeko hondarrak arazo larri bihurtu dira bildu eta birziklatzeko. Zure gurasoan eta aiton-amonen garaian arazo hori txikiagoa zen, alde batetik gutxiago kontsumitzen zelako. Erostea ahalmena txikiagoa zen eta tresnak, jantziak eta abarrak gehiago baloratzen eta babesten ziren. Baina, beste aldetik, sukaldean zegoen txapara beroa sor lezakeen gauza guztiak botatzen ziren: paperak, kartoiak, trapuak... erabiltzen ziren egurra eta ikatz-mota desberdinak erretzen laguntzeko. Zabor bilketan eta birziklapenean *txatarrariak*, *bizkarkariak*, *trapu-saltzaileak*... laguntzen zuten. Horiek ijitoak edo pertsona ibiltariak ziren eta kaletik oihukatzen zuten: *trapero*, *lanero*, *chatarrero*. *Se compran lanas, trapos, hierros [...] piltzarkaria, ilagina, txatarraria. Artileak, trapuak, burdinak erosten dira [...]*.

Parketik edo hondartzatik paseiatzen gaur desagertu den pertsonaia ikus zitekeen, *argazkilari ibiltzailea*. Nola egin eta errebelatzea zezakeen argazkia ia bat-batean gaurko tresna modernoak eduki barik!

Eta zer esan dezakegun arroparen egite eta eraldatzearekin erlazionatutako lanbide batzuetaz. Tradizionalki *alkandorariak* eta *atorrariak*, *jostunak*, *modistak*, *prakaginak*, *bordatzaileak* eta antzekoak emakumeak ziren. Egun ospe handiko talde txikira edo auzuneko bezeria txiki batera murriztu da, batez ere «*prêt-à-porterak (prest eramateko)*» eta lantegiek eskulan hori ordeztu zutenetik.

Arroparen garbiketa lehen *ikuzleak* egiten zuten, eta bere zaintzaz *sareztatzaileak*, *litsatzaileak* eta *tindalariak* arduratzen ziren. Oraintsu, industri ikuztegiek eta garbiketa zerbitzu desberdinek eskulan hori ordezkatu dute.

Salmenta ibiltaria, etxez-etxez, bai elikagaiena (txorizoak, urdaia, ezta...) bai jantzeko, ohe- eta mahai-arroparena, aldatu da. Saltzaileak azoka txikietan biltzen dira astero. Gurdia eta zamarien ordez ibilgailu egokituak eta furgonetak dituzte. Hau da, Erdi Aroan ezagutzen ziren asteko azoketara eta ferietara itzuli egin da.

Lanbide zahar horietako batzuk orain asko kotizatzen dira. Kasu honetan daude *emaginak* edo aintzinako *hagin-ateratzaileak*, oraingo odontologoak.

28 EL CORREO DEL EMPLEO

EL CORREO DOMINGO, 7 DE NOVIEMBRE DE 1999

Oficios con historia



Trabajadoras especializadas en la preparación de anchoas en salazón, hace 100 años. En primer término, barriles sicilianos.

■ Barrileros y lateros ■

Los primeros conserveros

La conservación del pescado antiguamente se realizaba en barriles para posteriormente pasar a trabajar con vidrio y en los últimos años con las latas que actualmente se conocen

La invención del tonel supuso un avance fundamental para el hombre, pues permitió garantizar en buenas condiciones los más diversos bienes, sobre todo alimentos, así como facilitar su transporte, al poder hacerlo rodando. Solo recientemente las tecnologías han logrado su sustitución, sin que pueda afirmarse que el consumidor se haya beneficiado con el cambio.

La producción de toneles de todas clases y tamaños exigía el dominio de técnicas complejas, lo que obligaba a un largo proceso de aprendizaje, que se transmitía de padres a hijos. Durante siglos, esta actividad dio empleo a un gran número de artesanos.

En nuestro país las latas nacieron con gran importancia hasta hace unos setenta años, construyéndose desde los bueyes grandes, de unos 4-60 litros, hasta las medias pipas, de 400 y sobre todo, a partir de la década de los 40, los de capacidades entre 100 y 200 litros para conservar vino, aceite, sidra y chacolí, entre otros líquidos. Sobre todo en los grandes centros urbanos y en las cercanías de las albuferas, se desarrolló

una notable actividad en la reparación de toneles.

Una especialidad del oficio de tonelero fue la fabricación de barriles para la exportación de anchoas, lo que se llevaba a cabo, principalmente, en la costa. A los artesanos dedicados a estas tareas se les conocía como barrileros.

En salazón

El carácter cíclico de las capturas y la escasa posibilidad de su mantenimiento en condiciones adecuadas, reducía fuertemente la importancia de la pesca. La situación mejoró

espectacularmente con el salazón y, sobre todo, con el descubrimiento de Nicolás Appert, en los primeros años del siglo XIX, de la posibilidad de conservar alimentos en recipientes cerrados durante largos periodos de tiempo sin que se deterioraran.

Los sicilianos llegaron al País Vasco, a fines del siglo pasado, al descender las capturas de anchoa en su país y, conocedores de la importancia que tenía en la costa cantábrica, trajeron la tecnología para la conservación de anchoas en salazón, que también se ha utilizado para el bacalao y la sardina.

La época de pesca de la anchoa

en nuestra costa abarca de marzo a junio de cada año. Su proceso de transformación sigue manteniendo las características tradicionales. Nada más llegar la pesca a la empresa especializadas, se la trata con sal y un poco de salmuera previamente preparada. La operación se lleva a cabo en toneles de unos 300 litros, llamados *tiakak* en Bermeo y duran unas 8 ó 12 horas. Su objeto es deshidratar la anchoa, que desprende agua y anhela salmuera. A continuación se procede al descañado, eliminando, al propio tiempo, las vísceras, para clasificarlas según su tamaño. El empaque se realiza manualmente y entre ella y ella, se añade sal. La operación final es el cierre de los barriles mediante una tapa de madera, previo añadido de salmuera, cubriendo el barril normalmente una piedra. Tras unos meses de reposo la anchoa adquiere su clásico olor y sabor.

A pesar de que las capturas de anchoa están registrando un descenso sustancial, su elaboración y venta, sobre todo exportación, siguen teniendo una notable importancia y unas preocupantes perspectivas.

Las anchoas en salazón requirieron la construcción de barriles de madera, oficio de notable complejidad que precisaba un aprendizaje de entre tres y siete años, y que los italianos fueron transmitiendo a nuestros mayores.

La primera operación en la fabricación de cada uno de los duales, llamadas *costillas*, adaptadas al tamaño

de cada barril y en las que el logno de la curvatura adecuada es fundamental, lo que impide la utilización de planchas. El montaje del barril se inicia colocando las duelas en el interior del aro, siendo el mejor, según los pocos barrileros que quedan, el de San Pedro de Elghibar obtenido con carbón vegetal.

Vidrio y latas

La introducción del aro central y, sobre todo, el cabeceero, debían ser operaciones precisas pues su correcta ejecución influye en la calidad del barril. El saber popular recogía los

dificultades de estas operaciones en el dicho: «El diablo no se hizo tonelero por no colocar el aro cabeceero».

Construido el cuerpo se utilizaban moldes de hierro para formar el barril y se hacía la ramera o argolle, que permitía la sujeción de las tapas, que tenían que adaptarse en cada caso, llamándose la superior *testa* y la inferior *forado*. Se utilizaba un notable número de herramientas que se conservan gracias al Museo del Pescador de Bermeo.

Hasta principios del siglo pasado la conservación de los alimentos se había resuelto, principalmente, por medio del ahumado y el salado, que

se ensaban en barriles de madera pero, en 1810, el francés Appert culminó con éxito los primeros ensayos para la conservación de productos en envases de vidrio cerrados herméticamente y pocos años después siguió con el primer recipiente metálico. Cobi, también francés, en 1823 siguió con este procedimiento para envasar sardinas. A partir de esta fecha, el envasado en latas metálicas herméticas fue sustituyendo, progresivamente, a los sistemas anteriores. Desde el inicio de su fabricación y durante muchos años, las latas se construían en la misma fábrica de conservas.

Publicidad

El primer fabricante de hoja de lata en nuestro entorno fue La Iberia en 1800, seguida, dos años después por La Basconia, quien dio un impulso importante a su producción. En su preparación para la construcción de envases metálicos destinados a la conservación del pescado fueron líderes empresas como Ricardo Recheb o Barrenechea y Goñi, que sigue en esta actividad.

Hay que destacar la impresión de la hoja de lata, para lo que era necesaria la preparación de la piedra litográfica, en la que había que grabar, a buril, el dibujo informativo y publicitario que se deseaba apareciera en los envases. Esta operación, de extrema complejidad, exigía artesanos muy expertos, de una gran competencia profesional. Tras las pruebas con el llamado *papel peruse* se procedía al litografiado de la hoja lata, para su posterior uso en tiras.

Su tarea consistía con el corte de las tiras por medio de citalas. Posteriormente se curaba y se le sacaban solapas, utilizando sencillas máquinas y útiles. La unión de los dos extremos se efectuaba soldándolos con estaño. Hasta tal punto era artesanal el oficio que el propio latero precisaba fabricarse el mismo el martillo estañador, a partir de trozos de cobre de buena calidad.

Las tapas se obtenían cortando planchas, con sencillas prensas manuales o del tipo tornillo sin fin. La unión de éstas con el cuerpo y su cierre definitivo se efectuaban, también, utilizando una máquina de accionamiento manual.

Debido a que el enlatado se inició y desarrolló en Francia, las máquinas y útiles para la elaboración de envases metálicos fabricados en este país tuvieron una presencia importante, sobre todo en Galicia. Pero en nuestra costa influyó la experiencia riojana, así como la propia, destacado Sosne, de Euzarid.

Aunque actualmente existen máquinas automáticas, las manuales se siguen utilizando para pequeñas series y gran de

aprecio entre los conserveros de nuestro país. A partir de 1945, aproximadamente, al mejorar los medios de transporte y

automatizarse la fabricación de envases, las latas llegan mortadas a las fábricas de conservas, habiendo desaparecido todo el proceso artesanal que requiere su construcción. Aunque la función tradicional del latero ha desaparecido, en algunos casos, se mantiene esta figura como supervisor de la ejecución y cierre de los envases de pescado.

Carmelo Urdangarin

El latero tenía que fabricarse el mismo el martillo estañador, a partir de trozos de cobre

28 NUEVO TRABAJO OFICIOS CON HISTORIA

EL CORREO DOMINGO, 17 DE MAYO DE 1998



Un sacamuelas interviene en plena calle rodeado de un grupo de personas mayores y niños.

■ Sacamuelas y sustancieros

Entre dentaduras y pucheros

El hombre ha logrado tradicionalmente los productos que ha necesitado de la tierra y el roar, y otros de talleres artesanales. Pero siempre ha costado con terceros que le prestaban las más variadas ayudas. Con el paso del tiempo, estos últimos, englobados en ese cajón de sastre que llamamos servicios, han pasado a ser más numerosos que los primeros. En la literatura y los documentos gráficos del pasado son frecuentes las referencias a numerosas actividades de este tipo. Entre ellas destacan las de vendedores ambulantes de los más variados productos y servicios que, por sus conocimientos o habilidades, resultaban imprescindibles.

Entre los mismos se incluyen los sacamuelas, tarea ejercida por charlatanes antes que por los barberos, hasta que fueron sustituidos por profesionales preparados para el oficio.

Menos conocida es la figura del sustanciero, que, en posesión de diversidad de productos con sustancia, recorría los pueblos ofreciendo sus servicios a los que no tuvieran remedios más nutritivos.

EN UN CARRO

Hay referencias de los sacamuelas ambulantes desde el siglo XVIII. Fue un oficio practicado entre nosotros hasta épocas relativamente recientes, lo que no deja de resultar sorprendente, ya que Pierre Fauchard (1678-1761) es considerado el fundador de la cirugía dentaria como profesión independiente y el primero en dedicarse enteramente al cuidado de

Extraer muelas en un carronato en plena plaza pública y recorrer las calles con tocino en un palo para dar sabor a los guisos son dos actividades que retrotraen a una época de penurias.



Un sustanciero descansa en las afueras de un pueblo de los Pirineos.

los dientes. Sin embargo, hay que esperar hasta 1840 para que un hospital de Baltimore pusiera en marcha la primera escuela dedicada a formar especialistas.

El sacamuelas ambulante recorría el país en un carro traccionado por caballerías que, a su vez, era su lugar de trabajo. Su llegada a los pueblos despertaba una notable expectación, sobre todo entre los jóvenes, ante el espectáculo que se presenciaba.

Tras anunciarse a viva voz, se preparaba para actuar en una plaza céntrica, hasta donde llegaban los resignados clientes, carnada de soportar los terribles e interminables dolores de muelas. Tampoco debía faltar el niño al que le había pasado la fase aguda del sufrimiento y tenía que ser materialmente atraído hasta el improvisado lugar de operaciones.

RUIDOS METÁLICOS

Tras esperar su turno, subían a una especie de estrado que constituía el carronato y del que se habían separado las caballerías —en caso contrario su estarepida podía causar graves perjuicios a los pacientes—, donde les esperaba el especialista, próximo de los útiles de la época.

Cuando el sacamuelas empezaba su trabajo, los asistentes hacían ruidos con los cacharros metálicos que habían llevado al lugar, con la esperanza de que no se oyeran los justificados gritos del cliente y poder con ello evitar la desahogada de los que esperaban su turno.

Escenas como las descritas en el pasado del País Vasco pueden ser contempladas hoy, en los un-

brales del siglo XXI, en algunos países cercanos geográficamente. Por ejemplo, en los mercados de Marruecos, como Rabat, Casablanca, Fez o Marrakech, con curiosos carteles anunciando un dentista, acompañados de una pequeña vitrina con dientes, coronas y demás prótesis.

TOCINO ADOBADO

Además de estos profesionales oficiales, que al menos tenían sus consultas, en muchas ocasiones a apenas una decena de metros cuadrados existían otros populares que realizaban su trabajo al aire libre en las laberínticas calles.

■■■■
*La llegada del
sacamuelas a los
pueblos en su carro
auguraba un
espectáculo
garantizado*

En la obra de Richard Ford *Las cosas de España* se atribuye al Temperrillo la definición de sustanciero como «un personaje que tenía un trozo de jamón en la punta de su palo y recorría con él los hogares, introduciéndolo en los pucheros: Colaba unas perlas y aguardándose se iba a la siguiente casa».

En nuestro país existen referencias transmitidas de padres a hijos. Según informaciones recibidas por el etnógrafo Isidro Sáenz de Urtuzat, se detecta la presencia de sustancieros, sobre todo en la segunda parte del siglo XIX y en las zonas de menores posibilidades económicas, que suelen coincidir con las habitadas por emigrantes temporales, en especial de Navarra y Alava.

Previsto de trozos de tocino adobado o de cebra y oveja, el sustanciero recorría las calles ofreciendo sus servicios. Las casas de casa que los deseaban presentaban los pucheros con agua hirviendo, donde introducía los productos que ofertaba durante un tiempo que variaba según lo que pagaba la cliente.

Las tarifas variaban según el producto utilizado y el tiempo de duración de la inmersión, que llegó a medirse con el rezo del *Padre Nuestro*. No faltaban discrepancias sobre la velocidad con que se hacía la operación, se sospechaba, guardaba relación con el mayor o menor hervor del líquido y su consiguiente capacidad de absorber sustancia.

El sustanciero, en muchos casos, no se dedicaba exclusivamente a esta actividad, sino que la compartía con la venta de otros productos. La presencia de este profesional era muy bien recibida en los pueblos, ya que se identificaba con una alimentación más sabrosa. Su actividad es fiel reflejo de las grandes penurias que atravesaba una gran parte de la población.

CARMELO URDANGARIN

Beste ogibide batzuk instituzionalizatu dira; esate baterako, *bidezaina*. Ministerioak eta gobernu-sailak sortu dira bideak eta errepideak egin eta konpontzeko. Alderantziz, beste lanbide asko ia desagertu dira: *lastaira egileak*, *esne-saltzailea*, *sardina-saltzailea*, *gozoki-saltzailea*...; beste batzuetatik aztarnarik baino ez da geratzen: *zapata-garbitzailak*, *berbontziak*...

Dokumentua 2.12.7. Emakumearen egoera

«Emakumearen ezkontza barruko egoerari dagokionez, sektore tradizionalak etxeko-andrearen irudia defendatzen zuten, familiako balioen zaindari gisa. Hogeita hamarreko hamarkadan eredu hori gizarte-maila guztietara eta ia alderdi ideologiko guztietara zabaldu zen, teorikoki behintzat. Izan ere, emakume langile askok ezkontzen zirenean beren lanpostua uzten zuten, senarrak behartuta. [...] Hala ere, eredu hori langile-familiatan ezin zen beti aplikatu, emakumeak etxetik kanpo lan egin behar baitzuen familia mantentzen laguntzeko» (idem 39. or.).

«Emakume langile eta nekazariantzat, joskintza eta garbitegia ziren ohiko elkargu-neak, bertan informazioa eta laguntza emanez eta lortuz» (Idem 111. or.).

Dokumentua 2.12.8. Gizonaren eta emakumearen zeregina ezkontza barruan

1968ko Kode Zibila indarrean zegoenean, 1978ko Konstituzioa onetsi zen arte:

- Art. 57.- Senarrak emaztea babestu behar du, eta emazteak senarrari obeditu.
- Art. 58. Emakumeak senarrari segitu behar dio, bizilekua finkatzen duen lekuraino.
- Art. 59. Ezkontza-elkarteko ondasunen administratzailea senarra da.
- Art. 60. Senarra bere emaztearen ordezkaria da. Senarraren baimenik gabe, emaztea ezin da epaiketetan bere kabuz edo prokuradore bitartez bertaratu.
- Art. 61. Era berean, senarraren baimenik edo ahalorderik ez badu, emakumeak ezin du kostubidezko edo irabazizko erosketarik egin, ondasunik besterengatu, ez eta obligaziorik bere gain hartu ere, legeak ezartzen dituen kasuetan eta mugekin salbu.

Dokumentua 2.12.9. Ezkongai-harremana

Berrogeita hamarreko hamarkadara arte, ezkongai-bikoteak ezin ziren kalera bakarririk irten, normalki senitartekoren batek «karabina-lanak» betetzen zituen. Jendaurreko maitasun-adierazpen oro gaitzesten zen, eta komisaldegian amaitzeko arriskua zegoen. Hirurogehiko hamarkadan, gazteek herriko plazako dantzaldietan eta diskoteketan elkar ezagutzen zuten. Hirurogeita hamarreko hamarkadan dantzaldi horiek areagotu egin ziren, lagunartean, kultura-taldeetan eta abar goatekeak antolatzen baitzituzten. Laurogeiko hamarkadatik aurrera, demokraziaren ezarpenarekin, sexu-askatasuna handiagoa izango da, ezkongai-harremana bikotekidea ezagutzeko modu bat bezala hartuz, derrigorez ezkondu edo elkartu beharrik ez dagoelarik.

Dokumentua 2.12.10. Ezkongai-harremanaren errittoa

«Lehenik, kalean barrena paseatu behar da, senargai izan nahi duen gizona atsegin duen emakumearen etxe aurretik paseatzen da, nabarmenki, behin eta berriz. Pazientzia-proba bat da. Ondoren, elkarrri gutunak bidaliko dizkoite, zerbitzariaren edo orraztailearen bitartez. Emaztegaia jadanik leihora atera daiteke, gorteiatzen ari zaion gizasemea pasatzen ikusteko eta berari keinuren bat egiteko. Noizean behin hitz egiten dute, eta dagoeneko hika egiten diote elkarrri. Ondorengo pausoak finkatuago daude. Edozein arrazoi dela medio harremana eteten bada, emaztegaiaren familiak ateak eta leihoak ixten ditu, lutuan egongo balitz bezala. [...]. Konpromisoa senargaiak hausten bazuen, emaztegaiarentzat eta familiarentzat desohoretzat hartzen zen». (Amando DE MIGUEL, *El sexo de nuestros abuelos*, 178-179. orr.).

Eliza katolikoak parrokia-aldizkarien bitartez gazteei irakasten zien. Hona hemen adibide bat:

EMAZTEGAIAREN DEKALOGOIA	SENARGAIAREN DEKALOGOIA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Zure senargaia besterik ez duzu izango. 2. Ez diozu betetzeko asmorik ez duzun zinarrik egingo. 3. Jaiegunak gordeko dituzu, Jainkoari eta Josetxori bakoitzari berea eskainiz. 4. Bere aita eta ama ohoratuko dituzu, beren semearentzat onena nahi baitute. 5. Senargaiak zuregan jarritako ilusioa eta maitasuna ez dituzu zapuztuko. 6. Ez duzu senargaia tentatuko ez zure jarrekin, ez jantziekin, ez eta ezerrekin ere. 7. Ez diozu lanean edo ikasten igaro behar duen denbora galaraziko, zurekin igaro dezan eskatuz. 8. Janaria prestatzen badakizun eta etxea antolatzea atsegin duzun galdetzen dizunean, ez diozu gezurra esango. 9. Ez diezu gainontzeko gizonei begiratuko, eta ez dituzu zure senargaiarekin konparatuko. 10. Ez dituzu zure lagunen senargaien aberastasunak, karrerak, klase sozialak edo gorpuzkera irrikatuko. <p>Hamar agindu horiek bi agindutan laburbil daitezke: Jainkoa gauza guztien gainetik maitatuko duzu, eta zure senargaia zure burua bezainbat maitatuko duzu.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Zure emaztegaia besterik ez duzu izango. 2. Ez diozu betetzeko asmorik ez duzun zinarrik egingo. 3. Jaiegunak gordeko dituzu, Jainkoari eta Maritxuri bakoitzari berea eskainiz. 4. Bere aita eta ama ohoratuko dituzu, emaztegaia zuretzat hezi dutelako eta eder eta birjin gorde dutelako. 5. Ez dituzu zure emaztegaiaren tolesgabetasuna eta zintzotasuna zapuztuko. 6. Ez duzu maite zaituen eta zuregan konfiantza osoa duen emakumearen gorpuzta edo arima zikinduko. 7. Ez diozu bere altxorren xentimo bakar bat lapurtuko. 8. Maite duzun galdetzen dizunean, ez diozu gezurra esango. 9. Ez diezu gainontzeko emakumei begiratuko, eta ez dituzu zure emaztegaiarekin konparatuko. 10. Ez dituzu besteen emaztegaiak irrikatuko. <p>Hamar agindu horiek bi agindutan laburbil daitezke: Jainkoa gauza guztien gainetik maitatuko duzu, eta zure senargaia zure burua bezainbat maitatuko duzu.</p>

Dokumentua 2.12.11. Emakumea

«XX. mendeko ohitura-aldaketa nabarmenetako bat, emakume batek jendaurrean, bai eta hondartza batean ere, gero eta gehiago erakuts dezakeen larruazal-zatia da. Aldaketa horiek gerrosteetan bizkorrago gertatzen direla esan ohi da. 1914-17ko gerraostean, behintzat, hori nabarmena izan zen. [...] Gerra hori amaitu ondoren, bi sexuentzako bainujantzi estuak orokortu ziren. Ordutik aurrera, uretara hurbiltzeko bainu-bata erabiltzea ez zen derrigorrezkoa. Hondartzatik kanpo, emakumeen gonek gutxienez hanka erdia bistan uzten dute. [...], 1925ean, emakume ondraduek belaunak erakuts ditzakete lehen aldiz mende askoren ondoren. Bigarren Mundu-Gerra amaitu ondoren gonek gorantz egin zuten, hankak belaunen gainetik erakutsiz. Vietnameko gerraren garaian minigona nagusitu zen, neskabilen izterrak mirestekoa aukera eman ez» (Amando de MIGUEL, *El sexo de nuestros abuelos*, 142. or.).

Emakume perfektua (1945eko eredu):

- adeitsua
- sukaldaria
- feminitate handikoa
- amatiarra
- gimnasta
- dantzaria
- alaia
- otzana
- zuzena
- zuhurra
- azkarra

Dokumentua 2.12.12. Emakumearen eta gizonaren zeregina

Familia tradizionalan, kide bakoitzak bete beharreko funtzioak eta lanak argi eta garbi mugatuta zeuden. Gizonaren eta emakumearen arteko lan eta erantzukizunen banaketa oso nabarmena zen etxea eta bertako jabegoak nekazaritza-ustiapenera bideratuta zeudenean.

Multzo horretan bi gune bereiz ditzakegu: oinarritzko gunea (*etxea*), eta inguruko gunea (*etxaldea*). Azken honetan etxeari erantsitako egoitzak daude, lanabesak eta abereak barne, bai eta soroak eta basoak ere. Hori guztia produkziara destinatuta zegoen. Barneko gunea, hots, *etxea*, sukaldea eta gelak barne hartzen dituen, elikagaiak landu eta banatzeko, garbitzeko eta atsedean hartzeko erabili ohi da.

Ustiapen-gunearen ardura gizonaren esku egon ohi da, eta etxe barruan egiten diren ekin-tzen ardura, berriz, emakumearen esku. Horrela, produkzio-lanetan emakumeak gizonari laguntzen dio, eta etxe barruan egiten diren ekintzetan, gizonak emakumeari laguntzen dio. Beraz, etxearen produkzio eta banaketa prozesuan bi protagonismo osagarri ezartzen dira.

Gizonaren eta emakumearen artean egiten zen lan-banaketa hau ez zen lur-eremuan oinarritzen, funtzionatasunean baizik. Etxea ustiapen-unitate gisa aurrera eramateko egin

behar ziren lanen banaketa, azken finean, lanaren izaeran eta ezkontide bakoitzaren gaitasunetan oinarritzen zen.

Abereak gordetzeko *Korta* etxearen barruan kokatuta dagoen arren, bere kudeaketaren ardura gizonaren esku dago. Bestalde, *ortua* edo *baratzaren* ardura, kanpoan kokatuta dagoen arren, emakumearen esku dago. Hori horrela zenazienda larria zaintzeko gizona berezkoagoa zen indar fisikoa beharrezkoa zelako, eta baratzaren kudeaketa, berriz, etxeko eguneroko elikadura-funtzioari eta apainketa-produktuei (loreak) loturik dagoenez, emakumearen ezaugarrietara hobeto egokitzen zen.

Zeregin-banaketa hori nabarmena bazen ere, lortutako guztia, bere egilea edozein izanik ere, bereizketarik egin gabe biona izango da. Printzipioa hau Bizkaitarrek ondasunen foru-komunikazioan gauzatu dute, eta *dana biena* esaldiarekin adierazten da. Praktika hori, ondasunen eta etxearen arteko erlazioari loturik dago, produzitutako dena etxerako dela ulertuz, *dana etxerako*, etxea bertan bizi diren guztien zerbitzura egonik.



Nekazaritzari edo abeltzaintzari loturik ez dagoen beste bizimodu batzutan, adibidez artzantzan edo arrantzan, gizona luzaroan etxetik kanpo dagoenez gero, emakumeak normalean gizonari dagozkion lanak ere egin beharko ditu. Egoera hauetan, emakumeak protagonismo handiagoa izango du etxearen eta familiaren barruan.

Azken hamarkadetan, lana banatzeko eskema tradizional hori nabarmen aldatzen ari da, emakumea etxetik kanpo lan egiten hasi delako, familiara lan pertsonalaren errentak ekarriz. Egoera berri horren ondorioz, emakumeak erantzukizun handiagoak ditu lan, gizarte eta politika arloan.

Tradizionalki, auzoko eta herriko bileretan etxearen ordezkari bezala gizona agertu ohi zen, eta emakumeak gaixo zegoen bizilagunari bisita, heriotzaren baten ondoriozko bisitak eta antzekoak egiten zituen. Bi kasuetan, gizonak nahiz emakumeak ordezkatzeko zutena, etxea zen.

Emakumeak Bizkaiko familian tradizionalki bere gain hartu dituen zereginen artean, aurrekoei egiten zaien kultuari loturikoak daude, labur aztertuko duguna.

2.13. DOKUMENTUA. EGUNKARI BATEN LEHEN ORRIALDEA

Zer da egunkari baten lehen orrialdea?

Lehen orrialdea egunkariaren *erakusleihoa* da, sarrerako atea, irakurleari edukia-
ren berri ematen diona, bere izaera ezartzen duena eta erosi eta irakurtzera bultzatzen
duena.

Horregatik, orrialde horren diseinua eta eraketa oso garrantzitsua da, gaia aukera-
tzeari eta orrialdean antolatu eta kokatzeko moduari dagokionez; hau da, albiste-kopurua
eta bakoitzaren kokaera.

Dena lehen orrialdean ezin da jarri, eta horregatik aukeratzekoan kontuan izan be-
har da:


- Albiste-kopurua *hautatu* behar da, hau da, lehen orrialdean jarri beharreko albiste-
kopurua finkatu behar da.
- Albiste bakoitzari eman behar zaion *garrantzia erabaki* behar da; hau da, bakoit-
tzari bere neurria eman behar zaio, denek ez baitute garrantzi berdina.

Egunkari bakoitzak bere ikuspegitik garrantzitsuenak diren albisteak nabarmentzen
ditu egunero. Bere irizpideen arabera, lehen orrialdean zer eta nola jarriko duen erabaki-
tzen du.


Kontuan izan behar da, beraz, hautespen horretan eta *bere* narbarmentze-irizpideak
erabiltzen dituenean, egunkaria ez dela objektiboa, irizpide politikoak, ideologikoak,
ekonomikoak, erlijiosoak eta abar aplikatzen dituela.

Non jarri behar dira albisterik garrantzitsuenak?

Tradizionalki, irakurleak lehen orria begiratzeko zuenean hasiera batean eskubiko gai-
naldera begiratzeko zuela uste ohi zen; gaur egun, ordea, banaketarik onena eta irakurke-
taren eta ikusmenaren zentzuarentzat logikoena aurkakoa dela uste ohi da: ezkerreko
gainaldea da, hain zuzen, albiste nagusia narbarmentzeko lekua..



Irakurketa zirkularra



«Z» motako irakurketa

Jarduera:

- Egiaztatu eskura dituzun zenbait egunkaritan banaketa-arau hori betezen den eta behar adina arrazoituta ote dagoen.
- Lehen orrialdeko zein angelutan ipintzen du egunkari bakoitzak albisterik garrantzitsuena?
- Lekurik egokiena dela uste al duzue, edo lehen orrialdearen beste lekuren batean kokatuko al zenukete?

Zenbat lehen orrialde mota daude?

Normalki, egunkari bakoitzak oinarrizko maketa bat du, aurrez diseinatutakoa, nola-baiteko jarraitasuna ematen diona. Baina oinarrizko egitura hori egunero alda daiteke, gertakarien edo albisteen arabera.

Lehen orrialdea, egiten den azken orrialdea da, beti gertakarien eta azken albisteen arabera baitago, eta horiek ordura arte erabakita zeuden albisteak erabat aldatzea ekar baitezake.

Lehen orrialdeen tipologia bat egitea ez da erraza, baina bi azal-mota klasiko daude (erakusleihoa eta deigarria), gaur egun bi horien ideiak jasotzen dituen lehen orrialde misto batean elkartzan direnak:

ERAKUSLEIHO-ORRIALDEA (tabloide formatuan)		ORRIALDE DEIGARRIA (tabloide-kartel formatuan)	
Egunkariaren edukiaren laburpen osatua eskaini nahi du, albisteak hierarkiko azalduz.		Ez du eguneko laburpenik egiten, arreta osoa albiste batengan jartzen du. Bistarengan eragina izan nahi du.	
EDUKIA —Albisterik garrantzitsuenen laburpena, elementurik esanguratsuenekin, formatu txikian. —Laburpenak edo deiak erabiltzea.		EDUKIA —Testu gutxi. —Izenburu handiak eta harrigarriak. —Elementu gutxi erabiltzen ditu: argazkia, testua eta izenburu handia.	
FORMA —Ohiko gorputzeko testua, zutabe gutxirekin, informazioen arteko orekarekin.		FORMA —Gorputz eta orban handiko izenburuak. —Marrazki/argazki handiak. —Orban handien erabilera.	
Abantailak	Eragozpenak	Abantailak	Eragozpenak
—Laburpen ona da. —Irakurketa azkarra eta ideia orokorra ematen du, baina globala. —Objektiboagoa da.	—Zehaztugabea eta interes handirik gabekoa izan ohi da aurkezpenean. —Irakurle zaleentzat eta amorratuentzat egokia.	—Erakargarriagoa. —Interesa pizten du. —Gainbegiratu bakarrekin irakur daiteke.	—Partziala eta sensazionalistagoa izan ohi da. —Albisteak azaletik ukitu besterik ez du egiten. —Ezohiko irakurleentzat.

.../...

LEHEN ORRI MISTOA

- Eguneko albiste handia asko nabarmentzen du, eta horrekin batera, beste bi edo hiru albiste eta aurkibide-laburpen bat.
- Izenburuak deigarriak dira, eta izenburuaurreak eta aurkibideak izan ohi ditu.
- Argazkiak, marrazkiak eta taulak erabiltzen ditu.
- Orrialdea bi zatitan banatzen du:
 - Gainaldea: albisterik garrantzitsuena, gorputz garaiko izenburuak erabiliz, ongi ikusteko.
 - Behekaldea: bi/hiru albiste labur, tipografikoki handikeriarik gabe. Aurkibidea izan ohi du.

Jarduera:

Bila itzazu aurrez deskribatu diren motetako adibide bana, eta adieraz ezazu zure us-ten zein den erakargarriena eta interesgarriena.

Beste zein diseinu-elementu erabiltzen dira lehen orrialde batean?

a) *Aurkibideen edo deien aurkibidea*

Duela gutxi erabiltzen hasia da, 80ko hamarkadatik aurrera. Barruko orrialdeetan aurki daitezkeen artikulu, erreportaje edo albisteei buruzko informazioa barne hartzen duen eguneroko zutabea da.

Seinalatzeko eta erakartzeko elementu bat da. Lehen orriko ezker edo eskubian ipin-tzen da, edo orrialdea azpian, lauki batean.

b) *Leihoak*

Aurrekoaren antzekoak dira, baina leihoeak izenburuarekin batera doan testu txiki-az gain, argazki bat ere badaramate. Normalki egunkariaren errotuluaren gainean jartzen dira.

c) *Argazki albistea*

Gaur egun oso zabalduta dago, orrialdearen elementu nagusi gisa jartzen den argazkia da.

d) *Goi-burua*

Egunkari baten goi-burua bere «nortasun-agiria» da, eta ondoko hauek guztiak barne hartzen ditu: egunkariaren izena, prezioak, alearen zenbakia, sorkuntza-data, egungo data.

Jarduera:

Azter itzazu egunkari ezberdinetako lehen orrialdeak eta adierazi: lehen orrialde-mota eta osatzen duten elementuak:

Gaiak	1. egunkaria	2. egunkaria	3. egunkaria
Lehen orrialde-mota			
Aurkibideak ditu			
Leihoak ditu			
Argazki albistea du			
Goi-burua du			
Beste elementuren bat agertzen da			

2.14. DOKUMENTUA. BIZITZA FRANCOREN DIKTADURAN⁵

Documentua 2.14.1. Bizitza pribatua frankismoan, autarkia (1939-1951)

1939ko apirilaren 1ean, Radio Nacional de España irratiko mikrofonoetan Garaipenaren adierazpenarekin —«En el día de hoy, cautivo y desarmado el Ejército rojo, han alcanzado las tropas Nacionales sus últimos objetivos militares. La Guerra ha terminado»— Gerra Zibila amaitu zen eta *gerraoste luzea eta zorigaiztokoa hasi zen*. Milaka exiliatu eta preso politiko zeuden, eta espainiarrek gabealdiak eta garaile eta galtzaileen arteko kontu-ordainketek markatzen duten garai batean bizi behar dute. Francok gerra amaitu ondoren «Etxe bakar bat ere ez argirik gabe, espainiar bakar bat ere ez ogirik gabe» esan arren, errealitatea oso ezberdina izan zen.

40ko hamarkadan *autarkia ekonomikoa* ezarri zen, hau da, soilik produktu espainiarrekin hornitzeko asmoa, eta horren ondorioz espainiar gehienak biziraupenaren muga egon ziren. 1939ko maiatzaren 14an *errazionamendua* ezarri zen, elikagai-eskasia narbarmena baitzen. 1952. amaitu zen. Errazionamendu-txartelak astero elikagaiak jasotzeko eskubidea ematen zuen. Lehen urteetan batatak, bakailaoa, olioia, garbantzuak eta azukrea, noizean behin xaboaia, kafea, txokolatea eta menbriloa. Gutxitan haragia, esnea edo arrautzak. Ogia (200 gramo pertsonako eta eguneko) zekalez egina zen. Produktu horiek, gainera, oso kalitate txarrekoak ziren: landare-olioaren ordeztarrain-olioa ematen zuten, kafearen ordeztarrain... herriaren irudimenak asmakizun harrigarriak ekarri zituen, adibidez arrautzarik gabeko tortila. Ondorioz, *merkatu beltza* —estraperloa— sortu zen berehala, produktua legez kanpo lortzeko aukera emanez, eta negozio handiak sortu ziren.

Mugapenek beste eremu batzuk ukitzen zituzten: 1940ko uztailan erretzailearen txartela ezarri zen —soilik gizonentzat—, oso kalitate txarreko zigarroak lortzeko aukera emanez, baina makiltxo asko zituzten eta zenbait kasutan zigarroa piztu eta. 1940an gasolina ere errazionatu zen, eta gasogena orokortu zen. *Gasogena*, gas erregaiak sortzen zituen gailua zen, eta autoen atzealdean kokaturik, erre zitekeen eta hidrokarbuo-nahasketa egokia eman zezakeen edozein material erretzen zuen, adibidez almendra-azalak eta arte-ikatza.

Arropak ere kezka sortzen zuen, ez baitzegoen lehengairik. Trajeak «barrukoz kanpora» itzultzen ziren edo erabilitako arropa erosten zen. Oinetako gabezia oso nabarmena zen eta 1948an eredu bereko milioi bat oinetako saldu ziren, espainiarreek oinutsik edo oinak zapiz estalita ematen zuten ikuskizun penagarria saihesteko.

Gosearen eta bizigarritasun-baldintza larrien ondorioz, *izurriteak* sortu eta zabaldu ziren. Difteriak, paludismoak, tifusak eta, batez ere, tuberkulosiak, herritarrengan eragin handia izan zuten. Haur hilkortasuna asko hazi zen, eta Espainiako probintzia batzutan milatik 347ko tasara iritsi zen. Garbiketarik eza gerraosteko beste lakra bat izan zen, eta sarna eta zorri izurriteak ekarri zituen. Horren froga, garaiko publizitatea d: «*Antisárnico Martí*, único que la cura sin baño», edo «*El Aceite Inglés*, parásito que toca, muerto es».

⁵ *La vida cotidiana en la época franquista. Un trabajo basado en la Historia oral* liburutik hartuas. Juana BELLÓN eta Dolores QUINQUER (material fotokopiatua).

Gaixotasun horiek batez ere behartsuek hartzen zituzten, zeren eta gizarte eta psikologia mailan bi Espainia zeuden: aberatsena, izaki zoragarriak zirenak, eta behartsuena, gehienak «gorriak» zirenak (hauekin erne ibili beharra omen zegoen).

Moralaren hipokresia hau, frankismoaren alde agertu zen Elizak ezarri zuen, eta *katolizismoaren eragina* ohituretara eta bizitza pribatuetara hedatu zen behin betiko. Haurrak jaio bezain laster hori nabarmena zen, Eliza katolikoaren santutegian agertzen ziren izenak jartzeko aukera besterik ematen ez zuen 1938ko dekretu baten bidez, eta beste guztiak debekatuta zeuden, adibidez debekatuta zeuden ideologiei loturikoak (Libertad eta antzekoak); beste izen asko kristautu egiten ziren aurretik Jose edo Maria jarritz: Maria Aurora, Maria Rosa...

Haurtzaroa garai hartan ez zen batere erraza. Gehienek ogia eta txokolatearekin amets egiten zuten, eta edozein hondarrekin jostailuak egiten zituzten; oso gutxi ziren publizitatean ikusten ziren artikuluez gozatzen zutenak: *Cremadina* flanak, *Nescao* kakaoa edo *SOS* irina... eta eskuraezina zen Mariquita Pérez panpina «la muñeca que se viste como una niña», 1942an 80 pezeta balio zuena, hau da, neurrira egindako traje baten prezioa zuena. Irakaskuntza elizaren monopolioa zen, beste edozein irakaskuntza debekatuta zegoen; diziplina zorrotza zen, eta maisuaren agintea iristen ez zen lekuetan «betiko zigorraren» beldurra nabarmena zen: heriozko bekatua eta infernurako zigorra hitzetik hortzera zebilen garai hartako ikasleen artean. Eguneroko mezak eta derrigorrez konfesatu beharrak garai hartako haurrengan oroitzapen ahaztezina utzi du. Balio erlijio-soekin batera, heziketa abertzale espainiarra sustatzen zen «Por el Imperio hacia Dios» zin egiten zuelarik, eta *Cara al Sol* edo *Las Montañas Nevadas* eta antzekoak abesten ziren, estilo fazistarekin. Irakaskuntza oso sexista zen, eta neskak emazte eta ama onak izateko hezitzen zituzten, eta beraz, josten edo kozinatzen irakasten zieten, beren ahuldearekin bat zetozelako. Mutilei berriz, erresistentzia eta autokontrolerako balioak irakasten zitzaizkien.

Bikote-harremanak elizaren beste kezka bat izan ziren. Bikoteek ezin zuten bakarrik irten, formalki ezkongai izan arren, tentaldiak saihesteko, birjintasuna galtzea emakumearentzat hondamendia baitzen. «Karabinak» ohikoak ziren, eta jendaurreko maitasun-adierazpen oro gaitzesten zen, komisaldegian amaitzeko arriskua zegoelarik. Zineman ere ezinezkoa zen, edozein jarrera desegoki izanez gero atxilotu egiten baitzuten.

Ezkontza soilik elizan egin zitekeen, ez zegoen dibortziorik, eta ezkontzaren helburua seme-alabak izatea zen. Erregimenaren xedetako bat Espainia jendeztatzea zen, eta horretarako jaiotza-sari nazionalak egiten ziren, hirugarren seme-alabatik aurrera dirulaguntzak ematen ziren, eta abar. Pentsan irabazleak pozik agertzen ziren, 15 seme-alaba edo gehiagorekin. Logikoki, emakumea etxe-esparrura mugatuta zegoen, eta *etxetik kanpo lan egiteko* oztopoak jartzen zitzaizkion, legez eta ideologikoki. Lanaren Foruak adierazten zuenez «Estatuak emakume ezkondua lantegian eta fabrikan lan egitetik askatuko du» eta 1942tik aurrera, lan-lageriak adierazten zuen emakume ezkonduak lana utzi behar zutela. Emakume langileak zituen familiak zigorrak jasotzen zituen, Estatuak ematen zituen laguntzetatik kanpo geratzen baitzen. Baina-hala ere, emakume langile askok lan egiten jarraitu zuten. Baina gizartean garrantzi txikia zuten, soldata barregarriak jasotzen zituzten eta koalifikaziorik gabeko lanak egiten zituzten.

Hala ere, gerraosteko espainiarrek errealtate latza ahaztu nahi zuten eta baimenduta zeuden gauza denetan *ihesbidea eta entretenimendua* bilatu zuten. Dantza, moda eta zinea, adibidez. Dantzari dagokionez, boleroak, pasodobleak, fox-trot eta antzekoak dantzatzen ziren Jorge Sepúlvedaren abestiekin —*Mirando al mar, Santander*— baina gizon eta emakume arteko harreman handiegirik gabe. Dantza, elizaren esanetan «es la alegría del diablo y la tristeza de los ángeles». Neskei eskatzen zitzaien dantzalekuetara ez joatea eta, «hala ere joaten baziren, beren birjintasuna zaintzea, senargaiekin ere erne ibiliz». Ohorea beren esku zegoen, gizonaren neurritz kanpoko edozein portaera bere «sen pasionalaren» ondorio baitzen.

Moda *elizako zentsoreek* zaintzen zuten, eguneroko bizitzaren benetako zaintzaile baitziren. Eskoteak, hankak eta besoak ezkutatu egin behar ziren, eta hori nahiko zaila zen udan, batez ere Espainia bezalako mediterranioko herri batean. Hondartzetan lan handia izan ohi zuten. Hondartzetako ikuskizuna egungo moralitatearen aurkako eraso zen. Izan ere, ezin zen eguzkia hartu bainu-bata gabe, gizonak eta emakumeak ezin ziren elkartu bainujantzian bazeuden, arropa txaboletan aldatu behar zen. Emakumeen bainujantzia osoa zen, bizkarra, bularra eta saihetsak estaliz, eta gonatxo batekin. Gizonen ere osoa zen, bularra eta saihetsak estaliz, kirol-praka zabal batekin.

Zinea, miseria eta beldurreko garai hartan, poztasun-iturria zen. Zinemara gaztaina-zorroarekin joaten ziren, afari gisa, baina emanaldiak egun osoan barrena zeuden. Merkea zen, lau pezeta butakan, eta jende asko bertara zitekeen. Filmak zentsuratu egiten ziren, errespetua, ohitura zaharrak edo Erregimenaren funtsak ukitzen zituen aipamen oro ezabatuz. Film amerikarrez gain espainiarrak ere ikusi ohi ziren, batzuk gai militarrekoak —*Raza, A mí la Legión, Harka*—, beste batzuk historikoak —*Alba de América, Locura de Amor, Agustina de Aragón*—, edo gatzik gabeko komendiak —*Deliciosamente tontos, La tonta del bote*— eta abar. Izar nazionalak Alfredo Mayo, Imperio Argentina, Aurora Bautista eta abar ziren. 1942tik aurrera NO-do ematen zen areto guztietan, Frantziako eta Espainiako bizitza ofizialari buruzko albisteak emateko.

Irratia ere urte haietan agertu zen; irrati gutxi zeuden, eta 50eko hamarkadara arte ez zen erabat hedatu etxe guztietara. Hala ere, irratiaren bidez Concha Piquer, Pepe Blanco, Caracol edo Lola Floresen koplak entzun zitezkeen, eta irrati-serieak antzun zitezkeen, hauen artean aktorerik ezagunenak Juana Ginzo eta Pedro Pablo Ayuso zirelarik, eta autorerik onena Guillermo Sautier Casaseca.

Beste ihesbide bat *futbola eta zezenketa* izan ziren. Futbolak, 1946tik aurrera, jendatza handia biltzen zuen. Azkenik, zezenketak izen bat izan zuen nagusi hamarkada horretan: Manuel Rodríguez, *Manolete*, 1948an Linaresen hil zena, eta festa nazionalaren heroi eta martiria bihurtu zena.

Dokumentua 2.14.2. Bizitza pribatua frankismoan. Desarrollismoa. Hirurogeiko hamarkada

Hirurogeiko hamarkadan aldaketa asko izan ziren. Iraultza handiez (1959ko Kubakoa), ezusteko gertakariez (John F. Kennedy-ren hilketa, 1963an) edo gizonak ilargira

egindako bidaiaz (1969) gain, Espainian itxaropen-izpi bat piztu zen eta diktadura zertxobait arindu zen, dikatadura izaten jarraitu arren. Garapen-planekin eta Opus Dei-ko ministro-gobernuarekin, «mirari espainiarra» sortu zen. Produktu nazional gordina handitu zen, «per capita» errenta ere bai, ordainketa-balantzan soberakinak lortu ziren, kanpoko inbertsioan areagotu ziren, eta turismoa asko handitu zen.

Garapen ekonomiko honek *kontsumoa asko handitu zuen*. 1960an, 100eko 1ek bakarrik zeukaten telebista; 100eko 4k bakarrik autoa, eta 100eko 4k ere hozkailua. 1969an, 100eko 62k telebista zeukaten, 100eko 63 hozkailua eta 100eko 24k autoa. Espainia osoa zorretan zegoen «epe erosoekin», publizitateak hedatzen zuen kontsumo-gizarteaz gozatzeko prest. Ondoko esaldiak: «Enchufa el Askar», «Que trabaje Ruton», «Vamos chicos, al tostadero», «Y también... cepillos Profidén», oso ezagunak egin ziren. Basina gauza horien guztien gainera Seiscientos autoa zegoen, hamarkada osoaren sinbolo bihurtu zena. Aldaketa ekonomiko azkar hauek Frankismoaren hiru funtsezko erakundeak kolokan jarri zituen: familia, hezkuntza eta eliza.

Familia jadanik ez zen hain zorrotza eta patriarkala, eta malguagoa bihurtu zen. Gurasoek seme-alaba kopurua erabakitzen zuten, eskaini zezaketen ongizatearen arabera, Elizaren eta Estatuaren aginduak alde batera utziz. Era berean, ezkontzatik kanpoko sexu-harremanei buruzko tabua hautsi zen, emakumeak izandako aldaketen ondorioz, gero eta askatasun handiagoa baitzuen. 60ko hamarkadaren amaieran Espainia European antisorgailuak kontsumitzen zituen herrien artean 5. lekuan zegoen, eta hori kontuan izanik iragartzea edo banatzea debekatuta zegoela. Aldaketa horiek burgesiak berehala bereganatu zituen, liberalagoa zelako, eta langileek ordea iraganari loturik jarraitzen zuten.

1960tik 1975era bitartean aldaketak egon ziren emakumeen mentalitatean, batez ere *lan egiten hasi zirelako*. Zenbait lanbide (militarrak, epaileak edo fiskalak) debekatuta zituzten, baina fabriketan eta bulegoetan lan egiten hasi ziren. 1961eko uztailaren 15eko lege baten bidez, emakumeei eskubideak onartu zitzaizkien lanaren alorrean. 1975era arte ezkonduko emakumeek senarraren baimena behar bazuten ere, baldintza hori jadanik ez zen beti betetzen.

Aldaketa horien arrazoi bat *Europarekiko harremana* izan zen, turismoaren eta emigrazioaren bitartez. Manuel fragak zuzentzen zuen Turismo Ministerioak «España es diferente» eslogana asmatu zuen, eta turista ugari erakarri zituen merkea zelako eta ia beti eguzkia zegoelako. Turismoak sexualki askatasun handia zuen suediarren eta edozertarako prest zegoen gizon espainiarraren mitoa indartu zuen, ordurarteko jarrera guztiak aldatuz. *Bikinia* agertu zen, askoren harridura eta zenbait elizgizonen protestak sortuz; gero minigona agertu zen, dantza-aretoak diskoteka bihurtu ziren eta gu+oatekeak ohi-koak ziren.

Goateketan twist eta yenka dantzatzen ziren, eta Dúo Dinámico, Raphael eta Los Brincos taldeen musika entzuten zen, eta modernoek Rolling Stones eta, batez ere Beatles entzuten zituzten. 1968an Espainian jo zutenean ez zen bereziki aipagarria izan nazio-mailan, baina han izan zirenentzat oroitzapen ahaztezina da. Ye-yé neskak ere bazen, Karinaren musikaren zoratzen zeudenak, edota Manolo Escobar-en jarraitzaile sutsuak.

Turismoaren ondorioz kostalde herri asko hondatu ziren, apartamendu-eraikin handiekin eta kalitate txarreko hotelekin, espekulazioa oso nabarmena izan baitzen. Espainiarrak udan kostaldera joaten hasi ziren, atzerritarren antzera, aurrekontu-zati handi bat horretan erabiliz.

Emigrazio handia izan zen. Espainiako hazkunde ekonomikoa langileak kanpora bidaliz lortu zen, eta beste batzuk ordea, adibidez Alemania, langileak hartuz hazi ziren. Milaka emigratzaile kanpora joan ziren soldata hobeen truke, eta beste bizitzeko modu batzuk ikusi eta ikasi zituzten.

Bidaiatzea posible zen, batez ere gazteen artean. Horrela, *fenomeno hippy-a* ezagutu zuten, hirurogeiko hamarkadaren ezaugarri. Bakezaletasuna, maitasun askea eta droga-kontsumoa mundu osoan zabaldu zen. Espainian, Ibiza izan zen gutxiengo horien gune, baina kolore argitsuak, loreak eta antzekoak gehiago zabaldu ziren funtsezko «egizu maitasuna eta ez gerra» printzipioa baino. Gurasoek aldaketa horiek guztiak nahiko kezaturik ikusi zituzten, ez baitzeuden horretarako prestaturik.

Komunikabideek ere aldaketan lagundu zuten. Aldizkari gehiago sortu ziren (*Triunfo*, *Cuadernos para el Diálogo*, *Hermano Lobo...*), eta liburu txikiak merketu ziren. Komiki berriak ere sortu ziren (DDT edo *Florita*, neskentzat), baina, batez ere, *Telebista* iritsi zen. Eta guztiek *Bonanza*, *Ironside* edo *El Fugitivo* serie amerikarrak ikusteko aukera izan zuten, Hegoamerikako bikoizketekin. Produkzio nazionalai dagokienez, Joaquín Prát edo J. L. Pecker-ek aurkeztutako lehiaketak, adibidez «Un millón para el mejor» auzoko bizilagunak inguruko telebista bakarrean biltzeko aproposak ziren. Futbol-partidak edo El Cordobés toreatzailearen ikuskizunak zeudenean, herrialde osoa telebistaren aurrean egon ohi zen, eta Erregimenak hori aprobetxatzen zuen manifestazioen baten garai berean programatzeko, adibidez maiztaren lehenean.

Milioika espainiar despolitizatuta egon arren eta xede bakar bezala gailu berriuren bat erostea izan arren, *oposizioa* sendotzen ari zen. Oposizioa PCE eta PSOE alderdien inguruan biltzen zen, lantokietan eta unibertsitateetan jardunez. Raimon-en kontzertuekin gozatzen zutenak eta *Diguem no* ia modu erritual eta mistikoan oihukatzen zutenak ziren. Eta horien artean apaizak ere bazeuden.

60ko hamarkadako *Elizak* ere aldaketa handia jasan zuen, zati batek behintzat. «Apaiz langileak» agertu ziren, borroka sindikalarekin konprometituz eta balio tradizionalak alde batera utziz. janzkera ere aldatu zuten! Sotanak desagertu eta *clergyman* janzkera eta kalleko arropa nagusitu ziren. Espainia oso azkar laikitzen hasi zen. Gazteek eta langileek eliza alde batera utzi zuten, mezara gutxiagotan joaten ziren, hori nabarmena zen; ohitura erlijiosoak desagertzen hasi ziren (prozesioak, lutua, mantilak eta abar). Bokazioak ere gutxitu ziren; familia kristau ororen nahia ez zen jadanik seme bat apaiza izatea, eta eskolan ere erlijioaren presentzia gutxitzen hasi zen: 1955-56an, ikastetxe pribatuetan zeuden Batxilergoko ikasle-kopurua (gehienetan erlijiosoen esku) %87koa zen; 1975ean, zortzi milioi ikasletik %34 bakarrik zeuden ikastegi horietan. Garai hartan asko aldatu zen sektorea izan zen. Eskolara derrigorrez 14 urte bete arte joan behar zen, heldueak alfabetatzeko planak sortu ziren, irрати bidezko batxilergoa hasi zen, eta guraso guztien asmoa seme-alabek beraiek baino gehiago jakitea zen. Ikasliburuak jadanik ez ziren *Rayas* eta *El parvulito* ize-nekoak haurrentzat, edo *Álvarez* entziklopedia gazteentzat.

Dena aldatu zen goitik behera. 1970eko Espainiak zerikusi txikia zuen 1940koarekin: herrialde erdi-industriala zen, erabat urbanizatua, garapen nahasi batean murgildurik, eta urrun ikusten ziren aldaketa politikoen zain.

Dokumentua 2.14.3. Euskarri gisako testuak

«IZPIRITU NAZIONALAREN» SORRERA

«Espainia bere ahuleziatik eta gainbeheratik ateratzeko eta, batez ere, komunismoaz askatzeko, Jose Antonio Primo de Riverak [...] Mugimenduari hasiera eman zion, bere helburuak espainiar guztien batasuna lortzea eta inperioaren garaiko idealak suspertzea izanik. Horretarako hiru urteko iraupena izan zuen gerra bat eta sakrifizio ugari egin behar izan ziren baina gaur, Espainia, etsaiez aske dago eta Mugimendu Nazionalak bere helburuetako asko lortu ditu: klase-borroka amaitu da, izpiritu erlijiosoak berpiztu da, alderdi politikoak desagertu dira eta gizarte-justizia ezartzen ari da. Hala eta guztiz ere, gauza asko egin beharra dago oraindik eta denok lagundu behar dugu Espainia aurrera eramaten, “Caudilloarekin” eta bere gobernuarekin lan egiten». (*Álvarez Enciclopedia. Intuitiva, sintética y práctica. Iniciación Profesional*. Zamora, 1956, 999. or.).

ELIZAREN ERAGINA: BEKATU EGITEKO BELDURRA

«Joan zaitezte izpirituarekin infernuko ateetara, jar itzazue zabal-zabalik Jainkoaren justiziaren urakanak kitzikatutako garren zurrunbiloak ikus ditzazuen eta hantxe, su eta deabru horien artean eta itzal beldurgarri haien artean, heriozko bekatuan hiltzen bazarete zuen arimak zein lekutan ehortziko zaituzteten adieraziko dugu». (A. SOPEÑA, *El florido pensil*, 73. or.).

ESTRAPERLOA

«Hilkutzak, beren funtzio errukiorra betetzeko hilerrira iritsi aurretik, zopa-pasta, kafea edo azukrea zaintza oro saihestuta eramateko erabiltzen ziren. Jostailuak, panpina hutsak eta kartoizko zalditxoak, lekaleak gordetzeko aprobetxatutako ezkutalekuak ziren. Gasogenoarekin zirkulatzeak gasolina-deposituak eskaintzen zituen aprobetxamendu-aukerak aurkitzea ahalbidetu zuen (ontzi ezin hobea zen trementina-esentziaz egindako alkohola garraiatzeko). Gurgil-aulkietan zihoazen elbarri batzuk ere, aulkian debekatutako generoa eramateko azpi ezkutak zituztela harrapatu zituzten» (AA.VV., *Vida cotidiana en los años 40*, 69. or.).

EMAKUMEAREN OTZANTASUNA

- 57. artikulua. Senarrak emaztea babestu behar du eta emazteak senarra obeditu.
- 58. artikulua. Emakumea senarrari bizilekua ezartzen duen edozein lekutara jarraitzera behartuta dago.
- 59. artikulua. Senarra bikotearen ondasunen administratzailea da.

60. artikulua. Senarra emaztearen ordezkaria da. Emaztea ezin da, senarraren baimenik gabe, epaiketa batean bere kabuz edo prokuradore baten bitartez agertu.
61. artikulua. Era berean, emazteak ezin du, senarraren baimen eta ahalorderik gabe, kostubidezko edo irabazizko erosketarik egin, bere ondasunak beste-rendu edo ezein betebeharrak bere gain hartu, legeak ezartzen dituen kasu eta mugetan salbu.
62. artikulua. Emazteak aurreko artikuluetan xedatutakoaren aurka burutzen dituen ekintzek ez dute baliorik, beren izaeratik familiaren ohiko kontsumora destinatuta dauden gauzen kasuan izan ezik. Kasu horietan, emazteak egindako erosketak baliozkoak izango dira. Bitxi, altzari eta objektu preziatuen erosketak, senarraren baimenik gabe egiten badira, senarrak emazteari objektu horiek erabili eta gozatzeko baimena ematen dionean besterik ez dira baliozkotuko.

1968KO KODE ZIBILA

«Zu ez zinen borroka egiteko jaio; borroka gizonezkoaren egoera da eta zure emakume-eginkizun gorena etxean duzu, bertan zeuk ematen diozun ukitua baitu familiak. Lan egingo duzu, bai; nazional-sindikalismoak ez du izaki alferrik onartzen gizartean, baina zentzuz egingo duzu, bakarria zaren bitartean, zure emakume-izaerari dagozkion zereginetan. Aurrerago, bizitzak amaren eginkizuna betetzera eramaten zaituenean, zure etxeko lana besterik ez duzu egingo, aski zaila eta funtsezkoa. Izan ere, seme-alabei zeuk emango diezu prestakuntza izpirituala eta hori nazio osoari prestakuntza izpirituala ematea bezala da.» («Sección Femenina» izenekoak argitaratutako aldizkaria. Aipamena: R. ABELLA, *La vida cotidiana bajo el régimen de Franco*, 221. or.).

BIKOTE-HARREMANAK

«Bikoteek ez dute bakarrik irten behar. Tentazioaren arriskuak asko dira eta Deabruak ez du atsedunik hartzen arima garbiak okertzen. Horrexegatik, komeni da ezkongaiak pertsona zintzo, heldu eta moralki prestatutako batekin joatea beti, beraientzat tentazioez askatuko dituen ezkutua izango den norbaitekin. Harremanen formalizazioak ezkontzaren Sakramentu Santuaren hurbiltasuna ziurtatzen duenean ere, neurri osasungarri hau ez da bete gabe utzi behar. Aitzitik, ezkontza-ohearen hurbiltasunarekin gizonak lizunago jartzen dira eta emakumeak errazago ekiten diote aurrerapen bati. Hori dela eta, promesik tinkoenak tarteko ere, senide edo “karabina” baten laguntza ez da saihestu behar. Horri esker, kastu eta garbi jarraituko dute batasuna bedeinkatu eta senar-emazteen batasuna sortu eta santutzearen xede diren ugaltze-betebeharrak bete ahal izango dituzten arte» (Gazteriari lotutako gaietan aditua den aita Avellanosaren sermoia). (R. ABELLA, *op. cit.*, 107. or.).

AISIA ETA MODA

1. Debekatuta dago bainu-jantzi desitxurosoak erabiltzea. Bularraldea eta bizkarra behar bezala estaltzea exijituko da eta, gainera, emakumezkoek gonak eraman beharko dituzte eta gizonezkoek berriz, kirol-galtzak.

2. Debe katuta dago hondartzetan, klubetan, tabernetan, dantzaldietan, ibilaldietan eta, oro har, ur kanpoan bainu-jantzian egotea. Izan ere, bainu-jantziak bere erabilera egokia du eta ezin da bere benetako helburuaz kanpoko erabilera onartu.
3. Debe katuta dago hondartzan gizonezkoek eta emakumezkoek aldagela itxitik kanpo arropa eranztea edo janztea.
4. Debe katuta dago bainu-txabusinarik gabe eguzki-bainuak hartzea, kanpoaldera itxita dauden solariumetan izan ezik».

Segurtasun Zuzendaritza Nagusia.

Pertsonaiaren bizitzan, bere eta bere senideen bizitzan eragin erabakigarria izan zuten gertakizun garrantzitsuak gertatuko ziren agian (jarraian adierazitako hamarkada bakoitzean hain zuzen ere).

Hamarkadak	Hiru gertakari garrantzitsu	Garaikideak					
1990-2000			G U R A S O A K	P R O T A G O N I S T A	S E M E- A L B A K	B I L O B A K	B I R B I L.
1980-90							
1970-80							
1960-70							
1950-60							
1940-50							
1930-40							
1920-30							
1910-20							
1900-10							

GERRA EDO GATAZKA BAT AZTERTZEKO GIDOIA

a) *Gerraren arrazoiak*

- Zein arazo zeuden elkarri aurka egin zioten talde edo nazioen artean?
 - Zein zen desberdintasun horien jatorria?
 - Zein izan zen gatazka eta gerra-deklarazioa (halakorik izan bazen) eragin zituen arrazoiak?
 - Saiatu gatazkaren arrazoiak definitzen: objektiboak, subjektiboak, pertsonalak, garrantzitsuak, bigarren mailakoak, hil edo bizikoak...
 - Zein urrats eman ziren gerra deklaratu aurretik?
 - Beste herrialde, nazioarteko erakunde edo pertsona batzuek izan al zuten eraginik irtenbidean edo deklarazioan?
-

b) *Parte-hartzaileak*

- Zeinek hartu zuten parte borrokan? Zein taldek izan zuten esku-hartze aktiboa?
 - Zein jarrera izan zuen gatazkan inplikaturako bloke edo sektore bakoitzak eta zertan oinarritzen zuten?
 - Zeinek hartu zuen parte modu nabarmenago edo ezkutuago batean?
 - Kokatu mapan, taldeak elkarren artean bereizteko sinboloak erabilia.
 - Zein korronte sortu ziren esku-hartzearen alde edo kontra?
 - Herrialde bakoitzeko gizarteko zein sektorek egin zuen korronte baten ala bestearen alde?
 - Zein pertsonaiak izan zuten eragina gertakariak bizkortzeko edo geldiarazteko?
 - Gatazkan inplikatutako benetako erantzuleak ala biktimak izan ziren?
-

c) *Gerraren garapena*

- Gertaera nagusiak (ardatz kronologiko baten bidez denboran kokatuta).
 - Gertakaririk garrantzitsuenak gertatu zireneko lekuak (mapan kokatu behar dira).
 - Gatazkari lotutako pertsonaiarik garrantzitsuenak.
-

d) *Irtenbidea eta ondorioak*

- Norekin, nola eta zein proposamenekin amaitu zen gatazka?
 - Zuk zein proposaturiko zenituzke?
 - Zein blokek edo parte-hartzailek lortu zituen nahi zituen helburuak?
 - Zein izan ziren gerrak planetan izan zituen ondorioak?
 - Zein izan ziren gerrak parte hartu zuten herrialdeetan izan zituen eraginak?
 - Nolako kalteak eragin zituen (hildakoak, eremu ekonomikoen suntsidura, ingurumenarekiko eragina, ondorengo beste gatazka batzuetan izandako ondorioak...)?
-

e) *Gerraren oroitzapena*

- Nola islatu zen literaturan, zinean eta, oro har, prentsan?
- Nolako isla izan zuen arkitekturan eta kultur ondarean?
- Zein oroitzapen gordetzen dute bizi izan zuten edo bere ondorioak jasan zituzten pertsonak (bai eta bake-garaian ere)?

Kokatu denbora-lerro batean gertakizun garrantzitsuenak eta bereizi, ahal bada, aldiak eta urteak (adibidez, gatazka sortu zeneko aldia eta gerra piztu edo deklaratu zeneko urtea, lehorreko borrokaldia eta urterik gogorrenak eta abar).

2.15. DOKUMENTUA. NOLA EGITEN DA HORMA-IRUDI BAT?⁶**Horma-irudi itxurako egunkaria**

Gutenberg xv. mendeko grabatzaileak prentsa asmatu aurretik, albisteak kale garrantzitsuetan edo topalekuetan kokatutako horma-irudietako informazioaren bitartez zabaltzen ziren. Horrela, jendeak azken gertakizunen, lehertzeaz zegoen gerra baten, itsasontzi handien etorreraren, delitugileren baten bilaketaren, toki-dekretuen edo errege-dekretuen berri izaten zuen. Sistema hau duela gutxi arte erabili izan da —gatazka edo gerren garaian bereziki— herritarrei azken gertaerei buruzko informazioa emateko.

Gaur egun, informazio moduko horma-irudiak herrialde batzuetan erabiltzen dira (Txinan adibidez). Euskarri gisa panel handiak dituzte eta jende ugari joaten da irakurtzera. Gure ingurunean ikus dezakegunez, horma-irudia hainbat motatako informazioa (kontzertu bat, hitzaldiak, ekitaldi baterako deialdiak, errebindikazioak, sinadura-bilketak, informazio akademikoa eta abar) eskaintzeko oso zabaldua dagoen modu bat da.

Ikastetxean, horma-irudi itxurako egunkari bat egitea oso erraza da. Lehenik, ikasgelan edo korridore batean *horma* egoki bat aurkitu behar da. Horma-irudia gainazal batean (kartoi mehea, taula edo kortxo batean) egiten da. Bertan egunkariaren *lehen orrialdea* ipintzen da, ongi egituratuta eta askotariko *forma* eta *eduki* posibleekin. Gogorazi beharra dago orrialde honek *deigarria* eta erakargarria izan behar duela (koloreak, marrazkiak, argazkiak eta abar sartu behar dira). Halaber, *irakurterraza* izan beharko du jendeak berehala uler dezan.

Ez dugu ahaztu behar honako hau talde-lan bat dela eta lan hori egiteko gainerakoen iritziak errespetatu behar ditugula.

Funtsean, oinarrizko hiru erabaki hartu behar ditugu kontuan:

- Egin nahi dugun egunkari-mota.
- Egunkariaren izena eta maketazioa.
- Lan-taldeen araberrako antolamendua.

Jarraian, horma-irudi itxurako egunkari baten atalak egiteko hainbat modu azalduko dizkizugu. Atalak egiten hasteko bat aukeratu behar da:

HORMA-IRUDI ITXURAKO EGUNKARIA	Aukeratu...
<i>Informazio-egunkaria:</i> Albiste berri batzuei garrantzia emateko erabiltzen da. Albisteak hainbat modutan nabarmendu daitezke: argazkiak aukeratu eta iruzkinak eginda, egunkarietako albiste edo artikulua bildu eta ikasleen idatziekin zabaldua eta abar.	

.../...

⁶ Ondoko liburutik hartua: ARRI, A.; EGAÑA, A. eta LUNA, F. (1997): *Taller de Prensa*, Curriculum-materialak bilduma, 50. alea, Eusko Jaurlaritzako argitalpen-zerbitzua, Gasteiz.

.../...



HORMA-IRUDI ITXURAKO EGUNKARIA	Aukeratu...
<p><i>Horma-irudi monografikoa:</i> Gai beraren inguruan garatzen diren albisteak edo artikulak agertzen dira (adibidez, pertsonaia garrantzitsuren baten mendeurrenari, gertakizun bati, errebindikazioei edo omenaldiei buruzkoak). Informazio horiek ikasleen testuekin, irudiekin, argazkiekin eta abar osatuko dira. Halaber, aztergai dugun albisteren bati lotutako aribideko eskola-materiak erabil daitezke.</p>	
<p><i>Disziplinar-teko horma-irudia:</i> Albiste batetik abiatuta, hainbat ikuspegi har daitezke hainbat eskola-arlotatik. Adibidez, kirolari baten lesiotik abiatuta, mota orotako inplikazioak azter daitezke: Gizakiaren gorputzaren azterketa, kirol horrek gizartean duen eragina, kirol horri buruzko hiztegia, profesional hauen lesioei buruzko estatistikak eta abar.</p>	
<p><i>Horma-irudi librea:</i> Horma-irudi itxurako egunkari baten aplikazioak amaigabeak dira. Esparru bakar bateko albisteak azter ditzakegu (musika, artea, gazteria...), iraganeko egunkari bat egin dezakegu (erromatarren garaiko kronikak, 20ko hamarkadako egunkaria, duela 20 urtekoa, gerran dauden hiriei edo herri baketsuei buruzkoa...), etorkizuneko (nora garamatzate aurrerapen berriek?), Afrikako egunkari bat, egunkari eskimal bat, «X» egunkari bat, egunkari ekologista bat, ikastetxe, auzo edo hiriko jardueri buruzkoa eta abar. Atal hau burutzeko kontuan izan behar dugu dokumentazioa eta gaurkotasuna duten gaiak aztertzea funtsezkoa dela. Atal honetarako, ikus «Atalak».</p>	

Taldeka egin behar duzuen horma-irudi itxurako zein egunkari-mota egingo duzuen erabaki ondoren, hainbat arazo izango dituzue oraindik konpontzeko. Hasteko, orrialdean landuko dituzuen *Atalak* aukeratu behar dituzue. Atal hauek arestian egindako aukeraketaren arabera izango dira erabat. Horrela, egunkari arrunt baten formatua aukeratzen baduzue, horietako bat kontsulta dezakezue lehen orrialdeak zein elementu dituen ikusteko. Bestelako kasuetan, barne hartuko duzuen informazio-mota bilduko duten atal egoiak asma daitezke. Gogoan izan esparrua oso zabala dela eta laguntzaile anonimoen-tzako espazio libreak, argazki eta marrazkietarako espazioak, umore-bandak, iragarki laburrak, publizitatea eta abar ager daitezkeela.

Atalak	Gaia...	Espazioa (gutxi gorabehera)

Horma-irudi itxurako egunkariaren *izena* eta *diseinua* erabaki behar ditugu. Maketazioa gutxi gorabeherakoa izango da. Izan ere, albisteak eta gainerakoak barne hartzen ditugun heinean, pentsatutakoarekiko aldaketak izan ditzakeela ikusiko dugu.

Hona hemen eredu batzuk proiektua nolakoa izan litekeen ikus dezazuen:



Egin zuen gustuko horma-irudi itxurako egunkariari buruzko proiektu bat.

Irakurri arretaz horma-irudi itxurako egunkaria egin ahal izateko beharko ditugun *erredakzio-koadroko* lanpostuak eta aukeratu, bakarka, zein lekutan lan egingo zenukeen:

Postua	Funtzioa	Zuen izena
Zuzendaritza-taldea	Proiektuaren jarraipena eta antolamendua egiten dute, materiala eta proposamenak jaso eta aukeratzen dituzte eta maketazio-taldea aholkatzen dute.	
Erredakzio-taldea	Aukeratutako Materiala jaso eta genero eta ataletan sailkatzen dute eta testuak mekano-grafiatzeaz eta argazkiak aukeratzeaz arduratzen dira.	
Maketazio eta inprimaketako taldea	Egunkariaren estiloaz arduratzen dira: erabili beharreko letra-mota, atalen maketazioa, bereizketa-elementuak, marrazkiak, irudiak eta abar. Ondoren, euskarrian itsasten dituzte, artikulua espazioan egokitzen dituzte eta abar.	
Banaketa-taldea	Horma-irudia non koka daitekeen pentsatzen dute, panela jaso eta bere espazioan kokatzen dute, beharrezkoa izanez gero lekualdatzen dute eta klaseetan zehar aurkezten dute.	

Ikus daitekeenez, postu batzuetan ez da jende asko behar. Bestalde, horma-irudi itxurako egunkariaren gaia eta atalak aukeratu ondoren, denek albisteak bilatzen edo idatzia egiten hasi behar dute. Hauek, ondoren, aztertu eta hautatu egingo dira egunkarian barne hartzeko.

Ondoko taularen helburua, horma-irudi itxurako egunkariarekin hasteko aukera emango diguten funtsezko erabakiak hartzea da. Ondoko ordenari jarraituko zaio:

- Ikasgelan, aukeratutako egunkarien *motak* (informaziokoa, monografikoa...) ikusi eta bat aukeratu behar da guztien artean.
- Aurretik egindako aukeraketari jarraiki, ager daitezkeen *atalak* adierazi behar dira.
- Maketazioen* gardenkiak ikusi eta aukeratutako asmoarekin bat datorren bat aukeratu behar da.
- Azkenik, lan-talde bakoitzean zenbat ikasle dauden ikusi behar da eta *Erredakzio Koadroko* taldeak egokitu behar dira.

HORMA-IRUDI ITXURAKO EGUNKARIA				
Aukeratutako egunkari-mota				
Atalak				
Aukeratutako maketazioa				
Erredakzio-koadroa	Zuzendaritza-taldea	Erredakzio-taldea	Maketazio eta inprimaketako taldea	Banaketa-taldea

Lanean hasi aurretik, irakurri arretaz testua une bakoitzean zer egiten ari zareten jakiteko. Lana amaitutzat ematen baduzue, lagundu gainerako taldeei, beharra izango dute eta.

Ikusiko duzuen bezala, lana bi fasetan banatuta dago: lehen fasean gaiari lotutako albisteak eta artikulak moztu, testuak idatzi edo iruzkinetan aholkatuko zaituzteten beste iturri batzuetara jo beharko duzue.

Bigarren fasean horma-irudi itxurako egunkaria landuko duzue zuzenean.

—Dagoeneko badakigu zein egunkari-mota nahi dugun eta zein atal izango dituen. Beraz, talde bakoitzean lanean irudikatuta ikusi nahi duzuen ideia bat landu behar duzue segidan: albiste baten hautaketa, idatzi baten lanketa edo talde-berrikuspene (idatziren bat eginda baduzue), marrazkiak egiteko lana, argazkien aukeraketa, zerikusia duen gai bati buruzko informazioaren bilaketa...

—Hemendik aurrera, lana hainbat fasetan egin beharko da. Hautatutako materiala eskuratzen duzuen bitartean, zuen taldeak egin beharreko ekintzak asmatu edo proiektatu beharko dituzue:

1. Talde bakoitzak aukeratutako albiste bat edo egindako irudi edo testu bat duenean, *zuzendaritza-taldearen* aurrean aurkeztuko dira honek egokitzen hartzen duena hauta dezan.
2. Zuzendaritza Taldeak testuak eta albisteak *erredakzio-taldeari* emango dizkio. Honek horma-irudian barne hartuko dena behin betiko erabakiko du, material guztia atalka banatuko du eta espazioan izango duten banaketa proposatuko du.
3. Jarraian, *maketazio-taldeak* egunkaria itsatsi eta irudiz hornitzeko euskarria izango du (kartoi mehea, taula, kortxoa eta abar) eta jasotzen duen materiala egokituko du.
4. Ordurako, *banaketa-taldeak* panela kon kokatu behar den pentsatuta izan beharko du. Amaitzeko, horman, asto batean, iragarki-taula batean ipintzeaz arduratuko da.

HIRUGARREN ATALARI DAGOZKION DOKUMENTUAK

3.1. DOKUMENTUA. BIOGRAFIAREN EZAUGARRIAK

Zer da biografia bat?

Pertsona baten bizitza kontatzen duen idazkia da biografia.

Pertsona horren nortasuna, itxura, izaera eta abar azaltzen zaizkigu deskribaturik eta bera bizi izandako testuinguru historiko eta soziala, bere bizitzaren eragilea izan daitekeena edo pertsonak berak eragindakoa. Bizitza horretako gertakari garrantzitsuenak nabarmen-tzen dira, ekintza garrantzitsuak edo bizitzan gertatutako hainbat egoera erabakigarri.

Bigarren mailako pertsonaiengan arreta jarri behar da, horiek pertsonaiaren inguruan bizi izandako pertsonak baitira. Batzuetan informazioa jasotzen dugu haien bitartez, haien lekukotasuna oso lagungarria izan daiteke idazleak biografia osatzeko.

Egiptiarrek, pertsona garrantzitsuren bat hiltzen zenean, hilarrietan eta estatuetan idazten zituzten biografiak. Plutarko izan zen, hala ere, biografiak idatzi zituen lehen idazlea —I. gizaldikoa dugu haren *Bizitza paraleloak*—; berak asmatu zuen «biografia» hitza, hain zuzen ere.

Ondoren, biografia generoa zabaldu egin zen Erroman eta pertsona ezagunen heriotza zela-eta erabiltzen zuten, hildakoari laudorioak («laudatio») idazteko. Honela egiten zuten:

1. Hildakoaren familia eta arbasoak.
2. Bere karrera publikoa.
3. Pertsonaren bertuteak goraiatzeko zituzten herritarrak hartaz luzaroan oroitu zitezkeen.

Itun Berria dugu antzinaroan idatzitako biografiarik garrantzitsuena. Jesusen bizitza kontatzen du eta haren arbasoen, familiaren eta ingurunearen berri ematen digu ebanjelioren bidez, batez ere San Mateok eta San Lukasek idatzitakoen bidez.

Baina generoa ez zen finkatu XVIII. mendera arte, Voltaire eta Chateaubriand autoreen lanekin hain zuzen ere. *Laudatio*aren eskema berbera segitzen zuten, baina kronologikoki egin beharrean gaika egiten zuten. Ondoren beste idazle gehiago ere agertu zen: Stendhal, Cousin, Rolland...

XX. mendea izan zen genero honen garairik oparoena; besteak beste idazle hauek landu zuten: Ramon Gomez de la Serna-k, De Madariaga-k, G. Marañon-ek, A. Mou-rois-k, Troyat-ek etab.

Biografiaren egitura

Oro har biografiaren egitura kronologikoa izaten da (hau da, bizitza jaiotzatik heriotza arteko ordenan kontatzea), eta gai jakin batzuk aztertzen ditu. Ondoko zutabeetan hainbat gai zerrendatu ditugu; kontuan hartu nahi baduzue, eta agertzen ez direnak gaineratu:

Jaiotza	Lagunak	Interesak
Gaztaroa	Testuingurua	Sexua
Helduaroa	Eskola	Lana
Heriotza	Haurtzaroaren amaiera	Gertaera garrantzitsuak
Gurasoak	Ikasketak	Garapen psikikoa
Etxea	Bokazioa	Proiekzio publikoa
Familia	Jakin-nahiak	Gaixotasunak
Lehen oroitzapenak	Harremanak	
Hizkuntza	Gaitasunak	
Animaliak	Zaletasunak	

Bizialdika antolatzen dira gaiak, hau da, pertsona guztiek igarotzen dituzten aroen arabera -goiz hiltzen ez bada behintzat-: haurtzarora, gaztarora, helduarora, eta zahartzarora.

Biografiak idazteko gehien erabiltzen den ordena kronologikoa bada ere, sarri haus-turak egiten dira denboran aurrera edo atzera egiteko. Zineman *flash back* eta *flash forward* izena du horrek.

Idazkia antolatzen benetan lagunduko digutenak kapituluak dira. Kapitulu bakoitzak pertsonaiaren bizialdi bat har dezake, bestela gaien arabera joan daitezke, gertakari adie-razgarriak, egoera garrantzitsuak eta abar kontatuz.

Biografia bat egiten hasteko hainbat modu ditugu, baina hasiera bakoitzak ondoren-goaren garapena eta amaiera bideratuko ditu noski. Autore batzuk pertsonaiaren jaiotza-rekin hasten dira; kasu horretan garapen kronologikoa izango da; beste batzuek bizitza-ren azken uneak hartzen dituzte abiapuntutzat, edo bere bizitza publiko edo pribatuko gertaera harrigarriren bat, kontu barregarri bat, deskribapen bat, eszena bat, elkarrizketa bat... Nahi adina aukera dago, ez dago mugarik.

Ikus ditzagun ondoren zenbait biografiaren hasierak:

Charles Dickens, herri honetako nobelagilerik ezagunena eta Ingalaterrako umorista handienetako bat, ostiral batean jaio zen, 1812ko otsailaren 7an hain zuzen ere, Portsean.

E.M. Forster

John Ford historian zehar izan den zinemagile miretsienetako bat da. Oso mireспен berezia da ordea: publikoaren ahotan Cecil C. De Mille, Alfred Hitchcock edo Steven Spielberg egon dira beti (20, 50, eta 80ko hamarkadetako adibide adierazgarrienak aipa-tzearren); baina esparruko profesionalak —beste zinemagileak, operadoreak, kriti-koak [...]—, aldiz, haren «estilo ikusezinaren» zaleak izan dira —hala deitzen zion An-dré Bazinek, beti horren alde hitz egiten ez zuen arren—.

Guretzat oso sintomatikoa da munduko errealizatzaile ospetsuenek John Ford-enga-nako mireспен sakon hori eta nolabaiteko debozio sentikorra adierazi izana.

John Ford, F.J. Urkijo, Cátedra, Madril 1991

1966an Pariseko Arte Dekorati-boen Museoak antolatu zuen «1925» izeneko erakus-keta zela-eta, Pariseko kulturaren eta artearen esparrukoak *Art Déco* delakoa berpizten saiatu ziren. 1910 eta 1940 bitartean landu zen estilo hori, garai hartako Europa naha-

sian, eta 1925 eta 1935 bitartean heldu zen gorenera. *Art Déco* oroitzeko erakusketa honetan, Paris bitxia eta sofistikatua ageri da, atseginzalea, misterioa eta sedukzioa lan-tzen dituena. Orduan, Bigarren Munduko Gerrarako bidea hartuta, belaunaldi gazteak eta margo-kritikoak txundituta utzi zituen izen ezezagun bezain distiratsuko emakume margolari bat azaldu zen: Tamara de Lempicka.

«Tamara de Lempicka. La pintora de Art Déco», de *Extraviadas ilustres*, Ana M.^a Moix

1958ko abendua: gureak egin du. Kubatar iraultzaileak Santa Clara hiria setiatzen ari dira. Bi bandoen arteko borrokak ez du luze iraungo, gerrillarien garaipena sumatzen da. Hilotzak daude nonahi, bazter guzietan. Horietako bat «Vaquerito» da, gerrillarien artean maitatua zen kapitain bat. Geroxeago, heriotza horren berri eman duen gerrillari-buru batek armadako teniente bat preso ekarri du. Hura ikustean, bere onetik aterata oihu egin du gerrillariak: «Tipo hau akabatu beharko genuke». Baina nagusiak, begietara so, gozo eta lasai hitz eginez, zera ihardetsi dio: «Eurak bezalakoak garela uste al duzu?»

Che, A. Zuberogoitia, Elkar

Biografiaren egituraren gaineko jarduerak:

- Binaka, egin pertsonaia ezagun baten gutxi gorabeherako erretratua. Lehendabizi datuak pilatu behar dituzue eta gero antolatu, kronologi irizpideen arabera edo beste batzuen arabera. Ondoren, erretratu labur hori klasekideei irakurriko diezue.
- Autobiografia labur bat idatzi ohar biografiko moduan, eta beste kideari irakurri. Kontuan hartu zure bizitzako datu azpimarragarrienak iruditzen zaizkizunak hautatu behar dituzula, eta kronologikoki antolatu.
- Hasita daukazun banakako ekoizpen biografikoari buruz:
 - Idatz ezazu ohar biografiko bat hautatu duzun pertsonaiari buruz. Ohar hori zure pertsonaiaren funtsezko gertakarien eskema izango da.
 - Idazkiaren egitura: Antolamendu kronologikoa egingo al duzu? Nola hasiko zara?
 - Ohar biografikoan oinarrituz, egin ezazu oinarritzko egitura bat kapituluka eta adierazi, gaintik, zer sartuko duzun bakoitzean.

Biografi motak

Atal honetan ohar biografikoa eta azalpen biografikoa bereizirik daude. Ondoren, identifikatu behar diren bi testu daude, lehenengoa ohar biografikoa da eta bigarrena azalpen biografikoa.

Ohar biografikoa	Datu-pilaketa bat da, kronologikoki aukeratua. <i>Curriculum vitae</i> baten itxura du: egindakoak, urteak, tokiak, gertaerak... Batzuetan, ohar biografikoa hotza eta soil-ila izaten da.
Azalpen biografikoa	Bukatu gabeko biografia bat da, lausoa. Pertsonari buruzko datu adierazgarrienak bakarrik hautatzen dira. Ohar hautatuak dira.

Azter itzazue binaka ondorengo testuak. Jakingo al zenuke zein den azalpen biografikoa eta zein ohar biografikoa?

1 Testua:

Daniel Defoe Londresen jaio zen, 1660 urte inguruan baina ez dakigu zehazki zein urtetan. Bost urte zituela Londresen izurritea izan zen, eta gai hori *Izurriaren Urteko Egunkaria* eleberrian (1722) deskribatu zuen. Apaiz ikasketak egin zituen, baina 21 urterekin utzi eta merkataritzan hasi zen. 1684an, Mary Tffey-rekin ezkondu zen, eta ekonomia eta merkataritzari buruz idazten hasi zen. 1697an, diru-arazoak izan arren arrakasta handia izan zuen *Proiektuei buruzko entsegua* obrarekin. Garai hartarako lan aurrelaria zen, emakumeentzako hezkuntza, armada profesionala, elbarrientzako laguntza eta horrelakoak aztertu zituelako. 1703an, pikotan jarri zuten eta espetxeratu, boterean zeuden politikari kontserbadoreen aurka idazteagatik. Gero espioitza-lanak egin zituen. 1704an, lehen ingeles egunkarietako bat sortu zuen: *The Review*. Pixkanaka kontserbadorismorako joera hartu zuen tory-ekin batera, eta, 1714an gobernua aldatu zenean, berriz ere espetxeratu zuten horregatik. Hala ere, ospe oneko kazetaria zen herritarren artean.

1719an, arrakasta harrigarria lortu zuen lana idatzi zuen, gero munduan zehar zabalduko zena: *Robinson Crusoe*. Hurrengo urtetan, *Moll eta Flanders* eta *Lady Roxana* idazlanak egin zituen besteak beste. 1731an hil zen, bakar-bakarrik eta zeuzkan zorren hartzekodunak atzetik zebilzkiola. Bere bizitzan zehar bi seme eta sei alaba izan zituen, 500 idazkiko obra teoriko bat, eta hainbat eleberri idatzi zituen. Baina hurrengo mendera arte ez zuten bere garrantzia aitortu.

Cronología de Daniel Defoetik hartuta,
CLIJ 110. zk.

2 Testua:

Merkatari burges txikia, agitatzailea, panfleto politikoren idazlea, agente sekretua, espioia... Zokoratua... Defoe klasikoen zerrendan dago bere *Robinson Crusoe* eleberriari esker. Defoek ez zuen eraginik izan bere garaikideengan, beharbada haiek ez zeudelako prest horrelako lan aurrelari bat ulertzeko. Idazleak 60 urte zituen *Robinson* idatzi zenean; bere eleberri guztiak bezala, hau ere ez zuen lan seriotzat hartu entseguen, eskuliburu- edo bidaia-liburu- aldean. Izan ere, horrelakoak idazten jardun zuen ia bizitza osoa. 1731ko apirilaren 26an hil zen, Londreseko ostatu batean, orduko kultur gintzaren axolagabetasunean. Horrela beraz, bere bizitza beti borrokan zegoen gizon bakarti baten epopeia izan liteke, baina ez naturaren aurkako borrokan, baizik eta, Robinson bezala, bizitza egokitu zitzaion garaiaren aurka.

Daniel Defoe, E. Pascual, CLIJ 110. zk.

Biografiaren eta autobiografiaren arteko desberdintasunak

Biografiaren eta autobiografiaren ezaugarri komuna gai berbera garatzen dutela da, gizaki baten bizitza, alegia.

Autobiografiari dagokionez, idazleak bere bizitza kontatzen du, bere burua deskribatzen du; hortaz, berdinak dira idazlea, narratzailea eta protagonista. Autobiografiak azpi-generoak ditu: eleberrri autobiografikoa, memoriak, aitorpenak, egunkaria eta abar.

Ikusi ditugun testu biografikoak hasieran irakurritako *Las cenizas de Ángela* liburuaren pasarteekin alderatu genitzake.

Azter itzazu desberdintasunak ondoko taulan:

Desberdintasunak	Biografia	Autobiografia
1. Narratzailea	Norbaitek pertsonaia bati buruz idazten du. Idazlea eta narratzailea pertsona bera dira.	Idazlea, narratzailea eta protagonista pertsona bera dira.
2. Heriotza	Biografia gehienak pertsonaiaren heriotzarekin amaitzen dira.	Heriotza ez da helmuga. Bere bizitzari kohesioa ematen saiatzen da idazlea.
3. Memoria	Hainbat informazio-iturri daude: irakurritako datuak, lekukotasunak, dokumentuak... Hau da, besteen memorian oinarrituta dagoena da, nahiz eta batzuetan norberaren oroitzapenak ere sartzen diren.	Norberaren memoria da abiapuntua.
4. Antolaketa	Abiapuntua ez da hain zehatza, baina sarritan orainaldia da. Esperientzia ez ezik dokumentazioa ere kontuan hartzen da. Iragana azaleratzen da.	Orainalditik abia daiteke iraganera heltzeko. Iragana berreskuratzen da.
5. Estiloa	Oro har 3. pertsona erabiltzen da; baina autorearen iritziak ager daitezke, baita narratzaile gehiago ere (lekukotasunak).	1. pertsona erabiltzen da. Beste narratzaile batzuk ager daitezke (lekukotasunak) baina ez da ohikoa, pertsona bera da-eta bere burua deskribatzen duena.

3.2. DOKUMENTUA. DESKRIBAPENA

Biografia batean oso garrantzitsuak dira deskribapenak, haien bidez pertsonaia hobeto ezagutu ahal dugulako, eta hari buruz gauza gehiago jakin: nolakoa den bai itxuraz bai izaeraz, nolakoak diren bere ingurukoak, zer girotan ibiltzen zen, bere hiria, bere gauzak...

Kapitulu honetan deskribapena izango dugu aztergai: zer da, nolakoa izan daiteke, zer deskribatzen du... Atal hauek ikusiko ditugu:

- A) Zer da deskribatzea.
- B) Deskribapen-motak: objektiboa/ subjektiboa.
- C) Animaliak, gauzak, lekuak, nola deskribatu.
- D) Erretratua.
- E) Deskribapenen hizkuntza.
- F) Berrikuspena.

Atal guztiek ariketak dituzte. Batzuk oso luzeak dira, esaterako erretratuarena (D.1, D.2...), hori da, hain zuzen ere, gure biografia ezagutzeko gehien interesatzen zaigun alderdia.

A) Zer da deskribatzea

Deskribapen bat egin baino lehen ezinbestekoa da *behaketa* egitea. Deskribatuko duguna ongi aztertu ondoren, ahalik eta datu gehien gordetzen saiatuko gara, eta gero garrantzitsuenak sailkatuko ditugu («Aspergarria izateko sekretua dena esatea da», zioen Voltaire-k).

Idazten hasi baino lehen *erabaki batzuk* hartzea komeni da: eskuinetik ezkerrera mugituz ikusten duguna deskribatuko dugun, nabarmenenetik arreta gutxien ematen duenera arte, orokorretik xehetasunetara... Deskribatuko dugunari buruz oharrak hartzerik ere badugu, edo hitz giltzarriak idaztea. Prozedura zure esku dago.

Deskribapenaren *estiloak* plastikoa eta argia izan beharko luke, ingurabiderik eta azalpen luzeegirik gabe.

Hartzailea kontuan hartu behar da —kasu honetan gainerako ikasleak eta irakasleak—, zure deskribapena taldean zabalduko da-eta, gainera beharbada beste norbaitek ere irakurriko du. Horregatik komeni da idatzitakoa publikoak nola jasoko duen hausnartzea. Ez dugu ahaztu behar deskribapena nolakoa izatea nahi dugun erabakitzea, deskribapenaren *xedea*, alegia: ahalik eta argiena izatea, argigarria, enigmatikoa... edo besterik gabe irakurleak deskribatutakoaren ideia bat edukitzea nahi dugun, edo informatzea, harritzea...

Deskribapen guztietan hizkuntzari buruzko gauza jakin batzuk hartu beharko dituzu kontuan, aurreko ariketa batzuetan ikusi dugun bezala:

—*Aditz-denbora*: Oro har iraganaldia erabiltzen da, baina orainaldiarekin tartekatuta.

- Izenak eta adjektiboak* dira nagusi. Izenak, gauzak eta izakiak izendatzeko baliatzen ditugu, izen konkretuak gauza errealak aipatzeko (gauza bat, paisaia bat...) eta abstraktuak sentrazioak edo sentimenduak deskribatzeko (tristura, poza...).
- Adjektiboa* da deskribapenaren protagonista. Hala ere, ez ditugu gehiegi jarri behar testua ez zamatzearren. Izenaren atzetik joaten dira: «kamioi gorria», «lepoko luzea»...; batzuetan aurretik ere, deskribapena oso literarioa bada: «zuriak mendiak». Adjektiboak ikusten duguna zehazkiago adierazten laguntzen digute.
- Beste *literatur baliabide* batzuk: pertsonifikazioak, konparazioak eta metaforak esate baterako.

Gero ikusiko dugu deskribapenak bi *motakoak* izan daitezkeela: objektiboak eta subjektiboak, eta gainera deskribatzen ari garenaren arabera askotarikoak izan daitezkeela (pertsona, animalia, gauza, eszena, irudia etab.).

ESKEMA	
Deskribapena:	
Oinarria.	BEHAKETA.
Kontuan hartu beharrekoak	HARTZAILEA HELBURUA ORDENA
Estiloa.	ARGIA, ZEHATZA
Ezaugarriak.	ADITZA IRAGANALDIAN IZEN UGARITASUNA ADJEKTIBO UGARITASUNA
Literatur baliabideak.	METAFORA KONPARAZIOA PERTSONIFIKAZIOA

Ondoren Eduardo Mendozaren testu hau irakurriko duzue (*El misterio de la cripta embrujada*). Adjektiboak testuingurutik kanpo daude, eta beren lekuan ipini beharko dituzte, bakoitzak duen zehaztasuna eta aberastasuna ikus dezaten.

Hona hemen testua osorik; ondoren landutako alderdiei buruzko galdera-sorta labur bat doa.

Adjektiboak:

1. irregularrak, handiak eta horiak
2. ustekabeko eta agortezin
3. ganbila eta maspildua
4. ederra
5. okerra
6. motz eta oker
7. trapezoidala

8. txiki-txikiak
9. motza
10. presaka eta narraski

Testua:

Batek daki nork esan zion nire arrebari, eta zergatik, nerabea zenean, Juanita Erreginaren antza zuela. Gajoak sinestu egin zuen, eta oraindik ere, hogeita hamar urte geroago, ilusio hori sinestuta bizi da. Baina ez zen egia. Juanita Erregina, nik dakidala, emakume _____ zen, lerdena oso; eta nire arrebak, grinarik gabe diot, ez zuen inondik ere halako itxurarik. Are gehiago: kopeta, _____ zuen; begiak, _____, eta ezkeltasunera jotzen zuten kezkatuta zebile-
nean; sudur _____, aho _____, eta hortzak, berriz, _____. Ezin esan ahaleko gorputza, erditzeak nahigabetua; jaio baitzen: ferreteriaren atzealdean, ama abortatu nahi eta ezin ari zela. Horrela irten zen arrebaren gorputz _____, hanka _____ haien-
tzat neurrigabea zena, eta nano heldu baten itxura ematen ziona. Hala bota zuen, artista baten gogorkeriaz, neskatoaren lehen jaurnatze-egunean argazkia atera nahi izan ez zion argazkilariak, ospea galduko zuelakoan.

—Inoiz baino politago eta gazteago zaude.

—Kaka zaharra! Zu eroetxetik zatoz! —erantzun zidan.

Arduragabea bazirudien ere, arrebak maite ninduen, nolabait berak betidanik nahi izan zuen umea bainintzen. Baina ezin izango zuen hori bete, bere amatasunak oztopo bat zuelako: behar-bada sortzetiko malformazio bat zela-eta edo bizitzaren atsekabeak direla-eta, kontua da barneko organoak —umetokia, barea eta kolona, alegia—, elkarri lotuta zituela, eta bere funtzio organi-
koak nahas-mahas bat ziren.

B) Deskribapen-motak objektiboa/ subjektiboa

Deskribapen batean iritzirik edo sentsazio pertsonalik sartzen ez badugu, datu erreal-
letara mugatzen bagara alegia, deskribapen objektibo bat egiten ari gara.

Alderantziz, deskribapen subjektibo batean aurreko gauzak kontuan hartuko ditugu, baina zure ustez nabarmengarriak direnak azal ditzakezu. Datu batzuk errepikatu ahal izango dituzu, ia gehienak; baina, orain, zer iradokitzen dizun gaineratuko duzu, zer egin zenezakeen gauza horrekin edo leku horretan, ikusten ari garenak poza, harridura, hase-
rrea, ematen dizun... Deskribatzeko modu askeagoa da, eta literarioagoa. Mota guzie-
tako azalpenak eta baliabideak sar daitezke.

Azter itzazu ondorengo deskribapenak eta komenta itzazu galdera hauen bidez:

1. Zein iruditzen zaizu objektiboena? Eta subjektiboena?
2. Azpimarra itzazu testuotan subjektibitatea adierazten dituzten elementuak: gogo-
etak, iritzia, azalpenak, gogoko gauzak...
3. Markatu hiru testuetan literatur baliabideren bat (konparazioa, metafora, hiperbo-
lea, pertsonifikazioa...).
4. Zer deskribapen-mota sartuko zenuke zure idazki biografikoan?

1 Testua: Lezio berri bat ostrukari buruz

(Pliniok ostrukari buruz esana) «...hegazti bat da, hegazti handiena, eta zaldi gainean dagoen pertsona baten altuera izan dezake; gainera orein-oinak eta azkazalak ditu, etsaiari harriak jaurtitzeko; eta gainera, irensteko gaitasun harrigarria eta benetan miragarria du, edozer gauza irensteko gauza baita: haria, papera, belarra edo metala; inozo hutsa da hegazti hau, gorputzaren halakoa du tentelkeria, hau da, zaldi gainean dagoen pertsonaren tamainaren halakoa; eta ezin du hegan egin; eta arrautzak errun eta lur azpian gordetzen ditu [...]»

2 Testua: Gida Turistikoa (Italia)

«Ederra, alaia, axolagabea eta sentibera. Iraganaren irudi, Errenazimenduaren sorleku; gaur distiratsua, dotoreziaren eta fintasunaren eredu da, batez ere modari dagokionez, garai klasikoko edertasun argitsuaren eta lerroen armoniaren eragina baitu noski. Erroma, Venezia, Florentzia [...] artez, historiaz eta aurrerapenez blai. Gizaki askok egin behar luketen bidaiia».

3 Testua: Dekorazio aldizkaria

«Sukaldeko bazter batean jangelarako leku bat dago, mahaitxo bat oihal batez estalia, eta kanazko aulki batzuk. Zoru guztia berdina da, xake-aula bat bezalakoa, jarraitasun-efektu optikoa emateko. Hala ere, hormak txuriz alikatatuta egon beharrean pastel kolorez margotu dituzte, eta koadroz apaindu».

C) Animaliak, gauzak, lekuak, nola deskribatu

Gauza guztiak izan daitezke deskribagai, baina zer deskribatu hautatu behar dugu: begien aurrean duguna, barnean daramaguna, oroitzen duguna...

Bestalde, oso desberdina da pertsona baten erretratua egitea edo gauza bat eta hura nola erabiltzen den deskribatzea, edo animaliak, paisaia bat...

Ondoren, aipatzen ari garen horren gainean hiru ariketa dituzu:

1. JARDUERA

Egin ezazu ondorengo hiru testuetan agertzen diren deskribapenen komentarioa:

1. testua: «Real Academia de la Lengua Española» hiztegitik hartua.

«Patao: Arraina, 30 zentimetro inguruko luzera duena, zilar kolorekoa, bizkar konkorduna, kono-formako muturra, aho handia eta barkillo-antzeko isatsa dituena. Jan daiteke».

2. testua: San Antonioren bizitza, Alexandriako gotzainak 360. urtean idatzia.

«Deabruaren begiak goizeko izarra bezalakoak dira. Bere aho-zulotik lanparak piztuta eta sua irteten dira. Su-txingarrak berotutako labearen bati kea dario bere sudurzuloetatik. Bere arnasak ikatz-usaina du [...]».

3. testua: *Sin noticias de Gurb*, E. Mendoza.

«21:30: Aski da. Ezin dut pauso bakar bat gehiago eman. Nire hondamen fisikoa nabarmena da. Beso bat, zango bat eta bi belarriak erori zaizkit, eta mingaina hain dut zintzilik, non gerrikoan lotu behar izan baitut, dagoeneko lau txakur-kaka eta zigarro-punta mordoa jan ditudalako. Egoera honetan, hobe da ikerketak biharko uztea. Aparkatuta dagoen kamioi baten azpian ezkutatuko naiz, gero deuseztatu egingo naiz, eta ontzian agertuko naiz».

Komentarioa.


- Ulertu al duzu deskribapen bakoitza zeri buruzkoa den?
- Zein iruditzen zaizu subjektiboagoa? Zergatik?
- Egin ezazue binaka —baina bakoitzak berea— deskribapenetako pertsonaia bati buruzko marrazkia (biok berdina); ondoren bi marrazkiak konparatu, bertsio bakoitza egiaztatzeko.

2. JARDUERA

Jarraian, ikus ondorengo irudiak eta aukera ezazu bat haren deskribapena egiteko. Deskribapena hasi baino lehen, ondoko datu hauek kontuan izan:

Objektiboa ala subjektiboa izango da?

- Zehatza ala azalekoa?
- Idatz itzazu zirriborro batean, ikusi dituzun eta zure deskribapenerako ahaztu nahi ez dituzun ezaugarriak.
- Egin ezazu funtsezko alderdien hautespena.
- Saia zaitetz zure deskribapena ikusten ari zaren irudira egokitzen.



3. JARDUERA

Saia zaitetz zure biografiako pertsonaiaren abere edo objekturen bat deskribatzen: bere konpainiako aberea, bizi zen kalea, bere gela, bere objektu berezi bat (eraztun bat, erloju bat, tabakoa, bere automobila, liburuak, arropa, eta abar).

Erretratua, gainontzeko deskribapenak bezala, subjektiboa ala objektiboa izan daiteke; adibidez, erretratu robota *objektiboena* da (ez du balorazio edo konparaziorik aditzera ematen, bereizten duena azpimarratzen du, hala nola: orbain bat, markak, eta abar), eta beste zenbait erretratu *subjektiboagoak* dira (adibidez, maite dugun pertsona baten deskribapen idealizatua, edo konparazioak, metaforak eta abar erabiliz egindakoa, eta abar).

Ondoren, eta erretratuan oinarritzen den deskribapenarekin jarraituz, zenbait jarduera egingo ditugu. Biografian zure pertsonaiaren erretratua lantzerakoan lagungarriak izango direlakoan gaude.

D1) KANPOKO ETA BARNEKO ERRETRATUA

Irakur itzazu arretaz ondoko testuak, eta adieraz ezazu zure ustez zein izan daitekeen prosopografia bat eta zein etopeia bat.

Ez zuen inoiz inor bisitatzen, eta ez zuen inor hartzen, ez eta afaltzera gonbidatzen ere. Ez zuen inoiz zaratarik egiten, eta bazirudien dena aurrezten zuela, bai eta mugimendua ere. Ez zuen inoren gauzarik ukitzen, jabetoa erabat errespetatzen baitzuen.

Eugénie Grandet, Honoré Balzac

Batek, aurpegian marrak margotu zituen; besteak, betaurrekoak; hark, bibotea, bekainak eta belarrondoko bizarra, hain gaizki, non aurpegi osoak tintontzi-kondarrez inguratuta baitzirudien. Ez zirudien haur txiki haiek giza arrazakoak zirenik ere, eta aurpegia eta eskuak kedar madarikatu harekin margoturik, deabru txikiak edo infernuko munstroak ziruditen.

Fortunana y Jacinta, B. Pérez Galdós

D2) PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA

Jarduera hau egiteko, produkzioarako aukeratu duzun pertsonaiaren deskribapenarekin has zaitezke.

Hasieran, saia zaitez ahal duzun modurik zehatzenean deskribatzen, eta ondoren, idazketa antolatzeko garaian, azpimarratu nahi duzuna aukeratuko duzu.

Deskribapena bi aldi edo etapatan egingo duzu: alde batetik, pertsonaren *egungo egoera* (gaur egun den bezala edo ikusi duzun azken aldiz gogoratzen duzun bezala), eta bestetik, bere bizitzako *beste etapa bat*: haurtzaroa, gaztaroa, eta abar. Iraganeko deskribapena egiteko, erabil itzazu hurbilen dituzun dokumentuak: argazkiak, oroitzapenak, testigantzak, eta abar.

Ondoren, biografia egiten duzunean, gehien interesatzen zaizkizun deskribapenen datuak komenigarritzat jotzen duzun kapituluan sartu.

Zure deskribapena ondorengo fitxa honetan barne hartuko da:

Deskribapen-fitxa. Has zaitetz zure pertsonaiaren egungo egoeraren erretratua eginez:

PERTSONAIAREN IZENA:

Argazkia, fotokopia, erretratua...:

Erretratua:
ETOPEIA

PROSOPOGRAFIA

Pertsonaiaren erretratua, bere bizitzako beste garai batean:

PERTSONAIAREN ADINA:

Argazkia, fotokopia, erretratua...

Erretratua:
ETOPEIA

PROSOPOGRAFIA

D3) ATALEZ ATALEKO ERRETRATUA

Gela osoak ezagutzen dituen pertsonaiak hartuz, testu bat landu behar duzue binaka edo taldeka, bertan alderdi fisikoak eta nortasuna kontuan izanik. Testu hori talde osoaren aurrean irakurri ondoren, gainontzekoek pertsonaia nor den asmatu beharko dute. Lagungarri gisa, ondoren agertzen den adjektibo-zerrenda erabil dezakezu:

- Aurpegia*: zabala, gizona, handia, atsekabetua, aszetikoa, karratua, mesfidatia, mehea, ezta, gogorra, zigortua, fidakorra, zakartua, belztua, tristea, adierazkorra, leuna, tolesgabea, freskoa, iragazgaitza, espresiorik gabekoa, azkarra, alai, luzea, laua, betea, argala, biribila, obalatua, basatia, lehorra, lasaia, zorrotza, atsegina, baketsua...
- Bekokia*: handia, zimurtua, baxua, estua, azkarra, laua, konkortua, zabala...
- Begiak*: urrunduak, baxuak, urdinxkak, kontzentratuak, ernaiak, lokartuak, gogorak, mugikorak, iheskorak, iragazgaitzak, espresiorik gabekoak, sakonak, hotzak, negartsuak, gaiztoak, bizigabeak, oso beltzak, urduriak, ezti kolorekoak, biribilak, lasaiak, ameslariak, samurrak, lausotuak, betilunak, biziak, distiratsuak, malenkoniatsuak, sarkorrak, zoliak...
- Sudurra*: konkorra, motza, zabala, biribila, mehea, luzea, puntazorrotza, zuzena, okerra, xuta, lodia, zapaldua...
- Ahoa*: mehea, freskoa, handia, gogorra, sendoa, txikia, biribila, okerra, sentsuala, erbi-epzainaduna, irribarretsua, tristea, berritsua...
- Lepoa*: motza, mehea, lodia, elegantea, luzea, okerra...
- Hortzak*: lerrokatuak, zuriak, irregularrak, ilunak, horixkak, okerrak, aparatua-ekin, puntazorrotzak, elkartuak, bananduak...
- Masailak*: potoloak, berotuak, puztuak, hertuak, biribilak, latzak, leunak, bigunak, hezurtsuak, gorriak, argalak, pekatsuak, zurbilak...
- Ezpainak*: zurixkak, estuak, haragitsuak, handiak, hermetikoak, haragikoiak, sentsualak...
- Bekainak*: makurrak, lodiak, meheak, lodiak, batuak, estuak, bananduak, ilunak, luzeak...
- Betileak*: lodiak, luzeak, beltzak, argiak, kizkurak, margotuak...
- Belarriak*: handiak, txikiak, luzeak, puntazorrotzak, apainduak, biribilak, gingilik gabekoak...
- Kolorea*: argia, arrosa, albinoa, beltzarana, iluna, kaskagorria, errauts-kolorea, horixka, zurixka, olio-antzekoa, brontzeztatua, errea, oliba-kolorekoa, urdinxka...
- Ilea*: narrasa, distiratsua, zikina, gaztaina-kolorekoa, kizkurra, horia, zaindua, fina, zeta-antzekoa, koipetsua, lisoa, beltza, kizkurtsua, opakoa, orraztua, bildua, nahasia, tindatua, latza, lodia...
- Eskuak*: arinak, zuriak, beroak, zimurtsuak, delikatuak, finak, indartsuak, lehorrak, baldarrak, sendoak, handiak, eleganteak, lodiak, latzak, zimurtuak, gazteak, sentibera...
- Hankak*: meheak, lodiak, ahulak, argalak, indartsuak, lehorrak, potoloak, sendoak, zuzenak, okerrak...
- Itxura orokorra*: garaia, atletikoa, baxua, sendoa, handia, arina, liraina, argala, urduria, ahula, sendoa, indartsua, gizona, bizkorra, kirolaria, gaztea, kakanarrua, tra-

- ketsa, heldua, tripontzia, argala, mehea, zaharra, osasuntsua, mardula, hezurtsua, hondatua, kargatua, okerra...
- Arropa*: bizi-bizia, narrasa, deigarria, modernoa, zuhurra, dotorea, atsegina, oldarkorra, txarra, xumea, gehiegi kargatua, sofistikatua, ohikoa, xelebrea, desegokia...
- Izaera deskribatzeko adjektiboak*: Xaloa, alaia, gartsua, erromantikoa, adeitsua, ausarta, serioa, langilea, alaia, buruarina, egokia, zorrotza, gogotsua, eskuzabala, edukazio onekoa, zaputza, ergela, bitxia, espresiorik gabekoa, azkarra, umore txarrekoa, maltzurra, gezurtia, marmartia, ausarta, leloa, adarjotzailea, bizkorra, fanatikoa, harroa, zorionsua, leiala, zintzoa, harroputza, pinpirina, azkarra, lotsagabea, beldurtia, zentzuduna, memeloa, artaburua, astakiloa, kaikua, patxadatsua, fidakorra, berritsua, ihardukitzailea, koldarra, jakintsua, findua, zakarra, arlotea, zikina, errespetugabea, zoroa, sasijakintsua, basatia, burutsua, lasaia, serioa, sinpatikoa, egiazalea, lagunartekoa, bakartia, gatzgabea, ameslaria, traketsa, ausarta, desordenatua, jostaria, otzana, samurra, ulerkorra, ergela, inozoa, mozoloa, lotsagabea, adimentsua, harroputza, irekia, bihurria, irribarretsua, negartia, tristea, lotsatia, kanporakoa, iragazgaitza, iluna, harrigarria, oldarkorra, hotza, isila, interresgarria, xarmangarria, erakargarria...

D4) OHARRA

«Desagertu den» gelako pertsona baten erretratu robota (itxurarena nahiz izaerarena) barne hartzen duen ohar bat landu behar da. Ikasle bakoitzak bere izena idatziko du eta gelako izen denak elkartu eta nahastuko dira. Taldeak osatuko dira eta ausaz hautatu den pertsonaren deskribapena egingo da. Oharra idatzi ondoren bateratze-lana egiten da, gelako gainontzekoek talde bakoitzak landu duen deskribapenaren bidez desagertu den pertsonaia nor den asma dezaten.

Jarduera garatzen den bitartean, ondorengo testak banatuko dira, taldeek eskainitako deskribapena egokia den ala ez den jakiteko:

	1. deskribapena			2. deskribapena		
	Bai	Ez	Gutxi	Bai	Ez	Gutxi
1. Ezaugarriak ongi hautatu al dira?						
2. Ezaugarri fisikoak nagusi al dira?						
3. Izaera-ezaugarriak nagusi al dira?						
4. Deskribapen osatua al da?						
5. Funtsik gabeko elementuak deskribatzen al dira?						
6. Ordenatuta al dago?						
7. Zehatza al da?						

D5) LAN-IRAGARKIA

Taldeka, lan-iragarki batean adierazten diren ezaugarriak dituen pertsona baten erretratua egin behar da. Ariketa honen helburua, gehien baloratzen diren ezaugarri, trebetasun, prestakuntza, izaera eta abarri buruzko ondorioak ateratzea da. Iragarki horien arabera, zein da pertsonaren eredu lan-munduan?

D6) HAURTZAROKO ARGAZKIAK

Ikasle bakoitzak haurtzaroko argazki bat ekarriko du, eta bere ikaskideekin trukatu du. Ikasle bakoitzak, egokitzen zaion argazkiari buruzko deskribapen labur bat egingo du. Argazkiaren eta deskribapenaren bitartez, nori dagozkion asmatu beharko da. Aldatu diren eta oraindik dirauten ezaugarriak egiaztatuko dira.

D7) BURUHAUSGARRIA

Taldeka, deskribapen baten ondorengo zatiak irakurri behar dira, eta ondoren deskribapena berriz osatu behar da.

Testua ordenatuta duzuenean, erantzun ondoko galdera hauei:

1. Nola hasten da lehen paragrafoa?
2. Adieraz ezazu gainontzeko paragrafoak zer hitzekin hasten diren, eta hurrengoarekin nola elkartzen diren.
3. Egin ezazu protagonistari buruzko aipamena egiten duten hizkuntza-elementu guztien zerrenda (bere izena, izenordainak, aditzak, eta abar). Azter ezazu horien bitartez kohesioa nola sortzen den.
4. Zer aditz-denbora erabiltzen dira deskribapen honetan?
5. Pertsonaia honi buruzko gauza gehiago jakin nahiko al zenituzke?
6. Irakurri duzunaren ondoren, zer iruditzen zaizu Alma Mahler?
7. Zer datu gaineratuko zenituzke bere izaera eta itxura fisikoa ezagutzeko?
8. Zer deritzozu bere destinoaren gainean dakizunari? Zuk zer egingo zenukeen bere dohain eta erakargarritasuna bazenitu?

Zatiak

Testua ordenaturik

- a) Aztia, sorgina, ona, ama-lurra: halako gauzak esaten dituzte gizonak berari buruz. Hitz ospetsuak, funtsezkoak, Alma emakume-izaeraren eredu bat bezala definitzen dutenak. Bera *emakumea* da, gizonezkoaren burutik, ametsetatik eta beldurretatik sortutako arketipoa. Eta Alma, beste batzuek irudikatu zuten ameskeria hartara moldatu zen, bere lorpenik handiena (bai eta erabateko porrota ere) gizonezkoen desirak betetzea izan baitzen.

.../...

.../...

*Zatiak**Testua ordenaturik*

- b) Pianista bikaina zen, eta Vienan bere etorkizun handiko talentua guztion ahotan zebilen. Hala ere, bere edertasunari buruz gehiago hitz egiten zen, garai hartan talentua emakumeengan apaindura hutsa, bitxikeria bat besterik ez baitzen. Alma garai hartako emakume ederrenetako bat zen: garaia, aberatsa, oso begi urdinak eta ezau-garri ezin hobeak. Gaur egungo ikuspegitik, beharbada bere aurpegiera zuzenegia eta konfita-tuegia izan daiteke, eta bere gorputza gizenegia: baina garai hartan modan zeuden ezaugarriak biltzen zituen.
- c) Alma Mahler (jaiotzez Alma Schindler zen, Schindler pintore ezagunaren alaba) artista bat zen. Bederatzi urterekin musika konposatzen hasi zen, eta hogeitaz urterekin jadanik ehun bat *lieder* eta atal instrumental eta operistiko idatzita zeuzkan.
- d) Nolanahi ere, bere erakarpn-gaitasun mitikoa bere nortasunean zetzan, eta ez itxura soilean. Xarmanta, azkarra, ikasia, bikaina eta originala zen. Bere inguruko gizonezkoak berarekin txora-txora eginda zeuden.

D8) SENTIPENAK

Zenbaitetan, sentipenak deskribatzea zaila da, ez dakigu sentitzen duguna, iritzi bat, desirak eta abar nola adierazi. Ondoren, sentipenei buruzko adjektibo-zerrenda bat gaineratzen dugu. Saia zaitezte zerrenda hori osatzen, egoera edo sentipenen bati loturik ezagutzen dituzuen beste bost adjektiborekin gutxienez.

Jarraian, irakur ezazue ondorengo testua eta saia zaitezte bertan agertzen diren sentipenen deskribapenak aberasten.

Sentipen bat izan daiteke...

atsegina, ikaragarria, alaia, etsigarria, barregarria, pozgarria, erakargarria, tristea, gehiegizkoa, liluragarria, neurrigabea, barrez lehertzekoa, mingarria, bikaina, atsegingarria, hunkigarria, larrigarria, erabatekoa, ederra, limurtzailea, izpirituala, nazkagarria, ikaragaitza, okaztagarria, izugarria, beldurgarria, zoroa, aseptikoa, hotza, gartsua, askea...

Idatzi, ondoko taulan, egoera ezberdinak eta horietako bakoitzak eragiten dizuen sentipen-mota.

Halakoa gertatu zitzaidanean...		zera sentitu nuen:	
Zera ikusten dudanean...		ondokoa sentitzen dut:	
...		...	

Ildo honi jarraiki, beste jarduera bat egingo dugu.

Irakur itzazue ondorengo testuak, eta sentipenei buruzko deskribapenei adjektiboa gaineratu. Horretarako, testua berridatzi edo aldatu dezakezue, eta beharrezkoa izanez gero, istorioa luzatu dezakezue. Kontuan izan azpimarratuta dauden hitzak, haien ondoren edo inguruan behar dituzuen elementuak txertatzeko.

Hiletak ez ditut atsegin. Hileta hartan gaizki <i>sentitzen</i> nintzen, adiskide on batena baitzen. Elkarri hitz egiten genion, baina denok harrিতා <i>geunden</i> , zer esan jakin gabe. <i>Une on bakarra izan nuen</i> , iraganean bera niretzat zer izan zen gogoratu nuenean.	
Gau hartan pilula asko irentsi zituen, eta zorabiatuta <i>zegoen</i> . <i>Burua</i> bueltaka zuen, urdaileko <i>mina zuen</i> eta gauza arraroak <i>ikusten zituen</i> . Beldurtuta <i>zegoen</i> , <i>ez zuelako ulertzen</i> zer gertatzen ari zitzaien, eta <i>ahal izan zuen moduan</i> medikuarengana joan zen.	
<i>Denbora luzea neraman</i> une harren <i>zain</i> , ikasketak egitera kanpora joan zenez geroztik. Hantxe <i>zegoen</i> azkenean, bera berriro ikusi ahal izatea harrigarria <i>iruditzen zitzaidan</i> . <i>Nire bihotzean sentipen asko pilatzen ziren</i> , nahiko grinatsu eta urduri <i>nengoen</i> , dena <i>biraka ari zen</i> nire inguruan.	

D9) ORIENTABIDE-OINARRIA

Aurreko proiektuan dagoeneko ikusi genuen orientabide-oinarri bat nola egiten zen. Edozein prozesutan (gure kasuan deskribapenari buruzko prozesu batean) ematen diren pauso guztiak idaztean datza. Orientabide-oinarriak, nahikoa korapilotsua izan daitekeen

ekintza batean (adibidez deskribapen batean) egiten diren jarduerak ordena bati jarraiki sistematizatzen ditu. Zerbait nola egiten den azaltzeak nolabaiteko hausnarketa egitea dakar (ikaskidearekin batera egin dezakezue), eta ekintza burutzeko egindako bidearen laburpena sortuko du ondorioz.

Hona hemen eredu bat, adibide gisa:

Orientabide-oinarria: deskribapena

Zer pauso eman behar ditut deskribapen bat egin behar dudanean?

Pausoak	Pausoen azalpena
1. Behatzea.	Deskribatuko duguna arretaz behatu behar dugu, bai aurrez aurre badaukagu, baita berreskuratu behar dugun oroitzapen bat bada ere.
2. Datu biltzea.	Lor ditzakegun datu guztiak pilatzea.
3. Hautatzea.	Daturik garrantzitsuenak, gure deskribapenerako interesatzen zaizkigunak, hautatzea.
4. Ordenatzea.	Deskribapenaren datuak ordenatzea: hasieran aipatuko ditugunak, jarraituko dugun ordena, eta abar. Hemendik testuaren eskema bat sor daiteke, hau da, bere egitura.
5. Beharrezko elementuak biltzea.	Testu deskribatzailea idatzi aurretik, gure deskribapena indartu edo aberasteko erabil dezakegun elementu-zerrenda (adjektiboak, izenak, aditzak, komentarioak, oharrak, eta abar) landu dezakegu.
6. Idaztea.	Adierazitako elementuekin, deskribapenaren lehen idazkuntza egingo dugu.
7. Orraztea.	Beste edozein testu bezala, testu deskribatzailea ere ebaluatu eta hobetu beharra dago. Horretarako, testuaren koherentsia eta koherentsia, egokitzapena, zuzenketa gramatikal eta ortografikoa eta aurkezpena kontuan izango ditugu. Era berean, deskribapena osatuta dagoen, datu garrantzitsuak falta diren, transmititu nahi genuena benetan transmititzen dugun eta abar kontuan izan beharko dugu.
8. Berriz idaztea.	Testua orraztu ondoren zuzendu beharreko akatsak aurkitzen baditugu, testu berria eta hobetua sortu ahal izango dugu.

D10) ZODIAKOAREN ZEINUAK

Ondoren, erretratuen zenbait adibide ikusiko ditugu, astrologia-liburu batean egiten diren deskribapenen bitartez (*El gran libro de la astrología*, DEREK eta Julia PARKER, Debate).

Irakur ezazu arreta handiz zure zeinuari dagokion testua, eta azpimarra itzazu kolore ezberdinekin itxurari eta moralari loturiko alderdiak. Hori egin ondoren, sar itzazu jarraian agertzen den taulan:

ARIES	<p>Abenturazalea eta ekintzailea da, askatasuna maite du eta kementsua da. Mota guztietako egoerak azkar igartzen dituzte, bai eta erantzun iraingarriak eman ere. Egoista izan daiteke, zakarkeria eta ezinegonerako joerarekin. Zeinu honen pean jaiotzen direnek normalki oso ezaugarri fisiko markatuak dituzte: kopeta eta masailalbo-hezur garaiak, sudur luzea; euren gorputzei energia darie. Tarzanekin identifikatzen zaie. Psikologiaren eta kirolaren alorrean lan egin ohi dute, eta suhiltzaileak, makinistak edo harakinak ere izan daitezke. Guraso bezala, Aries zeinukoak euren seme-alabak gelako lehenak izan daitezen irrikaz egon ohi dira, eta askotan seme-alaben ibilbidea eragozten dute. Euren kolorea gorria da, eta metala, berriz, kobrea.</p>
TAURUS	<p>Beren kolorea arrosa da, eta metala, berriz, kobrea. Taurus zeinukoek itxura sentzuala dute, ile ona, begi deigarriak eta aurpegi zabala. Normalki pazientzia handikoak eta saiatuak dira, borondate handia dute, segurtasun-sentsazioa ematen dute, eta beraiengan konfiantza osoa izan daiteke. Hala ere, alferkeria, burugogorkeria eta sabelkeriarako joera dute, bai eta gogaikarri izateko joera ere. Beren sentipenak gartsuak izan ohi dira, posesiboak. Ondorengo lanbideak izan ohi dituzte: bitxigintza, administrazioa, arkitektura, modeloak eta nekazariak. Seme-alabekin diziplinarako joera dute, posesiboak eta dogmatikoak dira, baina era berean artearekiko eta gauza ederrekiko interesa erakusten dute.</p>
GEMINI	<p>Gemini zeinukoek aurpegi argia eta alaia dute, normalki obalatuak. Euren begiek jakin-nahiza adierazten dute, eta ahoak ez du indar handirik izaten. Zeinu honen pean jaiotzen dena moldagarria izan ohi da, oso zorrotza, naturala eta jostaria, eta hizkuntzetarako eta adimenerako trebea. Bestalde, kezkatia, urduria, azalekoa eta inkontsekuentea izan daiteke. Normalki gazte-itxura du. Ez dira oso sentiberak, baina maitasun-gaietan primeran moldatzen dira, eta lakrikunkeriarako eta abentura paraleloak izateko joera dute. Pertsona hauen lanbideak: idazleak, kazetaritza edo beste edozein komunikabidetako langileak, itsasgizonak, hizkuntzalaritza, irakaskuntza, telefonistak, eta abar. Seme-alabekin oso guraso aktiboak dira, gauza berriak aurkitzera eta gauza ezberdin asko irakurtzera bultzatzen dituzte, baina ahaleginak sakabanatzeko joera dute.</p>
CANCER	<p>Beren koloreak grisa edo berdea dira, eta metala, berriz, zilarra. Zeinu honen pean daudenek gauza guztiekin kezkatzeko joera dute, eta gainera sentipen horiek gordetzeko joera ere bai, zenbait kasutan osasun-arazoak izaten dituzte, adibidez urdaileko ultzerak, gorputz-atal hori nahiko sentikorra baitute. Normalki aurpegi biribila dute, ahoa beherantz okertua, eta begitarte nabarmena. Amatiarrek direla ematen du. Adeitsuak, sentiberak eta irudimen handikoak dira, eta babesteko sen handia dute, baina zenbait kasutan gehiegizko hunkiberatasun horrek minbera eta aldabera bihurtzen ditu. Askotan karramarroak bezalakoak dira: gogorak kanpoaldean baina bigunak barrualdean. Historialari, negozio-gizon eta ostalari bikainak izango dira. Maitasunaren arloan, babesteko joera dute eta oso etxezaleak dira. Beren ondorengoekin oso posesiboak dira, ez da haiek baino gauza garrantzitsuagorik egongo.</p>

LEO	<p>Leo zeinua duten pertsonak eskuzabalak, sortzaileak eta gogotsuak dira, baina era berean intoleranteak, ideia finkokoak, boterea lortzeko gogo bizia dutenak eta harroak. Leo lider tipikoa da, nagusia, baina harrigarria dirudien arren, sentibera eta erraz min hartzen duena. Beraientzat zaila da harreman iraunkor bati eustea, beti maiteminduta egon behar dutelako, baina oso leialak dira eta afektibitate handia erakusten dute. Lanbideari dagokionez, orientatzaileak, aktoreak edo exekutiboak izan daitezke, eta nabarmentze pertsonala lortzeko lagungarria den beste edozein lanbide ere bete dezakete. Leo zeinukoek etsia hartzeko joera dute seme-alabek ez badiete beren itxaropenei erantzuten, eta oso menperatzaileak izan daitezke. Normalki ezaugarri sendoak dituzte, begirada indartsua eta zuzena, kopeta zabala eta sudur gakoa. Cid Campeador-en irudiarekin identifikatzen zaie. Beren kolorea laranja da, eta metala, berriz, urrea.</p>
VIRGO	<p>Virgo zeinuaren kolorea itsas urdina da, eta metala, berriz, merkurioa. Ondoko ezaugarri hauek dituzte: zorrotzetasuna, zehaztasuna, apaltasuna eta ordena, baina era berean urduritasuna, konbentzionaltasuna eta ardura. Virgo zeinukoek asko lan egiten dute, xehetasunei arreta handia ematen diete eta kideei asko laguntzen diete. Askotan osasuna eta higienezko interesa erakusten dute, eta begetarianismo edo dietetikarako joera azaltzen dute. Alderdi hauei loturiko edozein lanbide beraientzat egokia izango da, bai eta lorazaintza, zientzia eta administrazioa ere. Aurpegi leuna eta adimentsua izan ohi dute, keinu adeitsuarekin, aho ederra eta kokots puntazorrotza. Maitasunari dagokionez, bere emozioak adieraztea kosta egiten zaio, inhibizio edo hozkeria izan daitezke, baina benetako maitasuna ere bai. Guraso hauek etxeko ordena eta garbitasunarekin obsesionatuta daude. Seme-alabekin oso sentipen kritikoa gara dezakete, baina haien zeregin edo arazo denetan laguntza eskaintzen diete.</p>
LIBRA	<p>Libra zeinuko pertsonak itxura dotore eta orekatua dute. Askotan begi urdinak edo marroiak dituzte, eta ezpain handi samarrak. Bere kolore favoritoa urdin argia da, eta kobreak loturik daude. Esan daiteke pertsona xarmagarria, erromantikoa, findua eta askotan ederra dela. Baina era berean azalzeria, zalantza, sineskortasuna eta lakrikunteria azal daitezke. Bere xarmangarritasuna naturala da, eta borrokek beldurtu egiten dute. Zuzentasunaren zentzua du, baina askotan norbaiten alde egitea kosta egiten zaio. Maitasun-abenturetan murgiltzen da horretarako prest egon gabe, eta eskrupulorik gabeko pertsona bat libra baten ezaugarriez erraz aprobeatza daiteke. Estetizistak, luxuzko artikuluen merkatariak, diplomatikoak, gizarte-laguntzaileak eta abar izan daitezke. Libra zeinukoek seme-alabak asko maite dituzte, arropa ona janztea eta itxura ona izatea atsegin dute, eta zorrotzak dira.</p>
SCORPIUS	<p>Beren kolorea gorri iluna da, eta metala, berriz, burdina. Beren aurpegiak erabakitasuna eta gartsutasuna adierazten du. Orokorrean, nahiko ilunak dirudite, eta ukitu nahiko satanikoa dute. Ahoa sendoa da, eta masailak haragitsuak. Normalki oso sentipen eta emozio biziak dituzte, eta kasu batzutan zelo izugarriak, burugogorkeria eta setakeria; oso zorrotzak eta zuhurak izan ohi dira. Beren ezaugarri nagusia, zenbait alorretan dituzten grinak sakontasuna da: sentipenak, sexua, politika, lana, eta abar. Bizitza sakonki bizi du, gehiegikeriak egiteko joerarekin. Edozein arazoren mamiraino sar daiteke, buru argi-argia eta sen handia dituelako. Bere harreman sentimentaletan, sakonki maitatuko du eta sexuak funtsezko garrantzia du. Psikiatria, negozio handiak, farmazia, hileta-zerbitzuak eta abar izan ditzake lanbide, eta delituak egitera hel daiteke (hilketa barne). Guraso bezala, oso jarrera zorrotza izango du, baina bizitzaz gozatzen irakatsi dezake.</p>

SAGITARIUS	<p>Sagittarius zeinuko pertsonak itxura aristokratikoa eta findua dute. Normalki ile argia eta kizkurra dute, sudur luzea eta almendra-itxurako begi adierazkorrak. Espresio zuhurra dute. Pertsona alaiak, baikorrak, egiazaleak eta filosofikoak dira, eta askatasuna maite dute; baina era berean estremistak, ahoberoak eta axo-lagabeak izan daitezke. Gaztetan zuhurtziagabeak eta ausartak dira, baina hori ez da oztopo izango ikasketetarako duten gaitasuna garatzeko. Buru diziplinatua dute, eta gauza handiak ikusteko gai dira. Bidaiak egitea atsegin du. Sagittarius-ek bizitza sentimental eta sexual aktiboa beharrezkoa du, eta era berean, bere bikotearen alderdi intelektualarekiko interes handia erakutsiko du. Ezin du jasan inork menperatzea edo zeloekin gehiegi estutzea: askatasuna maite du. Lanbideari dagokionez, interpretaria, bidai agentea, irakaslea, esploratzailea edo kirolaria izan daiteke, edota erlijioaren edo filosofiaren arloetan jardun. Guraso bezala, bere seme-alabengandik intelektualki asko espero du, eta beren buruarekiko fedea eta ziurtasuna indartzen du bere baikortasunarekin.</p>
CAPRICORNUS	<p>Bere koloreak beltza eta kolore ilun guztiak dira, eta metala, berriz, beruna. Askotan aurpegi serioa, latza eta isilkorra du. Begiak zorrotzak izan ohi dira. Iritzi zurrunkoak, ezkorrak eta diruzaleak dira, baina era berean zentzudunak, umore-sen handikoak, diziplinatua eta zuhurrak: sekretu bat konta diezaiekegu. Orokorrean handinahiak dira, beti gorantz jo nahi dute, ahuntzek bezalaxe. Buru serioa eta arrazionalista dute, gauzak xehetasun handiz planifikatu eta kalkulatu dituzte. Ongi ikasi edo ulertu duena, ez du inoiz ahaztuko. Harremani dagokienez, eragozpenak aurki ditzake oso lotsatia delako; nahiko bakartia da. Hala ere, maitasun eta babes handia eskaini ditzake. Honako lanbideak izan ohi dituzte: matematika, funtzionariotza, politika, zientzia, administrazioa, nekazaritza eta musika. Bere ondorengoen arrakastaz asko arduratzen da, eta nahiko menperatzailea da. Hala ere, bere umore-senarekin primeran pasatuko dute.</p>
AQUARIUS	<p>Aquarius-ek ez du oso aurpegi bereizgarria, baina ezaugarri erregularrak ditu; xarma urrun eta berezia antzematen zaio, erakargarria da, baina hotza. Normalki bihozberak, orijinalak, independenteak, idealistak eta intelektuak dira. Zenbaitetan asaldura, kontraesan eta bitxikeriarako joera dute. Edonola ere, ezinezkoa da Aquarius zeinukoek zer egingo duten jakitea. Ez zaio axola besteek pentsatzen dutena, eta haien iritziei ez die jaramonik egiten. Bikote egonkorra izan arren, independentzia handia beharrezko dute, baina ez dira oso gartsuak eta beren lotura sentimentalek asko iraun dezakete. Honako lanbide hauek atsegin ditu: astronomia, zientzia, arkeologia, soziologia, hegazkin-pilotutza, literatura eta abar, eta ohikeriazko lanbideekin berehala aspertzen da. Seme-alabei dagokienez, Aquarius zeinukoak pedagogiko azken berritasunak aplikatuko dizkie (azken modan dago beti), beren adinekoak baino helduagoak izan daitezzen nahi du, eta pentsatzen ari diren guztia jakin nahiko du. Bere kolorea urdin elektrikoa da, eta metala, berriz, uranioa.</p>
PISCIS	<p>Piscis-en kolorea itsasoko urdina da, eta metala, berriz, eztainua. Aurpegi leuna eta obala izan ohi dute. Begi handi eta tolesgabeak, sudur txikia, lepo mehea eta ezpain sentsualak. Piscis zeinuko pertsonak zalantziarik, arduragabeak eta bizitzako arazoei aurre egiteko gauza ez diren arren, adeitsuak, harberak, moldagarriak eta apalak ere badira. Kanpoko kausekin errazen hunkitzen den zeinua da, eta beti errealitatek ihes egiteko joera du. Besteren mina baretzeko ahalmen handia dute. Beren emozio-uharra handia eta sakona da, eta harreman zoragarria izan dezakete, oso erromantikoa. Arte-jarduerak atsegin ditu, eta kirol gogorak, ordea, ez ditu batere atsegin. Zeinu honi loturiko lanbideak: zapatagintza, medikuntza, hipnosia eta magia, apaizgoa, zinemaren eta dantzaren. Piscis zeinukoek seguraski seme-alabak asko mimatuko dituzte, liskarrak ez dituztelako atsegin, baina bizitzako alderdi praktikoak irakasten saiatu beharko du.</p>

Zodiakoaren zeinuak	
PROSOPOGRAFIA	ETOPEIA

Galdeketa:

1. Zure zeinuan agertzen diren ezaugarriek definitzen zaituztela uste al duzu? Adieraz ezazu zurekin bat ez datorren ezaugarrieen bat eta defini ezazu, konparazioz, berezkoa duzun beste ezaugarriren batekin.

.....

2. Taulan, zurekin bat datozen alderdiak bakarrik azpimarratu.

.....

3. Informazio garrantzitsua dela uste al duzu?

.....

4. Idazkuntza-proiektuan egin behar duzun biografiarako ezaugarri horietakoren bat baliagarri izango dela uste al duzu?

.....

5. Irakur ezazu deskribatu behar duzun pertsonaiaren zeinua, eta bildu itzazu egokitzat jotzen dituzun datuak.

.....

D11) ARGAZKIKO PERTSONAIA

Jarduera honetan, pertsonaia baten argazkia hartuko dugu eta berari buruzko deskribapen eta bigrafia labur bat asmatuko ditugu. Ondoren, argazkiko pertsonaiaren benetako identitatea adieraziko dugu. Pertsonaia nahiko ezaguna da, baina argazkiaren bidez ezin izan dugu ezagutu.

Ondoko pausoak eman behar dira:

1. Gela taldeka (edo bikoteka) banatu, eta bakoitzari argazki bat eman.
2. Galdeketa bete.
3. Deskribapena eta biografia eskatzen duen fitxa bete.
4. Bete diren fitxen bitartez, pertsonaiaren benetako identitatea aurkitu.

Ondoren, jardueran barne har daitezkeen *eredua eta adibideak* aurkezten ditugu:

Galdeketa:

—Argazkia ikusi ondoren, pertsona interesgarria iruditzen al zaizu? Zergatik?

.....

—Zer denbora erabili dituzu zure biografia laburrean?

.....

—Nolako adjektiboak sartu dituzu zure deskribapenetan?


.....


—Zer deskribatu duzu, pertsonaiaren kanpoaldea ala barnealdea?


.....


FITXA:


PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Fisikoki, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, bizitzan zer egin zuen, hilik dagoen, nola hil zen...)


1. PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Fisikoki, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, bizitzan zer egin zuen, hilik dagoen, nola hil zen...)
	

2. PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Fisikoki, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, bizitzan zer egin zuen, hilik dagoen, nola hil zen...)
	

3. PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Fisikoki, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, bizitzan zer egin zuen, hilik dagoen, nola hil zen...)
	

4. PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Fisikoki, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, bizitzan zer egin zuen, hilik dagoen, nola hil zen...)
	

5. PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Fisikoki, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, bizitzan zer egin zuen, hilik dagoen, nola hil zen...)
	

6. PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA (Fisikoki, izaera...)	BIOGRAFIA LABURRA (Non eta noiz jaio zen, bizitzan zer egin zuen, hilik dagoen, nola hil zen...)
	

E) Deskribapenaren hizkuntza

Erretratua alde batera utzi eta gauza teknikoago batean sartuko gara: deskribapenak egiteko zer hizkuntza erabiliko dugun, zer hitz, zer egitura eta abar, alegia.

E1) DIFERENTZIAK

Aurreko proiektuan narrazioa jorratu genuen, nahiz eta, jakin badakigun, oso zaila dela guztiz narratiboa edo guztiz deskriptiboa den testu bat aurkitzea; gehienez ere genero edo mota bakoitzeko zatiak edo pasarteak aurkituko ditugu.

Pasarte deskriptibo baten eta narratibo baten arteko aldeak edo diferentziak ikusteko, egin ezazue, binaka, ondoko jarduera:

- Narrazioa hautatzen duenak, gertatu zaion gertakari edo pasadizoren bat kontatu beharko du (txiste bat, film bat edo istorio bat ere konta daiteke,...) Horretarako gidoi labur bat landu beharko du. Gidoi horretan gertakariak ordenatuko ditugu eta baliagarria izango zaigu gauza garrantzitsurik ez ahazteko.
- Deskribapenaz arduratzen denak modu ordenatuan edo eskema moduan laguntza-gidoi bat idatziko du. Gidoi horretan ahaztu behar ez diren edo garrantzitsuak diren datuak agertuko dira. Familiako kideren bat, lagun bat, animalia bat, etxe bat, sentipen bat, etab. deskribatu ahal izango da, nahi den gauza. Ondoren, —narrazioan bezalaxe— ahozko deskribapena egingo da, egindako eskema erabiliz, erreferentzia bezala.

Bi jarduerak ahozkoak dira, baina horrek ez du esan nahi aurrez idatziriko plangintzarik egingo denik.

Behin bi hitzaldiak entzun ondoren, ondoko galde-sorta hau beteko dute bi pertsona horiek:

1. Bi testu-generoetatik zein iruditu zaizu lasaiagoa eta zein bizkorragoa?
2. Non gertatzen dira gauza gehiago?
3. Non dauka garrantzi handiagoa denborak?
4. Non agertu dira adjektibo gehiago?
5. Gogoan al duzu zer aditz-denbora erabili den kasu bakoitzean?
6. Zer hitzalditan sar daitezke errazago baliabide estilistikoak?

Normalean zaila izaten da testu garbiak edo puruak aurkitzea, hau da, testu-genero bati puntu puntu eta zehatz-mehatz dagozkionak. Normalena generoren baten ezaugarriekin bat datozen testu-sekuentzia edo pasarte motz edo luzeekin topatzea da. Ondoko testuetan genero deskriptiboaren eta genero narratiboaren eredu zko sekuentzia edo pasarte batzuk hautatzen saiatu gara. Irakur itzazue binaka eta saia zaitezte ondoren, taulan adierazten diren aldeak edo ezberdintasunak ikusten:

Testu narratiboa	Testu deskriptiboa
<p>Orduan, bizitza menperaezinak gaixotasuna ekarri zion neskatoari eta bost ordutan, aparteko bizitasun hura loaldi neketsu eta urrun bihurtu zuen, heriotzarako bidean ipini balu bezala.</p> <p>Sendatzeko ahalegin guztiak alferrikakoak zirela ikustean, izeba Josek, beldurrez zurbil, haurra hartu eta ospitalera eraman zuen. Han, besoetatik kendu zioten eta dozena bat sendagile eta erizain neskatoaren inguruan urduri eta nahaspilatuta mugitzen hasi ziren (...)</p> <p>Egun asko eman zituen gogoratzen, irudikatzen, asmatzen. Ordu oro eta minutu oro alabari belarrian hitz egin zion. Azkenean, ostegun arratsalde batean, etenik gabe istorioren bat kontatzen ari zela, alabak begiak ireki zituen eta jakin-minez eta desafioka bezala begiratu zion, bere bizitza luzean izango zuen jarrera beraz.</p> <p>Izeba Joseren senarrak eskerrak eman zizkien sendagileei, sendagileek eskerrak eman zizkieten zientziaren aurrerapenei, izebak bere alaba besarkatu zuen eta ospitaletik hitz bakar bat ere esan gabe irten zen. Berak bakarrik zekien...</p> <p>Beste zientzia guztiek lortu ez zutena lortu zuen begi handiko beste emakumeen aurkikuntza zakar eta sotiletan ezkutatuak jakinduriak.</p>	<p>Izeba Leonorrek inoiz ikusi den zilborrik perfektuena zeukan. Sabel izugarri zapal hartan hondoratutako puntutxo bat zen. Bizkar pekatsua zeukan, alakak biribilak eta sendoak, haurra zenean ura hartzen zueneko pitxerrak bezalakoak. Sorbaldak pixka bat altxatuak zeuzkan, poliki ibiltzen zen, alanbrearen gainean bezala. Ikusi zituztenek, zango luze eta urrezkoak zituela esaten zuten, pubisean ile-xerlo gorrixka eta harroa zeukala, ezinezkoa zela haren gerrira begiratu eta emakume hura osorik ez desiratzea.</p>
<p>MASTRETTA, Ángeles (1991): <i>Mujeres de ojos grandes</i>, Seix Barral, Bartzelona.</p>	

Iruzkina:

	Testu deskriptiboa	Testu narratiboa
Zenbatu ezazu adjektibo-kopurua:		
Zer denboratan agertzen dira aditzak?		
Non dago ekintzarik gehiena?		
Adierazi agertzen diren denborazko markatzaileak.		
Idatz itzazu espazio-markatzaileak.		

E2) KATEGORIA GRAMATIKALAK

Testu deskriptiboa, beste genero bateko beste edozein testu bezala, kategoria gramatikalez osatuta dago. Narrazioan aditzei (burutuak normalean, ekintzari lotuak) eta denboraren pasaera adierazten zuten aditzei erreparatzen genien bereziki, nola aditz-denborak hala aditzondoak, lokuzioak, etab.

Deskribapena, esan ohi denez, hitzekin pintatzea bezalakoa bada, beste elementu batzuk eduki beharko ditugu kontuan:

- adjektiboa*: normalena testu deskriptibo bat adjektiboduna izatea da, nola adjektibo murrizgarriekin testua objektiboa bada, hala esplikatiboekin (balioespenezkoak), testua subjektiboa bada,
- denbora*: deskribapenean denbora gelditu egiten da, horregatik erabiltzen da orainaldia edo iraganaldi burutugabea,
- espazioak* garrantzi handia hartzen du. Denbora gelditu bada, ekintza lekuan kokatzen da, deskribapena espazio horretan eta bertan dabilzan pertsonaietan kokatuko da. Horretarako, espazioa, lekua, egoera, etab. adierazten duten elementu gramatikalak aurkituko ditugu, hala nola, adizlagunak, lekuko osagarriak, lokuzioak,...

Aurki itzazu testu honetan aurrez adierazi ditugun elementu horiek eta koka itzazu taula honetan:

Testua:

--

Bestalde, idatziko dugun edozein testutan, behin eta berriz taulan agertzen direnak bezalako zer termino errepikatzen diren ikusiko dugu. Idatzi hitz bakoitzak dituen sinonimoak eta adierazi jatorrizko hitzetik bereizten duen ezaugarriren bat:

ESAN				
GERTAKARIA				
SENTSAZIOA				
KONTAKETA				

Azken jarduera hau egin ondoren, idatzi zeuk egindako taula batean maiz errepikatzen dituzun hitzak. Gauza bera «errepikatu» nahi ez duzunean erabil ditzakezun beste hitz batzuk bilatu.

E.4) GEHIAGO ESATEA

Eremu lexiko bat elkarlotzen dituen elementu komun bat duten hitzez osatua dago. Horrela, adibidez, Zure pertsonaia andereño bat baldin bada, ikasketen inguruko eremu lexikoa izango du: liburuak, betaurrekoak, idazmahaiak, boligrafoak... Zure pertsonaia marinela bada, itsasoari loturiko eremu lexikoan egongo zara: ontzia, enbata, sareak, olatuak...

Nahiko ohikoa izaten da izen batzuek euren eremu lexikoari adjektibo jakin batzuk lotzea, adibidez, ondoko taulan bi adjektibo dituzu izen bakoitzarentzat; saia zaitez behar bezala lotzen:

Adjektiboak	Izenak	Adjektiboak
Ohoragarria	Itxaropena	Biribila
Hutsala	Amona	Zabala
Zapala	Etxebizitza	Maitagarria
Handia	Aurpegia	Txikia

Jarraian, irakurri binaka ondoko testu hau eta aurki ezazue eremu lexiko nagusia:

Testua:

Adierazi metaforen bidez bizitzaren laburtasuna: «Desagertzen den kea bezalakoxea da bizitza...»

E5) EDERRAGO ESATEA

Kontuan hartu behar dugun gauza bat zera da; behin gure testua ia guztiz idatzi dugunean, erakargarriagoa bihurtuko duten esamolde batzuek gehi diezazkiokegu. Esamolde hauei literatur baliabideak deitzen zaie eta, asko dauden arren, bi erabiliko ditugu: konparaketa eta metafora.

Adibideak:

Zure testuan hau esaten baduzu:	KONPARAKETA	METAFORA
Esku zuriak zituen	Haren eskuek marfilezkoak ziruditen	Haren eskuak marfilezkoak ziren
Ez zuen askorik ikusten	Satorrak bezainbat ikusten zuen	Hura bai satorra!
Oso gaiztoa zen	Demonioa bezalako zen	Demonioa bera zen!
...

Egin ezazu ariketa hauxe zure biografiako adierazpenen batekin.

F) Errepasatuz

Deskribapenarekin erlazionatutako hainbat jarduera egin ditugu; ondoko honetan jada ikusi ditugun batzuk errepasatuko ditugu:

Irakur itzazue binaka ondoko testu hauek eta osatu ondoko galde-sorta:

- Zer erabilera-eremukoa esango zenuke dela testu bakoitza (erakundeen eremukoa, akademikoa, literatur arlokoa, pertsonala...)?
- Hiru testuak deskriptibo hutsak dira ala beste motaren bateko sekuentziarik aurkitu duzu (narratiboa, azalpenekoa...)?
- Zer deskribatzen da bakoitzean (erretratua, objektuak, paisajea...).
- Agertzen diren deskribapen-motak (objektiboa / subjektiboa).
- Nolako izenak erabiltzen dira: zehatzak edo abstraktuak.
- Adjektibo-motak (murrizgarriak, balioespenenezkoak).
- Zer aditz-denbora agertzen dira?

Testuak:

1. deskribapena	2. deskribapena	3. deskribapena
<p>Argazkietan oso itxura arraroa zeukala iruditzen zitzaidan, kezkarri samarra, piztia-begirada harekin, begi beltz ederrak zituen ordea, oso hortz zuriak eta kokotsaren erdian zulo txiki biribil bat. Argazki batzuetan oso apainorrazi handi bat zeraman, eta mantelina beltza hartatik zintzilik, eta zuloz jositako esku lodixkoan haizemailea.</p> <p><i>Txoriburu</i>, Asun Balzola</p>	<p>Gela guztietan, eta egongelan ere bai, diban zabalzabalak zeuden, zeinen zeta-zeko estalki puskatuetatik tatzeten artean harrapatutako puskek bakarrik geratzen baitziren; dibanen bizkarraldeetan zipriztin-arrastoak ikus zitezkeen; tximinien marmolean, eskultura finak, gorputz biluzi asalduak, nahastuak, esku haserretuek mailuka martirizatu eta puskatu zituztenak. Hezetasunak paretak zikindu zituen sabaiaren inguruan eta, zirudienez, baita beheago ere, gizonaren parean, non itxura bitxiak hartu baitzituen, tonu ilunak eta lodiera harrigarriak. Tancredik ez zuen Angelicak egongelan zegoen horma-armairua ukitzerik nahi izan. (...)</p> <p><i>El gatopardo</i>, G.T. di Lampedusa</p>	<p>Gorputz-adarretako muskulu gehienek bizepsaren antzeko forma dute. Muskulu hauek fusiforme izena hartzen dute harizko ardatzaren antza dutelako.</p> <p>Baina badira halaber beste forma batzuk dituzten muskuluak ere: zapalak (sabelaldeko muskuluak adibidez), triangulu antzekoak (bularraldekoak edo pektoralak), bai eta biribilak ere (begietako edo ezpaineneko orbikularrak).</p> <p><i>Medio-5, Natural Social y Cultural</i>, VV. AA. Vicens Vives</p>

3.3 DOKUMENTUA. NARRAZIOA

Deskribapena, haren ezaugarriak eta ohiko ildoak ikusi berri ditugu: orain narrazioaren eremuan sartuko gara, nahiz eta aurreko proiektuan jada hartara hurbildu garen, beldurrezko ipuina idatzi dugunean.

Atal honetan ondoko alorrak jorratuko ditugu:

- A) Nork kontatzen du istorioa eta nola kontatzen du? Narratzailea.
- B) Noiz gertatu zen? Denbora.
- C) Non? Espazioa.
- D) Nortzuk? Pertsonaiak.

A) Nork kontatzen du istorioa eta nola kontatzen du? Narratzailea

Biografia bat behar bezala egiteko, idazten duenak pertsonaiaren «barruan sartu» behar du. Horretarako ikerketa egiten da, datuak, dokumentuak eta testigantzak biltzen dira, pertsonaiarekiko zuzeneko harremanaren esperientziaz gain (pertsona hori bizirik baldin badago). Ez dugu ahaztu behar pertsonaiaren gora-behera guztiak ezagutu behar ditugula, detektibearen antzera gero eta informazio gehiago bildu, zer pentsatzen duen eta zer sentitzen duen irudikatu ere egin behar dugu..., Jainkoaren modukoa izango da, pertsona horren bizitza goitik behera ezagutzen duen narratzailea.

PERTSONA

Normalean 3. pertsona erabiltzen da pertsonaiaren bizitza kontatzeko —narrazioa idazten duena ekintzatik kanpo dago—, nahiz eta batzuetan, narratzailea ere kontakizunean sartzen den pertsonaiarekin gertatu zaion pasadizoren bat kontatuz, eta horregatik alderdi autobiografikoak ere azal daitezke eta orduan 1. pertsonara igarotzen da.

NARRAZIOAREN IKUSPUNTUA

Biografian oso ohikoa izaten da narratzaile *orojakilea* (nahiz eta askotan ikuspuntu hau gaizki egokitu biografiara): narratzaile honek pertsonaiaren gaineko informazio guztia kontatzen du, bizitzan gertatu zitzaiona, zer egin zuen, zer pentsatu zuen, etab. Idazten duenak pentsamenduak eta sentipenak asma ez ditzakeen arren, batzuetan susmatu egiten dira, pertsonaiaren izaera edo egiten duena kontuan hartuz gero. Gero eta ohikoa da narratzaile *berdinjakilearen* ikuspuntua hartzea: narratzaileak istorioko beste pertsonaia baten ikuspegitik dakiena kontatzen du, bere mugekin, ikuspuntu propioekin, etab.

Narratzailearen distantzia:

—Hurbila: idazten duenak bere susmo propioak ezartzen dituenan da hurbila, pertsonaiaren barruan sartzen da eta iritziak ere ematen ditu... Pertsonaiari eta haren inguruari buruz dakienaren ikuspuntu berezia ematen du.

- Urrunekoa: narratzailea gertakarietara mugatzen da, tonua urrunagokoa da, hotzagoa, historialari baten edo ikertzaile baten ikuspuntua dirudi. Jarrera honi «kanpoko fokatzea» deitu ohi zaio.
- Distantzia aldakorra: bata hartzen da oinarri bezala naiz eta beste estilo edo ikuspegiko zatiak tartekatu, adibidez, biografia egiterakoan gertakariak errespetatuz eta parte hartu gabe egiten duena, kapituluren batean pertsonaiarekin harremanetan agertzen den eszena bat sartu arte, bere ikuspuntutik deskribatuz, pertsonaia zer iruditu zitzaion, etab.

NARRATZAILEAREN ESTILOA

Biografiaren bidez idazten duenaren izaera agertzen da, gauzak adierazteko eta idazteko duen moduak egilearen izaeraren alderdiak azaleratuko dizkigu, izan ere biografia bakoitzak biografiagilearen marka eraman ohi du. Izango da bere pertsonaiaren bizimodu umorez azalduko digunik, edo tristuraz, datu historikoz josita, bere suposamendu edo usteak ezarriz, etab.

B) Noiz gertatu zen? Denbora

Narrazioaren denbora bi eragiketetan zatibanatzen da:

- Kanpoko denbora edo pertsonaiaren denbora erreala eta kronologikoa, pertsonaiaren urteak hasieratik amaierara arte.
- «Tenpoa» edo narrazioaren denbora, denbora erlatiboa, kontakizunaren denbora jakina, gauza batzuei beste batzuei baino leku gehiago egiten zaielarik. Pertsonaiaren garai esanguratsugoren batean gera gaitezke nahiz eta hau oso denbora epe laburrean gertatu izandakoa izan, edo bestela, gure ustez gauza interesgarririk gertatzen ez den denbora-epeak ezabatu egin ditzakegu, eszena batzuk bizkortu eta beste batzuk mantsotu, alegia. Azken finean, biografiagile bezala ekintzaren denbora erlatibizatu egin dezakegu. Atzeranzko begirada erabil dezakegu edo gertakariak aurrez esan ere bai,... (Dilazio-adibideak ipini (deskribapena gelditu) / denbora bizkortu):
 - Mantsotzeko: tarte historiko labur bati testu-zati luze bat emanaz, geldialdiak eginez: deskribapenak, eszenak, elkarrizketak, etab., etenaldian guztiz gelditu beharrik izan gabe, narrazioa mantsotasunez bideratzea, xehetasunetan geldituz...
 - Bizkortzeko: elipsia (istorioko eszenak ezabatu egiten dira), hainbat makulu erabiliz (20 urte igaro ziren eta..., ...), laburpenak eginez...
- Aditzen denborak: Biografian gehienbat agertuko diren denborak hauek dira:
 - orainaldi historikoa: egungotasun itxura du lehenaldiko gertakariez ari den arren. Gertakariak hurbilago nabari ditzagun erabili ohi da, nahiz eta, zalantzarik gabe, lehenaldian kokatuta egon;
 - iraganaldi burutuak: gertakarien segidari buruzkoa, narrazioaren aditza da;

- iraganaldi burutugabea: orainaldi historikoaren antzeko erabilera du, denbora mantsoa da, deskribapenen edo gertakari jarraituen kontakizunaren berezkoa.

C) Non? Espazioa

Alderdi deskriptiboak narrazioaren zati bezala hartzen baditugu, ez dago zalantzarik espazioa oso esanguratsua izango dela. Gogoan izan behar dugu denbora gelditu egiten dela deskribapena egiten dugunean, beste gauza batzuei erreparatzen diegu: pertsonaiak eta mugitzen direneko espazioa.

D) Nortzuk? Pertsonaiak

Biografietan bigarren mailako pertsonaiek funtsezko zeregina izan dezakete —eta askotan izaten dute— istorioaren protagonistaren bizitzan. Beharrezkoa da beraz, pertsonaia hauen ezaugarriak aipatzea, pertsonaia nagusiarekiko zer zeregin betetzen duten ikustea, euren ahotsak testigantza, elkarrizketen, gogorapenen, harremanen eta abarren bidez sartzea.

Erreparatu ondoko adibideei:

K. Hepburnen biografian egiten den H. Bogarten deskribapena	Bavierako Elisabethen senarraren deskribapena, haren biografia labur batean.
<p>«Bogartek ez zuen Afrika sekula gogoko izan. Gizon adeitsua zen, sofistikatua, New Yorkeko erretratu-margolaria zuen ama eta ospe handi samarreko sendagilea aita, Andover-en graduatu zen eta familiako aberastasunen oinordekoa zen.»</p> <p><i>Katherine Hepburn, Anne Edwards</i></p>	<p>«[...] Francisco Jose lanaren diziplina pean bizi izan zen, funtzionario esklabo bezala. Oso zuhurra zen, ez hain adimentsua, borondate handiko gizona, irudimenez motzagoa, goizeko lauetan jaikitzen zen lanari ekiteko, Jauregiko gelarik soilenean ezarrirako bulegoan. Dirudienez, bere adeitasun ikasia, eta bere pazientzia harrigarria ziren Francisco Joserren izaeraren ezaugarriarik funtsezkoenak eta horrez gain...</p>

Erantzun orain galdera hauei:

1. Nolako eragina uste duzu izan zuela pertsona hauen izaerak emakume horiengan?
2. Egin ezazu hautatu duzun pertsonaiaren hurbileko pertsonen edo haren bizitzan garrantzi berezia izan zuten pertsonen zerrenda.
3. Egin ezazu beste zerrenda bat pertsonaia horrekin bizi izan ziren pertsonak bilzteko.
4. Eman laburki pertsona horien ezaugarriak, pertsonaiaekin izan zuten harremana eta harengan izan zuten eragina ere azaldu.

3.4. DOKUMENTUA. BIOGRAFIA IDAZTEA. GURE IDAZKIAREN BIGARREN BERTSIOA

Biografiaren egitura

- Gertakarien antolamendu koherentea: gogoan izan zure pertsonaiaren bizitzako funtsezko bizi-zikloi erreparatu behar diezula, nahiz eta nahi duzun lekutik has zaitezkeen edo egokiena iruditzen zaizun itxura eman.
- Hasiera bat: hasiera eta amaiera oso garrantzitsuak izango dira. Hasieran bizitzaren hasiera koka dezakezu —adierazi genuen bezala— edo beste edozein zirkuntantzia; amaitzeko, bizitza oso baten ondorioez hitz egiteko aukera izango duzu: gaur egunean nola bizi den, bere bizitzan zehar zer ikasi duen, nola hil zen —hil baldin bada—, etab.
- Kapitulukako egituraketa. Gogoan izan eskema orokor bat egin zenuela, non biografia kapituluka antolatu behar baitzenuen. Orain, gainera, ikerketaren bidez lortutako informazioa gehitu behar diozu, gauza bakoitza zer kapitulutuan barne hartu behar duzun ikusiz.

Eskema orokorra

Lauki bakoitzean idatzi ez bakarrik gertatzen dena, baizik eta eszena jakinen bat ere pentsatuta ote duzun, deskribapenen bat, etab. Eta, azkenik, kapitulu bakoitzari lotuko diozun informazioa.

Kapituluak	Kapitulu bakoitzak zer hartzen duen	Ikerketatik lortutako datuak, hemen sartzeko
1. Hasiera...		
2. Bizi-zikloa (Haurtzaroa, gaztaroa)		
3. «		
4. «		
5. «		
6. «		
7. «		
8. Amaiera		

Narrazioa eta deskribapena

Gogoan izan atal honetan ikusten genituen alderdiak eta begiratu osagai guztiak aurreko eskeman barne hartzeko prest ote dituzun:

- Narratzailea: ikuspuntua eta fokatzea erabaki beharko dituzu.
- Narrazioaren denbora eta benetako denbora, dauden aldaketak adieraziz (aldaketarik baldin badago), eta aditz-denborak behar bezala aukeratzea.
- Espazioa: ekintza garatzen deneko lekua edo lekuak.
- Bigarren mailako pertsonaiak: karakterizaturik eta dagokien kapituluaren biografian sartzeko prest.
- Deskribapenak: aurreko guztiak pertsonaia nagusiaren, bigarren mailakoan, mugitzen deneko espazioaren, eszena batzuen, inguruan dituen gauza edo animalien, eta abarren deskribapena eska dezake.

Zuzentasun-irizpideak¹

Adierazi ditugun puntuez gain, komenigarria litzateke edozein idazkitarako garrantzitsuak izango diren datu esanguratsu batzuk kontuan izatea, gero zuzendu egingo zaizkizun datuak dira gainera; horrela beraz, idazten hasi baino lehen, edo zirriborroaren gainean, kontuan izan ondoko datuok:

- Araudiari dagokionez: erreparatu ortografia, morfologia, sintaxi eta hiztegi akatsak.
- Kohesioari* dagokionez, kontuan izan puntuaketa zuzen erabiltzea, izenordeak eta anaforak behar bezala erabiltzea, aditzak, etab.
- Testuaren *koherentzia* erreparatu, datu eta ideien hautespena ondo egin ote dagoen ikusi, ekintzaren bilakaerak ordena logikorik ba ote duen, zatiak ondo antolatuta ote dauden, paragrafoaren egitura, etab.
- Egokitzapenari dagokionez, idazkia nori zuzenduta dagoen gogoratu behar da: alde batetik irakasleari, eta gelako gainerako kideei beste aldetik, bai eta pertsonaiari berari eta familiari ere. Gauzak horrela, testuak hizkuntza ulergarria izan behako du, aldi berean formala ere bai ordea, etab.
- Kontuan izan behar dira idazkian eragina izan dezaketen beste faktore batzuk ere, hala nola: aurkezpena (tituluak, ertzak, etab.), aberastasun lexikoa, estiloa (graziaz idatzita ote dagoen, idazkia interesgarria ote den edo ustekabeak dituen, etab.).

Alderdi hauek guztiak kontuan hartuz, zirriborro bat edo gehiago egin daitezke, gero eta hobekuntza gehiago ezartzeko eta testua hobetzeko, bigarren testua edo behin-betiko testua lortu arte, ondoren ebaluaziora igaroko dena, hain zuzen ere.

¹ D. CASSANY-ren *Reparar la escritura* liburuan oinarritua, aurreko proiektuan ikusitakoa berreskura daiteke.

BILDUMA: «CURRICULUM-MATERIALAK»
COLECCIÓN: «MATERIALES CURRICULARES»

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
Educación Secundaria Obligatoria

Batxilergoa/Bachillerato

1. CURRICULUM-EGOKITZAPEN INDIBIDUALAK BURUTZEKO LAGUNTZAKO MATERIALAK (haur eta lehen h.)
2. MATERIALES CURRICULARES PARA EL PERÍODO 3-8 AÑOS
3. IRAKASLEENTZAKO GIDA, BALIO, JARRERA ETA ARAUEN HEZKUNTZA
GUÍA PARA EL PROFESORADO EN LA EDUCACIÓN DE VALORES, ACTITUDES Y NORMAS
4. NATUR ZIENTZI ARLOKO CURRICULUM-PROIEKTUA (DBH)
PROYECTO CURRICULAR DEL ÁREA DE CIENCIAS DE LA NATURALEZA (ESO)
5. HAUR JOLASA HEZKIDETZAN 3-8 URTE
EL JUEGO INFANTIL DESDE LA COEDUCACIÓN 3-8 AÑOS
6. HAUR HEZKUNTZAN EUSKARA LANTZEKO CURRICULUM-MATERIALAK
7. ANIZTASUNAREN TRATAERA ETA IKASKUNTZA: MATEMATIKA LEHEN HEZKUNTZAN
TRATAMIENTO DE LA DIVERSIDAD Y APRENDIZAJE: MATEMÁTICAS EN E. PRIMARIA
8. PROYECTO CURRICULAR DEL ÁREA DE INGLÉS
FILM WORKSHOP (ESO)
9. PROYECTO CURRICULAR DEL ÁREA DE TECNOLOGÍA (ESO)
10. GURE INGURUKO KIMIKA (DBH)
LA QUÍMICA DE NUESTRO ENTORNO (ESO)
11. GORPUTZ HEZKUNTZA BATXILERGOAN
EDUCACIÓN FÍSICA EN BACHILLERATO
12. APRENDIENDO A APRENDER. LEARNING THROUGH FILMS (ESO Y BACHILLERATO) (dos tomos)
13. UNIDADES DIDÁCTICAS Y EVALUACIÓN INICIAL EN MATEMÁTICAS (ESO)
14. TECNOLOGIA ETA SORMENA
TECNOLOGÍA Y CREATIVIDAD
15. UNIDADES DIDÁCTICAS DE LENGUA Y LITERATURA ESPAÑOLA (BACHILLERATO)
16. IRAKASKUNTZA PROZESUAREN EBALUAKETA NATUR ZIENTZIETAKO IKASKUNTZAN (DBH)
EVALUACIÓN DEL PROCESO DE ENSEÑANZA-APRENDIZAJE EN CIENCIAS DE LA NATURALEZA (ESO)
17. UNIDADES DIDÁCTICAS SOBRE CULTURA VASCA (ESO)
18. ZEHAR-LERROAK BATXILERGO EUSKARA IRAKASKUNTZAN (A EREDUA)
19. ZABORRA, ARAZO HAUNDI BAT? (DBH ETA BATXILERGOA)
LAS BASURAS, ¿NUESTRO GRAN PROBLEMA? (ESO Y BACHILLERATO)
20. HOW TO GET THE REFORM IN THE ENGLISH CLASS ROOM (BACHILLERATO)
21. EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA H.S.A.O.L. (BATXILERGOA)

22. MATEMATIKA EGUNEROKO BIZITZARAKO (DBH)
MATEMÁTICAS PARA LA VIDA COTIDIANA (material opcional para el primer ciclo de Enseñanza Secundaria) (ESO)
23. EUSKAL HERRIKO LANDAREDI-KOMUNITATEEN ALDAKETAK HISTORIAN ZEHAR (DBH)
CAMBIOS HISTÓRICOS EN LAS COMUNIDADES VEGETALES DEL PAÍS VASCO (ESO)
24. OÍMOS, VEMOS Y CONTAMOS: ELEMENTOS Y PROCEDIMIENTOS NARRATIVOS EN LA PRENSA, EL CINE Y LA LITERATURA (ESO)
25. ESTRATEGIAS HEURÍSTICAS EN LA RESOLUCIÓN DE PROBLEMAS (ESO)
26. GIZARTE ETA KULTURA-INGURUNEA IKERTZEKO TAILERRA (DBH)
TALLER DE INVESTIGACIÓN DEL ENTORNO SOCIO-CULTURAL (ESO)
27. PENSAR Y HACER PARA APRENDER: MEMORIA Y JUSTIFICACIÓN DEL PROYECTO (ESO Y BACHILLERATO)
28. EI MODELO DE VAN-HIELE: UNA PROPUESTA AL TRATAMIENTO DE LA DIVERSIDAD EN LA ENSEÑANZA DE GEOMETRÍA (ESO)
29. INTERSUBJET UNITS FOR THE ENGLISH CLASS (ESO)
30. KANTU KORALAREN TAILERRA (DBH)
TALLER DE CANTO CORAL (ESO)
31. UNIDADES DIDÁCTICAS DE DIBUJO TÉCNICO DE BACHILLERATO LOGSE: GEOMÉTRICO, NORMALIZACIÓN, PERSPECTIVAS: GUÍA PARA EL PROFESORADO (BACHILLERATO)
32. GORPUTZ HEZKUNTZARAKO EJENPLIFIKAZIOAK: «OHIZKO JOKUAK» ETA «EUSKAL PILOTA»
EJEMPLIFICACIONES PARA EDUCACIÓN FÍSICA: JUEGOS TRADICIONALES Y EUSKAL PILOTA (ESO)
33. TESTUGINTZA (DBH ETA BATXILERGOA)
34. ARTISAUTZA TAILERRA: ZERAMIKA TAILERRA (DBH)
TALLER DE ARTESANÍA: TALLER DE CERÁMICA (ESO)
35. LOS ALIMENTOS, MI CUERPO Y YO: TALLER DE ALIMENTACIÓN: PRIMER CICLO DE ESO
ELIKAGAIK, NIRE GORPUTZA ETA NI: ELIKADURA TAILERRA: DBHko LEHEN ZIKLOA
36. E-USKARAREN HISTORIA ARABAN
37. TECNOLOGÍA INDUSTRIAL
38. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO-TAILERRA
PROPUESTAS Y RECURSOS PARA EL TALLER DE COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL
39. BERTAKO HISTORIAREN TAILERRA
TALLER DE HISTORIA LOCAL
40. EDUCACIÓN FÍSICA EN LA ESO
41. IKERKETA ZIENTIFIKORAKO HURBILKETA
APROXIMACIÓN A LA INVESTIGACIÓN CIENTÍFICA
42. KANTU KORALAREN TAILERRA (2. ZIKLOA)
TALLER DE CANTO CORAL (2.º CICLO)
43. LOS ECOSISTEMAS
44. EBALUAZIOA MUSIKA ESKOLETAN ETA KONTSERBATORIOETAN
LA EVALUACIÓN EN LAS ESCUELAS DE MÚSICA Y EN LOS CONSERVATORIOS
45. ENERGIA, INGURUGIROA ETA GARAPENA
ENERGÍA, DESARROLLO Y MEDIO AMBIENTE

-
46. MANIFESTACIONES ARTÍSTICAS CONTEMPORÁNEAS (PRESTATZEN / EN PREPARACIÓN)
 47. HISTORIAREN ETA GEOGRAFIAREN IKERKETARAKO TAILERRA
TALLER DE INVESTIGACIÓN HISTÓRICO-GEOGRÁFICO
 48. POESÍA PARA ESO (unidad didáctica sobre poesía)
 49. CROSS-CURRICULAR TEACHING MATERIALS: ATLANTA 96. LET'S GO! KEEPING HEALTHY
 50. PRENTSA TAILERRA
TALLER DE PRENSA
 51. INFORMAZIO DOKUMENTALA ETA IKASKUNTZA
INFORMACIÓN DOCUMENTAL Y APRENDIZAJE
 52. MUSIKA ETA INSTRUMENTUEN LANTEGIA (1. ZIKLOA)
TALLER MÚSICO-INSTRUMENTAL (1.º CICLO)
 53. GORPUTZ-HEZKUNTZA EBALUATZEKO TRESNA
INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN EN EDUCACIÓN FÍSICA
 54. «ORIXE» PROIEKTUA: HEZKUNTZARAKO INFORMATIKA
PROYECTO «ORIXE»: INFORMÁTICA EDUCATIVA
 55. TALLER DE ASTRONOMÍA
 56. MUSIKA ETA INSTRUMENTUEN TAILERRA (2. ZIKLOA)
TALLER MÚSICO-INSTRUMENTAL (2.º CICLO)
 57. APLIKAZIO MATEMATIKOETARAKO TAILERRA
TALLER DE APLICACIONES MATEMÁTICAS
 58. INICIACIÓN PROFESIONAL Y TÉCNICAS DE BÚSQUEDA DE EMPLEO: 2º CICLO ESO
 59. DBHn TUTORETZAKO MATERIALAK
ESO: MATERIALES PARA LA ACCIÓN TUTORIAL
 60. AUKERA EGIN BEHAR DUT!: DBHn ERABAKIAK HARTZEKO PROGRAMA
¡ELIJO!: PROGRAMA DE ORIENTACIÓN VOCACIONAL EN LA ESO
 61. CURRÍCULUM DESBERDINAK: ZIENTZIA-TEKNOLOGIAESPARRUA (I) (prestatzen)
DIVERSIFICACIÓN CURRICULAR: ÁMBITO CIENTÍFICO-TECNOLÓGICO (I) (en preparación)
 62. ASTRONOMIA-LANTEGIA
 63. ÁMBITO LINGÜÍSTICO Y SOCIAL DE DIVERSIFICACIÓN CURRICULAR (tres tomos)
 64. CURRÍCULUM DESBERDINAK: ZIENTZIA-TEKNOLOGIA ESPARRUA (II)
DIVERSIFICACIÓN CURRICULAR: ÁMBITO CIENTÍFICO-TECNOLÓGICO (II)
 65. EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (2. MAILA)
 66. LANERAKO HASTAPENAK ETA ENPLEGUA BILATZEKO TEKNIKAK: DBH 2. ZIKLOA (prestatzen/en
preparación)
 67. CURRÍCULUM DESBERDINETAKO HIZKUNTZA ETA GIZARTE ESPARRUA (hiru liburuki)
 70. TECNOLOGÍA Y CREATIVIDAD: UNIDADES DIDÁCTICAS

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN 84-457-1912-2



9 788445 719121

SALNEURRIA: 6 e